

F. Hegel



**GOGOAREN
FENOMENOLOGIA
II**

Fondo documental **EHK** Dokumentu fondoa
Euskal Herriko Komunistak

GOGOAREN FENOMENOLOGIA II

G. W. F. HEGEL

1807

EHKren oharra liburu digital bihurtzeari
buruzko oharra, azterketa errazteko.
Ezkerreko aldean jatorrizko liburukoei
dagozkien orrien zenbakiak agertuko dira.
Orriaren ebaketa ez da zehatza,
ez baitugu hitzak edo esaldiak moztu nahi izan,
erreferentzia besterik ez da.

Lan hau liburu digitala bihurtu da barne-erabilerarako
eta pentsamendu marxistaren ikerketarako eta ikerketarako.

Euskal Herriko Komunistak

<http://www.ehk.eus>

<http://www.abertzalekomunista.net>

Jatorrizko izenburua:

Phänomenologie des Geistes

Euskaratzailea: *Xabier Insausti eta Ibon Uribarri*

Berrikuslea: *Ibon Uribarri*

Hitzazurregilea: *José María Ripalda*

Lehen argitalpena: 2005eko abenduan

© Itzulpenarena: Xabier Insausti eta Ibon Uribarri

© Klasikoak, 2005

Begonako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo

Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren
pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta
trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez
banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia 2005-XI-21

ISBN: 84-96455-08-4 (Obra osoarena)

ISBN: 84-96455-10-6 (Bigarren liburuarena)

Lege gordailua: BI.-3401-05

Fotokonposaketa: L&A Diseinua.

Begonako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.

Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.

Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

AURKIBIDEA

VI. GOGOA	7
A. Gogo errarla	10
B. Bere buruarekiko arrotzuta dagoen gogo.	
Kultura	36
C. Bere burlas ziur dagoen gogo. Moraltasuna ...	103
VII. ERLIJOA	147
A. Berezko erlijioa	153

B. Antzearen erlijioa	161
a. ANTZE-LAN ABSTRAKTUA	163
b. ANTZE-LAN BIZIA	171
c. GOGOAREN ANTZE-LANA	175
C. Agerkudearen elijioa	187
VIII. JAKITE ABSOLUTUA	213
ITZULTZAILEEN OHARRAK	229

VI. GOGOA

Arrazoimena gogoa da, errealtate osoa izatearen ziurtasuna egia bihurtzen den heinean, eta arrazoimena bere buruaz jabetzen den heinean bere munduaren gisara eta bere munduaz jabetzen den heinean bere buruaren gisara. Gogoaren bilakatzea lehenengo higidurak erakutsi zuen, non kontzientziaren objektua, kategoria hutsa, arrazoimenaren adigai bihurtu zen. Arrazoimen *behatzailean*, Maren eta *izatearen*, *berbaitarako* izatearen eta *berbaitan* izatearen batasun huts hori *berbaitana* edo *izate* bezala determinatzen da, eta arrazoimenaren kontzientziak *bere burua aurkitzen du*. Baina behatze-ekintzaren egia bitartegabe aurkitzen duen sena horren gainditzea da, haren egiaren kontzientzia gabeko hor-izate horren gainditzea. *Begietsitako* kategoria, *aurkitutako gauza*, orain zerizan objektiboan *bere burua norbera* gisa dakien Niaren *berbaitarako izate* legeaz sartzen da kontzientzian. Edonola ere, kategoriaren determinazio hori, *berbaitan* izatearen aurka dagoen *berbaitarako izate* legeaz, aldebakarra da era berean, eta bere burua gainditzen duen unea. Horrela, kategoria bere egia orokorrean den bezala determinatzen da kontzientziarentzat, *hots*, *berbaitan* eta *berbaitarako* den zerizan bezala. *Gauza bera* osatzen duen determinazio oraingoz *abstraktu* hori *gogo-zerizana* baino ez da; eta haren kontzientzia berari buruzko jakite formal bat, zeinak zerizanaren hainbat edukirekin dituen harremanak; kontzientzia hori egiatan substantziatik desberdintzen da oraindik banako-den baten gisara; eta nahierazko legeak ematen ditu, edo pentsatzen du legeak bere jakitean dituela, euren baitan eta euren baitarako diren moduan; eta bere burua horiek juzgatzen dituen boteretzat jotzen du. Edo substantziaren aldetik ikusita, hori *berbaitan* eta *berbaitarako* den *gogo-zerizana* da, oraindik bere buruaren *kontzientzia* ez dena. Baina *berbaitan* eta *berbaitarako* den zerizana, aldi berean kontzientzia bezala erreal dena eta bere burua errepresentatzen duena, hain zuzen, *gogoa* da.

8

Horren *gogo-zerizana* dagoeneko *substantzia etiko* izendatu dugu; baina gogoa *errealtate etikoa* da. Kontzientzia errealtatearen *norbera* da, zeinari aurkakotzen zaion edo, hobeto esanda, zeina bere buruari aurkakotzen zaion mundu erreal objektibo bezala; baina mundu horrek, era berean, galdu egin du erabat arrotz baten esanahia norberarentzat, norberak hartatik banatutako *berbaitarako izate* menpeko edo beregain baten esanahia erabat galdu duen modu berean. Gogoa *substantzia* eta zerizan orokorra da, bere buruarekin berdina, iraunkorra, guztien egitearen *oinarri* eta *abiapuntu* higiezin eta haustezina, eta horien *asmoa* eta *helburua* da, autokontzientzia ororen pentsatutako *berbaitan* gisa. Substantzia hori, era berean, *emaitza* orokorra da, zeina denon eta bakoitzaren *egitearen* bidez horien batasun eta berdintasun bezala sortzen den, zeren hori *berbaitarako izatea* baita, *norbera*, egitea. *Substantzia* den aldetik gogoa *bere buruarekiko berdintasun* aldaezina, zuzena da; baina *berbaitarako izate* bezala, deseginda dagoen, bere burua eskaintzen duen zerizan onbera da, non bakoitzak norberaren emaitza osatzen duen, izate orokorra urratzen duen eta hortik dagokion zatia hartzen duen. Zerizanaren desegite eta banakotze hori, hain zuzen, denon egitearen eta norberaren *unea* da; substantziaren

higidura eta arima da, eta lortzen den zerizan orokorra. Hain zuzen, norberarengan desegindako izatea delako, ez da bizigabeko zerizana, baizik eta *erreal* eta *bizia*.

Gogoa, beraz, bere burua daraman zerizan absolutu erreal da. Orain arteko kontzientziaren forma guztiak horren abstrakzioak dira; gogoak aztertzen dituelako, horien uneak bereizten dituelako eta bakoitzean luzatzen delako, horregatik dira hori. Halako uneen bakartze horrek aurrez ezarri *behar* du gogoa bera, eta horretan *dirau*; edo horretan baino ez da existitzen, existentzia den horretan. Horrela bakartuta, halako gisa *izateko* itxura dute; baina uneak edo desagertzen diren handierak besterik ez direla erakusten du bere oinarrira eta zerizanera aurrerantz egiteak eta itzultzeak; eta zerizan hori, hain zuzen, une horien higidura eta desegite hori da. Hemen, non gogoa edo horrek bere baitara egiten duen isla bere barnean ezarrita dagoen, gure erreflexioak gogora ditzake laburki alderdi honen arabera: une horiek kontzientzia, autokontzientzia eta arrazoimena ziren.

9

Gogoa, beraz, *kontzientzia* da oro har, zeinak sentipenezko ziurtasuna, hautematea eta adimena bere barnean hartzen dituen, bere buruaren analisisan honako une honi heltzen dion heinean: bere buruarentzat *baden* errealitate *objektiboa* dela; eta honakoa baztertzen duen heinean: errealitate hori bere berbaitarako izate propioa dela. Analisisaren beste une honi eusten baldin badio, aldiz, hau da, bere objektua bere *berbaitarako izatea* dela, orduan gogoa autokontzientzia da. Baina *berbaitan eta berbaitarako izatearen* bitartegabeko kontzientzia bezala, hau da, kontzientzia eta autokontzientziaren batasun bezala, gogoa *arrazoimena daukan* kontzientzia da; hau da, *edukitze* hitzak adierazten duen bezala, objektua *bere baitan* arrazoizko moduan determinatuta duen kontzientzia, edo kategoriaren balioak determinatzen du objektua, baina halako moduan non objektuak bere kontzientziarentzat ez baitauka oraindik kategoriaren balioa. Orainsu aztertu dugun kontzientzia da gogoa. Gogoak *daukan* arrazoimen hori azkenean arrazoimen *den* aldetik begiesten du, edo bere barnean *egiazko* den edo bere mundua den arrazoimen den aldetik; eta, horrela, gogoa bere egian da; gogoa *da*, zerizan *etiko erreal* da.

Gogoa *herri* baten *etikotasuna* da, *bitartegabeko egia* den heinean; mundu bat den indibidua. Bitartegabe den horren kontzientzia izateraino aurrera egin behar du, etikotasun ederra gainditu behar du eta tankera-segida baten zehar bere buruaren jakitea erdietsi behar du. Baina tankera horiek lehenengoetatik desberdintzen dira: horiek gogo errealak dira, benetako errealitateak, eta kontzientziaren tankerak soilik izan beharrean mundu baten tankerak dira.

Mundu *etiko bizia* gogoa da bere *egian*; gogoa lehenengo aldiz bere zerizanaren *jakite* abstraktura ailegatzen denean, etikotasuna zuzenbidearen orokortasun formalean hondoratzen da. Bere barnean bikoiztuta dagoen gogoak bere osagai objektiboan, errealitate gogor batean bezala, bere munduetako bat deskribatzen du, *garapenaren erresuma*, eta horren aurrean, pentsamenduaren osagaian, *sinesmenaren mundua*, *zerizanaren erresuma*. Baina bi mundu horiek, bere buruaren galtze horretatik bere baitara itzultzen den gogoak atzemanda, adigaiak atzemanda, nahastu eta irauli egiten dituzte *ulermenak* eta hedapenak, *Ilustrazioak*; eta *Honatagoan* eta *Haratagoan* zatituta eta bananduta dagoen erresuma autokontzientziara itzultzen da, zeinak orain *moraltasunean* zerizantasan eta zerizan den aldetik bere burua norbera gisa ulertzen duen; bere mundua eta bere *oinarria* ez

du ezartzen bere baitatik at, baizik eta dena bere barnean iraungitzen uzten du, eta *jaidura gisa bere buruaz ziur* dagoen gogoia da.

10

Mundu etikoa, Honatagoan eta Haratagoan urratuta dagoen mundua eta mundu-ikuskerak morala, beraz, gogoak dira, zeinen higidura eta atzerakada gogoaren berbaitarako norbera sinplea izatera iritsiko diren, eta zeinen helburu eta emaitza gisa gogo absolutuaren autokontzientzia errealak sortuko den.

A. Gogo erreal. Etikotasuna

Gogo bere egia sinplean kontzientzia da, eta bere uneak sakabanatzen ditu. *Ekintzak* banatzen du gogo substantziaren eta horren kontzientziaren artean, eta bai substantzia bai kontzientzia banatzen ditu. Substantzia *zerizan* eta *xede* orokor gisa agertzen da, bere buruaren aurrean *banatutako* errealitate bezala; amaigabeko erdigunea da autokontzientzia, zeina *berbaitan* bere buruaren eta substantziaren batasuna den baina orain *berbaitarako* bihurtzen den, zeinak zerizan orokorra eta bere banakotutako errealitatea batzen dituen, zeinak azken hori lehen hartara goratzen duen eta zeinak etikoki ekiten duen, eta zeinak lehen hura azken horretara beheitzen duen, eta zeinak xedea, pentsatua baino ez den substantzia, gauzatzen duen; bere norberaren eta substantziaren batasuna sortzen du *bere emaitza* gisa, eta horrenbestez errealitate gisa.

Kontzientziaren sakabanatzean substantzia sinpleak aurkakotza jasotzen du, alde batetik autokontzientziaren aurka, eta bestetik, horrela bere baitan aurkezten du era berean kontzientziaren izaera: bere baitan bere burua desberdintzea, bere eremuetan antolatutako mundu bat bezala. Substantziak, orduan, bere burua banatzen du zerizan etiko bereizi batean: giza lege batean eta lege jainkotiar batean. Era berean, substantziari aurkakotzen zaion autokontzientziak bere buruari botere horietako bata ala bestea egokitzen dio, bere zerizanaren arabera; eta j akite den aldetik, egiten duenaren ez j akitean eta horren j akitean, horrexegatik jakite iruzurtia denean. Bere egintzan, beraz, bai *botere* haien kontraesana (substantzia horietan bikoiztu zen) eta haien elkarrekiko suntsiketa esperientziatzen du, bai bere ekitearen etikotasunari buruz duen jakitearen eta berbaitan eta berbaitarako etiko den horren arteko kontraesana, eta horrela autokontzientzia horrek *bere* hondamendi propioa aurkitzen du. Baina egitatean substantzia etikoa, higidura horren bitartez, *autokontzientzia erreal* bihurtzen da, edo norbera *hori berbaitan eta berbaitarako izate* bihurtzen da; baina horrela, hain zuzen, etikotasuna hondoratzen da.

11

a. MUNDU ETIKOA. GIZA LEGEA ETA JAINKOTIAR LEGEA. GIZONA ETA EMAKUMEA

Gogoaren substantzia sinplea banatu egiten da kontzientzia bezala. Edo izate abstraktuaren, sentipenezko izatearen kontzientzia hautemapenera igarotzen den modu berean, izate etiko errealaren bitartegabeko ziurtasuna ere igarotzen da; eta sentipenezko hautemapenarentzat izate sinplea ezaugarri anitz dituen gauza bihurtzen den modu berean, hautemapen etikoarentzat ekitearen kasua harreman etiko anitz dituen errealitate bat da. Baina hark ezaugarrien aniztasun alferrikakoa banakotasunaren eta orokortasunaren aurkakotza zerizanezkoan biltzen du; eta, are gehiago, araztutako kontzientzia substantziaduna den horri une etikoen aniztasuna bikoiztasun bihurtzen zaio: banakotasunaren lege bat eta orokortasunaren beste bat. Baina substantziaren masa horietako bakoitzak gogo osoa izaten jarraitzen du; sentipenezko hautemapenean gauzek banakotasunaren eta orokortasunaren bi determinazio baino beste substantziarik ez daukaten bitartean, hemen bi alderdien elkarren arteko azaleko aurkakotza besterik ez dute adierazten.

Banakotasunak aztertzen ari garen zerizanean *autokontzientziaren* esanahia dauka oro har, eta ez ausazko kontzientzia banakoarena. Substantzia etikoa, orduan, determinazio horretan, substantzia *erreal* da, baden *kontzientziaren* askotasunean *gauzatutako* gogo absolutua; *giza elkarte* da, zeina *guretzat* arrazoimenaren tankeratze praktikoan sartzerakoan zerizan absolutua zen, eta hemen *berbaitarako* bere egian agertu da bere buruaz jabetzen den zerizan etiko bezala eta gure objektua den *kontzientziarentzako zerizan* bezala. Gogoia da, zeina *berbaitarako* den, indibiduen islan bere burua mantentzen duen heinean, eta zeina *berbaitan* edo substantzia den, horiek barnean mantentzen dituen heinean. *Substantzia erreal* den aldetik, *herri bat* da; *kontzientzia erre al* den aldetik, herriko hiritarra. Kontzientzia horrek bere *zerizana* gogo sinplean dauka, eta bere buruaren ziurtasuna gogo horren *errealitatean*, herri osoan, eta horretan dauka bitartegabe bere *egia*; beraz, ez erreal ez den zerbaitetan, baizik eta *existitzen* eta *indarrean dagoen* gogo batean.

12

Gogo horri giza lege esan diezaiokegu, zeren zerizanez bere buruaz jabetzen den *errealitatearen* forma baitauka. Orokortasunaren forman, lege *ezaguna* edo *eskura* dugun ohitura da; banakotasunaren forman bere buruaren ziurtasun erreal da *indibiduoan* oro har; eta bere buruaren ziurtasuna, *indibidualtasun sinple* bezala, gogoia da gobernu den aldetik; bere egia argitan datzan *baliotasun* irekia da; bitartegabeko ziurtasunarentzat aske utzitako hor-izatearen forman agertzen den *existentzia* bat.

Botere eta ageritasun etiko horri aldiz, beste botere bat aurkakotzen zaio, *jainkotiar legea*. *Izan ere, estatu-botere* etikoak, bere buruaz *jabetzen den egitearen higidura* den aldetik, bere aurkakotza dauka etikotasunaren *zerizan sinple eta bitartegabekoan*; *orokortasun erreal* den aldetik, banako berbaitarako izatearen aurkako botere bat da; eta oro harrezko errealitatea den aldetik, bera ez den beste bat dauka *barneko* zerizanean.

Gogora ekarri dugu substantzia etikoaren bi modu aurkakotuetako bakoitzak substantzia osoa eta bere edukiaren une guztiak dauzkala. Beraz, giza elkarte substantzia baldin bada bere buruaz jabetzen den egite erreal gisa, orduan beste alderdiak bitartegabeko edo baden substantziaren forma dauka. Azken hori, alde batetik, barneko adigaia edo etikotasunaren ahalbide orokorra da; baina, beste aldetik, era berean, autokontzientziaren unea dauka bere baitan. *Bitartegabekotasunaren* edo *izatearen* osagai horretan etikotasuna adierazten duen edo bere buruaz (bai zerizanaren bai norbera horren gisara) beste batean duen bitartegabeko kontzientzia den une hori *familia* da. Familia, bere buruaz jabetzen den errealitatearen barneko adigaia, baina bere buruaz *jabetzen ez den* adigaia denez, herriaren errealitatearen *osagaia* denez, herriari berari aurkakotzen zaio, zeina *lanaren* bitartez orokor-denarentzat bere burua garatzen eta mantentzen duen etikotasunaren *bitartegabeko* izate etikoa den, penateak (etxeko jainkoak) gogo orokorraren aurka dauden bezala.

13

Baina familiaren *izate etikoa bitartegabeko* gisa agertu den arren, familia bere barnean ez da zerizan *etiko* bat, bere atalen *izaeraren* erlazioa edo horien arteko harremana atal *banako errealen* arteko *bitartegabeko* harremana den *heinean*; izan ere, etiko-dena bere baitan *orokorra* da, eta naturaren eriazio hori zerizanez, era berean, gogo bat da eta gogo-zerizan gisa baino ez da etikoa. Horren etikotasun bereizgarria zertan datzan aztertu behar da. Leherrik, etiko-dena bere baitan orokor-

dena denez, familiako kideen harreman etikoa ez da sentsazioaren harremana, edo maitasunaren harremana. Etiko-dena itxuraz familiako kide *banakoek* familia *osoarekin* (substantzia den heinean) duten erlazioan ezarri behar da, halako moduan non bere egiteak eta bere errealitateak familia besterik ez daukan helburutzat eta edukitzat. Baina osoki horren *egiteak* duen helburu berariazkoa, osokira zuzenduta dagoen heinean, banako-dena da. Boterea eta aberastasuna lortzea eta mantentzea, aldeaz, premiatik dator eta irrikari dagokio; aldeaz, bere determinazio gorenean bitarteko zerbait baino ez da. Determinazio hori ez dagokio familiari berari, baizik eta egiazko orokor-denari, giza elkarteari; hori negatiboa da gehienbat familiaren aurrean, eta honetan datza: banako-dena familiatik at erauztean, bere berezkotasuna eta banakotasuna menperatzean eta hori *bertuterako*, orokor-denean eta orokor-denarentzat bizitzeko heztean. Familiaren helburu bereizgarri *positiboa* da, banako-dena halakoa den aldetik. Harreman hori etikoa izateko, ez ekiten duenak ezta ekintza jasotzen duen horrek ere ezin dute *ausaz* agertu, edozein laguntzatan edo zerbitzutan gertatzen den bezala. Ekintza etikoaren edukiak substantziaduna, edo osoa eta orokorra izan behar du; horregatik, banako-den *osoari* lotzen zaio, edo horri orokorra den aldetik. Eta hori bere aldetik ezin da honela ulertu, hots, *errepresentatu* besterik ez litzatekeela egingo zerbitzu batek bere zoriontasun osoa eskatzea; eta zerbitzuak, berriz, bitartegabeko ekintza erreala izanik, bere baitan banako den zerbait besterik ez eragitea; ezin dugu ulertu, era berean, ekintzak heziketa gisa, hau da, ahaleginen *ilara* batean, hori bere osotasunean objektutzat daukala eta emaitza bezala sortzen duela, familiaren aurkako helburu negatibotik at *ekintza errealak* eduki mugatu bat besterik ez daukan lekuan; eta azkenik, ezin da ulertu ekintza premiazko laguntza dela, zeinaren bitartez egiatan banako-den osoa salbatzen den; izan ere, hori egintza guztiz ausazkoa da, zeinaren abagunea izan daitekeen eta ezin izan daitekeen errealitate arrunta den. Orduan, odoleko ahaideen existentzia osoa besarkatzen duen eta hori (ez hiritarra, zeren hori ez baita familiakoa, eta ezta hiritar bihurtu eta banako-den *hori* izateari *utzi* behar diona ere, baizik eta familiako banako-den *hori*) sentipenezko, hau da, banako errealitatetik askatutako zerizan *orokor* bat bezala bere objektutzat eta edukitzat duen ekintza ez dagokio jadanik *bizidunari*, baizik eta *hildakoari*, zeina sakabanatutako hor-izatearen segida luzetik tankeratze osatu *Batean* biltzen den eta ausazko bizitzaren urduritasunetik orokortasun sinplearen lasaitasunera igotzen den. — Banako-dena, hiritar bezala bakarrik denez *erreal* eta *substantziadun*, hiritar ez den eta familiako kide den neurrian, muinik gabeko itzal *ez-erreala* baino ez da.

14

Banako-denak, *halakotzat* hartuta, lortzen duen orokortasun hori *izate hutsa* da, *heriotza*; hori *bitartegabeko bilakatze berezkoa* da, ez *kontzientzia* baten *egitea*. Familia-kidearen eginbeharra, horregatik, alderdi hori gehitzea da, bere azken *izate* hori, *izate orokor* hori, ez dakion naturari soilik egokitu eta arrazoigabe den zerbaiten gisara gera ez dadin, baizik eta *egindako* zerbait izan dadin eta horren baitan kontzientziaren eskubidea baieztatu dadin. Edo ekintzaren esanahia da ezen, egiatan bere buruaz jabetzen den zerizanaren lasaitasuna eta orokortasuna naturari ez dagozkionez, naturak bere gain hartzen duen horrelako egitearen itxura desagertzen dela, eta egia sortzen dela. — Naturak horretan egin zuena hau da, hots, orokor-den bihurtzea baden baten higidura bezala aurkeztea. Higidura bera giza elkarte etikoaren barne kokatzen da, eta hori dauka helburutzat; heriotza da indibiduoak bere horretan giza elkartearen mesedetan duen osaketa eta hartzen duen lan gorena. Baina hori

zerizanez *banakoa* den heinean, ausazkoa da bere heriotza orokor-denaren alde egiten duen lanarekin bitartegabe lotuta izatea eta horren ondorioa izatea; hein batean, heriotza emaitza hori zen, *berezko* negatibotasuna eta banako-denaren higidura delako *badena* bezala, non kontzientzia ez den bere baitara itzultzen eta autokontzientzia bihurtzen; edo, beste hein batean, *baden* horren higidura hau den heinean, hots, bere burua gainditzea eta *berbaitarako* izatera iristea, heriotza bikoiztasunaren alderdia delako, non lortzen den berbaitarako izatea higitzen hasi zen baden hori ez Beste bat den. — Etikotasuna gogoa bere *bitartegabeko* egian denez gero, bere kontzientzia desegitean ditugun alderdiek ere *bitartegabekotasunaren* forma dute, eta banakotasuna negatibotasun *abstraktu* horretan sartzen da, zeinak, *bere baitan* kontsolamendurik eta adiskidetzetik aurkitu ezinik, alderdi horiek *zerizanez ekintza erreal* eta *kanpokoaren* bitartez hartu behar dituen. — Odolezko ahaidetasunak higidura abstraktu berezkoa honela osatzen du, hots, kontzientziaren higidura gehitzen du, naturaren lana geldiarazten du eta odolezko ahaideak suntsipenetik askatzen ditu; edo, hobeto esanda, horien suntsipena, hau da, izate huts bihurtzea, beharbeharrezkoa izanik, bere gain hartzen du suntsipenaren egintza. — Horren bitartez lortzen da *hildako izate* orokorra bere baitara itzultzea, *berbaitarako* izate bat bihurtzea, edo indarrrik gabeko banakotasun huts *banakoa indibidualtasun orokorrera* goratzea. Hildakoa, bere *izatea* bere *egitetik* edo ezezko Batetik askatu duenez, banakotasun kaskala da, *beste batentzako izate* jasaile bat besterik ez, banakakotasun arrazoigabe beheko guztien eta ekai abstraktuen indarren esku dagoena; zeinak orain hildakoa baino boteretsuagoak diren: hura, daukan bizitza dela eta; horiek, euren izaera negatiboa dela eta. Familia hildakoarengandik urruntzen du hori desohoratzen duen irrika burugabearen eta zerizan abstraktuaren egite horrek, horren lekuan bere egitea ezartzen du, eta ahaidea lurraren sabelarekin, oinarrizko banakakotasun iraungiezinarekin ezkontzen du; horrela, hildakoa giza elkarte baten kide bihurtzen du, banako ekaien indarrak eta haren aurka eginez aske bihurtzen diren eta hura deuseztatu nahi zuten behe bizidunak menperatzen eta lotuta mantentzen dituen elkarte baten kide.

15

Azken eginbehar horrek osatzen du, orduan, *jainkotiar* lege betegina, edo banako-denaren aurkako ekintza *etiko* positiboa. Horrekiko beste edozein erlazio, maitasunean geratzen ez dena, baizik eta etikoa dena, giza legeari dagokio, eta erlazio horrek honako esanahi negatiboa dauka: banako-dena berezko giza elkartearen itxituratik goratzea, *erreal* den aldetik dagokion toki horretatik. Baina giza legeak dagoeneko bere edukizat eta indartzat bere buruaz jabetzen den substantzia erreala, herri osoa, badauka, eta jainkotiar legeak eta zuzenbideak, aldiz, errealitatetik haratago dagoen banako-dena, orduan horrek badu boteririk; bere boterea huts-hutsean orokor-den *abstraktua* da, *oinarrizko* indibidua, zeinak osagaitik erauzten den eta herriaren bere buruaz jabetzen den errealitatea osatzen duen indibidualtasuna bere zerizanera, era berean bere oinarria dena, atzera jaurtitzen duen. Geroago zehaztuko da botere hori nola agertzen den herrian bertan.

16

Bai lege batean bai bestean *desberdintasunak* eta *mailak* daude. Izan ere, biek kontzientziaren unea euren baitan daukaten neurrian, euren barnean zabaltzen da euren higidura eta bizitza propioa osatzen duen desberdintasuna. Desberdintasun horien azterketak erakusten ditu mundu etikoaren bi *zerizan orokorren ekiteko*

modua eta euren *autokontzientziak*, baita euren arteko lotura eta euren arteko igarobidea ere.

Giza elkarteak, argiki eguzkitan balio duen goiko legeak, bere bizitasun erreala *gubernuan* dauka, hor hori indibidua den aldetik. *Bere baitara islatutako gogo erreala* da, substantzia etiko osoaren *norbera* sinplea. Indar sinple honek uzten dio, bai, zerizanari bere zatiketan zabaltzea eta zati bakoitzari iraupena eta berbaitarako izate propioa ematea. Gogoak hor bere *errealitatea* edo bere *hor-izatea* dauka, eta familia da errealitate horren *osagaia*. Baina, era berean, osokiaren indarra da, zeinak zati horiek berriz Bat negatiboan biltzen dituen, horiei beregaintasun ezaren sentimendua ematen dien eta horiek euren bizitza osokian baino ez izateko kontzientzian mantentzen dituen. Giza elkarteak, orduan, alde batetik, beregaintasun pertsonalaren eta ondasunaren, pertsonen eta gauzei dagozkien zuzenbidearen sistemetan antola daiteke; eta bestetik, hasiera batean banakoak diren helburuetarako lan-moduak, hau da, irabaziaren eta gozamenaren helburuetarako direnak, elkargo berezietan antolatu eta beregain bihurtzeko ditzake. Elkargo orokorraren gogoia bakartzen diren sistema horien *sinpletasuna* eta zerizan *negatiboa* da. Bakartze honetan sustraitzen eta finkatzen ez uzteko, eta horren bitartez osokia desegiten eta gogoia desagertzen ez uzteko, gobernuak noizean behin gerren bitartez euren barnebarnean ikaratu egin behar ditu, eta honen bidez indarrean dagoen ordena eta beregaintasunaren zuzenbidea astindu eta nahasi behar ditu; baina honetan burubelani sartuz, osokitik askatuta dauden eta pertsonaren *berbaitarako izatea* eta segurtasun ukiezina izan nahi duten indibiduoek, horiei ezarritako lanean, euren jabea zein den, hau da, heriotza sentiarazi nahi die. Irautearen forma desegite honen bidez gogoak lortzen du hor-izate etikoa hor-izate berezkoan ez erortzea, eta bere kontzientziaren norbera jasotzen du eta bere *askatasunera* eta bere *indarrera* igotzen du. — Zerizan negatiboa da giza elkartearen *botere* benetakoa eta bere burua mantentzeko *indarra*; honek, orduan, bere boterearen egia eta *indartzeajainkotiar legearen* zerizanean eta *lurrazpiko erresuman* du.

17

Familian nagusi den jainkotiar legeak, bere aldetik, badauzka era berean desberdintasunak bere baitan, eta horien arteko harremanak osatzen du bere errealitatearen higidura bizia. — Baina gizonaren eta emakumearen, gurasoen eta seme-alaben eta anai-arreben arteko hiru erlazioetatik, lehen eta behin *gizonaren* eta *emakumearen* arteko *erlazioak* osatzen du kontzientzia batek *bitartegabe* bere burua beste batean ezagutzea eta elkar berrezagutzearen ezagutzea. Bere burua ezagutzea *berezkoa* denez, eta ez etikoa, gogoaren *errepresentazioa* eta *irudia* besterik ez da, eta ez gogo erreala bera. Baina errepresentazioak edo irudiak bera ez den beste batean daukate euren errealitatea; erlazio horrek, horregatik, bere errealitatea ez dauka bere baitan, hurrean baizik, beste batean, bere bilakaera den batean, non bera desagertzen den; eta ordezkatzeko diren belaunaldien aldaketa horrek herrian dauka bere oinarri irmoa. — Gizonaren eta emakumearen arteko jaiera, orduan, berezko harremanarekin eta sentsazioarekin nahasita dago, eta euren arteko erlazioak ez dauka bere baitara egiten duen itzulera bere baitan; ezta bigarren harremanak ere, *gurasoen* eta *seme-alaben* arteko *jaiarak*. Gurasoek seme-alabei dieten jaietari, hain zuzen, sentiberatasun honek eragiten dio: bere errealitatearen kontzientzia bestearengan edukitzeak eta berbaitarako izatea horrengan sortzen ikusteak, hori berreskuratzeak aukerarik izan gabe; horrek, aitzitik, errealitate arrotz eta propio izaten dirau; baina seme-alabek gurasoei dieten jaietari, aldiz,

sentiberatasun honek eragiten dio: bere bilakaera edo berbaitana desagertzen den beste batengan edukitzeak, eta bere berbaitarako izatea eta bere autokontzientzia propioa iturburutik aldentzearen bitartez baino ez lortzeak, iturburua lehortzen duen aldentzearen bitartez.

Bi erlazio horiek euren baitan banatuta dauden alderdien igarotzearen eta desberdintasunaren barne geratzen dira. — Nahasi gabeko erlazioa, aldiz, *anaiaren* eta *arrebaren* artekoa da. Odol berekoak dira, baina odolak horiengan bere *lasaitasuna* eta *oreka* lortu du. Horregatik, ez daukate elkarrenganako irrikarik, eta ez diote berbaitarako izatea besteari eman eta ez dute bestearengandik jaso ere egin, baizik eta indibidualtasun askeak dira aurrez aurre. Emakumezkoak dauka, orduan, arrebaren aldetik, zerizan etikoaren *aieru* gorena; baina ez du lortzen horren *kontzientzia* eta errealitatea, familiaren legea *berbaitan* den zerizan *barnekoa* baita, zeina ez dagoen kontzientziaren argitan, baizik eta barneko sentimendu eta errealitatea kendu zaion alderdi jainkotiar izaten dirauen.

18

Penate horiei lotuta dago emakumezkoa, zeinak horietan, alde, bere substantzia orokorra, alde, bere banakotasuna begiesten duen, baina halako molde non banakotasunaren harremana, aldi berean, ez baita atseginarena. — *Alaba* den aldetik, emeak ikusi behar du gurasoak nola desagertzen diren berezko higiduraz eta lasaitasun etikoaz, zeren harreman hori desagertzeari esker lortzen baitu bere esku dagoen *berbaitarako izatea*; gurasoengan, beraz, bere berbaitarako izatea ez du positiboki begiesten. — Baina *amaren* eta *emakumearen* erlazioek euren banakotasuna, alde, atseginari dagokion berezko zerbait bezala daukate eta, alde, hor bere desagertzea besterik ikusten ez duen negatiboa den zerbait bezala; alde, honexegatik, banakotasuna beste batek ordezkari dezakeen ausazko zerbait da. Etikotasunaren etxean emearen erlazio horien oinarria ez da gizon *hori*, ez da haur *hori*, baizik eta *gizon bat*, *haurrak oro har*, ez sentsazioa, baizik eta orokordena. Bere etikotasunak gizonarekin duen aldea honetan datza, hain zuzen: banakotasuneranzko determinazioan eta bere atseginaren bitartegabe orokor dirauela, eta irrikaren banakotasunetik urrun geratzen dela; gizonarengan, aldiz, bi alderdi horiek bananduta agertzen dira, eta gizonak, hiritar bezala, *orokortasunaren* indarra daukanez, *bere buruaz jabetzen den orokortasunarena*, horrela *irrikaren* eskubidea erosten du eta, aldi berean, horretatik askatasuna lortzen du. Emakumearen erlazio horretan, beraz, banakotasuna nahasita dagoen heinean, bere etikotasuna ez da hutsa; baina bere etikotasuna hutsa den neurrian, banakotasuna *axolagabea* da; eta emakumeari bere burua norbera *hori* bezala bestearengan berrezagutzeko unea falta zaio. Baina anaia anebarentzat zerizan lasai berdina da oro har, hor duen berrezagutzea hutsa eta berezko harremanekin nahasi gabea da; beraz, erlazio horretan banakotasunaren axolagabetasunik eta honen ausazkotasun etikorik ez dago; baizik eta berrezagutzen duen eta berrezagutua den *norbera banakoaien* unek hemen bere eskubidea baieztatu dezake, zeren odolaren orekarekin eta irrikarik gabeko harremanarekin lotuta baitago. Horregatik, anebarentzat anaia galtzea konponezina da, eta anaiarekin duen betebeharra da gorena.

Erlazio hori, aldi berean, muga bat da, non bere baitan itxita dagoen familia deuseztatzen den eta bere baitatik at irteten den. Anaia 78 bere gogoa indibidualtasun bihurtzen den, beste bati aurre egiten dion eta orokortasunaren kontzientziara igarotzen den alderdia da. Anaiak familiaren

bitartegabeko etikotasun *sinplea* eta horregatik benetan *negatiboa* dena uzten du, bere buruaz jabetzen den etikotasun erreala lortzeko eta ekoizteko.

19

Jainkotiar legetik, bere eremua zen horretatik, giza legera igarotzen da anaia. Baina arreba etxeko nagusi eta jainkotiar legearen zaindari bihurtzen da, edo emakumeak horixe bera izaten dirau. Halako moduan bi sexuek euren berezko zerizana gainditzen dute eta euren esanahi etikora iristen dira, substantzia etikoak bere buruari ematen dizkion bi bereizketak beren arrear banatzen dituzten desberdintasunak bezala. Mundu etikoaren bi zerizan *orokor* horiek euren *indibidualta sun* determinatua daukate *berez* ezberdinak diren autokontzientzietan, gogo etikoa substantziaren eta autokontzientziaren arteko *bitartegabeko* batasuna delako; errealtatearen eta bereizketaren aldetik, berezko bereizketa baten hor-izate bezala agertzen den *bitartegabekotasuna*. — Bere buruarentzat erreala den indibidualtasunaren tankeran, gogo-zerizanaren adigaiian, *jatorriz determinatutako izaera* bezala erakutsi zen alderdia da hori. Une honek hor oraindik zeukan determinatugabetasuna galtzen du, eta antolamendu eta gaitasunaren arteko desberdintasun ausazkoa. Orain bi sexuen arteko aurkakotza determinatua da, eta horien berezkotasunak aldi berean horien determinazio etikoaren esanahia jasotzendu.

Sexuen eta horien eduki etikoaren arteko desberdintasuna, hala ere, substantziaren batasunean mantentzen da, eta bere higidura, hain zuzen, horren bilakaera iraunkorra da. Gizona kanpora bidaltzen du familia-gogoak, giza elkartera, eta hor aurkitzen du bere buruaz jabetzen den zerizana; familiak horren bitartez honengan bere substantzia orokorra eta bere iraupena dauka; eta giza elkarteak, berriz, familian bere errealtatearen osagai formala dauka, eta jainkotiar legean bere indarra eta baieztapena. Bietako inor ez da bakarrik berbaitan eta berbaitarako; giza legea, bere higidura bizian, lege jainkotiarretik abiatzen da, lurrean balio duena lurrazpikotik, bere buruaz jabetzen dena jabetzen ez denetik, bitartekotasuna bitartegabekotasunetik, eta, era berean, abiapuntura itzultzen da. Lurrazpiko botereak, berriz, lurraren gainean dauka bere *errealitatea*; kontzientziaren bitartez hor-izate eta egiletasun bihurtzen da.

20

Zerizan etiko orokorrak, beraz, substantzia dira, zerizan orokor bezala, eta substantzia, kontzientzia banako bezala; herria eta familia daukate euren errealtate orokortzat, baina gizona eta emea euren norbera berezkotzat eta indibidualtasun ekinarazletzat. Ikusten dugu mundu etikoaren eduki honetan kontzientziaren substantziarik gabeko aurreko tankerek euren buruei ezartzen zizkieten helburu ak lortzen direla; arrazoimenak bere objektutzat baino hartu ez zuena autokontzientzia bihurtu da, eta horrek bere barnean bakarrik zeukana *errealitate* egiazko bezala dago eskura. — Behaketak *topatzen den zerbait* bezala zekiena, norberak hor parte-hartzerik izan gabe, topatzen den ohitura da hemen, baina aldi berean aurkitzen duen honen egintza eta emaitza den errealtate bat da. — Bere *banakotasunaren gozamenaren* atsegina bilatzen ari den banako-denak hori familian aurkitzen du, eta atsegina apurtzen duen beharrezkotasuna bere herriko herritar bezala duen autokontzientzia propioa da; edo haxe da, hots, *bihotzaren legea* bihotz guztien legea dela jakitea, *norberaren* kontzientzia ordena orokor berrezagutua dela jakitea; bere eskaintzaren fruituez gozatzen ari den *bertutea* da; bere asmoa sortzen du, hau da, zerizana orainaldi errealer a goratzea, eta bere gozamina bizitza orokor hori da.

— Azkenean, *gaiaren beraren* kontzientzia substantzia errealean asebetetzen da, zeinak modu positibo batean kategoria huts haren une abstraktuak barnebiltzen eta mantentzen dituen. Horrek botere etikoetan egiazko eduki bat dauka, zeinak arrazoimen sendoak eman eta jakin nahi zituen substantzia gabeko aginduen lekua hartzen duen; eta, honela, azterketarako neurri edukitsua, bere burua determinatzen duena, ematen du, ez legeak aztertzeke, baizik eta egindakoa.

Osokia zati guztien oreka baketsua da, eta zati bakoitza etxeko gogoa da, zeinak bere asebetetzea ez duen bere baitatik at bilatzen, baizik eta bere barnean daukan, osokiarekin oreka hori mantentzen duelako. — Oreka hori honegatik soilik izan daiteke bizia, hots, bere barnean ezberdintasuna sortzen delako eta ezberdintasun hori *zuzentasunetik* berdintasunera bideratzen delako. — Baina zuzentasuna ez da haratago aurkitzen den zerizan arrotza, ezta elkarri ezarritako injustizia, traizio, esker gaitz, eta abarren duin ez den errealtatea ere, zeinak pentsamendurik gabeko ausaren forman epaia emango lukeen aditugabeko testuinguru bat eta ekimen burugabe bat balitz bezala; baizik eta *giza* zuzenbidearen zuzentasun bezala, orekatik irtendako berbaitarako izatea, estamentuen eta indibiduen beregaintasuna, orokordenera berriz itzularazten duena bezala da zuzentasuna herriaren gobernu, alegia, zerizan orokorraren hor aurrean dagoen banakakotasuna den eta bere buruaz jabetzen den nahimen propioa, denona, den gobernu. — Baina banako-denari gehiegi gailentzen ari zaion orokor-dena berriz orekatzen duen zuzentasuna, era berean, bidegabekeria jasan egin duen horren gogo sinplea da; ez dago banatuta jasan duen honen eta haratagoko zerizanaren artean; gogo hori lurrazpiko boterea da, eta mendekua hartzen duen *bere* Erinia da; izan ere, bere indibidualtasunak, bere odolak, etxean bizitzen jarraitzen du; bere substantziak errealtate iraunkorra dauka. Banako-denari etikotasunaren erresuman egin ahal zaion bidegabekeria hauxe besterik ez da, hots, horri zerbait *gertatzea* besterik ez. Kontzientzia gauza huts bat bihurtzean datzan bidegabekeria hori kontzientziari eragiten dion boterea natura da, ez da *giza elkartearen* orokortasuna, baizik eta *izatearen* orokortasun *abstraktua*; eta banakotasuna, jasandako bidegabekeria desegiteko, ez doa haren aurka (zeren hark ez baitio bidegabekeria jasanarazi), baizik eta honen aurka. Indibiduoaren odolaren kontzientziak deuseztatzen du bidegabekeria hori, ikusi dugunez, honako moduan, hots, *gertatu* besterik egin ez dena *emaitza* bihurtuz, eta, horrela, *izatea*, *azkenadena*, *nahi* izan den zerbait eta, horrenbestez, pozgani izanik.

21

Erresuma etikoa, era horretan, bere *iraupenean* zatiketarik ez daukan mundu orbangabe bat da. Era berean, horren botere batetik bestera igarotze baketsuan datza bere higidura, halako moldez non bakoitzak bestea mantentzen eta sortzen duen. Ikusten dugu, bai, bi zerizanetan eta euren errealtatetan banatzen direla; baina horien aurkakotza batak bestea egiaztatzean datza; eta bitartegabe, erreala gisa, elkar ukitzen duten lekuan, euren erdigunea eta osagaia euren bitartegabeko elkar zeharkatzea da. Mutur bat, bere buruaz jabetzen den gogo orokorra, beste mutunarekin lotzen da, bere indarrarekin eta bere osagaiarekin, *kontzientziarik gabeko* gogoarekin, *gizonaren banakakotasunaren* bitartez. Jainkotiar legeak, aldiz, bere indibidualizazioa, edo banakodenaren *kontzientziarik gabeko* gogoak bere horizatea emakumearengan dauka, zeinaren bitartez, *erdigune den aldetik*, kontzientziarik gabeko gogoa bere errealtate ezatik errealtatera goratzen den, jakile ez denetik eta ezaguna ez denetik bere buruaz jabetzen denerresumara. Gizonaren eta emakumearen batasunak osatzen du osokiaren erdigune ekilea, eta jainkotiar eta

giza legearen bi muturretan banatuta egonik, era berean, euren bitartegabeko batasuna den osagaia; batasun honek lehen bi arrazoiketa haiek arrazoiketa bat eta berbera bihurtzen ditu, eta aurkakotutako higidurak *batean* batzen ditu (errealitatearen higidura behera errealitate ezara, giza legearen higidura, kide beregainetan antolatzen dena, behera heriotzaren arriskura eta probara erortzen dena, hots, gizonari dagokion higidura; eta lurrazpiko legeak gorantz egiten duen higidura egunaren errealitatera eta bere buruaz jabetzen den horizatera, hots, emeari dagokion higidura).

22

b. EKINTZA ETIKOA. GIZA ETA JAINKOTIAR JAKITEA. ERRUA ETA PATUA

Baina erresuma horretan aurkakotza antolatuta dagoen arren, autokontzientzia ez da agertu oraindik bere eskubidean indibidualtasun banako bezala; erresuma horretan horrek, alde batetik, nahimen orokor bezala bakarrik balio du, eta beste aldetik, familiaren odola bezala; banako-den horrek errealitaterik gabeko itzala bezala baino ez du balio. — Oraindik ez da egintzarik burutu; baina egintza norbera erreala da. — Egintzak mundu etikoaren antolaketa eta higidura baketsua aztoratzen du. Mundu horretan bere bi zerizanak daukaten ordena eta adostasuna bezala agertzen dena, batak bestea egiaztatzen eta osatzen duela, egintzaren bitartez aurkakoen igarobide bat bihurtzen da, non bakoitza bere buruaren eta bestearen ezereztasun gisa agertzen den, baieztapen gisa baino; patu beldurgarriaren higidura negatibo edo amaigabeko beharrezkotasun bihurtzen da, zeinak jainkotiar eta giza legea eta, era berean, bi autokontzientziak, non botere horiek euren hor-izatea lortzen duten, bere sinpletasunaren amildegian irensten dituen, eta guretzat banakoa baino ez den autokontzientziaren berbaitarako izate absolutura igarotzen da.

Higidura horren abiapuntua eta bere jardueraren sostengua den *oinarria* etikotasunaren erresuma da; baina autokontzientzia da higidura honen *egiletasuna*. Kontzientzia *etiko* bezala zerizantasun etikora doan noranzko huts sinplea da, edo *betebeharra*. Bere barnean ez dago nahierarik, ezta borrokarik ere, ezta ezbairik ere, legeak emateari eta aztertzeari utzi egin baitzaio, baizik eta zerizantasun etikoa bitartegabeko-dena, ezbaian ez dagoena, kontraesanik gabekoa da harentzat. Horregatik, ez dugu ikuskizun deitoragarri hau topatzen, alegia, grina eta bete beharra elkarren aurka egotea; ezta ikuskizun komiko hau ere, bi betebeharrak elkarren aurka egotea, edukiaren arabera lehen haren berbera dena; izan ere, grina betebeharrak bezala errepresenta daiteke, zeren betebeharra, kontzientzia bere bitartegabeko zerizantasun substantziadunetik bere baitara itzultzen denean, formalki orokor-dena bihurtzen baita, non edozein eduki ondo egokitzen den, lehenago ondorioztatu zenez. Baina betebeharren arteko talka komikoa da kontraesana adierazten duelako, hain zuzen, *aurkakotutako absolutu-den batena*, eta beraz, absolutua eta bitartegabe absolutu deitzen den horren ezezkotasuna edo betebeharra den batena. — Baina kontzientzia etikoak egin behar duena badaki, eta erabaki du jainkotiar edo giza legeari dagokiola. Erabaki horren bitartegabekotasun hori *berbaitan izate* bat da eta, horregatik, berezko izate baten esanahia dauka, ikusi dugunez; naturak, eta ez inguruabarren edo aukeraren ausazko-denak, egokitzen dio sexu bati lege bat, bestea besteari, edo alderantziz, hau da, bi botere etikoek euren buruei ematen diete hor-izate banakoa eta egikaritzapena bi sexuetan.

23

Baina alde batetik etikotasuna, zerizanez, bitartegabeko *erabaki* horretan datzalako eta, horregatik, kontzientziarentzat lege *bat* bakanik delako zerizana, eta beste aldetik, botere etikoak kontzientziaren *norberarengan* bakanik direlako errealak, horregatik dira *bateraezinak* eta *elkarren aurkakoak*; autokontzientzian *berbaitarako* dira, etikotasunaren erresuman *berbaitan* bakarrik diren modu berean. Kontzientzia etikoa, bietako baten alde *erabakitzen* duelako, *izaera* da zerizanez; horrentzat bien zerizantasuna ez da berdina; honegatik, aurkakotza betebeharraren eta eskubiderik gabeko *errealitatearen* arteko *zoritxarreko* talka bat bezala agertzen da. Kontzientzia etikoa autokontzientzia bezala aurkakotza horretan da, eta, halakoa den aldetik, abiatzen da, berari dagokion legeari errealitate aurkakotu hori indarrez menperatzera edo hori iruzurtzera. Eskubidea bere aldean, bidegabekeria, aldiz, beste aldean ikusten duen heinean, bietatik jainkotiar legeari dagokion kontzientziak beste aldean giza *bortxa* ausazkoa ikusten du; eta giza legeari dagokionak bestean barneko berbaitarako izatearen burugogortasuna eta *desobedientzia* ikusten du; izan ere, gobernuaren aginduak argitan dagoen zentzu publiko orokorra dira; beste legearen nahimena, aldiz, barnean itxita dagoen lurrazpiko zentzua da, bere horizatean banakotasunaren nahimen bezala agertzen dena eta, lehenengoarekin kontraesanean, ozarkeria dena.

24

Horren bitartez kontzientzian *jakinaren* eta *ezjakinaren* arteko kontraesana sortzen da, substantzian *jabetzen denaren* eta *jabetzen ez denaren* artekoa bezala; eta *autokontzientzia* etikoaren *zuzenbide* absolutua gatazkan gertatzen da *zerizanaren zuzenbide* jainkotiarrarekin. Autokontzientziarentzat, kontzientzia den aldetik, errealitate objektiboak, halakotzat hartuta, badauka zerizana; baina bere substantziaren arabera, hori bere buruaren eta aurkakotu-den horren batasuna da, eta autokontzientzia etikoa substantziaren kontzientzia da; objektuak, autokontzientziari aurkakotuta dagoen heinean, berarentzat zerizana edukitzeko esanahia galdu du erabat. Hori *gauza* soiltzat zuten esparruak aspaldi desagertu ziren eta, era berean, kontzientziak zerbait bere kabuz finkatzeko eta une bakar bat zerizan bihurtzeko zituen esparruak desagertu dira. Horrelako aldebakartasunaren aurka errealitateak indar propioa dauka; bat egiten du egiarekin kontzientziaren aurka, eta egia den hori erakusten dio kontzientziari. Baina kontzientzia etikoak substantzia etikoaren edalontzitik edan du berbaitarako izatearen, honen helburuen eta adigai bereizgarrien aldebakartasun ororen ahaztura; eta honela Estigiako ur honetan ito egin ditu aldi berean bere zerizantasan propioa eta errealitate objektiboaren esanahi beregaina. Bere eskubide absolutua hau da: lege etikoaren arabera ekiten duen heinean, egikaritze honetan lege horren betetzea besterik ez duela aurkitzen, eta egintzak egite etikoa zer den besterik ez duela erakusten. — Etiko-denak, *zerizan* absolutua eta *botere* absolutua izaki aldi berean, ezin du jasan bere edukiaren inolako iraulketarik. *Zerizan* absolutua besterik izango ez balitz, botererik gabe, orduan iraulketa bat jasan zezakeen indibidualtasunaren eskutik; baina horrek, kontzientzia etikoa den aldetik, uko egin dio iraulketari berbaitarako izate aldebakarra alde batera utziz; era berean, botere soilak, berriz, iraulketa jasango luke zerizanaren eskutik, hori oraindik halako berbaitarako izatea izango balitz. Batasun horren mesedetan, indibidualtasuna substantziaren forma hutsa da, zeina edukia den, eta egitea pentsamendutik errealitatera doan igarobidea da, baina zerizanik gabeko kontraesanaren higidura bat bezala, zeinaren uneez elkar ezberdintzen diren eduki

eta zerizantasan berezirik ez daukaten. Kontzientzia etikoaren zuzenbide absolutua, beraz, honako hau da: *egintza*, bere *errealitatearen tankera*, horrek dakiena baino ez izatea.

25

Baina zerizan etikoak bere burua bi legetan banatu du, eta kontzientzia, legearen aurrean dugun jokaera banaezin bezala, bati bakanik dagokio. Kontzientzia *sinple* horrek berresten du eskubide absolutua daukala horri, etikoa denez, zerizana *agertzeko berbaitan* den bezala; era berean, zerizan horrek bere *errealitatearen* eskubidea berresten du, edo bikoiztuta izateko eskubidea. Baina zerizanaren eskubide hori ez dago autokontzientziari aurkakotuta, beste leku batean izango balitz bezala, baizik eta autokontzientziaren zerizan propioa da; hor baino ez dauka bere hor-izatea eta bere boterea, eta bere aurkakotza *azkenaren egintza* da. Izan ere, autokontzientziak, bere buruarentzat norbera bezala den eta ekitera abiatzen den heinean, igo egiten du bere burua *bitartegabekotasun sinpletik*, eta horrek berak ezartzen du *bikoiztasuna*. Egintzaren bitartez etikotasunaren determinatutasuna uzten du, hots, bitartegabeko egia izateko ziurtasun sinplean datzana, eta bere buruaren banaketa bere barnean ezartzen du ekile-dena bezala, eta honentzat negatiboa den errealitate aurkakotuan. Egintzaren bitartez, bada, autokontzientzia *erru* bihurtzen da. Izan ere, errua horren *egitea* da, eta egitea bere zerizan berezkoena; eta enuak *delitua* ere esan nahi du; izan ere, kontzientzia etiko sinplea bezala, lege bat betetzen du, eta bestea, aldiz, alde batera utzi du, eta hori hausten du bere egintzaren bitartez. — Errua ez da zentzu bikoitza duen zerizan axolagabea, zeinaren arabera egintza, *benetan* egunaren argitan datzan moduan, bere *norberaren* egitea izan daitekeen edo beharbada ezin daitekeen izan, egitearekin kanpoko eta ausazkoa den zerbait elkartu ahal izango balitz bezala, egiteari ez dagokion zerbait, eta honegatik alderdi horretatik egitea errugabe izango litzateke. Baizik eta egitea bera da bikoiztasun hau, hots, bere burua berbaitarako gisa eta bere aurrean kanpoko errealitate arrotz bat ezartzea; halako errealitatea existitzea egiteari bakanik dagokio eta horren bidez da. Enugabe, orduan, ez-egitea soilik da, harriaren izatea bezala, eta haur baten izatea ere ez da enugabe. — Edukiaren arabera, ordea, *ekintza* etikoak delituaren unea bere baitan dauka, zeren honek ez baitu gainditzen bi legeak bi sexuen artean banatzea *berezko moduan*, baizik eta legera zuzentzen den *bikoiztugabearen* moduan mantentzen da *bitartegabekotasun berezkoaren* barnean, eta egitea den aldetik aldebakartasun hori erru bihurtzen du, hots, zerizanaren alderdietako bat bakanik hartzea eta bestearen aurrean negatiboki jokatzea, hau da, hori hautsiz. Geroago zehazkiago azalduko dugu zein kokaera dagokien etikotasun orokorrean erruari eta delituari, egiteari eta ekiteari; orain argi dago bitartegabe ez dela *banako-den hori* ekiten duena eta errudun dena; izan ere, hori norbera *hori* bezala, itzal ez-erreal besterik ez da, edo norbera orokor bezala besterik ez da, eta indibidualtasuna *egitearen* une *formala* soilik oro har, eta edukia legeak eta ohiturak dira, eta banako-denarentzat bere estamentuarenak dira; banako-dena substantzia da genero bezala, zeina, duen determinatutasunaren bidez, espezie bihurtzen den, baina espezieak aldi berean generoaren orokor-dena izaten dirau. Autokontzientzia herriaren barnean orokor-denetik berezitasunera bakanik beheititzen da, ez indibidualtasun banakoraino, zeinak norbera baztertzailea ezartzen duen, bere egitean negatibo zaion errealitate bat; baizik eta bere ekintzaren oinarrian osokian duen konfiantza ziurra datza, non arrotza den ezer, ez beldunik ezta areriotasunik ere nahasten ez den.

26

Autokontzientzia etikoak orain bere egintzan ekite *errealaren* garatutako natura esperientziatzen du, bai jainkotiar legea, bai giza legea obeditzen duenean. Berari ageri zaion legea zerizanez lege aurkakotutakoarekin lotuta dago; zerizana bien batasuna da; baina egintzak bata soilik egikaritzen du bestearen aurka. Baina zerizanez horrekin lotuta dagoenez, bata osatzeak bestea eskatzea, eta beste hori egintzak zerizan zauritu, etsaikor, bihurtzen du, mendekua agintzen duen zerizan. Ekintzak bere aurrean argitan erabakiaren alderdi bat baino ez dauka oro har; baina erabakia *bere baitan* negatibo-dena da, zeinari beste bat, arrotza zaion jakite bat aurkakotzen zaion. Horregatik, errealitateak bere barnean ezkututzen du jakiteari arrotza zaion beste alderdia, eta bere burua ez dio erakusten kontzientziari berbaitan eta berbaitarako den moduan; semeari ez zaio erakusten aita hiltzen duen iraintzaile hori bezala, ezta ama ere emaztetzat hartzen duenerregina bezala¹. Horrela, argia gorrotatzen duen botereak zelatatzen du autokontzientzia etikoa, egintza burutzen denean bakanik agertzen den eta autokontzientzia ustekabean ekiten harrapatzen duen botereak; izan ere, burututako egintza norbera jakilearen eta bere aurrean dagoen errealitatearen arteko kontraesan gauditua da. Ekiten duenak ezin ditu ukatu delitua eta bere errua; egintza higiezina dena higiaraztea eta hasieran ahalbidean itxita dagoena sortzea, eta honela jabetzen ez dena jabetzen denarekin lotzea, ez-dena izatearekin. Egia honetan agertzen da, orduan, egintza argitan, eta honetan jabetzen dena jabetzen ez den batekin, norberarena arrotzarekin batuta dago; bikoiztutako zerizan bat bezala, zeinaren beste aldea kontzientziak ezagutzen duen, eta, gainera, berea bezala, baina horrek zauritzen duen eta etsai bihurtu duen botere bezala.

27

Baliteke zuzenbidea, zelatan zegoena, ez izatea eskura bere berezko tankeran *kontzientzia* ekilearentzat, baizik eta *bere baitan* besterik ez, hau da, erabakiaren eta ekitearen barneko erruan. Baina kontzientzia etikoa osoagoa da, bere errua garbiagoa da, aurkakotzen zaizkion legea eta boterea *aurretik ezagutzen* baditu, bortxatatzat eta bidegabekeriatzat, ausazkotasun etikotzat jotzen baditu, eta jakinaren gainean egiten badu delitua, Antigonak bezala. Burututako egintzak guztiz aldatzen du kontzientziaren ikuspuntua; *burutzeak* berak adierazten du *etikoa* denak *erreal*a izan behar duela; izan ere, helburuaren *errealitatea* ekitearen helburua da. Ekiteak, hain zuzen, *errealitatearen* eta *substantziaren* arteko *batasuna* adierazten du; adierazten du errealitatea zerizanari ez zaiola ausazkoa, baizik eta, berarekin lotuta, ez zaiola egiazko zuzenbidea ez denik ematen. Kontzientzia etikoak bere aurkakoa, errealitate horren ondorioz eta bere egitearen ondorioz, berea bezala berrezagutu behar du, bere errua berrezagutu behar du;

*pairatzen dugulako aitortzen dugu huts egin dugula.*²

Berrezagutze horrek adierazten du *helburu* etikoaren eta *errealitatearen* arteko tirabira gaudituta dagoela; zuzenbideak bakanik balio duela badakien *jaidura* etikora egiten den itzulera adierazten du. Baina horrela ekiten duenak bere *izaera* eta bere norberaren *errealitatea* uzten ditu, eta hondoratu egiten da. Bere izatea honetan datza, hots, bere lege etikoaren parte izatean, bere substantziaren parte; baina aurkako horren berrezagutzean lege horrek utzi egin dio berarentzat substantzia

¹ Ediporen aipamena (itzultzaileen oharra).

² Sofokles, *Antigona*, 926 lerroa.

izateari; eta bere errealitatea lortu ordez, ez-enealitatea lortu du, jaidura. — Substantzia, hain zuzen, indibidualtasunean agertzen da, bere *patua* den aldetik; eta indibidualtasuna agertzen da substantzia bizitu egiten duena eta, honegatik, bere gainean dagoena bezala; baina indibidualtasuna patu bat da, aldi berean bere izaera dena; indibidualtasun etikoa bitartegabe eta berbaitan bat da bere orokor-den horrekin, bere existentzia horrengan bakarrik du, eta ezin du biziraun botere etiko horrek bere aurkakoaren bitartez eragiten dion hondamendia.

Baina horrela ziurtasun hau dauka, hots, indibidualtasun hark, zeinaren patua aurkako botere hori den, *ez duela berak eragiten duen baino ongiez handiagorik jasotzen*. Botere etikoen elkarrenganako higidura eta horiek bizitzen eta ekinarazten dituen indibidualtasunenak honela lortu du bere *egiazko helmuga*, alegia, bi alderdiek hondamendi berbera izanik. Izan ere, bi botereen artean ez bata ez besteak ez du abantailarik substantziaren une *zerizanezkoagoa* izateko. Bien zerizantasan berdina eta bata bestearen aldamenen axolagabe irautea da euren norberarik gabeko izatea; *egitatean* norbera-zerizanak bezala dira, baina ezberdinak, eta horrek norberaren batasuna kontraesaten du, eta horrek euren zuzenbide-gabezia eta euren beharrezko hondamendia osatzen du. Era berean, *izaera*, alde, bere patuaren edo substantziaren arabera, bati bakanik dagokio; alde, jakitearen arabera bata zein bestea jabetzen denean eta jabetzen ez denean bikoiztuta dago; eta bakoitzak aurkakotza hori eragiten duen eta egintzaren bidez ez-jakitea ere bakoitzaren lana den heinean, bere burua xahutzen duen erruan ezartzen da. Botere baten eta bere izaeraren garaipena eta bestearen porrota, beraz, bien arteko orekarantz etengabe hurbiltzen den zatia eta osatugabeko lana litzateke. Bi uneen menpekotze berdinean osatzen da zuzenbide absolutua; eta substantzia etikoa bi aldeak irensten dituen botere negatibo bezala agertzen da, edo patu ahalguztiduna eta zuzena bezala.

28

Bi uneak euren eduki zehatzaren eta beren banakotzearen arabera hartzen badira, orduan horien arteko gatazka tankeradunaren irudia aurkezten du, bere alde formalaren ikuspuntutik, etikotasunak eta autokontzientziak duten gatazka gisa kontzientzia gabeko naturaren aurka eta horren eskutik sortzen den ausazkotasunaren aurka (azken horrek eskubidea dauka autokontzientzia haren aurka, zeren hori bakanik baita *egiazko* gogoa, bera bakarrik baitago bere substantziarekin *bitartegabe* batuta); eta edukiaren arabera jainkotiar eta giza legearen tirabira bezala. — Gaztetxo bere buruaz jabetzen ez den zerizanetik, familiaren gogotik irteten da, eta giza elkarrearen indibidualtasun bihurtzen da. Baina gaztetxo oraindik naturari, ihes egin dion horri, dagokiola honela frogatzen da, hots, bi anaien ausazkotasunean agertzen dela, bietako bakoitzak zuzenbide berdina izaki giza elkartea bere menpe hartzeko; lehenago edo beranduago jaio izateak, naturaren bereizketa den aldetik, ez dauka zerizan etikora sartzen diren *horientzat* inolako ganantzirik. Baina gobernuak, arima sinplea edo herri-gogoaren norbera bezala, ez du onartzen indibidualtasunaren bikoiztasuna; eta batasun horren beharrezkotasun etikoaren aurrean natura agertzen da, askotasunaren kasu bezala. Bi anaiak banantzen dira, eta estatu-boterea izateko duten eskubide berdinak biak hondatzen ditu, oker berbera egin zuten biak. Giza ikuspuntutik begiratuta, delitua egin *aujabegorik* gabe giza elkartea, bestea buru duena, eraso duenak; bestea *banako* bezala, hau da, giza elkartetik bananduta ikusten jakin zuenak eta botere-gabezia horretara bidali duenak, aldiz, bere alde dauka zuzenbidea; indibidua, halakotzat hartuta, ukitu du, ez besterik, eta ez giza elkartea, ez giza zuzenbidearen zerizana.

Banakotasun kaskalak eraso eta defenditu duen giza elkarteak mantentzen da; eta bi anaiak, aldiz, elkar hondoratzen dute; izan ere, osokiaren arriskua *bere berbaitarako izatearekin* lotzen duen indibidualtasunak bere burua giza elkartetik baztertzen du eta bere barnean desegiten da. Baina giza elkarteak lagun izan zuen hura ohoratuko du; gobernuak, aldiz, giza elkartearen norberaren beneraikitako sinpletasunak, jadanik hanesiaren gainean bere deuseztapena aldanikatu zuena zigortuko du eta azken ohorea ukatuko dio; kontzientziaren gogo gorena, giza elkartearena, erasotzera etorri denari bere zerizan osoaren eta betearen ohorea, hildako gogoaren ohorea ukatu behar zaio.

29

Baina orokor-denak, horrela, bere piramidearen gailur hutsa erraz eraisten duenean, eta banakotasunaren, familiaren printzipio matxinoaren aurka *garaipena* lortzen duenean, horren bidez *borroka* egiten dio jainkotiar legeari; bere buruaz jabetzen den gogoak *borroka* egiten dio jabetzen ez denari; izan ere, azken hori beste botere zerizanezkoa da, eta honegatik hark ezin du deuseztatu, baizik eta iraindu besterik ez. Baina indarra daukan eta argitan datzan legearen aurkako laguntza *benetakoa* itzal odolgabean baino ez dauka. Ahultasunaren eta iluntasunaren legea denez, hasiera batean egunaren eta indarraren legea gailentzen zaio, zeren indar horrek behean baitauka indarra, ez lur azalean. Baina barnekoari bere ohorea eta boterea ostu egin dion errealdenak, horrela, horren zerizana irentsi egin du. Agerian dagoen gogoak bere indarraren sustriak beheko munduan dauzka; herriak bere buruan daukan *ziurtasunak*, bere burua segurtatzen duenak, guztiak batean lotzen dituen zinaren *egia* guztien substantzia mutuan dauka, bere buruaz jabetzen ez denean, ahanzturaren uretan. Horren bitartez ageri den gogoaren osaketa horren aurkako bihurtzen da, eta gogo honek esperientziatzen du bere zuzenbide gorena injustizia gorena dela, bere garaipena bere hondamendia dela. Eskubideak zapaldu zaizkion hildakoak badaki tresnak aurkitzen mendeku hartzeko, bera zauritu zuen boterearen errealitate eta indar berbera duten tresnak. Botere horiek beste giza elkarteak dira, zeinen aldareak txakurrek eta txoriek orbandu dituzten gorpu honen bidez, hots, bere buruaz jabetzen ez den orokortasunera igotzen ez dena, berari zor zaion oinarrizko indibiduoarenganako itzultzearen bitartez, baizik eta lur gainean gelditzen dena, errealitatearen erresuman, eta jainkotiar legearen indar bezala, eta beraz, bere buruaz jabetzen den orokortasun erreala jasotzen duena. Indar horiek etsai bihurtzen dira, eta giza elkarteak deuseztatzen dute, euren indarra, familiaren jaiera, desohoratu eta deuseztatu duena.

30

Errepresentazio honetan giza eta jainkotiar legearen higidurak bere beharrezkotasuna indibiduoetan adierazten du, zeinetan orokordena *patu* bezala agertzen den eta higiduraren egiletasuna *banako* egite bezala, honen beharrezkotasunari ausazkotasunaren itxura enlaten dion egite bezala. Baina indibidualtasunak eta egiteak osatzen dute banakotasunaren printzipioa oro har, zeinari bere orokortasun hutsean jainkotiar lege barneko deitu zitzaion. Ageriko giza elkartearen une den heinean, lurrazpiko edo bere hor-izatean kanpoko den eraginkortasun hura ez ezik, gainera, herri errealean hor-izate eta higidura erreala dauzka, agerikoak direnak era berean. Forma horretan hartuta, banakotutako jasapenaren higidura simple bezala agertzen zenak beste itxura bat hartzen du; eta delituak eta horren bidez sortu den giza elkartearen deuseztapenak euren hor-izatearen benetako forma hartzen du. — Giza legea, beraz, bere hor-izate orokorrean

giza elkarteak, bere egintzan oro har gizontasuna eta bere egintza errealean gobernuaren bitartez *higitzen* da eta *dirau*, alegia, lege horrek penate en bazterketa eta emetasuna buruztat duten familietan bakartze beregaina bere barnean ahituz; eta horiek bere jariakortasunaren jarraitasunean deseginda mantenduz. Baina familia da, aldi berean, bere osagaia oro har; banako kontzientzia da oinarri ekile orokorra. Giza elkarteak bere iraupena eskuratzen duen heinean familiaren zoriona deuseztatuz eta autokontzientzia autokontzientzia orokorrean deseginez, bere barneko etsaia ekoizten du zapaltzen duen eta berari aldi berean zerizanezkoa zaion emetasunean. Emetasun honek, giza elkartearen betiko ironiak, intrigen bidez, gobernuaren helburu orokorra helburu pribatu bihurtzen du, honen egiletasun orokorra indibiduo jakin honen emaitza bihurtzen du, eta gobernuaren ondasun orokorra familiaren jabego eta edergani bihurtzen du. Horrela, hark orokordena bakanik axola zaion heldutasunaren (horrentzat banakotasuna, hau da, atsegina eta gozamina eta benetako egiletasuna, jadanik hilda daudenez) jakituria serioari iseka egiten dio gaztedi heldugabearen harropuzkeriaren aurrean eta hori mesprezatzen du horien gogo-berotasunaren aurrean; hark gaztediaren indarra baliiodun bihurtzen du: semearena, non amak bere jauna sortu duen; anaiarena, non anebak gizona bere pareko bezala daukan; gaztetxoarena, zeinaren bitartez alabak emakumearen gozamina eta duintasuna lortzen duen, bere menpekotasuna baztertuz. — Baina giza elkarteak banakotasunaren gogo honen zapalketaren bidez baino ezin du iraun; eta gogo hori zerizanezko une bat denez, giza elkarteak sortzen du era berean eta, hain zuzen, honekin duen janera zapaltzailearen bidez, printzipio etsaikona den aldetik.

31

Hala ere, printzipio horrek, helburu orokorretik urrun gaiztoa eta bere baitan ezer ez denez, ezin du ezer egin, non eta giza elkarteak berak gaztediaren indarra, gizontasuna, heldugabe izanik oraindik banakotasunaren barnean dirauena, osokiaren *indartzat* berrezagutzen ez badu. Izan ere, giza elkarteak herri bat da, indibidualtasuna da, eta zerizanez bere *baitarako* da beste indibidualtasunak *horrentzat* diren heinean, horiek bere baitatik *at* uzten dituen heinean eta horietatik beregain dela dakien heinean. Giza elkartearen alderdi negatiboak (*barnerantz* indibiduoaren banakotzea zapalduz, *kanporantz beregain izanik*) indibidualtasunean dauzka bere armak. Gena substantzia etikoaren une zerizanezkoa, *norbera-zerizan* etikoak hor-izate orotatik duen askatasun absolutua euren errealitatean eta egiaztapenean eskura dituen gogoia eta forma da. Gerrak, alde batetik, ondasunaren eta beregaintasun pertsonalaren eta, gainera, *pertsonaltasun* banakoaren beraren *sistema* banakoei negatibo-den horren indarra sentiarazten dien heinean, beste aldetik, ezezko zerizan hori gerran, hain zuzen, osokia mantentzen duen honetara goratzen du; gaztetxo ausarta, non emetasunak bere atsegina daukan, usteltzearen printzipio zapaldua, argitara dator eta balio duena da. Baina berezko indarra eta zorionaren ausa gisa agertzen dena dira orain zerizan etikoari eta gogo-beharrezkotasunari buruz erabakitzen dutenak; zerizan etikoaren hor-izatea indarrean eta zorian oinarrituta dagoenez, *jadantik erabakita* dago hondora joan dela. — Lehen penateak baino ez baziren herri-gogoan hondoratu zirenak, orain herri-gogo *biziak* euren banakotasunaren bidez giza elkarte *orokor* batean hondoratzen dira, zeinaren orokortasun sinplea gogorik gabekoa eta hila den, eta zeinaren bizitasuna indibiduo *banakoa* den, *banakoa* den aldetik. Gogoaren tankera etikoa desagertu egin da, eta beste batek ordezkatzeko du.

32

Beraz, kontzientzia etikoa legeari zerizanez *bitartegabe* zuzenduta egoteak determinatzen ditu substantzia etikoaren hondamendi hori eta beste tankera batera igarotze hori; bitartegabeko determinazio horretan datza natura bizitza etikoaren ekintzan sartzea. Bere errealitateak ageri uzten du usteltzearen kontraesana eta sorburua, zeina gogo etikoaren harmonia politak eta oreka lasaiak, hain zuzen, lasaitasun eta edertasun horretan bertan daukan; izan ere, bitartegabekotasunak honako esanahi kontraesankona dauka: bere buruaz jabetzen ez den naturaren lasaitasuna eta bere buruaz jabetzen den gogoaren lasaitasun urduria da. Natur izaera hori dela eta, herri etiko hori naturak determinatzen duen eta, horregatik, mugatua den indibidu altasuna da; eta, honegatik, herri etikoak beste batean aurkitzen du bere gaindipena. Baina determinatutasun hori, hor-izatean ezarrita muga dena, baina era berean negatibo-dena oro har eta indibidualtasunaren norbera dena, desagertzen denean, gogoaren bizitza eta guztietan bere buruaz jabetzen den substantzia galtzen dira. Substantzia horietan *orokortasun formal* gisa agertzen da, eta ez da bizi jadanik horien barnean gogo bizia bezala, baizik eta bere indibidualtasunaren sendotasun sinplea hainbat tokitan lehertu da.

c. ZUZENBIDE EGOERA

Batasun orokorra, nora banakotasunaren eta substantziaren bitartegabeko batasun bizia itzultzen den, gogorik gabeko giza elkartea da, zeinak jadanik utzi egin dion indibiduen kontzientziarik gabeko substantzia izateari, eta non horiek orain euren berbaitarako izate banakoaren arabera norbera-zerizantzat eta substantziatzat balio duten. Indibiduen atomo absolutuki anitzetan sakabanatuta dagoen orokordena, gogo hil hori, *berdintasuna* da, non *guztiek* bakoitza bezala balio duten, *pertsonak* bezala. — Etikotasunaren munduan ezkutatutako lege jainkotiar deitu zena, bere barnetik errealitatera irten da egitatean; mundu horretan, *banakodena* familiaren odol orokor gisa baino ez zuen balio eta ez zen erreal. Banako-den hori den aldetik, norberarik gabeko gogo hila zen; baina orain bere errealitate ezatik irten egin da. Substantzia etikoa *egiazko* gogoa bakarrik denez, honegatik banakodena bere buruaren *ziurtasunera* itzultzen da; banako-dena substantzia hura da orokor-den *positiboa* bezala, baina bere errealitatea *norbera* orokor *negatiboa* izatea da. Ikusi genuen mundu etikoaren botereak eta tankerak *patu huts-hutsaren* beharrezkotasun sinplean hondoratu zirela. Mundu etikoaren botere hori bere sinpletasunean islatzen den substantzia da; baina bere barnean islatzen den zerizan absolutua, hain zuzen, *patu huts-hutsaren* beharrezkotasun hura, autokontzientziaren *Nia* besterik ez da.

33

Horrenbestez, Ni horrek aurrerantzean *bere baitan* eta *bere baitarako* den zerizan gisa balio du; *berrezagutua-izate* hori da bere substantziatasuna; baina *orokortasun abstraktua* da, bere edukia *norbera zurrun hori* delako eta ez substantzian desegindakoa.

Pertsonaltasuna, beraz, substantzia etikoaren bizitzatik irten da hemen; hori kontzientziaren *benetan balio* duen beregaintasuna da. Horrelakoaren pentsamendu ez-erreal, *errealitateari uko egitearen* bitartez den horrena, lehenago autokontzientzia *estoiko* gisa agertu zen. Hori nagusitik eta morroitik, *autokontzientziaren* hor-izate bitartegabekoa den aldetik sortu zen, eta modu berean

sortu da pertsonaltasuna *gogo* bitartegabekotik, zeina guztien nahimen nagusi orokorra eta, era berean, guztien morroi-obedientzia den. Estoizismoarentzat *abstrakzioan* soilik *berbaitana* zena orain *mundu erreala* da. Estoizismoa zuzenbide egoeraren printzipioa, gogorik gabeko beregaintasuna, bere forma abstraktura eramaten dituen kontzientzia besterik ez da; *errealitate*tik ihes eginez kontzientzia horrek beregaintasunaren pentsamendua bakarrik lortu zuen; absolutuki bere *baitarako* da, bere zerizana edozein hor-izateri lotzen ez dion heinean, baizik eta horizate guztiari uko egiten dion eta bere zerizana pentsamendu hutsaren batasunean bakarrik ezartzen duen heinean. Era berean, pertsonaren eskubidea ez dago lotuta ez indibiduoak halako den aldetik duen hor-izate aberatsagoari edo boteretsuagori, ezta *gogo* bizi orokor bati ere, baizik eta bere errealitate abstraktuaren Bat hutsari, edo Bat horri, oro har autokontzientzia den aldetik. Baina estoizismoaren beregaintasun *abstraktuak* bere egikaritzapena aurkeztu zuen moduan, honela azken horrek lehenengoaren higidura errepikatuko du. Kontzientzia estoikoa kontzientziaren nahasketa eszeptikora igarotzen da, negatibo-denaren zentzugabekeriara, zeina, tankerarik gabe, izatearen eta pentsamenduaren ausazkotasun batetik bestera dabilen galduta, horiek beregaintasun absolutuan desegiten dituen, baina era berean berriz ekoizten dituen eta, egitatean, kontzientziaren beregaintasunaren eta menpekotasunaren arteko kontraesana besterik ez den.

34

— Era berean, *zuzenbidearen* beregaintasun pertsonala nahasketa orokor hori eta elkar desegite hori berbera da. Izan ere, zerizan absolututzat balio duena autokontzientzia da, pertsonaren *Bat kaskal* hutsa den aldetik. Orokortasun kaskal horren aurrean substantziak *betetasunaren* eta *edukiaren* forma du, eta eduki hori orain guztiz aske eta lotugabe geratzen da; izan ere, menperatzen zuen eta bere batasunean elkarrekin mantentzen zuen *gogoa* ez dago jadanik eskura. — Pertsonaren Bat kaskal hori, horregatik, bere *errealitatean* hor-izate ausazko bat eta zerizanik gabeko higidura eta egitea da, zeinak inolako edukirik ez duen lortzen. Eszeptizismoa bezala, zuzenbidearen formalismoak, bere adigaiaren arabera, ez dauka eduki propiorik; askotariko gauzak topatzen ditu, ondasunak, eta eszeptizismoak egin zuen bezala, orokortasun abstraktu berdina ezartzen die, zeinaren arabera horri *jabego* deitzen zaion. Baina horrela determinatutako errealitateari eszeptizismoan *itxura* deitzen badiote eta balio negatiboa baino ez badu ere, zuzenbidean, aldiz, positiboa du. Balio negatibo hura honetan datza, hots, erreal-den horrek norberaren esanahia daukala, pentsamenduaren edo *bere baitan* orokor-denaren gisara; balio positiboa, aldiz, honetan, hots, erreal-den hori *nirea* dela kategoriaren esanahian, *berrezagutua* eta *erreala* den balio izate bezala. — Biak *orokor-den abstraktu* berbera dira; nirearen eduki erreala edo *determinatutasuna* (dela kanpoko ondasuna, dela *gogoaren* eta izaeraren barneko aberastasunarena edo gabeziarena) ez dago forma kaskal horretan barnebilduta eta ez da horren ardura. Edukia *botere berezi* bati dagokio, zeina formalki orokor-den hori ez beste bat den, ausaz eta nahieraren botere ez beste bat den. — Zuzenbidearen kontzientziak, beraz, bere balio errealean bertan bere errealitatearen galera eta bere zerizangabekotasun erabatekoa esperientziatzen ditu; indibiduo bati pertsona deitzea erdeinu adierazpen bat da.

Edukiaren botere askea honela determinatzen da: *askotasun* absolutuan sakabanaturik dauden atomo pertsonalak determinazio horren izaeraren arabera

baturik daude, aldi berean horiei arrotza zaien eta, era berean, gogorik gabekoa den puntu *batean*; eta puntu hori bere pertsonaltasunaren sendotasuna bezala, aldi berean, errealtate guztiz banakoa da; baina bere banakotasun kaskalaren aurrean, horientzat eduki guztiaren eta, horrenbestez, zerizan errealaren esanahia dauka; eta horien ustezko errealtate absolutuaren, bere baitan zerizangabekoa 34 denaren aurka, botere orokorra eta errealtate absolutua da. Munduaren nagusi hori bere buruarentzat bere barnean hor-izate guztia daukan pertsona absolutua da, zeinaren kontzientziarentzat ezein gogo garaiaorik ez den existitzen. Pertsona da, baina *guztiei* aurkakotuta dagoen pertsona bakartia; horiek guztiek pertsonaren orokortasun balioduna osatzen dute, zeren banako-dena, halako gisa, banakotasunaren askotasun orokorra bezala soilik baita egiazkoa; askotasun horretatik bananduta, norbera bakartia, egitatean, indarrrik gabeko eta errealtaterik gabeko norbera da. — Aldi berean, edukiaren kontzientzia da, pertsonaltasun orokor hari aurkakotu zaiona. Baina eduki hori, bere botere negatiboaz askatuta, gogobotereen kaosa da, oinarrizko zerizanak bezala lasaikeria basatian gehiegikeriak eginez eroaldi deuseztatzailean bata bestearen aurka higitzen diren botereen kaosa; horien indarrrik gabeko autokontzientzia botererik gabeko itxitura eta horien iskanbilaren zorua da. Botere erreala guztien bilkura dela jakinez, munduaren nagusia autokontzientzia ikaragarria da, zeinak jainko erreala dela dakien; baina botere haiek kontrolatu ezin dituen norbera formala bakarrik den heinean, bere higidura eta bere buruaren gozamina, era berean, lasaikeria ikaragarria dira.

35

Munduaren nagusiak bera denaren kontzientzia erreala lortzen du, hau da, errealtatearen botere orokorra, bere aurrean duen menekoen norberaren aurka erabiltzen duen bortxa deuseztatzailean. Izan ere, bere boterea ez da gogoaren *bateratasuna*, non pertsonak euren autokontzientzia propioa berrezagutzen duten; baizik eta horiek, pertsonak diren aldetik, euren baitarako dira eta euren puntualtasunaren sendotasun absolututik baztertzen dute besteekiko jarraitasuna; erlazio negatiboa bakarrik daukate euren artean, baita euren lotura edo jarraitasuna den harekin ere. Jarraitasun hori den aldetik, nagusia horren formalismoaren zerizana eta edukia da, baina horiei arrotza zaien edukia eta zerizan etsaikorra da, zeinak horiei, hain zuzen, zerizantzat balio dietena, hau da, edukirik gabeko berbaitarako izatea, gainditzen duen; eta horien pertsonaltasunaren jarraitasun gisa, hain zuzen, pertsonaltasun hori deuseztatzen du. Orduan, zuzenbidezko pertsonaltasunak bere substantzia-gabezia esperientziatzen du (berari arrotza zaion edukiak bere barnean balioa hartzen duen heinean, eta berak horietan balioa hartzen duen heinean, horien errealtatea delako). Zerizangabeko zoru horretan egiten den aztakatze deuseztatzaileak bere buruari bere ahal guztitasunaren kontzientzia ematen dio; baina norbera hori suntsitze soil da, eta horregatik bere burutik at baino ez dago, eta bere autokontzientiaren erauzketa da.

36

Horrela dago osatuta alderdi hau, non autokontzientzia, zerizan absolutu den aldetik, *erreala* den. Baina errealtate horretatik *bere baitara itzularazi den kontzientziak* pentsatzen du bere zerizangabetasuna; lehenago ikusi genuen pentsamendu hutsaren beregaintasun estoikoak eszeptizismoa zeharkatzen zuela eta zoritzarreko kontzientzian bere egia aurkitzen duela, berbaitan eta berbaitarako izatea osatzen duen egia. Orduan jakite hori kontzientziak kontzientzia gisa duen ikuspuntu aldebakar bezala agertu zen; eta orain, aldiz, bere egia *erreala* agertu da.

Egia hori honetan datza: autokontzientziaren *balio izate orokor* hori horri arrotza zaion errealitatea dela. *Balio izate* hori norberaren errealitate orokorra da, baina hori, era berean, bitartegabe bihurriketa da; errealitate hori bere zerizanaren galera da. — Mundu etikoan eskura ez dagoen norberaren errealitatea horrek *pertsonarengana* egiten duen itzuleraren bitartez lortzen da; mundu etikoan bateratuta zegoena, orain garatuta baina bere buruarekiko arrotzuta agertzen da.

B. Bere buruarekiko arroztuta dagoen gogoa. Kultura

Substantzia etikoak bere kontzientzia sinplearen barnean itxita zeukan aurkakotza; eta kontzientzia hori bere zerizanarekin bitartegabe zegoen batuta. Horregatik, zerizanak izatearen determinatutasun sinplea dauka kontzientziarentzat, zeina bitartegabe horretara zuzenduta dagoen eta bere ohitura den; kontzientziak ez du hartzen bere burua *norbera baztertzaille hori* bezala, eta substantziak ez dauka bere baitatik baztertutako hor-izatearen esanahia, zeinarekin kontzientziak bere burua arroztuz baino ez lukeen bat egingo eta, aldi berean, substantzia sortuko lukeen. Baina norbera guztiz diskretua duen gogo hark badauka bere edukia hor aurrean, era berean, gogorra den errealitate bat bezala; eta munduak hemen kanpoko den zeribait edo autokontzientziaren negatibo-dena izateko determinazioa dauka. Baina mundu hori gogo-zerizana da, izatearen eta indibidualtasunaren elkar zeharkatzea da berbaitan; bere hor-izate hori autokontzientziaren *emaitza* da; baina, era berean, bitartegabekoa den eta berari arrotza zaion errealitate bat da, zeinak izate propioa daukan eta non bere burua ez duen berrezagutzen. Kanpoko zerizana da, eta zuzenbidearen eduki askea; baina zuzenbidearen munduaren nagusiak bere baitan daukan kanpoko errealitate hori ez da ausaz norberarentzat eskura dagoen zerizan oinarrizko hori bakarrik, baizik eta bere lana da, positiboa ez izan arren (negatiboa da gehienbat). Kanpoko errealitate horrek bere hor-izatea lortzen du autokontzientziak *bere burua* kanporatzen eta bere zerizana baztertzen duen heinean; eta horrek itxuraz zuzenbidearen munduan nagusi den suntsipenean sakabanatutako osagaien kanpoko bortxa ezarri zion autokontzientziari. Horiek, euren baitarako, euren buruaren suntsipena eta desegitea baino ez dira; baina desegite hori, horien zerizan negatibo hori, hain zuzen, norbera da; horien subjektua, egitea eta bilakaera da. Baina egite eta bilakaera hori, zeinaren bidez substantzia erreal bihurtzen den, nortasunaren arroketa da, zeren *bitartegabe*, hau da, *arroztu gabe* berbaitan eta berbaitarako balio duen norberak ez baitu substantziarik, eta osagai bihurri horien panpina baita; *bere* substantzia, beraz, bere kanporatzea da, eta kanporatzea substantzia da, edo gogo-botereak dira, mundu batean ordenatzen direnak eta horrela mantentzen direnak.

37

Substantzia, horrenbestez, *gogoa* da, norberaren eta zerizanaren bere buruaz jabetzen den *batasuna*; baina biek daukate, bakoitzak bestearekiko, anozketaren esanahia. Gogoa bere baitarako askea eta objektiboa den errealitate baten *kontzientzia* da; kontzientzia horri, ordea, norberaren eta zerizanaren batasun hura aurkakotzen zaio, *kontzientzia errealari kontzientzia hutsa*. Alde batetik, autokontzientzia erreal bere kanporatzearen bitartez mundu errealera igarotzen da eta hori, bere aldetik, bestearengana itzultzen da; baina, beste aldetik, errealitate hori, hain zuzen, gainditu egiten da (bai pertsona bai objektutasuna); orokorrak besterik ez dira. Bere kanporatze hori *kontzientzia hutsa* edo *zerizana* da. Orainak bere aurkakotza bere *haratagokoan* dauka bitartegabe, bere pentsamenduan eta pentsatua izatean; alderantziz, *haratagokoak* bere aurkakotza honatagokoan dauka, zeina bere errealitatean arrotzu zaion.

38

Gogo horrek, honexegatik, ez du *mundu bat* osatzen, baizik eta bikoiztutako, banatutako eta aurkakotutako mundu bat. — Gogo etikoaren mundua bere *orain*

propioa da; eta, horrexegatik, honen botere bakoitza batasun horretan dago eta, biak bereizten diren heinean, orekan dago osokiarekin. Ezerk ez dauka autokontzientziaren negatibodenaren esanahia; gogo hila ere senidetasunaren *odolean* dago, familiaren *norberean*; eta gobernuaren botere orokorra *nahimena*, *herriaren* norbera da. Baina hor aurrean dagoenak bere kontzientzia haratago daukan *errealitate* objektiboa besterik ez du esan nahi hemen; une banako bakoitzak, *zerizan* bezala, hori hartzen du eta horren bidez beste baten errealitatea; eta erreal den heinean, bere zerizana bere errealitatea ez beste bat da. Ezerk ez dauka bere barnean oinarritutako eta bere barnean bizi den gogoia, baizik eta kanpoan dago, beste batengan; osokiaren oreka ez da bere baitan geratzen den batasuna eta bere baitara itzuli den lasaitzea, baizik eta aurkakotutakoaren arroketa datza. Osokia, beraz, une banako bakoitza bezala, bere baitatik arroztutako errealitate bat da; erresuma batean zatitzen da, non autokontzientzia eta bere objektua biak *errealak* diren; eta beste batean, kontzientzia *hutsaren* erresuman, zeinak, bestetik at badago, orain errealik ez daukan, baizik eta *sinesmenean* dagoen. Baina mundu etikoa jainkotiar eta giza legeen eta euren tankeren banaketatik eta bere kontzientzia jakitearen eta kontzientzia-gabeziaren arteko banaketatik bere patura, hau da, *norberarengana* doan bezala, aurkakotza horren botere *negatiboa den aldetik*, era berean bere baitatik arrotzen den gogoaren erresuma horiek biak ere *norberarengana* itzultzen dira; baina lehen hura bitartegabe balio duen *norbera*, banako *persona* baldin bada, orduan bere kanporatetik bere baitara itzultzen den bigarren hori, aldiz, *norbera orokorra* izango da, *adigaia* zeharkatzen duen kontzientzia; eta gogo-mundu horiek, zeinaren une guztiek errealitate finkoa eta gogorik gabeko iraupena izatea aldarrikatzen duten, desegin egingo dira *ulermen hutsean*. Horrek, bere burua *atzematen* duen norbera bezala, kultura osatzen du; horrek norbera besterik ez du jasotzen, eta dena onartzen du norbera den aldetik, hau da, dena *aditzen* du, objektutasun guztia deuseztatzen du eta *berbaitan* izate oro *berbaitarako* izate bihurtzen du. Sinesmenaren aurka joz, haratago dagoen zerizanaren erresuma arrotza dela eta, *ilustrazioa* da. Horrek osatzen du arroketa erresuma horretan, non bere baitatik arroztutako gogoak bere burua gordetzen duen, hori bere buruarekin berdin den lasaitasunaren kontzientzia den aldetik; ilustrazioak, honatagoko munduaren tresneria sartzan duen heinean, gogoak sinesmenaren erresuman daukan antolamendua nahasten du; gogoak ezin du ukatu tresneria hori berea dela, horren kontzientzia baitagokio halaber. — Zeregin negatibo horretan ulermen hutsak aldi berean bere burua gauzatzen du, eta bere objektu propioa sortzen du, *zerizan absolutu ezagutezina*, eta *baliagarri-dena*. Horrela, errealitateak substantziatasun guztia galdu duen eta *berbaitan* horretan ezer gehiago ez den heinean, orduan mundu errealaren erresuma, sinesmenarena bezala, erortzen da; eta iraultza horrek *askatasun absolutua* sortzen du; eta horrela, lehenago arrotzu zen gogoia bere baitara itzultzen da guztiz, kulturaren lurralde hori uzten du, eta beste lurralde batera igarotzen da, *kontzientzia moralaren* lurraldera.

1. BERE BAITATIK ARROZTUTAKO GOGOAREN MUNDUA

Gogo honen mundua mundu bikoiztuan banatzen da: lehenengoa errealitatearen mundua da, edo gogoaren anozketarena; bestea, berriz, gogoak, lehenengoaren

gainetik igaroz, kontzientzia huts aren eterrean eraikitzen duena. Arrozketari *aurkakotutako* mundu hori ez da, hain zuzen, askea, baizik eta anozketaren beste forma bat besterik ez, hots, kontzientzia bi mundutan izatea eta biak biltzea. Ez da, orduan, zerizan absolutuaren autokontzientzia *berbaitan* eta *berbaitarako* den bezala, ez da hemen aztertzen den erlijioa, baizik eta *sinesmena*, mundu errealeko *ihesa* eta, beraz, *berbaitan* eta *berbaitarako* ez den heinean. Horregatik, ominaren erresumatiko ihes hori bere baitan bitartegabe bikoiztutakoa da. Kontzientzia hutsa gogoak bere burua igotzeko duen osagaia da; baina ez da *sinesmenaren* osagaia soilik, *adigaiarena* da era berean; biak elkarrekin azaltzen dira; eta adigaiari aurkakotuta dagoen heinean baino ez da hartzen aintzat *sinesmena*.

a. KULTURA ETA HORRENERREALITATE-ERRESUMA

Mundu horren gogoia autokontzientzia batek zeharkatzen duen *gogo-zerizana* da, zeinak badakien bera bitartegabe hor *berbaitarako dagoen autokontzientzia* dela eta *zerizana* errealitate gisa aurkakotzen zaiola. Baina bai mundu honen hor-izateak bai autokontzientiaren errealitateak higidura batean hartzen dute oin, non autokontzientziak bere pertsonaltasuna kanporatzen duen eta horren bitartez bere mundua sortzen duen; eta mundu horren aurrean zerbait arrotza balitz bezala halako moduan jokatu du non hori bereganatu behar baitu. Baina bere berbaitarako izatearen ukazioa bera da errealitatearen ekoizpena, eta horrela autokontzientziak mundu hori bereganatzen du bitartegabe. — Edo autokontzientzia *zerbait* besterik ez da, *errealitatea* besterik ez dauka, bere burua arrotzen duen heinean; honen bidez orokor bihurtzen da, eta bere orokortasun hori da bere balioa eta bere errealitatea. Guztiarekiko *berdintasun* hori ez da zuzenbidearen berdintasun hura, ez da autokontzientiaren bitartegabeko berrezagutua izate eta balio izatea, hori *delako* besterik gabe; baizik eta balio du orokortasunari egokitu egin zaiolako arrotzen duen bitartekotzaren bitartez. Zuzenbidearen gogorik gabeko orokortasunak bai izaeraren bai hor-izatearen edozein modu berezko jasotzen du eta bermatzen du. Hemen balio duen orokortasuna, aldiz, *garatu* dena da, eta horregatik da *erreal*.

40

Kulturaren bidez dauka, beraz, hemen indibiduoak balioa eta errealitatea. Bere egiazko *jatorrizko izaera* eta substantzia izate *berezkoaren arrotzetaren* gogoia da. Kanporatze hori, orduan, beraren helburua eta hor-izatea da; era berean, bitartekoa da, edo bai *pentsatutako substantziatik errealitaterako* bai alderantziz *determinatutako indibidualtasunetik zerizanezkotasunerako* igarobidea. Indibidualtasun horrek bere burua garatzen du *bere baitan* deneraino; eta horrela baino ez da *bere baitan*, eta hor-izate erreal dauka; zenbat eta kultura gehiago eduki, hainbat eta errealitate eta botere gehiago edukiko du. Nahiz eta norberak hemen benetan *hori* bezala jakin bere burua, bere errealitatea berezko norbera gaitzanean baino ez datza; jatorriz *determinatutako* natura handieren ezberdintasun *zerizangabera*, nahimenarenerregia handiago edo txikiagora munizten da. Baina honen helburua eta edukia substantzia orokorrari berari dagokio bakarrik, eta orokor-den bat baino ezin daiteke izan; helburu eta eduki bihurtzen den natura baten berezitasuna *botererik* ez duen eta *errealitaterik* ez duen zerbait da; bere burua alferrik ekitera abiarazten eta barreganiki saiatzaren den *espezie* bat da; berezi-denari bitartegabe orokor-den errealitatea emateko kontraesana da. Horregatik,

indibidualtasuna faltsuki naturaren eta izaeraren *berezitasunean* ezartzen baldin badugu, orduan mundu errealean ez da aurkitzen indibidualtasunik eta izaerarik, baizik eta indibiduoek hor-izate berbera daukate batzuek besteentzat; ustezko indibidualtasun hura, hain zuzen, hor-izate *iritzitakoa* da, zeinak ez duen iraupenik mundu honetan (non bere burua kanporatzen duenak eta, beraz, orokor-denak baino ez duen lortzen errealtatea). *Iritzia-den horrek* hori denarentzat balio du, espezie batentzat. Espezie ez *da Espèce* guztiz, «ezizen guztien artean beldurgarriena, kaskarkeria izendatzen baitu eta eldarnio handiena adierazten baitu»³. *Espezie* eta *bere espeziean ona* izatea⁴, ostera, adierazpen aleman bat da, zeinak esanahi horri zintzotasun itxura bat eransten dion, hain gaizki pentsatuko ez balitz bezala, edo baita egitatean kontzientziak jasoko ez balu bezala zer den espezie eta kultura eta errealtatea.

41

Indibiduo banakoari dagokionez bere kultura gisa agertzen dena *substantziaren* beraren zerizanezko unea da, hau da, bere pentsatutako orokortasunetik errealtatera doan igarobide bitartegabekoa, edo substantziaren arima sinplea, zeinaren bitartez *berbaitana berrezagatua dena* eta *hor-izatea* den. Garatzen den indibidualtasunaren higidura, beraz, horren bilakaera da bitartegabe zerizan objektibo orokorra den aldetik, hau da, mundu errealearen bilakaera. Indibidualtasunaren bitartez bihurtu den arren, mundu erreala autokontzientziarentzat bitartegabe arrotzu den zerbait da, eta horregatik harentzat errealtate irmoaren forma dauka. Baina, aldi berean, bere substantzia izateaz ziur, hori bereganatzeari ekiten dio; honen ganean duen boterea kulturaren bidez lortzen du, zeina alde horretatik halako moduan agertzen den, non autokontzientzia errealtatera egokitzen baita, eta, gainera, bere jatorrizko izaeraren eta gaitasunarenerregiak uzten dion neurrian. Hemen indibiduoaren bortxa bezala agertzen dena, zeinaren barnean substantzia kokatzen eta, horrela, gainditzen den, substantziaren egikaritzapena bera besterik ez da. Izan ere, indibiduoaren boterea substantziari egokitzean, hau da, bere burua kanporatzean datza, eta beraz, bere burua baden substantzia objektiboa bezala ezartzean. Horren kultura eta errealtate propioa, beraz, substantziaren beraren egikaritzapena da.

Norbera bere buruarentzat *gainditutako* bezala baino ez da erreala. Beraz, norberak ez du osatzen berarentzat bere buruaren *kontzientziaren* eta objektuaren batasuna; baizik eta objektua bere buruaren negatibo-dena zaio. Norberaren bidez, arima den aldetik, substantzia bere uneetan halako moldez hedatzen da, non aurkakotutakoak bestea gogo-bizitzen baitu, bakoitzak bere arrotzearen bidez besteari irautea ematen baitio eta berak, era berean, bestearengandik jasotzen baitu. Aldi berean, une bakoitzak bere determinatutasuna balio gaindiezina eta errealtate finkoa bezala dauka bestearen aurrean. Pentsatzeak bereizketa hori modu orokorrean finkatzen du *onaren* eta *gaitzaren* arteko aurkakotasun absolutuaren bitartez, zeintzuek, batak besteari ihes eginez, inolaz ere ezin duten gauza berbera bihurtu. Baina izate finko horren arima aurkakotuzko igarobide bitartegabekoa da; horizatea determinatutasun bakoitzaren bihurriketa da determinatutasun aurkakotura; eta anozketa hori baino ez da osokiaren zerizana eta iraupena.

³ Diderot, *Rameuas Neffe*, Goethek itzulita, 1805. [*Neveu de Rameau, Rameau-aren iloba*].

⁴ «Art» eta «in seiner Art gut» (itzultzaileen oharra).

Egikaritzen den uneen higidura eta gogo-bizitze hori da orain aztertu behar duguna; arrozketak bere burua arroztuko du, eta horren bidez osokia bere adigaira itzuliko da.

42

Leherrik, substantzia sinplea bera aztertu behar da badiren baina oraindik gogo-bizituta ez dauden uneen bitartegabeko antolamenduan. — Natura bere osagai orokorretan hedatzen da, hau da, *airea mantentzen* den zerizan orokor guztiz gardena da; *ura*, aldiz, beti *eskaintzen* den zerizana; *sua* bere aurkakotza era berean beti desegiten duen eta bere sinpletasuna honetan bikoizten duen batasun *bizigarria* da; *lurra*, azkenean, antolaketa horren *korapilo sendoa* eta zerizan horien eta prozesu horren *subjektua* da, bere abiapuntua eta itzulera; era berean, bere buruaz jabetzen den errealitatearen barneko *zerizana* edo gogo sinplea, hain zuzen, horrelako gogomasa orokorretan hedatzen da mundu bat bezala; hau da, *bere baitan orokor-denaren*, *bere buruarekin berdin* den gogo-zerizanaren *lehenengo* masan; bere barnean *ezberdin* bihurtu den, *eskaintzen* eta *ematen* den eta *berbaitarako* den zerizana den *bigarreanean*; eta autokontzientzia bezala subjektua den eta suaren indarra bitartegabe bere baitan daukan *hirugarreanean*. Lehenengo zerizanean bere buruaz jabetzen da *berbaitan izatearen gisara*; bigarreanean, aldiz, *berbaitarako izatearen* bilakaera dauka orokor-denaren eskaintzaren bitartez. Baina gogoa bera osokiaren *berbaitan* eta *berbaitarako izatea* da, zeinak bere burua bitan banatzen duen: substantzian, irauten duen zerbait bezala, eta substantzian, bere burua eskaintzen duen zerbait bezala; eta gogoa, era berean, *berriro hartzen* du bere batasunean, bai bera irentsi eta suntsitzen duen sugar gisa, bai beraren tankera iraunkor gisa. — Ikusten dugu zerizan horiek mundu etikoaren giza elkarteari eta familiari dagozkiela, baina horiek daukaten gogo etxetiarra eduki gabe; aldiz, gogo horri patua arrotza baldin bazaio, autokontzientzia hemen zerizan horien botere erreala da, eta badaki dela.

Atal horiek aztertu behar dira bai, leherrik, kontzientzia hutsaren barnean *pentsamendu* edo *berbaitan* diren zerizanak bezala, baita kontzientzia errealean zerizan *objektibo* bezala errepresentatzen diren moduan ere. Sinpletasunaren forma hartan, kontzientzia guztien lehen zerizan bitartegabeko eta aldaezina, *bere buruarekin berdin den zerbait* bezala, *on-dena* da, *berbaitanaren* gogo-botere beregaina, non berbaitarako den kontzientziaren higidurak soilik funtsezkoa ez den moduan parte hartzen duen. Bestea, ordea, gogo-zerizan *jasalea* da, edo orokor-dena, etsi egiten duen eta horri esker indibiduoek euren banakotasunaren kontzientzia hartzen duten heinean; zerizan baliogabea da, *gaitz-dena*. Zerizanaren erabateko desegite hori iraunkorra da; lehenengo zerizana indibiduoaren oinarria, abiapuntua eta ondorioa da, eta horiek hor orokorrak besterik ez dira; bigarrena, aldiz, alde batetik, bere burua eskaintzen duen *beste batentzako izatea*; beste aldetik, horregatik, horien itzulera iraunkorra euren baitara, *banako-dena* eta bere *berbaitarako bihurtze* iraunkorra bezala.

43

Baina on-denaren eta gaitz-denaren *pentsamendu* arrunt horiek, era berean, euren baitatik arrotzen dira bitartegabe; *errealak* dira eta kontzientzia errealean daude une *objektibo* gisa. Beraz, lehenengo zerizana *estatu-boterea* da; bestea, *aberastasuna*. — Estatu-boterea, *substantzia* sinplea den heinean, *emaitza* orokorra, *gai absolutu bera* da, non indibiduoari euren *zerizana* iragartzen zaien eta horien banakotasuna euren *orokortasunaren* kontzientzia besterik ez den; era berean, emaitza eta *ondorio* sinplea da, zeinetatik euren *egitetik* datorrela desagertzen den;

bere egite guztiaren oinarri absolutua eta irautea da. — Horren bizitzaren eter-substantzia *sinple* hori, bere buruarekiko berdintasun aldaezinaren determinazio honen bitartez, izatea da, eta, honela, *beste batentzako izatea* bakarrik. Beraz, bere baitan bitartegabe bere buruaren aurkakoa da, *aberastasuna*. Jasaile-dena edo baliogabe-dena izan arren, era berean gogo-zerizan orokorra da, *guztion lanaren eta egitearen iraunkor bihurtzen den ondorioa*, zeina berriz guztion *gozamenean* desegiten den. Gozamenean indibidualtasuna *berbaitarako* bihurtzen da, edo *banako*; baina gozamen hori bera egite orokorraren ondorioa da, eta gozamenak, era berean, lan orokorra eta guztion gozamena sortzen du. *Erreal-den* horrek gogo-esanahi hau du, hots, bitartegabe orokorra dela. Edozein banakok uste du, une horretan, *norberaren mesederako* ekiten duela; izan ere, une horretan bere buruari bere baitarako izateko kontzientzia ematen dio, eta honegatik hori ez du hartzen gogoaren alderditzat; kanpoko ikuspuntutik begiratuta baino ez da argitzen bakoitzak bere gozamenean guztiei gozamena ematen diela, bere lanean guztientzat lan egiten duen moduan, beretzat egiten duen bezala, eta guztiek horrentzat. Bere *berbaitarako izatea*, beraz, *orokorra* da bere baitan; eta *norberaren mesederako ekitea* iritzia baino ez da, zeinak ezin duen erreal bihurtu bere gaia, hau da, guztiei ez dagokien zerbait egitea.

44

Beraz, bi gogo-botere horietan autokontzientziak bere substantzia, bere edukia eta bere helburua ezagutzen ditu; hor ikusten du bere zerizan bikoitza: batean, bere *berbaitan izatea*; bestean, bere *berbaitarako izatea*. Baina, aldi berean, gogo den heinean, indibidualtasunaren eta orokor-denaren edo errealitatearen eta norberaren banaketaren eta bere iraupenaren *batasun* negatiboa da. Indibiduoarentzat nagusigoa eta aberastasuna eskura daude objektu gisa; hau da, indibiduoak badaki horietatik *aske* dela eta uste du horien arrear aukera dezakeela eta bietako ezein ezin duela aukeratu. Kontzientzia aske eta *huts* hori bezala, *bere baitarako* besterik ez den zerizan bati aurkakotzen zaio. Beraz, bere barnean dauka zerizana *zerizan* bezala. Kontzientzia huts horretan berarentzat substantziaren uneak ez dira estatu-boterea eta aberastasuna, baizik eta *on-denaren* eta *gaitz-denaren* pentsamenduak. Baina autokontzientzia, bestalde, bere kontzientzia hutsak bere kontzientzia errealarekin duen harremana da, pentsatua denak zerizan objektiboarekin duena; *judizioa* da zerizanez. Bitartegabeko determinazioen bidez zerizan errealaren bi alderdientzat ondorioztatu da dagoeneko zein den ona eta zein gaitza; hura estatu-boterea da; hori aberastasuna. Baina lehenengo judizio hori ezin da gogo-judiziotzat hartu; izan ere, horretan alderdi bat *berbaitan* bakarrik den hori edo positiboa bezala dago determinatuta; bestea *berbaitarako* bakanik den hori edo negatiboa bezala. Baina biak, gogo-zerizanak diren aldetik, bi uneen elkar zeharkatzea dira; beraz, ez dira agortzen determinazio hartan; eta horiei dagokien autokontzientzia *bere baitan* eta *bere baitarako* da; honegatik, autokontzientzia bakoitzari modu bikoitz batean lotu behar zaio, eta horren bitartez euren izaera argituko da, hots, euren baitatik anoztutako determinazioak direla.

Autokontzientziarentzat objektu bat *ona* eta *berbaitan* da, hor bere burua aurkitzen badu; *gaitza*, aldiz, hor bere buruaren aurkakoa aurkitzen badu. *On-dena* errealitate objektiboaren eta autokontzientziaren *berdintasuna* da; *gaitz-dena*, aldiz, horien arteko ezberdintasuna. Aldi berean, *horrentzat* ona eta gaitza dena, *berbaitan* da ona eta gaitza; izan ere, *berbaitan* eta *berbaitarako-izatearen* uneak autokontzientzian dira berberak hain zuzen; zerizan objektiboaren gogo erreal da,

eta judizioa da horietan duen boterearen froga; *berbaitan* diren hori *bihurtzen* dituen boterearena. Horien irizpidea eta egia ez da horiek nola diren bitartegabe euren baitan *berdina* edo *ezberdina*, hau da, *berbaitan* edo *berbaitarako-izate* abstraktua, baizik eta zer diren gogoarekin duten harremanean, honekiko *berdin* edo *ezberdin* diren. Gogoak zerizan horiekin duen *harremana*, hasieran *objektu* bezala ezarrita *gogoaren bidez berbaitan* bihurtzen diren horiekin duena, aldi berean horien *isla da euren baitara*; isla horren bitartez gogo-izate erreala lortzen dute eta *euren gogo* den hori sortzen da. Baina bere lehen *bitartegabeko determinazioa* gogoak honekin duen *harremanetik* ezberdintzen den bezala ezberdintzen da hirugarrena ere, horien gogo propioa, bigarrenetik. Lehen eta behin, gogoak beraiekin duen harremanaren bidez sortzen den *bigarren berbaitana* ezin da izan *bitartegabeko* berbaitana bezalakoa; izan ere, gogoaren *bitartekotza* horrek *bitartegabeko* determinatutasuna higitzen du, eta beste zer bait bihurtzen du.

45

Horren arabera, *berbaitan* eta *berbaitarako den* kontzientziak *estatu-boterean* aurkitzen du bere *zerizan* eta *iraupen sinplea* oro har, baina ez bere *indibidualtasuna* bere honetan; bere *berbaitan izatea* aurkitzen du, baina ez bere *berbaitarako izatea*; hor egitea banako egite gisa ukatuta aurkitzen du eta obedientziara behartuta. Indibiduoak, beraz, botere horren aurrean bere baitara islatzen da; botere hori, horrentzat, zapaltzen duen zerizana da, eta *gaitz-dena*; izan ere, *berdina* izan beharrean indibidualtasunetik guztiz *ezberdina* da. *Aberasta suna*, berriz, *on-dena* da; gozamen orokorrera jotzen du, etsi egiten du eta guztiei euren norberaren kontzientzia ematen die. *Bere baitan* ongizate orokorra da; mesederen bat ukatzen baldin badu eta premia guztiak asetzen ez baldin baditu, hori bere beharrezko zerizan orokorra da, hots, banako-diren guztiei ematea eta emaile eskuzabal izatea, ahultzen ez duen ausazkotasun bat besterik ez da. Bi judizio horiek on-denaren eta gaitz-denaren pentsamenduei eduki bat ematen diete, guretzat zeukatenaren aurkakoa den edukia. Baina autokontzientziak harreman osagabea izan du bere objektuekin, hots, *berbaitarako izatearen* neurriaren arabera bakanik. Baina kontzientzia, era berean, *berbaitan* den zerizana da, eta alderdi hori ere neurri bihurtu behar du, honela baino ez baita osatzen gogo-judizioa. Alderdi horren arabera, *estatu-botereak* bere *zerizana* adierazten dio; aldeaz, lege egonkorra; aldeaz, gobernua eta agindua da, zeinak egite orokorraren higidura banakoak agintzen dituen; bata substantzia sinplea bera da; bestea, bere burua eta guztiak bizitzen eta mantentzen dituen substantzia horren egitea. Beraz, indibiduoak hor bere oinarria eta zerizana adierazten, antolatzen eta ekinarazten direla aurkitzen du. — *Aberastasunaren* gozamenaren bidez, aldiz, ez du esperientziatzen bere zerizan orokorra, baizik eta kontzientzia *iragankorra* eta bere buruaren gozamena besterik ez ditu mantentzen, *berbaitarako den banakotasun* bat den aldetik, bere zerizanarekiko *ezberdintasunarena*. Beraz, ondenaren eta gaitz-denaren adigaiek lehen zuten edukiaren aurkakoa hartzen dute hemen.

46

Juzgatze bi modu horietako bakoitzak *berdintasun* bat eta *ezberdintasun* bat aurkitzen du; juzgatzen duen lehenengo kontzientziak aurkitzen du estatu-boterea horrekiko *ezberdina* dela; aberastasunaren gozamena berarekiko *berdina* dela; bigarren kontzientziak, aldiz, estatu-boterea *berdin* berarekiko, eta aberastasuna *ezberdin*. *Berdin aurkitze* bikoitz bat eta *ezberdin aurkitze* bikoitz bat ditugu eskura, bi zerizantasan errealekiko harreman aurkakotua. Juzgatze bi modu ezberdin horiek

juzgatu behar ditugu, eta horretarako ezarritako neurria aplikatu behar dugu. Kontzientziak *berdin aurkitzen* duen harremana horrenbestez *on-dena da*; ezberdin aurkitzen duena, *gaitz-dena*; harremanak dauzkan bi modu horiek, hemendik aurrera, *kontzientziaren tankera ezberdintzat* jo behar ditugu. Kontzientziari on edo gaitz izateko determinazioa ematen zaio modu ezberdinean jokatzegatik, eta ez *berbaitarako* edo *berbaitan-izatea* printzipiotzat edukitzeagatik, zeren biak baitira zerizanezko uneak era berean; aztertu dugun juzgatzeko modu bikoitz horrek printzipioak banaturik aurkeztu zituen, eta horregatik *juzgatze ekintzaren* modu *abstraktuak* bakarrik barnebiltzen ditu. Kontzientzia errealak bi printzipioak bere barnean dauzka eta bereizketa bere *zerizanari* dagokio, hau da, horrek erreal-denarekin duen *harremanari*.

Harreman honen modua aurkakoa da: bata estatu-boterearekiko eta ondasunarekiko jokaera da, *berdin* den zerbait den aldetik; bestea, *ezberdin* den zerbait den aldetik. Berdin aurkitzen duen harremanaren kontzientzia kontzientzia *noblea* da. Botere publikoan kontzientzia horrek berarekin berdina dena aztertzen du, hots, horretan bere *zerizan sinplea* eta horren egitea daukala, horri obeditu eta begirunea erakutsi izan behar diola. Era berean, aberastasunean aztertzen du horrek bere beste alderdi zerizanezkoaren, *berbaitarako* izatearen kontzientzia ematen diola; honegatik, hori *zerizan* bezala bere buruarekin harremanean aztertzen du era berean, eta gozatzeko aukera ematen dion hori berrezagutzen du ongile bezala, eta honi eskerrak zor dizkiola sentitzen du.

47

Beste harremanaren kontzientzia, aldiz, *zitala* da, bi zerizantasek dauzkaten ezberdintasunari eusten diona; botere nagusian, orduan, *berbaitarako den* horren kate eta zapalketa bat ikusten du, eta horregatik gorrotatzen du nagusia, honi gogoz kontra baino ez dio men egiten eta beti prest dago matxinatzeko; aberastasunean, zeinaren bidez bere berbaitarako izateaz gozatzerantz heldzen den, era berean *zerizan* iraunkorarekin duen ezberdintasuna bakarrik ikusten du, hain zuzen; aberastasunaren bidez banakotasunaren eta gozamen iragankonaren kontzientziara bakarrik heldzen den heinean, maite du, baina erdeinatzen du; eta gozamina, hau da, berbaitan desagertzen den hori desagertzen denean, aberats-denarekin daukan erlazioa ere desagertutzat jotzen du.

Harreman horiek lehen eta behin *judizioa* adierazten dute, hau da, bi zerizanak objektu gisa kontzientziarentzat, ez *berbaitan* eta *berbaitarako*, diren horren determinazioa. Judizioan azaltzen denerreflexioa, aldeztu, *guretzat* soilik da determinazio bat edo bestea ezartzea eta, honegatik, biak gaitz dena era berean; ez da oraindik determinazio horien erreflexioa kontzientziarentzat berarentzat; aldeztu, determinazio horiek bitartegabe *zerizanak dira*, ez dira hori *bihurtu* eta ez dira *autokontzientziak* euren baitan. Horien xede den hori ez da euren bizigania; oraindik subjektu ez diren predikatuak dira. Banaketa honegatik, gogoaren juzgatzearen osokia ere bi kontzientzian apurtzen da, eta bietako bakoitzak determinazio aldebakar bat dauka. Arrozketak dauzkan bi alderdien *axolagabekeria* (bata, kontzientzia hutsaren *berbaitanarena*, hau da, on-denaren eta gaitz-denaren determinatutako *pentamenduena*; bestea, horien hor-izatearena estatu-botere eta aberastasun bezala) bien harremanera, *judiziora* goratu zen moduan, horrela kanpoko harreman hori goratu behar da barneko batasunera edo, pentsatzearen harreman gisa, errealitatera; eta judizioaren bi tankeren gogoa sortu behar da. Hori

gertatzen da *judizioa silogismo*, higidura bitartekari bihurtzen den neurrian, non judizioaren bi alderdien beharrezkotasuna eta erdigunea agertzen diren.

48

Judizioan, orduan, kontzientzia nobleak estatu-boterea halako moduan aurkitzen du bere aurrean, non oraindik estatu-botere hori ez baita norbera bat, baizik eta substantzia orokorra, zeinaz bere *zerizanaz* bezala jabetzen den, helburuaz eta eduki absolutuaz bezala. Substantzia orokorrarekin harreman hain positiboak izanik, bere helburu propioekin, bere eduki eta hor-izate bereziarekin negatiboki jokatzen du, eta horiek desagerrarazten ditu. Hori da *zerbitzuaren* heroismoa, izate banakoa orokor-denari eskaintzen dion eta, horrela, hori hor-izate bihurtzen duen *bertutea*; ondasunari eta gozamenari uko egiten dion eta eskura dagoen boterearen alde ekiten duen eta erreal den *pertsona*.

Higidura horren bitartez orokor-dena hor-izatearekin lotzen da oro har, baden kontzientzia kanporatze horren bitartez zerizanezkotasun izateraino garatzen den moduan. Horren zerbitzuan horretatik arrotzen da, hots, hor-izatean hondoratuta dagoen kontzientziatik; baina bere baitatik anoztutako *izatea berbaitana* da; kultura horren bidez begirunea lortzen du bere buruaren eta besteen aurrean. — Baina lehenago *pentsatutako* orokor-dena, *berbaitana* besterik ez zen estatuboterea, hain zuzen, higidura horren bidez, *baden* orokor-dena, botere erreal bihurtzen da. Eta botere hori obedientzia errealean baino ez da, zeina autokontzientziaren *judizioaren* bidez lortzen duen, hots, botere hori *zerizana* dela dioen judizioaren bidez, eta bere burua gogoz eskainiz. Zerizana norberarekin lotzen duen egite honek errealitate *bikoiztua* sortzen du: bera, *egiazko* errealitatea daukana bezala, eta estatuboterea, balio duen *egia-dena* bezala.

Baina botere hori arroketa horren bidez ez da oraindik bere burua estatuaren botere bezala dakien autokontzientzia; honen *legea* besterik ez da, edo horren *berbaitana*, balio duena; oraindik ez du *nahimen berezirik*; izan ere, autokontzientzia zerbitzariak oraindik ez du kanporatu bere norbera hutsa, eta horrela estatuaren boterea gogo-bizitu, bere izatearen bidez baizik; bere *hor-izatea* besterik ez du eskaini, ez bere *berbaitan izatea*. Autokontzientzia horrek *zerizanari* dagokion bat bezala balio du; bere *berbaitan izateari* esker berrezagutzen da. Besteek horretan euren *zerizana* indartuta aurkitzen dute, baina ez euren berbaitarako izatea; euren pentsatzea edo kontzientzia hutsa beteta aurkitzen dute, baina ez euren indibidualtasuna. Horregatik, autokontzientzia horrek bere *pentsamenduetan* balio du eta *ohoreaz* gozatzen du. Estatu-boterearentzat lan egiten duen meneko *harroa* da, hori nahimen propioa ez, baizik eta *zerizanezkoa* den heinean; eta bere buruarentzat *ohore* horretan bakarrik, iritzi orokorraren errepresentazio zerizanezkoan balio du, ez indibidualtasunaren *esker onekoan*, zeren horri ez baitio lagundu bere *berbaitarako izatera* iristen. Autokontzientzia honen *hizkuntza*, oraindik izatera ailegatu ez den estatu-boterearen nahimen propioarekin harremanetan izango balitz, guztien onerako ematen duen *aholkua* litzateke.

49

Horregatik, estatu-botereak oraindik nahimenik ez dauka aholkuaren aurrean, eta ezin du erabaki guztien onari buruzko iritzi ezberdinen arrear. Oraindik ez da *governua* eta, beraz, oraindik ez da estatu-botere erreal. — *Berbaitarako izatea*, nahimen bezala oraindik bere burua eskaini ez duen *nahimena*, estamentuen barneko gogo hila da, zeinak, *guztien* onari buruz hitz egin arren, bere buruarentzat bere on *berezia* gordetzen duen, eta guztien onari buruzko hitzontzikeria hori ekitearen

ordezko bihurtzeko joera daukan. Zerbitzuan gertatzen den hor-izatearen eskaintza osoa da, bai, heriotzaraino iristen denean; baina hiltzeko arrisku berak, gainditu denean, hor-izate berezi bat uzten du eta, horrenbestez, *berbaitarako izate* berezi bat, zeinak zalantzarri eta susmagarri bihurtzen duen guztien on orokorrarentzako aholkua, eta estatu-botereari buruzko bere iritzi propioa eta nahimen berezia bere buruarentzat gordetzen duen. Horrela, estatu-botereari dagokionez ezberdinki jokatzeko du, eta kontzientzia zitalaren determinazioa jasotzen du, alegia, beti matxinatzeko prest egotekoa.

Berbaitarako izateak gainditu behar duen kontraesan horrek, hau da, berak daukan ezberdintasunak estatu-boterearen orokortasunarekiko, aldi berean beste forma bat dauka, hots, hor-izatearen kanporatze osatua, hau da, heriotzan osatzen dena, baden kanporatze bat dela, kontzientziara itzultzen dena; kontzientziak ez du bizirauten kanporatzen hori, eta ez da *berbaitan* eta *berbaitarako*; baizik eta adiskidetu gabeko aurkakora igarotzen da. Horregatik, *berbaitarako izatearen* egiazko eskaintza honako hau da: heriotzan bezala guztiz ematen denean, baina kanporatze horretan era berean irauten duenean; horrela, benetan berbaitan den hori bihurtzen da, bere buruaren eta berari aurkakotzen zaion honen batasun berbera den aldetik. Barneko gogo hila, norbera bere horretan, sortzen eta arrotzen denez, aldi berean estatuboterea dagokion norberarengana goratzen da; era berean, anozketa hori gabe, ohorearen eta kontzientzia noblearen ekintzak eta bere ulermenaren aholkuak nabar iraungo lukete, asmo berezien eta burugogortasunaren zuhurtziak duen nabartasuna izango luke.

50

Baina arrozketan hori *hizkuntzan* baino ez da gertatzen, zeina hemen bere esanahi bereizgarian agertzen den. — Etikotasunaren munduan *legea* eta *agindua* den eta errealitatearen munduan aholkua den hizkuntzak *zerizana* dauka edukitzat, eta edukiaren forma da; baina hizkuntzak hemen bera den forma hartzen du edukitzat, eta *hizkuntza* gisa balio du; hitz egitearen indarra da, gauzatu behar duena gauzatzen duen hori bezala hartuta. Izan ere, norbera hutsaren *hor-izatea* da, norbera den aldetik; hizkuntzan autokontzientziaren *berbaitarako den banakotasunak* bere horretan existentzia jasotzen du, halako moldez non banakotasuna *besteentzat* baita. Bestela, *Nia*, Ni *huts* hori bezala, ez da *hor*; beste edozein kanporatzetan errealitate batean hondoratuta dago eta utz dezakeen tankera bat du; bere ekintzatik eta adierazpen fisionomikotik bere baitara islatuta dago, eta arimarik gabe uzten du hor-izate osagabea, non beti gehiegi edo gutxiegi dagoen. Baina hizkuntzak nia bere araztasunean barnebiltzen du, berak bakarrik adierazten du *Nia*, *Nia* bera. Bere *hor-izate* hori, *hor-izate* bezala, objektutasun bat da, zeinak horretan duen bere egiazko izaera. *Nia Ni* hori da, baina era berean *Ni orokorra*; bere agertzea era berean *Ni* honen kanporatzea eta desagertzea da bitartegabe, eta horren bidez bere irautea bere orokortasunean. Bere burua adierazten duen niari *entzuten* zaio; kutsadura bat da, non *Nia* bitartegabe bere xede diren horiekin batzen den eta autokontzientzia orokorra den. — Entzuten zaiola eta, honela bere *horizatea* bera bitartegabe *isiltzen* da; bere beste izate hori bere barnean jasotzen da berriz; eta hau da, hain zuzen, bere hor-izatea, bere buruaz jabetzen den *oraina* bezala, ez hor izatea, hor den moduan, eta hor izatea desagertze horren bitartez. Desagertze hori, beraz, bere irautea da bitartegabe; hori bere buruaz duen jakite propioa; eta bere burua daki beste norbera batengana igaro den, entzun zaion eta orokor den aldetik.

Gogoak hemen errealitate hori hartzen du, zeren muturrek, gogoia horien *batasuna* izaki, era berean bitartegabe berez errealitate propioa izateko determinazioa baitaukate. Horien batasuna unatuta dago alde sendoetan, horietako bakoitza bestearentzat bere baitatik at utzitako objektu erreala izanik. Batasuna, orduan, *erdigune* bat bezala agertzen da, zeina aldeen urratutako errealitatetik at geratzen den eta ezberdina den; erdiguneak, orduan, bere aldeetatik ezberdin den objektibotasun erreala du, eta *berbaitarako* da, hau da, hori dena da. *Gogosubstantzia*, halako gisa, hasten da existitzen, bere aldeentzat halako autokontzientziak lortu dituen heinean bakarrik, hots, norbera huts hori *bitartegabeko* errealitatetzat *balio* duela dakitenak, eta horretan era berean bitartegabe dakitenak ezen arrotzen duen *bitartekariaren* bidez baino ez direla hori. Norbera huts horren bitartez uneak arazten dira, eta bere burua dakien kategoria eta gogoaren uneak izatera heltzen dira; bitartekari honen bitartez, gogoia, gogozkotasun gisa, hor-izatera heltzen da. — Gogoia, orduan, erdigunea da, zeinak mutur haiek behar dituen eta zeina muturrak diren neurrian sortzen den; baina gogoia, era berean, horien arrear aurrera egiten duen gogo-osokia da, zeina mutur horietan bikoizten den eta zeinak bakoitza ukitu hori dela medio sortzen duen osokiraino bere printzipioan.

51

— Bi muturrak jadanik *euren baitan* gaindituta eta txikituta egoteak sortzen du horien batasuna; eta hori da biak biltzen dituen higidura, horien determinazioak elkar banatzen dituen eta, *gainera*, *mutur bakoitzean* lotzen dituen. Bitartekotza horrek bi muturretako bakoitzaren *adigaia* bere errealitatean ezartzen du; edo horrek bakoitza *bere baitan* dena bere *gogo* bihurtzen du. Bi muturrak, estatu-boterea eta kontzientzia noblea, azken horren bitartez deuseztatuta daude; lehena, obeditu behar zaion orokorden abstraktuan eta oraindik horri ez dagokion berbaitarako den nahimenean; bigarrena, gainditutako hor-izatearen obedientzian edo norberaren begirunearen eta ohorearen *berbaitan izatean* eta oraindik gainditu ez den berbaitarako izate hutsean, atzean zelatan geratu den nahimenean. Bi uneak, bi aldeak araztuz sortzen direnak, eta horrela hizkuntzaren uneak direnak, *orokor-den abstraktua*, zeinari ongi orokor deitzen dioten, eta *norbera* hutsa dira, zeinak hor-izate aniztetan hondoratutako kontzientziari uko egin zion zerbitzuan. Adigaiaren biak berbera dira; zeren norbera hutsa, hain zuzen, orokor-den abstraktua baita; eta honegatik horien batasuna euren erdigune gisa ezarrita dago. Baina *norbera* kontzientziaren muturrean soilik da erreala hasieran, eta *berbaitana*, aldiz, estatu-boterearen muturrean soilik da erreala hasieran; kontzientziari falta zalona da estatu-boterea benetan harengana igarotzea eta ez *ohore* bezala soilik; estatu-botereari falta zalona da honi nahimen gisa obeditzea eta ez *guztien ongi* esaten zaion hori bezala soilik; edo falta zaiona da norbera erabakigarria izatea. Adigaiaren batasuna, non estatu-boterea oraindik dirauen eta zeinetaraino kontzientzia araztu egin den, *higidura bitartekari* horretan erreal bihurtzen da; higidura horren hor-izate sinplea, *erdigune* bezala, hizkuntza da. — Hala ere, erdigunearen aldeak ez daude oraindik bi *norbera* bezala; izan ere, estatu-boterea norbera izatera baino ez da gogo-bizitzen; hizkuntza hori ez da oraindik, orduan, bere burua guztiz dakien eta adierazten duen gogoia.

52

Kontzientzia noblea, norberaren muturra delako, agertzen da *hizkuntzaren* abiapuntu gisa; eta hizkuntzaren bitartez erlazioaren alderdiek osoki arimadunaren

tankera hartzen dute. Zerbitzu isilaren heroismoa *losintxaren heroismo* bihurtzen da. Zerbitzuaren erreflexio hizlari horrek osatzen du bere burua txikitzen duen gogor-erdigunea, eta bere mutur propioa bere baitara islatu ez ezik, gainera, bortxa orokorraren muturra mutur horretara islatzen du; eta hasieran *berbaitan* den botere hori bihurtzen du *berbaitarako izate* eta autokontzientziaren banakotasun. Horren bidez, botere horren gogoia bihurtzen da *mugarik gabeko monarka*; *mugarik gabe*, eta beraz, losintxaren hizkuntzak igotzen du boterea bere araztutako *orokortasunera*; unea, hizkuntzaren ekoizpen gisa, hau da, gogora izatera araztutako hor-izatearena bezala, bere buruarekiko berdintasun araztua da; *monarka*, eta beraz, hizkuntzak era berean *banakotasuna* bere gailurrera igotzen du. Kontzientzia noblea gogo-batasun sinplearen alde horren arabera kanporatzen da *bere pentsatzearen berbaitan* hutsetik, bere Nia berberetik. Zehazkiago, hizkuntzak bestela irizitako zerbait besterik ez den banakotasuna igotzen du bere baden araztasunera, monarkari bere *izen* propioa emanaz; izan ere, banako-denaren eta beste guztien arteko *bereizketa iritzi* kontua izan beharrean guztiek erreal bihurtzen dute, hain zuzen, izenaren bidez; izenean banako-dena banako huts bezala *hartzen* da, ez bakarrik bere kontzientzian, baizik eta denon kontzientzian. Izenaren bitartez, orduan, monarka beste guztitik bereizten, salbuesten eta bakartzen da; izenean monarka atomoa da, bere zerizana ez er esan ezin duena eta lagunik ez daukana. Honela, izen hori bere baitara islatzea da, edo botere orokorra *berbaitan bertan* daukan *errealitatea*; horren bidez boterea *monarka* da. Monarkak, *banako horrek*, badaki, bere aldetik, *bera*, *banako hori*, botere orokorra dela; eta hori daki, nobleak estatu-boterearen zerbitzurako prest egoteaz gain *apaingarri* gisa tronuaren inguruan jartzen direlako eta tronuan eserita dagoenari *beti esaten* diotelako zer *den*.

53

Goraipamenaren hizkuntza, horrela, gogoia da, zeinak *estatuboterean bertan* bi muturrak biltzen dituen; hizkuntza horrek botere abstraktua bere baitara islatzen du, eta honi beste muturraren unea ematen dio, nahi duen eta erabakitzen duen *berbaitarako* izatea, eta, horrela, bere buruaz jabetzen den existentzia; edo, honela, autokontzientzia *erreal banako* horrek lortzen du bere burua boterea izateaz *ziur izatea*. Hori norberaren puntua da, non puntu anitzak elkartzen diren, *barneko ziurtasunaren* kanporatzearen bitartez. — Baina estatuboterearen gogo propio hori bere errealitatea eta jakia kontzientzia noblearen egitearen eta pentsatzearen eskaintzan izatean datzan heinean, hori *arroztutako beregaintasuna* da; kontzientzia nobleak, *berbaitarako* izatearen muturrak, berriro jasotzen du *orokortasun errearen muturra* arrotzu zitzaion pentsatzearen orokortasunaren truke; estatuboterea *igaro* egin da kontzientzia noblera. Hor bakarrik bihurtzen da estatu-boterea eraginkor; bere *berbaitarako* izatean uzten dio *zerizan bizigabea* izateari, berbaitan izate abstraktuaren muturrean agertzen zen bezala. *Berbaitan* ikusita, *bere baitara islatutako estatu-botereak* edo hori gogo bihurtu izateak esan nahi du *autokontzientziaren une* bihurtu dela, hau da, *gaindituta* bezala soilik dela. Horrela, estatu-boterea orain gogoia eskaini eta etsi egin duen zerizana da, edo estatu-boterea *aberastasun* bezala existitzen da. — Bere adigaiaren arabera beti bihurtzen den aberastasunaren aurrean beti mantentzen da errealitate bezala, baina adigaia, hain zuzen, higidura honetan duen errealitate bezala, hots, bera osatzen duten zerbitzuaren eta ohorearen bitartez aurkakora, boterearen kanporatzera, igarotzea. Bere baitarako, orduan, horren nahimena den berezko *norbera*, kontzientzia noblearen egozpenaren bitartez, bere burua kanporatzen duen orokortasun

bihurtzen da, banakotasun eta ausazkotasun osatu bat bihurtzen da, edozein nahimen boteretsuagoren aurrean etsi egiten duena; horri *orokorki* berrezagutua den eta adierazi ezin daitekeen beregaintasunetik bere izen kaskala geratzen zaio.

Kontzientzia noblea botere orokorrarekin *berdin* izango balitz bezala lotzen bada, bere egia da bere zerbitzuan bere berbaitarako izate propioa mantentzen duela, baina bere nortasunari uko egiterakoan substantzia orokorraren gainditze eta txikitze erreala dela. Bere gogoa erabateko ezberdintasunaren erlazioa da: alde batean, bere ohorean bere nahimena mantentzea; beste aldean, nahimen horri uko egitean, alde, bere barnekotik arrotzea eta bere buruarekiko ezberdintasun goren bihurtzea; alde, horretan substantzia orokorra menperatzea eta substantzia hori bere buruarekiko guztiz ezberdin bihurtzea. — Argi dago, horrela, kontzientzia zitala deitzen zenaren aurkako *judizioan* zeukan determinatutasuna eta, horrela, kontzientzia zitala bera desagertu direla. Azken horrek bere helburua lortu du, hau da, botere orokorra berbaitarako izatearen azpian jartzea.

54

Horrela, botere orokorraren bidez aberasturik, autokontzientzia *ongintza orokor* bezala existitzen da, edo kontzientziarentzat berriz objektua den *aberastasuna* da. Izan ere, aberastasuna, kontzientziarentzat bai da menperatutako orokor-dena, baina lehenengo gainditze horren bidez norberarengana guztiz itzuli ez dena. — *Norberak gainditutako zerizan orokorra* dauka objektutzat, oraindik ez *bere burua norbera gisa*. Objektua oraintsu sortu dela eta, kontzientziak horrekin duen *bitartegabeko* harremana ezartzen da, hau da, oraindik ez da aurkeztu ezberdintasunik honekiko; kontzientzia noblea da zerizangabe bihurtutako orokor-denean bere berbaitarako izatea jasotzen duena; honegatik, aberastasuna berrezagutzen eta eskerrak ematen dizkio ongileari.

Aberastasunak berbaitarako izatearen unea bere baitan dauka. Aberastasuna ez da estatu-boterearen orokor-den norberagabea, edo gogoaren izaera ez-organiko berezkoa, baizik eta boterea da, botereak nahimenaren bidez bere burua hartzen duen bezala horien aurka, hots, euren gozamenerako horretaz jabetu nahi dutenen aurka. Baina aberastasunak zerizarren forma besterik ez daukan heinean, *berbaitan* ez den, baizik eta gainditutako berbaitana den berbaitarako izate aldebakar hori indibiduoak bere gozamenean bere baitara egiten duen zerizangabeko itzulera da. Aberastasuna, orduan, bizitu egin behar da; eta bereerreflexioaren higadura honetan datza, hots, berbaitarako besterik ez den hori *berbaitan eta berbaitarako izate* bihurtzean eta gainditutako zerizana den hori zerizan bihurtzean; horrela lortzen du bere gogo propioa bere baitan. Lehenago higadura horren forma aztertu dugunez, hemen nahikoa da bere edukia zehaztea.

Kontzientzia noblea, orduan, hemen ez zaio lotzen objektu bati zerizana den aldetik, baizik eta berari arrotza zaion *berbaitarako izate* hori bera da; kontzientzia nobleak bere norbera halako gisa *topatzen* du arrotzuta, errealitate objektibo finko gisa, bere berbaitarako izate finko baten eskutik jaso behar duena. Bere objektua berbaitarako izatea da, hau da, *berea dena*; baina objektua denez, aldi berean bitartegabe errealitate arrotz bat da, zeina berbaitarako izate propioa, nahimen propioa den, hau da, bere norbera nahimen arrotz baten esku ikusten du; eta horri dagokio erabakitzea hari bere norbera uzten dion.

55

Alde berezi bakoitza bazter dezake autokontzientziak; eta, honegatik, alde horietako batekin duen loturan bere berrezagutua izatea eta *berbaitan* duen *balioa*

mantentzen ditu bere baitarako den zerizana den aldetik. Baina hemen bere burua bere *errealitate berezkoenaren* aldetik ikusten du, edo bere Niaren aldetik bere burutik at eta beste baten eskuetan; bere *pertsonaltasuna*, halakotzat, beste baten pertsonaltasun ausazko baten eskuetan ikusten du, une baten zoriaren, apeta baten edo egoera axolagabeenaren eskuetan. — Zuzenbide egoeran zerizan objektiboaren eskuetan dagoena agertzen da *ausazko eduki* bezala, zeina bazter daitekeen, eta boterea ez dagokio *norberari*, *halakotzat* hartuta, baizik eta norbera berrezagutzen da. Baina hemen norberak ikusten du beraren ziurtasuna, halakotzat hartuta, guztiz zerizangabea dela, pertsonaltasun hutsa pertsonaltasun-eza absolutua dela. Bere esker onaren gogoa, orduan, bai bilaukeria sakonenaren bai matxinada sakonenaren sentimendua da. Nia hutsak berak bere burua bere baitatik at eta urratuta ikusten duen heinean, unadura horretan, aldi berean, jarraitasuna eta orokortasuna daukan guztia, legea, ona eta zuzena deitzen den guztia desegiten eta hondoratzen da; berdina den guztia desegiten da, zeren *ezberdintasun hutsena* baitugu eskura: absolutuki zerizanezko-denaren zerizangabetasun absolutua, berbaitarako izatearen bere baitatik at izatea. Nia hutsa bera txiki-txiki eginda dago.

Kontzientzia horrek, orduan, berbaitarako izatearen objektibotasuna berreskuratzen eta gainditzen baldin badu aberastasunaren eskutik, hori ez dago osatua bere adigaiaren arabera bakarrik (aurreko erreflexioaren moduan), baizik eta bere burua ere ez da asebetetzen; norberak bere burua objektibo den zerbait bezala hartzen duela eta egiten den erreflexioa Ni hutsean bertan ezarritako kontraesan bitartegabekoa da. Baina aldi berean kontzientzia hori, norbera gisa, bitartegabe kontraesan horren gainean dago, malgutasun absolutua da, zeinak norberaren gainditua izate hori berriz gainditzen duen, eta berbaitarako izateari berari zerbait arrotz bihurtu izatearen bilaukeria hori berriz egozten dion eta, bere buruaren jasotze horren aurka matxinatuta, *jasotzean* bertan *bere baitarako* den.

56

Kontzientzia horrek urraketa absolutuarekin duen harremana loturik dagoen heinean, kontzientzia noble eta kontzientzia zitalaren *arteko* bereizketa desagertzen da bere gogoan; eta biak berbera dira. — Aberastasun ongilearen gogoa, bestalde, bereiz daiteke ongintza hartzen duen gogoaren kontzientziarik, eta aparte aztertu behar da. Aberastasunaren gogoa zerizangabeko berbaitarako izatea zen, etsita utzitako zerizana. Baina bere banatze-ekintzaren bitartez *berbaitan* bihurtzen da; gogo horrek, bere burua eskaintzeko determinazioa bete zuen heinean, bere baitarako bakarrik gozatzeko banakotasuna gainditzen du, eta gainditutako banakotasun bezala *orokortasuna* edo *zerizana* da. — Banatzen duena edo besteei ematen diena *berbaitarako* izatea da. Baina berak ez du ematen bere burua norberagabeko izaera gisa, bizitzaren axolagabeki etsita emandako baldintza gisa, baizik eta bere buruaz jabetzen den zerizan gisa, bere buruari eusten dion zerizan gisa; ez da osagaiaren botere ez-organikoa, zeina kontzientzia hartzaileak bere baitan iragankor bezala dakien, baizik eta norberaren gaineko boterea, zeinak bere burua *beregain* eta *apetazko* dela dakien eta aldi berean dakien ematen duena beste baten norbera dela. Aberastasunak, orduan, bilaukeria partekatzen du bezeroarekin, baina, matxinadaren orde, harrokeria agertzen da. Izan ere, alde batetik badaki, bezeroak bezala, *berbai tarako* izatea ausazko *gauza* dela; baina aberastasuna da ausazkotasun hori, zeinak pertsonaltasuna duen bere eskutan. Bazkari baten bitartez Ni-norbera arrotza eta, honela, bere barne-barneko zerizanaren men egitea lortu dela uste duen harrokeria hori dela eta ez du ohartzen bestearen matxinada; ez da konturatzen kate

guztien erabateko egozpenaz; berbaitarako izatearen *bere buruarekiko berdintasuna* ezberdin bihurtu zaion, berdina den guztia, iraute guztia urratuta dagoen eta, batez ere, ongilearen iritzia eta berbaitana gehien urratu egin zaion unaketa hutsaz ez da konturatzen. Aberastasuna barne-barneko amildegiaren aurrean dago bitartegabe, hondogabeko sakoneraren aurrean dago, non edozein euskarri eta substantzia desagertu egin den; eta sakonera horretan gauza arrunta bat, bere aldaratearen joko bat, bere apetaren ustekabekoa besterik ez du ikusten; bere gogoa gogoak utzi duen azala dela deritzon iritzi erabat zerizangabea da.

57

Autokontzientziak estatu-boterearen aurrean bere hizkuntza zeukan, edo gogoa mutur horien artean erdigune erreal gisa azaldu zen; eta, halaber, autokontzientziak aberastasunaren aurrean ere badauka hizkuntza; baina bere matxinadak du gehienbat hizkuntza. Aberastasunari bere zerizantzuaren kontzientzia ematen dion eta, horrela, horren jabe bihurtzen den hori da, aldi berean, losintxaren hizkuntza, baina laidogarriarena; izan ere, hizkuntza horrek zerizantzuat adierazten duena badauki ez dela *bere baitan* den zerizana, baizik eta etsita utzitakoa. Baina losintxaren hizkuntza, lehenago esan den bezala, oraindik aldebakarra den gogoa da. Izan ere, horren uneak dira, hain zuzen, zerbitzuaren kulturaren bidez araztu den eta, honela, existentzia huts bihurtu den *norbera* eta boterearen *berbaitan* izatea. Baina adigai hutsa, non *norbera* sinplea eta *berbaitana* (Nia huts hura eta zerizan edo pentsatze huts hori) berbera diren, bi aldeen batasun hori, zeinen arrearan elkarreragina gertatzen den, ez dago oraindik hizkuntza honen kontzientzian; kontzientzia horrentzat objektua oraindik norberari aurkakotzen zaion *berbaitana* da; edo *objektua*, berarentzat, oraindik ez da bere *norbera* propioa, halakotzat hartuta. — Baina unaduraren hizkuntza hizkuntza betegina eta kultur mundu osoaren egiazko gogoa da. Autokontzientzia hori, zeinari bere bilaukeria egozten dion matxinada dagokion, bitartegabe bere buruarekiko berdintasun absolutua da unadura absolutuan, autokontzientzia hutsaren bitartekotza hutsa bere buruarekin. Judizio identikoaren berdintasuna da, non pertsonaltasun bat eta bera bai subjektu bai predikatu den. Baina judizio identiko hori, aldi berean, amaigabea da; izan ere, pertsonaltasun hori absolutuki bikoiztuta dago: subjektua eta predikatua *badiren axolagabeak* dira, bata besteaz arduratu gabe, batasun beharrezkorik gabe, halako moldez non bakoitzak berezko pertsonaltasun baten boterea baitauka. *Berbaitarako izateak bere berbaitarako izatea* dauka objektutzat, *beste* bat izango balitz bezala guztiz, eta, aldi berean, bitartegabe *bera* izango balitz bezala; bere burua beste bat bezala; baina ez beste edukia duena, baizik eta edukia *norbera* berbera da aurkakotasun absolutuaren eta hor-izate guztiz axolagabekoaren forman. Hemen, beraz, eskura dugu kultur mundu erreal honen gogoa, bere egian bere buruaz eta bere *adigaiak jabetzen dena*.

Gogo hori errealitatearen eta pentsamenduaren bihurriketa eta anozketa absolutu eta orokorra da; kultura hutsa. Mundu horretan esperientziatzen da, ez boterearen eta aberastasunaren zerizan errealek, ezta horien adigai jakinek ere, hau da, on eta gaitz, edo onaren eta gaitzaren kontzientziak, kontzientzia nobleak eta zitalak, ez daukatela egirik; baizik eta une horiek guztiak bihurritzen dira bata bestean, eta bakoitza bere buruaren aurkakoa da.

58

— Substantzia den botere orokorrak, indibidualtasunaren printzipioaren bidez bere gogozkotasunera heltzen den heinean, berezko *norbera* bere baitan hartzen du, baina

izena bezala bakarrik; eta botere erreala den heinean, bere burua eskaintzen duen zerizan indargabea da. — Baina etsita utzitako norberagabeko zerizan hori, edo gauza bihurtutako norbera, zerizanak bere baitara egiten duen itzulera da; berbaitarako den berbaitarako izatea da, gogoaren existentzia. — Zerizan horien, on-denaren eta gaitz-denaren, pentsamenduak higidura horretan bihurritzen dira era berean; on bezala definitzen dena gaitz da; gaitz bezala definitzen dena ona da. Une horietako bakoitzaren kontzientzia noble edo zital dela baderitzogu, une horiek euren egian determinazio horietan izan behar direnaren aurkakoak dira; kontzientzia noblea zital eta bilau bihurtzen da, eta era berean doilorkeria autokontzientiaren askatasun garatuenean noblezia bihurtzen da. — Ikuspuntu formaletik begiratuta, dena kanporantz berbaitarako den horren aurkakoa da; eta berriz, berbaitarako den hori ez da egiatan, baizik eta izan nahi duena ez beste gauza bat; berbaitarako izatea gehienbat bere burua galtzea da; eta bere buruaren anozketa, gehienbat, bere burua mantentzea. — Hau da eskura duguna, hots, une guztiek elkarri justizia orokorra ezartzen diote; bakoitzak arrotzen du bere burua bere baitan eta, era berean, bere aurkakoraino garatzen da, eta, horrela, hori bihurritzen du. — Baina egiazko gogo, hain zuzen, guztiz banatuta dauden horien batasuna da, eta norberagabeko muturren errealitate askearen bidez horien erdigune gisa existentziara heltzen da. Bere horizatea da hitz egite orokorra, eta juzgatze urratzailea da, zeinari osokiaren zerizantzat eta atal errealtzat balio behar duten une horiek guztiak desegiten zaizkion; eta zeina bere buruarekin jokatzeko duen eta bere burua desegiten duen jokoa den. Juzgatze eta hitz egite horiek, orduan, egia-dena eta hertsaezin-dena dira; horiek, berriz, dena menperatzen dute; horiek dira mundu erreal honetan egiatan aintzat hartu beharreko gauza bakarra. Mundu horren zati bakoitzak lortzen du bere gogo adieraz dadin, edo bere buruaz gogoz hitz egin dadin, eta bera zer den esan dadin. — Kontzientzia zintzoak une bakoitza irauten duen zerizantzasun bezala hartzen du; eta kulturarik gabeko pentsamendu-gabezia da ez jakitea berak era berean aurkakoa egiten duela. Baina unatutako kontzientzia bihurriketaren kontzientzia da, eta, hain zuzen, bihurriketa absolutuarena; adigaia da nagusi horrengan, kontzientzia zintzoarentzat sakabanatuta dauden pentsamenduak lotzen dituen eta gogoz betetako hizkuntza duen adigaia.

59

Beraz, gogoak bere buruari buruz egiten duen hizketaren edukia adigai eta errealitate guztien bihurriketa da, bere buruaren eta besteen iruzur orokorra; eta iruzur hori esateko lotsagabekeria, hain zuzen, horrexegatik, egia handiena da. Hizketa hori musikariaren bihunikeria da, «zeinak hogeita namar aria, italiarrak, frantsesak, rragikoak, komikoak, mota guztietakoak, metatu eta nahastu zituen; orain baxu ahots sakona erabiliz jaitsi egiten da infernuraino, gero eztarria behartuta falsettoa kantatuz zerua urratzen du, aldizka sutan, baretsu, harro eta isekari»⁵. — Onaren eta egiazkoaren melodia tonuen berdintasunean, hau da, nota batean zintzoki ezartzen duen kontzientzia lasaiari hizketa hori iruditzen zaio «jakituriaren eta erotas unaren zentzugabekeria, azkartasun eta maltzurkeriaren nahasketa, egiazko eta gezurrezko ideien nahasketa, sentzazioaren bihurriketa erabatekoaren, lotsagabekeria osoaren eta zintzotasun eta egia osatuaren nahasketa. Ezinezko izango zaio tonu horiek guztiak erabiltzeari uko egitea eta sentimenduen eskala osoa, erdeinu eta deitoratze sakonetik mirespen eta hunkipen goreneraino gora eta behera

⁵ Diderot, *Rameau-ren hiloba*. Ondoren datorren aipamena ere bai (itzultzaileen oharra).

ibiltzeari uko egitea; azken horietan ez da faltako ukitu barregarri bat, zeinak euren izaera kentzen dien»; lehen haiek, berriz, euren zintzotasunean ezaugarri adiskidetzalea, euren sakonera ikaragarrian dena menperatzen duen eta gogoia bere baitara itzultzen duen ezaugarria edukiko dituzte.

Bere buruari nabari zaion nahasketa horren hizketaren aurrean, egiazkoaren eta onaren *kontzientzia sinple* haren hizketa aztertzen baldin badugu, orduan hori kulturaren gogoaren hitz-jario zintzoaren eta zuhurraren aurrean isila besterik ezin da izan; izan ere, hari ezin dio jadanik ez dakien eta esaten duen ezer esan. Lortzen baldin badu zerbait esatea, orduan esaten du hark adierazten duen berbera, baina ergelkeria hau egiten du, hots, zerbait berria eta ezberdina esaten duela uste izatea. Bere hitzek ere, «lotsagabe, zital», jadanik ergelkeria adierazten dute, zeren hark bere buruari buruz erabiltzen baititu. Gogo horrek bere hizketan monotono den guztia bihurritzen badu, bere buruarekin berdin den hori abstrakzioa besterik ez delako, nahiz bere errealitatean bihurriketa izan bere baitan; eta, aldiz, kontzientzia zuzenak ona dena eta noblea dena, hau da, bere kanporatzean berdin mantentzen dena, hemen ahal den modu bakarrean babesten badu, hau da, horiek ez dute galtzen balioa, gaitzarekin *uztartzen* eta berarekin *harremanetan daudelako*; izan ere, hori da bere baldintza eta beharrezkotasuna, horretan datza naturaren *jakituria*; bada, orduan kontzientzia honek hori ezeztatzea uste izan zuenean, gogoaren hizketaren edukia bildu besterik ez zuen egin modu arrunt batean; pentsamendurik gabeko hitz egiteko modu horrek, noblea eta ona den horren *aurkakoa* noblea eta ona den horren *baldintza* eta *beharrezkotasuntzat* hartzen duen heinean, uste du honako hau ez beste zerbait esaten duela, hots, on eta noble deitzen zaiona bere zerizanean bere buruaren bihurriketa dela; gaitza, aldiz, bikainena dela.

60

Kontzientzia sinpleak gogo gabeko *pentsamendu* horren ordezkari bikainena den honen *errealitatea* hartzen badu, bikainen hori irudikatutako kasu baten edo egiazko pasadizo baten *adibidean* azaltzen duen heinean, eta honela erakusten badu ez dela izen kaskala, baizik eta *eskura* dugula, orduan bihurritutako egitearen errealitate orokorra mundu erreala guztiaren aurka dago, non adibide bakoitza zerbait guztiz banakoa den, *espece* bat besterik ez den; eta ona eta noblea den horren hor-izatea pasadizo gisa aurkeztea, berdin asmatutakoa edo erreala den, horri buruz esan daitekeen gauzarik ganatzena da. Azkenean kontzientzia sinpleak bihunitutako mundu hori guztia desagitea eskatu baldin badu, orduan berak ezin dio *indibiduoari* eskatu mundu horretatik urruntzea, zeren Diogenes bera bere upelean munduak baldintzatuta baitago; eta banako-denari hori eskatzea da, hain zuzen, gaitz gisa hartzen dena, hau da, *norberaren burua* zaintzea *banako-den* gisa. Baina, *indibidualtasun* orokorrari zuzenduta, urruntzeko eskaerak ezin du esan nahi arrazoimenak lortu duen gogo-kontzientzia garatua berriz baztertzen duela, bere uneen aberastasun anitza berezko bihotzaren sinpletasunean hondoratzen dela eta natura eta inozotasun deitu zaion horretan erortzen dela berriz, hots, basoan eta animalia-kontzientzian; baizik eta desagite eskaera hori kulturaren gogoari adierazten zaio, horrela gogo hori, gogo gisa, bere nahastetik bere baitara itzul dadin eta kontzientzia-maila garaiagoa lor dezan.

Izan ere, gogoak bere baitan osatu du hori dagoeneko. Bere buruaz jabetzen den eta hori adierazten duen kontzientziaren unaketa hor-izateari buruzko eta osokiaren nahasketari buruzko eta, gainera, bere buruari buruzko barre maltzurra da; aldi

berean, nahasketa honen guztiaren oihartzun ahula da, oraindik entzuten dena. — Bere burua entzuten duen errealitate guztiaren eta adigai determinatu guztien harrokeria mundu errealak bere baitan duen isla bikoitza da; batetik, kontzientziaren *norbera horretan*, *horretan* den aldetik; besterik, kontzientziaren *orokortasun* hutsean, edo pentsatzean. Lehenengoari dagokionez, bere baitara etorritako gogoak bere begirada errealitatearen mundura zuzentzen du, eta mundu hori bere helburutzat eta eduki bitartegabekotzat dauka; bigarrenari dagokionez, aldiz, bere begirada, alde, bere barnean dago eta negatiboa da munduaren aurrean; alde, mundutik urrunduz zerura zuzenduta dago, eta haratagokoa da bere objektua.

61

Norberarengana itzultzeari dagokionez, *gauza* guztien *harrokeria* bere *harrokeria propioa* da, edo hori harro *da*. Berbaitarako den *norbera da*, zeinak dena juzgatu eta ahotan hartuz gain, gainera, gogo zorrotzez, errealitatearen zerizan finkoak eta judizioak ezartzen dituen determinazio finkoak, euren *kontraesanetan*, esaten dakien, eta kontraesan hori da horien egia. Formaren ikuspuntutik, norberak daki guztia bere baitatik arrotuta dagoela: *berbaitan* izatea *berbaitarako izatetik* bananduta; irizitakoa eta helburua egiatik bananduta; eta bi horietatik, berriz, *beste batentzako izatea*; eta adierazten dena benetako irizititik eta egiazko gaitik eta asmotik bananduta. Norberak badaki, orduan, edozein une bestearen aurka, oro har guztien bihurriketa, ongi adierazten; norberak badaki bakoitza den baino hobeto zer den, edonola determinatuta dagoela ere. — Norberak substantziadun den hori bere baitan biltzen duen *batasun ezaren* eta *gatazkaren* aldetik ezagutzen duen heinean, ez batasunaren aldetik, badaki oso ondo substantziadun den hori *juzgatzen*, baina gaitasuna galdu du hori *atzemateko*. — Harrokeria horrek gauza guztien harrokeria behar du, gauza horietatik norberaren kontzientzia bere buruari emateko, eta kontzientzia hori sortzen duen eta horri eusten dion arima da. Boterea eta aberastasuna dira bere ahaleginaren helburu gorenak; badaki ukazioaren eta eskaintzaren bidez bere burua orokor-deneraino garatzen duela, honen jabe izatea lortzen duela eta, horrela, balio orokorra daukala; horiek dira onartutako botere errealak. Baina horien balio hori bera harroa da; eta, hain zuzen, norberak boterea eta aberastasuna eskuratzen dituen heinean, badaki horiek ez direla norbera-zerizanak, baizik eta bera dela beraien boterea eta horiek harroak direla. Horrela, horiek lortzerakoan horiek gainditzen dituela, gogoz betetako hizkuntzan agertzen da, zeina horregatik norberaren interes gorena eta osokiaren egia den; horren barne *norbera hori* gogo-norbera bihurtzen da, egiazko balio orokorra daukan *norbera*, eta ez determinazio errealei ezta idealei ere dagokien *norbera huts* hori bezala. *Norbera hori* erlazio guztien bere burua urratzen duen izaera *da*, eta horretaz jabetzen den honen urratzea; baina matxinatutako autokontzientzia den heinean baino ez du ezagutzen bere unadura *propioa*, eta hori jakitean bertan horretatik gain goratzen da bitartegabe. Harrokeria hartan edozein eduki eduki negatibo bihurtzen da, zeina ezin den berriro positiboki atzeman; objektu positiboa *Nia huts bera* bakarrik da, eta urratutako kontzientzia *berbaitan* bere baitara itzuli den autokontzientziaren bere buruarekiko berdintasun huts hori da.

62

b. SINESMENA ETA ULERMEN HUTSA

Bere buruaren arrozketaren gogoak bere hor-izatea kulturaren munduan dauka; baina osoki honek bere burua arrotzu egin duen heinean, horretatik haratago *kontzientzia hutsaren* edo *pensatzearen* mundu ez- erreal datza. Bere edukia huts-hutsik pentsatuta den hori da, pentsatzea da bere osagai absolutua. Baina pentsatzea hasieran mundu horren *osagaia* den heinean, kontzientziak pentsamendu horiek *dauzka* besterik gabe, baina oraindik ez ditu *pentsatzen*, edo ez daki pentsamenduak direla; baizik eta horiek horrentzat *errepresentazioaren* forman daude. Izan ere, errealitateetik kontzientzia hutsera sartzen da, baina oraindik errealitatearen eremuan eta determinatutasunean dago. Urratutako kontzientzia *berbaitan* kontzientzia hutsaren *bere buruarekiko berdintasuna* besterik ez da, guretzat, ez bere baitarako. Hura, orduan, bitartegabeko goraketa da, oraindik bere barnean osatu ez dena, eta oraindik bere barnean dauka baldintzatzen duen printzipio aurkakotua, oraindik hori menperatzea lortu gabe higidura bitartekotuaren bidez. Horregatik, horrentzat bere pentsamenduaren zerizanak ez du balio berbaitan abstraktuaren forman bakanik dagoen *zerizan gisa*, baizik eta arrunki *erreal* den horren forman, beste osagairaino goratu egin den errealitate baten forman, osagai horretan pentsatu gabeko errealitatearen determinatutasuna galdu gabe. — Hori kontzientzia estoikoaren zerizana den *berbaitanetik* bereizi behar da guztiz; azken horrentzat pentsamenduaren formak besterik ez zuen balio, *halakotzat hartuta*, hots, arrotz zaion eta errealitateetik hartutako edozein eduki daukanaren gisara; baina kontzientzia honentzat pentsamenduaren forma ez da balio-duena; era berean, kontzientzia bertutetsuaren *berbaitanetik* bereizi behar da guztiz, zeinarentzat zerizana bai errealitateari lotuta dagoen, zeinarentzat bera errealitatearen zerizana den, baina oraindik zerizan ez- erreal besterik ez; kontzientzia harentzat, aldiz, balio du zerizana zerizan erreal dela, nahiz eta errealitateetik haratago izan. Era berean, arrazoimen legegilearen bere baitan zuzen-denak eta on-denak eta kontzientzia lege-probatzailearen orokor-denak ez daukate errealitatearen determinazioa. — Pentsatze hutsa kulturaren munduaren barnean arrozketaren alde bat bezala, hots, juzgatzean dugun onden eta gaitz-den abstraktuaren neurri bezala agertu zenean, osokiaren higidura zeharkatu duenez, honi errealitatearen eta, beraz, edukiaren uea gehitu egin zaizkio. Baina zerizanaren errealitate hori, aldi berean, kontzientzia *hutsaren* errealitate bat besterik ez da, ez *errealarena*; nahiz eta pentsatzearen osagaira igota egon, errealitate horrek ez du balio kontzientzia horrentzat pentsamendu bat bezala, baizik eta bere errealitate propiotik haratago datza; izan ere, hura horretatik ihesa da.

63

Erlijioa (argi baitago horri buruz ari garela) kulturaren munduaren sinesmen bezala agertzen da hemen, oraindik ez da agertzen *berbaitan eta berbaitarako* den moduan. — Azaldu zaigu jadanik beste determinatutasunetan, hots, *zoritxarreko kontzientzia* gisa, kontzientziaren substantziarik gabeko higiduraren tankera gisa. Substantzia etikoan ere agertu zen beheko munduan dugun sinesmen bezala; baina gogo hilaren kontzientzia ez da *sinesmena*; ez da kontzientzia hutsaren osagaien erreal den horretatik haratago ezarritako zerizana, baizik eta gogo hura hor dago bitartegabe; bere osagaia familia da. — Baina hemen erlijioa, aldez, *substantziatik* irten da eta horren kontzientzia hutsa da; aldez, kontzientzia huts hori kontzientzia errealetik, *zerizana* bere *hor-izateetik* arrotzuta dago. Ez da, orduan, jadanik kontzientziaren substantziarik gabeko higidura, baina errealitatearen aurrean, *errealitate* gisa, eta bereziki autokontzientziaren errealitatearen aurrean

aurkakotzaren determinatutasuna dauka; ondorioz, zerizanez *sinesmena* besterik ez da.

Zerizan absolutuaren *kontzientzia huts* hori kontzientzia *arroztua* da. Orain zehazkiago ikusi behar da hori nola dagoen determinatuta, zeinaren bestea hura den, eta horri lotuta aztertu behar da. Hasiera batean itxuraz kontzientzia hutsak errealitatearen *mundua* besterik ez du bere aurrean; baina mundu horretatik *ihesa* eta horren bidez *aurkakotzaren determinatutasuna* dela eta, orduan bere baitan dauka determinatutasun hori; kontzientzia hutsa zerizanez arrotuta dago bere baitan, eta sinesmenak horren alderdi bat baino ez du osatzen. Beste alderdia jadanik sortu zaigu aldi berean.

64

Alegia, kontzientzia hutsa kulturaren mundutik abiatzen denerreflexioa da halako moduan, non honen substantzia eta horren antolamendua osatzen duten masak bere baitan diren moduan agertzen baitziren, *gogo-zerizantasanak* bezala, bitartegabe bere aurkakoan gaitzen diren higidura edo determinazio guztiz urduriak bezala. Horien zerizana, kontzientzia sinplea, orduan, *ezberdintasun absolutuaren* sinpletasuna da, zeina bitartegabe ezein ezberdintasunik ez den. Hori *berbaitarako izate* hutsa da, ez *banako-den horrena*, baizik eta bere barnean *orokorra* den norbera, higidura urduri bezala, zeinak *gaiaren zerizan lasaia* erasotzen eta zeharkatzen duen. Hor eskura dugu bitartegabe bere burua egia dela dakien ziurtasuna; pentsatze hutsa agertzen da *adigai absolutu* bezala bere negatibotasunaren boterean, zeinak kontzientziaren aurrean egon behar zuen zerizan objektibo oro baliogabetzen eta kontzientziaren izate bat bihurtzen duen. — Kontzientzia huts hori, aldi berean, *sinplea* da, zeren bere ezberdintasuna ez baita ezein ezberdintasunik. Baina bere baitarako isla sinplearen forma hori bezala, sinesmenaren osagaia da, non gogoak *orokortasun positiboaren* determinatutasuna daukan, *berbaitan izate* horren determinatutasuna autokontzientziaren berbaitarako izatearen aurka. — Bere burua desegin besterik egiten ez duen mundu zerizangabekotik egotzita, egiaren arabera, bai bere agerpenaren *higidura* eta *negatibotasun absolutua* bai bere barnean *asebeteta* dagoen zerizana eta bere *lasaitasun* positiboa da gogoa banandu ezin den batasunean. Baina *arrozketaren* determinatutasuna duela eta, bi uneak kontzientzia bikoiztu baten gisara banantzen dira. Hura *ulermen hutsa* da, *autokontzientzia* biltzen den *gogo-prozesu* gisa, zeinak positibo-denaren kontzientzia, objektibotasunaren edo errepresentatzearen forma aurrez aurre daukan, eta horien aurka abiatzen da. Baina bere objektu propioa *Nia hutsa* besterik ez da. — Positibo-den edo bere buruarekiko berdintasun lasaia den kontzientzia sinplearen objektua, aldiz, barneko *zerizana* da, zerizan den aldetik. Ulermen hutsak, honegatik, ez dauka bere baitan edukirik, hori berbaitarako izate negatiboa baita; sinesmenari, aldiz, edukia dagokio ulermenik gabe. Hura ez da irteten autokontzientziatik; honek, aldiz, bere edukia era berean autokontzientzia hutsaren osagaien dauka, baina *pentsatzean*, ez *adigaietan*; kontzientzia hutsean, ez *autokontzientzia hutsean*.

65

Horrela, *zerizanaren*, hau da, *barneko-den sinplearen* kontzientzia hutsa, eta hortaz pentsamendua *da* sinesmenaren izaeraren une nagusia, arrunki ahaztuta geratzen dena. Honexetan datza zerizanak sinesmenean duen *bitartegabekotasuna*, hots, bere objektua *zerizana*, hau da, pentsamendu *hutsa* dela. Baina *bitartegabekotasun* horrek, pentsatzea kontzientziara edo kontzientzia hutsa autokontzientziara sartzen diren heinean, *izate* objektiboaren esanahia hartzen du, zeina norberaren

kontzientziarik haratago dagoen. *Pentsatze hutsaren* bitartegabekotasunak eta sinpletasunak *kontzientzian* hartzen duten esanahi horren bidez sinemenaren zerizana pentsatetik *errepresentaziora* erortzen da, eta sentipenaz haraindiko mundu bihurtzen da, zeina zerizanez autokontzientzia ez *beste* bat omen den. — Ulermen hutsean, aldiz, pentsatze hutsak kontzientziara egiten duen igarobideak aurkako determinazioa dauka; objektibotasunak eduki negatiboa baino ez den, bere burua gainditzten duen eta norberarengana itzultzen den edukiaren esanahia dauka, hau da, norbera bakarrik da bere buruarentzat objektu; edo objektuak egia dauka norberaren forma daukan heinean.

Sinesmena eta ulermen hutsa biak elkarrekin kontzientzia hutsaren osagaiari dagozkio; era berean, biak kulturaren mundu errealetik egiten den itzulera dira. Hortaz, hiru modutan agertzen dira. Lehen aldiz, bakoitza *bere baitan* eta *bere baitarako* da, ezein erlaziorik gabe; bigarren aldiz, bakoitza mundu *errealari* lotzen zaio, kontzientzia hutsari aurkakotzen zaiolari; eta hirugarren aldiz, bakoitza besteari lotzen zaio kontzientzia hutsaren barnean.

Berbaitan eta *berbaitarako izatearen* aldea, *sinestun* den kontzientzian bere objektu absolutua da, zeinaren edukia eta determinazioa eman diren. Izan ere, sinemenaren adigaiaren arabera, objektu hori kontzientzia hutsaren orokortasunera goratu den mundu erreala besterik ez da. Mundu horren antolaketak, hain zuzen, sinemenaren eraketa osatzen du; horretan, hala ere, aldeak, euren gogo-bizitzean, ez daude arrotzak, baizik eta berbaitan eta berbaitarako diren zerizanak, euren baitara itzultitako eta euren baitan geratzen diren gogoak. Horien igarotzearen higadura guretzat besterik ez da determinatutasunaren arrotzeta bat; horretan euren bereizketan dira, eta guretzat soilik dira *beharrezko* segida bat; sinemenarentzat, aldiz, horien bereizketa ezberdintasun lasai bat da, eta horien higadura *gertaera* bat.

66

Horiek formaren kanpoko determinazioaren arabera labur aipatzeko, kulturaren munduan estatu-boterea edo on-dena lehenengoa zen bezala, hemen ere lehenengoa *zerizan absolutua* da, berbaitan eta berbaitarako den gogoa, betiko *substantzia* sinplea den heinean. Baina gogoa izateko bere adigaia gauzatzeko igarotzen da *bestearantzako izatera*; bere buruarekin duen berdintasuna bere burua *eskaintzen* duen zerizan absolutu *erreal* bihurtzen da; *norbera* bihurtzen da, baina norbera iragankor. Horregatik, hirugarrena arrotzeta norbera horren eta makunarazitako substantziaren itzulera da bere lehenengo sinpletasunera; horrela baino ez da errepresentatzen substantzia gogo bezala.

Zerizan ezberdin horiek, pentsatzearen bitartez mundu errearen aldaketatik euren baitara itzultzen direnean, betiko gogo aldaezinak dira, zeinen izatea horiek osatzen dituen batasuna pentsatzea den. Horrela autokontzientziari ihes egiten dioten arren, zerizan horiek bertan sartzen dira; zerizana lehenengo substantzia sinplearen forman aldaezin izango balitz, orduan arrotz izango litzaioke autokontzientzia. Baina substantzia horren kanporatzeak eta gero bere gogoak badaukate euren baitan errealtatearen unea, eta horren bidez parte hartzen dute sinestun den autokontzientzian; edo sinestun den kontzientzia mundu errealari dagokio.

Bigarren erlazio horren arabera, sinestun den kontzientziak, aldeaz, bere errealtatea kulturaren mundu errealean dauka eta aztertu dugun bere gogoa eta bere hor-izatea osatzen du; hala ere, aldeaz, bere errealtate honen aurrean agertzen

da harroa den aldetik, eta hori gaintzeko higidura da. Higidura hori ez datza mundu errearen bihurriketari buruzko kontzientzia gogoz betea edukitzean; izan ere, gogoz betetako kontzientzia harrotzat hartzen duen kontzientzia sinplea da, honen helburua mundu erreala delako oraindik. Baizik eta bere pentsatzearen erresuma lasaiak errealtatea dauka bere aurrean gogo gabeko hor-izate bezala, zeina honegatik kanpoko modu batean gaintitu behar den. Zerbitzuaren eta goraipamenaren obedientzia honek, sentipenezko jakitea eta egitea gaintitzearen bidez, batasunaren kontzientzia sortzen du berbaitan eta berbaitarako den zerizanarekin; hala ere, ez begietsitako batasun erreala bezala, baizik eta zerbitzu hori bere helburua orainean guztiz lortu ezin duen sorkuntza iraunkorra da. Elkarrekin hori lortzen du, bera autokontzientzia orokorra baita; baina banako autokontzientziarentzat pentsatze hutsaren erresuma bere errealtatearen haratagokoa izaten dirau; edo haratagoko hori, betiko zerizanaren kanporatzearen bitartez errealtatera sartzen den heinean, sentipenezko errealtate aditugabea da; hala ere, sentipenezko errealtatea axolagabe geratzen da beste baten aurrean, eta haratagokoak espazioan eta denboran urruntzea izateko determinazioa besterik ez du jaso gainera. — Baina adigaiak, bere aurrean hor dagoen gogoaren errealtateak, badirau sinestun den kontzientzian *barnekodena* izaten, zeina guztia den eta zeinak guztia eragiten duen, baina ez duen bere burua sortzen.

67

Baina *ulermen hutsean* adigaia erreala-den bakarra da; eta sinesmenaren hirugarren alde hori, hots, ulermen hutsarentzat objektua izatea, hemen hartzen duen benetako jokaera da. Era berean, ulermen hutsa, alde, berbaitan eta berbaitarako da; alde, mundu errealaekin erlazioan dago, oraindik positiboki, hots, kontzientzia harroa den aldetik eskura dagoen heinean; alde, azkenik, sinesmenarekin duen harremanean aztertu behar da.

Jadanik ikusi dugu ulermen hutsa berbaitan eta berbaitarako zer den; sinesmena gogoaren {*zerizan gisa*} *kontzientzia* huts lasaia zen moduan, ulermen hutsa zerizan horren *autokontzientzia* da; ez daki zerizana *zerizan gisa*, baizik eta *norbera* absolutu gisa. Bere asmoa autokontzientzia ez den *beste* edozein beregaintasun gaintzea da, bai erreala-denarena bai *berbaitan* denarena, eta hori *adigai* bihurtzea. Ez da bere buruaz jabetzen den arrazoimenak egia guztia izateaz duen ziurtasuna; baizik eta *badaki* hori dela.

Hala ere, ulermen hutsaren adigaia sortu egin bada ere, oraindik ez dago *gauzatuta*. Adigai horren kontzientzia oraindik *ausazko* bat, *banako* bat bezala agertzen da; eta horrek zerizantzat duena gauzatu egin behar den *helburu* bezala agertzen da. Bere *asmoa* da *ulermen hutsa orokor*, hau da, erreala den guztia adigai bihurtzea, eta autokontzientzia guztietan adigai bakar bihurtzea. Asmoa *hutsa* da, zeren bere edukia ulermen hutsa baita; eta ulermen hori era berean hutsa da, zeren bere edukia adigai absolutua besterik ez baita, zeinak objektu batean aurkakotzarik ez daukan ezta mugarik ere bere baitan. Mugarik gabeko adigai bi aldeak daude bitartegabe: objektibo-den guztiak *berbaitarako denaren*, autokontzientziaren esanahia bakarrik daukala; eta horrek *orokor-den* baten esanahia daukala, hots, ulermen hutsa autokontzientzia guztien jabego bihurtzen dela. Asmoaren bigarren alde hori kulturaren ondorioa da; hor gogo objektiboaren ezberdintasunak, bere munduaren zatiak eta judizioaren determinazioak bezala, eta jatorriz natura ezberdinak bezala agertzen ziren ezberdintasunak ere hondoratzen dira.

68

Jeinua, talentua, gaitasun bereziak oro har, errealitatearen munduari dagozkio, hor oraindik animalien gogo-erresuma izateko aldea daukaten heinean, zeinak elkarrenganako bortxan eta nahasketan bere buruaren aurka borrokatzen eta bere burua iruzurtzen duen, mundu errealaren zerizana lortzeko. — Horretan ezberdintasunek ez daukate lekurik, *Espèce*-ak bezala; indibidualtasuna ez da asebetetzen *gai* ez-erreal *berarekin*, eta ez dauka eduki *berezirik* eta helburu propiorik. Baizik eta indibidualtasuna orokor den zerbaitzat hartzen da, hots, garatua den zerbaitzat; eta bereizketaerrergia txikiagoa edo handiagoa besterik ez da, *handieraren* bereizketa, hau da, bereizketa zerizangabea. Baina azken desberdintasun hori hondoratu egin da, kontzientziaren urraketa osoan bereizketa guztiz nolakotasunezkoa izatera aldatu zenean. Hor Niari bestea zaiona Nia bera besterik ez da. Judizio amaigabe horretan, jatorrizko berbaitarako izatearen propiotasuna eta aldebakartasun guztia baliogabetzen da; norberak badaki bera norbera huts bezala bere objektua dela; eta bi aldeen berdintasun absolutu hori da ulermen hutsaren osagaia. — Ulermena, orduan, bere barnean ezberdintzen ez den *zerizan* simplea eta, era berean, *emaitza* orokorra eta jabego orokorra da. Gogo-substantzia *simple* horretan, autokontzientziak ematen eta mantentzen du, edozein objektutan, bere *banakotasun horren* edo *egitearen* kontzientzia; eta, alderantziz, hor autokontzientzia horren banakotasuna *bere buruarekin berdina* eta orokorra da. — Ulermen huts hori, orduan, gogoa da, kontzientzia *guztiei* oihu egiten dien gogoa: *izan zaitezte zeuon baitarako* zuek guztiak *zeuon baitan zaiteztena, arrazoidunak*.

II. ILUSTRAZIOA

Ulermen hutsak adigaiaren indarra ezartzen dion objektu bereizgarria sinesmena da, osagai berean ulermen hutsari aurkakotzen zaion kontzientzia hutsaren forma gisa. Baina ulermen hutsak mundu errealarekin ere badu harremana, hori sinesmena bezala mundu errealetik egiten den kontzientzia hutseranzko itzulera baita. Leherrik ikusi behar da nola dagoen eratuta bere egiletasuna munduaren asmo lizunen eta ulermen bihurrituen aurrean.

69

Lehenago kontzientzia lasaia aipatu da jadanik, bere barnean desegiten eta berriro sortzen den zurrumbilo horri aurkakotzen zaiona; ulermen eta asmo hutsaren aldea osatzen du. Baina kontzientzia lasai horrek ez du, ikusi genuenez, kulturaren munduari buruzko *ulermen berezirik*; baizik eta munduak berak dauka bere buruaren sentimendurik mingarriena eta ulermenik egiazkoena, finkatzen den ooren desegitea, bere hor-izatearen une guztietan torturatua eta hezur guztiak apurtuta izatearen sentimendua. Era berean, sentimendu honen hizkuntza da, eta bere egoeraren alde guztiei buruzko judizioak egiten dituen hizketaldi aberatsa. Ulermen hutsak ezin du, beraz, hemen inolako egiletasun propiorik ezta edukirik ere izan, eta, beraz, munduak eta bere hizkuntzak duten berezko ulermen aberats horren *atzemate fidel* eta formala bezala soilik joka dezake. Hizkuntza hori sakabanatuta dagoen heinean, juzgaketa berehala ahazten den uneko berriketa bat den heinean, eta osoki bat hirugarren kontzientzia batentzat soilik den heinean, bada, hori ulermen *hutsa* bezala bereiziko da sakabanatutako ezaugarri horiek irudi orokor batean bilduz eta, horrela, guztien ulermen bihurtuz.

Ulermenak, bitarteko simple horren bidez, mundu horren nahastea desegingo du. Izan ere, ondorioztatu da ez direla masak eta adigaiak eta indibidualtasun determinatuak errealtate honen zerizanak, baizik eta horrek bere substantzia eta oinarria juzgatze eta eztabaidatze bezala existitzen den gogoan soilik daukala, eta arrazoitze eta berriketa honentzako eduki bat izateko interesa da osokia eta bere egituratzearen masak mantentzen dituen. Ulermenaren hizkuntza horretan bere autokontzientzia bere buruarentzat oraindik *berbaitarako-dena* da, *banakoden hori*; baina edukiaren harrokeria aldi berean edukia harroa dela dakien norberaren harrokeria da. Baina harrokeriaren gogoz beterik dagoen berriketa horren kontzientziak, lasai atzematen duen kontzientziak, gaia hobeto ulertzen duten agerpen egokienak biltzen dituen heinean, hor-izatearen gainerako harrokeriarekin batera, osokia oraindik mantentzen duen arima, gogoz beterik dagoen juzgatzearen harrokeria hondoratzen da. Bilketak gehiengoari berea baino hobea den edo, gutxienez, guztiei beraiena baino anitzagoa zaien grazia erakusten die; eta hobe jakitea eta judizioak egitea orokorra den zerbait dela eta orain orokorki ezaguna dela erakusten die; honela, oraindik irauten zuen interes bakarra baliogabetzen da, eta banako ulertzeak ulermen orokorrean desegiten dira.

70

Baina oraindik jakite harrearen gainean zerizanaren jakiteak tinko dirau, eta ulermen hutsa berezko egiletasunean agertzen da, sinesmenaren aurka egiten duen heinean.

a. ILUSTRAZIOARENBORROKA SINESKERIAREN AURKA

Kontzientziaren jokaera negatiboaren modu ezberdinak, bai eszeptizismoarena, bai idealismo teoriko eta praktikoarena, menpeko tankerak dira *ulermen hutsaren* eta bere hedapenaren, hau da, *ilustrazioaren* tankeren aurrean; izan ere, substantziarik sortu da, kontzientziaren *norbera* hutsa absolutua dela daki eta norbera hori errealtate guztiaren zerizan absolutuaren kontzientzia hutsarekin batera hartzen du. Sinesmena eta ulermena kontzientzia huts berbera dira, baina formaren arabera aurkakotuta daude: sinesmenari zerizana *pensamendu* gisa dagokio, ez *adigai* gisa, eta horregatik autokontzientziari aurkakotuta dagoena da besterik gabe; ulermen hutsari, aldiz, zerizana *norbera* gisa dagokio; eta horregatik bata bestearen negatiboa besterik ez da. Bata bestearen aurrean agertzen denean, sinesmenari *eduki* guztia dagokio; pentsatzearen osagai lasaian une bakoitzak iraupena lortzen duelako; baina ulermen hutsak hasieran ez du edukirik; are gehiago, edukiaren desagertze hutsa ere bada. Baina negatiboa zaionaren aurkako higidura negatiboaren bitartez gauzatu egingo da eta edukia lortuko du.

Horrek badaki sinesmena bere aurkakoa dela, hau da, arrazoimena eta egiaren aurkakoa. Ulermen hutsarentzat sinesmena, orokorrean, sineskerien, aurreiritzien eta errakuntzen anabasa besterik ez da; beraz, eduki horren kontzientziak errakuntzen erresuma eratzen du, non ulermen faltsua, alde batetik, kontzientziaren *masa orokorra* bezala, bitartegabe, axolagabekoa eta bere barnean erreflexiorik gabekoa den; baina, aldi berean, berak bere baitara egiten duen erreflexioaren edo autokontzientziaren unea ere bere baitan dauka, axolagabekeriatik bereizita, atzealdean berbaitarako irauten duen ulermena eta asmo maltzurra bezala, zeinak hura limurtzen duen. Masa hura *eliz estamentuaren* iruzurraren biktima da, zeinak

ulermena bere esku bakarrik mantentzeko bere harrokeria bekaiztia eta bere gainontzeko interes berekoiak ere gauzatzen dituen; eta, aldi berean, eliz estamentuak *despotismoarekin* bat egiten du, zeina, bai erresuma errearen bai ideal honen adigaigabeko batasun sintetikoa (gauza nahiko inkontsekuentea) den heinean, jendetzaren ulermen txarraren eta apaizen asmo txarraren gaineratik dagoen eta biak bere baitan biltzen dituen; zeina herriaren ergelkeriatik eta nahasketatik eliz estamentu gezurtiaren bidez, biak mespretxatuz, menperatze lasaiaren eta bere atsegin eta nahikeria guztien abantaila lortzen duen, baina aldi berean ulermenaren lausotze bera, sineskeria bera eta errakuntza bera den.

71

Ilustrazioak ez du erantzuten modu berdinean etsaiaren hiru alde horien aurka; izan ere, bere zerizana ulermen hutsa den heinean, berbaitan eta berbaitarako orokor-dena, beste muturrarekin duen egiazko harreman hau da, hots, bi muturrek *elkarrekin* dutena eta *berdin* zaienari lotzen zaiona. Kontzientzia zintzo orokorretik bere burua bakartzen duen *banakotasunaren* aldea horrek bitartegabe ukitu ezin duen aurkakotu-den hori da. Eliz estamentu iruzurtiaren eta despota zapaltzailearen nahimena ez da bitartegabe euren egitearen objektua, baizik eta nahimenik gabeko ulermena, berbaitarako izateraino banakotu ez den ulermena, zeinak masan duen bere hor-izatea, baina bere barnean oraindik ez dagoen adigai bezala. Baina ulermen hutsak ulermen zintzo hori eta bere zerizan sineskorra aurreiritzietatik eta okerretatik ateratzen dituen heinean, asmo maltzurari bere iruzurraren errealitatea eta boterea kentzen dio, zeinaren erresumak masa orokorraren adigaigabeko kontzientzian bere *oinarria* eta *ekaia* dauzkan, *berbaitarako* izateak kontzientzia *sinplean* bere *substantzia* daukan moduan. Ulermen hutsaren eta zerizan absolutuaren kontzientzia sineskorren arteko harremanak alderdi bikoitza du: batetik, ulermen hutsa *bere baitan* kontzientzia hori bezalakoa da; baina besterik, horrek, bere pentsamenduaren osagai sinplean, zerizan absolutua eta bere zatiak bermatzen ditu eta horiek iraupena dute, eta bere *berbaitan* bezala bakarrik eta horregatik modu objektiboan balio izaten uzten die; *berbaitarako izatea*, berriz, berbaitan honetan ukatzen du. — Sinesmen hori, lehen aldearen arabera, *bere baitan* ulermen hutsarentzat *auto* kontzientzia hutsa den eta hori *bere baitarako* soilik bihurtu behar den heinean, orduan ulermen hutsak adigai horretan bere burua, gezurrezko ulermenaren orde, gauzatzen duen osagaia dauka.

72

Alde horretatik, hots, biak zerizanez berdinak diren eta ulermen hutsaren harremana osagai berean eta osagai beraren bidez gertatzen den aldetik, bere komunikazioa *bitartegabekoa* da, eta bere ematea eta hartzea elkarren arteko jariotasun jarraia. Kontzientzian zuinak zeinahi direlarik ere, hori *bere baitan* sinpletasun hau da, non dena desegiten eta ahazten den, axolagabe den eta dena, honegatik, adigaia jasotzeko prest dagoen. Ulermen hutsaren komunikazioa, orduan, hedapen lasai batekin aldera daiteke, edo usain baten *barreiatzearekin* erresistentziarik gabeko atmosferan. Komunikazioa kutsadura sarkona da, zeinak, hasieran, osagai axolagabearen aurrean (non iradokitzen den) aurkakotu gisa adierazten den; eta honegatik ezin da horretatik babestu. Kutsadura zabaltzen denean baino ez da hori ardurarik gabe onartu egin duen *kontzientziarentzat*. *Izan ere*, kontzientzia horrek bere barnean hartu zuena zen zerizan sinplea, bere buruaren eta kontzientziaren berdina, baina aldi berean bere baitara islatutako *negatibotasunaren* sinpletasuna, zeina geroago bere izaeraren arabera, aurkakotu

gisa zabaltzen den eta zeinak kontzientziari bere lehenagoko modua oroitarazi dion. Honelako sinpletasuna, bere burua eta aldi berean bere aurkakoa, baina hori bere barnean gaindituta, dakien jakite sinplea den adigaia da. Behin ulermen hutsa kontzientziarentzat izanez gero, jadanik zabaldu egin da; horren aurkako borrokak gertatu den kutsadura iragartzen du; borroka beranduegi gertatzen da; hartzen den edozein neurrik gaitza okenarazten du, horrek gogo-bizitzaren muina, hots, kontzientzia bere adigaian edo bere zerizan hutsa bera harrapatu baitu. Ez dago kontzientzia honetan, beraz, gaitzaren gainean legokeen inolako indarrik. Gaitza zerizanean bertan denez, artean bakanak diren bere adierazpenak zapal daitezke eta azaleko sintomak motel daitezke. Hori berarentzat guztiz onuragarria da; izan ere, horrek ez du bere indarra alferrik galtzen, eta ez du erakusten bere burua bere zerizanaren ezduin; hori gertatzen da sintometan eta adierazpen bakanetan sinesmenaren edukaren aurka eta bere kanpoko errealitatearen inguruaren aurka indarrez ekiten duenean. Aitzitik, gogo ikusezin eta nabariezina izanik, gaitzak zati noble guztiak zeharkatzen ditu, eta berehala kontzientziarik gabeko idoloaren barruez eta gorputz-adarrez jabetzen da guztiz; eta «*goiz polit batean* bere kidea ukondoaz bultzatzen du, eta, hara non, idoloa lurrean datza»⁶. — Goiz polit batean, eguerdi odoltsua ez duenean, kutsadurak gogo-bizitzaren organo guztiak zeharkatzen dituenean; oroimenak bakarrik gorde du, iraganeko historia bezala, inork ez daki nola, gogoaren aurreko tankeraren modu hila; eta jakituriaren suge berria altxatzen da adora dezaten, eta, horrela, honek larra zimela erantzi besterik ez zuen egin minik jasan gabe.

73

Baina bere egitea ezkututzen duen gogoaren eho-lan isil hori, bere substantziaren barnean egiten duena, ulermen hutsaren gauzapenaren alde *bat* besterik ez da. Horren zabalkuntza ez datza berdin-dena berdin-denarekin lotzean bakanik; eta bere egikaritzapena ez da aurkakotzarik gabeko hedapena. Zerizan negatiboaren egitea, era berean, zerizanez bere barnean ezberdintzen den higidura garatua da, zeinak, bere buruaz jabetzen den egite bezala, bere uneak hor-izate ageri jakinean zabaldu behar dituen eta zeinak eskura izan behar duen zarata handia eta bere aurkakotuaren aurkako borroka bortitza bezala.

Ikusi egin behar da, orduan, *ulermen hutsak* eta *asmoak*, bere aurrean topatzen duen aurkakotuaren *aurka* nola jokutzen duen *negatiboki*. — Negatiboki jokutzen duen ulermen hutsa eta asmoa, bere adigaia zerizantasan guztia delako eta beraren at ezer ez dagoelako, bere buruaren negatiboa bakarrik izan daiteke. Ulermen den aldetik, orduan, ulermen hutsaren negatibo-dena bihurtzen da, egia-eza eta arraziomen-eza; eta asmoa den aldetik, asmo hutsaren negatibo-dena bihurtzen da, gezurraren eta helburuaren lizunkeria.

Kontraesan honetan gertatzen da ulermen hutsa, eztabaidan parte hartzen duelako eta *beste* zerbait borrokatzen ari dela uste duelako. — Baina hori uste baino ez du egiten, bere zerizana negatibotasun absolutu gisa beste-izatea bere baitan izatean baitatza. Adigai absolutua kategoria da; jakitea eta jakitearen *objektua* berberak izatea da adigai absolutua. Horrela, ulermen hutsak errutzat edo gezurtzat adierazten duen bere bestea hori bera baino ezin da izan; den hori gaitzetsi besterik ezin dezake egin. Arrazoiduna ez den horrek ez dauka *egiarik*; edo aditua ez dena ez *da*; orduan, arrazoimenak bera ez den *beste* bati buruz hitz egiten duenean, benetan

⁶ Diderot, *Rameau-ren hiloba*.

bere buruari buruz bakarrik hitz egiten du, ez da irteten bere baitatik. Aurkakotuarekin duen borroka horrek bere barnean arrazoimenaren *egikaritzapena* izateko esanahia biltzen du. Hori uneak garatzeko eta bere baitan jasotzeko higiduran datza; higidura horren zati bat aditzen duen ulermenak bere burua *objektu* bezala bere aurrean jartzen duenean gertatzen den bereizkuntza da; une horretan dagoen bitartean, bere baitatik arrotuta dago. Ulermen huts bezala ez dauka inolako *edukirik*; bere gauzapenaren higidura *bera* berarentzat bere eduki bihurtzean datza, beste bat bere eduki bihurtu ezin delako, bera kategoriaren autokontzientzia delako. Baina aurkakotuan edukia *eduki* bezala bakarrik dakien heinean eta oraindik ez bera bezala, orduan honetan ez du bere burua ezagutzen.

74

Bere osaketak, orduan, zera esan nahi du, hots, hasieran objektiboa zaion edukia berea dela berrezagutzea. Baina bere emaitza ez da izango borrokatzen dituen erruen birsorketa, ezta bere lehenagoko adigaia izatea ere, baizik eta bere buruaren negazio absolutua, bere errealitate propioa bezala, bere burua ezagutzen duen aldetik, edo bere burua ezagutzen duen adigaia den ulermena. Ilustrazioak duen enuen aurkako borrokaren izaera (horietan bere burua borrokatzea eta horrela baieztatzen duen hori gaitzestea) *guretzat* da; edo bera eta bere borroka *euren baitan* diren hori da. Borrokaren lehen aldea, hots, Ilustrazioak bere buruarekin berdin den *araztasunean* jokabide negatiboa hartzea eta horren bidez bere burua lohizatzea *sinesmenarentzat* ulermena *objektu* izateko modua da (sinesmenak ulermena gezur, arrazoimeneza eta asmo txar bezala esperientziatzen du), sinesmena ulermenarentzat errua eta aurreiritzia den modu berean. Bere edukiari dagokionez, Ilustrazioa, hasiera batean, ulermen hutsa da, zeinari bere edukia beste bat bezala agertzen zaion; tankera honetan *aurkitzen* du bere edukia, hots, edukia oraindik berea ez den tankeran, guztiz beregaina den hor-izate bat bezala, sinesmenean.

Hasiera batean eta orokorrean, orduan, Ilustrazioak bere objektua halako moldez ulertzen du, non *ulermen huts* gisa hartzen baitu, eta bere burua ezagutu gabe, errutzat jotzen baitu. *Ulermenean* bere horretan kontzientziak objektua hartzen du halako moduan, non berarentzat objektua kontzientziaren zerizan bihurtzen baitu; edo non kontzientziak zeharkatzen duen objektu bihurtzen baitu, honetan kontzientziak bere burua mantenduz eta bera bere baitan eta bere buruaren aurrean mantenduz, eta kontzientziak, objektuaren higidura den heinean, hori sortuz. Arrazoiak dauka Ilustrazioak, adierazten duenean sinesmena halako kontzientzia dela; sinesmenari buruz, izan ere, adierazten du berarentzat zerizan absolutua den hori bere kontzientziaren izate propioa, bere pentsamendu propioa, kontzientziak sortu duen zerbait dela. Beraz, adierazten du errua dela, eta bera den honi buruzko asmaketa. Sinesmenari jakituria berria irakatsi nahi dion ulermenak honela ez dio esaten ezer berririk; izan ere, sinesmenarentzat bere objektua, hain zuzen, hau da, hots, bere kontzientzia propioaren zerizan hutsa; eta kontzientziak hemen ez du ezartzen bere burua galdutzat eta ezeztatutzat, baizik eta sinesmenean konfiantza dauka, eta honek esan nahi du *sinesmenean* bere burua aurkitzen duela kontzientzia *hori* edo autokontzientzia gisa.

75

Bere buruaz daukan *ziurtasuna* hori, fidatzen naizen honengan, niretzat *nitaz* daukadan *konfiantza* da; nire baitarako izatea honengan ezagutzen dut, ezagutzen dut berak hori berrezagutzen duela eta berarentzat hori helburua eta zerizana dela. Konfiantza, ordea, sinesmena da, bere kontzientzia bere objektuarekin *lotzen* baita

bitartegabe eta, orduan, begiesten baitu *bat* dela honekin, horren baitan dela. — Gainera, hori niretzat objektu den heinean, non nire burua berrezagutzen dudan, niretzat aldi berean *beste* autokontzientzia bezala naiz oro har, hau da, halako kontzientzia bezala, non bere banakotasun berezitik, hots, bere berezkotasunetik eta ausazkotasunetik anoztua izan dena, baina, aldeaz, autokontzientzia izaten jarraitzen duena, eta aldeaz, *zerizanezko* kontzientzia den, ulermen hutsa den bezala. — Ulermenaren adigaian ez dugu honako hau bakarrik, alegia, kontzientziak ulertzen duen objektuan bere burua berrezagutzen duela eta pentsatutakoa baztertu gabe eta pentsatutakotik bere baitara itzuli gabe bertan bere burua *bitartegabe* daukala, baizik eta honako hau ere bai, hots, bere buruaz jabetzen dela higidura *bitartekaria* edo *egite* edo ekoizte bezala; honen bitartez pentsamenduan *berarentzat* bere buruaren (*norbera* gisa) eta objektuaren batasuna da. — Kontzientzia hori ere bada, hain zuzen, sinesmena; *obedientzia eta egitea* beharrezko une bat dira, zeinari esker izatearen ziurtasuna sortzen den zerizan absolutuan. Sinesmenaren egite hori egiaz ez da agertzen zerizan absolutua honen bitartez sortuko balitz bezala. Baina sinesmenaren zerizan absolutua ez da zerizanez kontzientzia sinestunaz haraindi legokeen zerizan *abstraktua*, baizik eta elkartearen gogoa da, zerizan abstraktuaren eta autokontzientziaren batasuna da. Elkartearen gogoa izatearren, elkartearen egitea zerizanezko unea da; gogo hori kontzientziaren *ekoizpenari* esker baino ez da, edo ez da, kontzientziak ekoizten *ez baldin* badu; ekoiztea hain zerizanezkoa izan arren, ez da hain zerizanez zerizanaren oinarri bakana, baizik eta une bat besterik ez da. Zerizana bere baitan eta bere baitarako da aldi berean.

76

Beste aldetik, ulermen hutsaren adigaia beretzat bere objektua ez *beste* bat da; izan ere, determinazio negatibo horrek osatzen du objektua, hain zuzen. Horrela, ulermenak beste aldetik adierazten du sinesmenaren zerizana autokontzientziari *arrotza* zaion zerbait beza la, *bere* zerizana ez dena, baizik eta haur arrotz bat bezala ezartzen zaiona. Baina ilustrazioa guztiz burugabea da hor; sinesmenak zer esaten duen ez dakien eta gaia ulertzen ez duen hitz egiteko modu bat bezala esperientziatzen du, apaizen gezurrei eta herriaren iruzurrari buruz hitz egiten duenean. Ilustrazioak esku jokotan dabilzan apaizen aztikeriaren bitartez hitz egiten du, kontzientziari, zerizana egotzi beharrean, guztiz *arrotza* eta *bestea* den zerbait ezarriko balitzaio bezala; eta esaten du, aldi berean, hori kontzientziaren zerizan bat dela, honetan sinesten duela, honetan konfiantza duela eta saiatzan dela bere alde egiten, hau da, hor *bere* zerizan *hutsa* era berean *bere* indibidualtasun banako eta orokor gisa ikusten duela, eta bere egitearen bitartez bere buruaren eta bere zerizanaren batasuna sortzen duela. Bitartegabe esaten duena hau da: kontzientziari *arrotza* zaiola adierazten duena dela, hain zuzen, kontzientziari *berezkoen zaiona*. — Nola egin dezake hitz, orduan, iruzurrari eta engainuari buruz? Sinesmenari buruz adierazten duenaren aurkakoa *bitartegabe* berari buruz baieztatzen duen heinean, sinesmenari bere burua jakinaren gainean egindako *gezur* gisa erakusten dio. Nola gerta liteke engainua eta iruzurra, kontzientziak bere egian bitartegabe bere buruaren ziurtasuna daukan lekuan, berak bere objektuan *bere burua* daukan lekuan, hor egotearekin batera gainera bere burua sortzen badu. Ezberdintasuna ez da agertzen jadanik hitzetan ere. — Galdera orokor hau egin baldin bada, *ea baimenduta dagoen herria engainatzea*⁷, orduan benetan erantzuna honako hau litzateke: galdera ez da

⁷ Berlingo Zientzien Akademiak antolatutako norgehiagoka, d'Alambert-ek bultzatutakoa, Federiko II.ak

egokia, herria engainatzea ezinezkoa baita. Letoia errearen orde, diru faltsua egiazkoaren orde, sal daiteke inoiz; hainbat pertsona konbentzi daitezke borroka galdu bat irabazia izan dela, eta sentipenezko gauzei eta gertaera batzuei buruzko horrelako gezurrak aldi batez zabaltzea ere gerta liteke; baina zerizanari buruzko jakitean, non kontzientziak *bere buruaren ziurtasun* bitartegabekoa daukan, iruzurraren pentsamendua guztiz ezinezkoa da.

Ikus dezagun orain sinesmenak nola esperientziatzen duen Ilustrazioa bere kontzientziaren une *ezberdinetan*; aurreko ikuspuntua orokorrean besterik ez zegokion kontzientziari. Une hauek dira, alegia, pentsatze hutsa edo, objektu bezala, *zerizan absolutua* bere baitan eta bere baitarako; gero, jakite den aldetik horrekin duen *harremana*, *bere sinesmenaren oinarriarekin*, eta, azkenik, horrekin duen harremana bere egitean, edo *bere zerbitzua*. Ulermen hutsak sinesmenean oro har bere burua gaizki ulertu du eta ukatu du, eta, era berean, bihurri jokatuko du une horietan.

77

Ulermen hutsak negatiboki jokatzen du kontzientzia sinestunaren zerizan absolutuarekin. Zerizan hori *pentsatze* hutsa da, eta pentsatze hutsa bere buruaren barnean objektu edo *zerizan* bezala ezarrita dago; kontzientzia sinestunean pentsatzearen *berbaitan* horrek, aldi berean, bere baitarako den kontzientziarentzat forma jasotzen du, baina objektibotasunaren forma kaskala besterik ez; *berbaitan* horrek errepresentatzen den zerbaiten *determinazioa* du. Baina ulermen hutsari, *berbaitarako den norberaren* aldearen arabera kontzientzia hutsa den heinean, *bestea autokontzientziaren negatibo-dena* bezala agertzen zaio. Hau pentsatzearen *berbaitan* hutsa bezala edo sentipenezko ziurtasunaren izatea bezala har liteke. Baina, aldi berean, *norberarentzat* eta, gainera, hori objektu bat daukan *norbera* den aldetik, kontzientzia erreala izanik, orduan ulermenaren objektu berezia, halakotzat hartuta, *sentipenezko ziurtasunaren baden gauza arrunta* da. Bere objektu hori sinesmenaren *errepresentazioan* agertzen zaio. Hori madarikatzen du, eta, horrekin batera, bere objektu propioa. Hala ere, injustizia bat egiten du sinesmenaren aurka, sinesmenaren objektua berea izango balitz bezala hartzen duelako. Sinesmenari buruz esaten du bere zerizan absolutua harri-koskor bat dela, edo begiak dauzkan eta ikusten ez duen egurki bat dela, edo soro batean hazitako ore pixka bat dela, gizakiek aldatu eta gero berriz lurrera itzuli dutena, edo sinesmenak zerizana edonola antropomorfitzatzen duela, hori objektibo eta errepresentagarri bihurtzen dela.

Bere burua huts-hutsa izango balitz bezala aurkezten duen Ilustrazioak gogoarentzat betiko bizitza eta gogo santua dena hemen gauza iragankor erreal bihurtzen du, eta hori sentipenezko ziurtasunaren bere baitan negatiboa den ikuspuntuarekin lohizatzen du, hots, sinesmen gurtzaileak eskura ez duen ikuspuntu batekin; halako moldez non, faltsuki, Ilustrazioak sinesmenari leporatzen baitio ikuspuntu hori. Sinesmenak gurtzen duena ez da berarentzat harria edo egurra edo orea, ezta beste sentipenezko gauza mundutarra ere. Ilustrazioari bururatzen bazaio esatea hori *ere* bere objektua dela, edo hori dela bere baitan eta egiatan, orduan sinesmenak, alde, ezagutzen du hori *ere*, baina hori berarentzat bere gurtzatik at dago; baina, alde, berarentzat ez da harria, eta abar, *bere baitan*, baizik eta bere baitan, berarentzat, pentsatze hutsaren zerizana besterik ez da.

78

Bigarren unea sinesmenak, kontzientzia *jakile* bezala, zerizan horrekin duen harremana da. Zerizan hori sinesmenarentzat bitartegabe da kontzientzia pentsatzaile huts den aldetik; baino kontzientzia hutsa, era berean, ziurtasunak egiarekin duen harreman *bitartekotua* da; *sinesmenaren oinarria* osatzen duen harremana. Ilustrazioarentzat oinarri hori, era berean, gertaera *ausazkoen jakite* ausazko bihurtzen da. Baina jakitearen oinarria orokor-den *jakile* hori da, eta bere egian *gogo* absolutua da, zeina kontzientzia abstraktu hutsean edo pentsatzean, halakotzat hartuta, *zerizan* absolutua den, baina autokontzientzia bezala bere buruari buruzko *jakitea* den. Ulermen hutsak orokor-den *jakile* hori, *bere buruaren jakitun den gogo sinplea*, autokontzientziaren negatibo-den hori bezala ezartzen du. Ulermen huts hori bera pentsatze *huts bitartekotua* da, hau da, bere buruarekin bitartekotzen den pentsatzea, *jakite* hutsa da; baina ulermen hutsa den heinean, bere burua oraindik ez dakien pentsatze hutsa da, hau da, zeinarentzat bera bitartekotzen duen higidura hutsa hori oraindik ez den, orduan higidura hori agertzen zaio, hori den guztia bezala, beste bat bezala. Bere egikaritzapenean hartuta, beraz, berak garatzen du, bai, bere une zerizanezko hori, baina agertzen zaio sinesmenari dagokiola eta, bere determinatutasunean, berari kanpoko-den bat dela, horrelako istorio arrunki errealen *jakite* ausazko bat bezala. Berak irudikatzen du sinesmen erlijiosoak bere ziurtasuna *lekuko historiko bakan* batzuetan hartzen duela oinarri, zeinak lekuko historikotzat hartuta, noski, euren edukiari buruz ez diguten ematen egunkarietako albisteez gertaera batzuei buruz bermatzen diguten ziurtasunaren maila; gainera, horren ziurtasuna lekuko horien *iraupenaren* ausazkotasunean datzala (batetik, paperaren bitartez lortzen den iraupenean eta, bestetik, paper batetik beste batera aldatzerakoan erabilitako trebeziaren eta zuzentasunaren bitartez); eta, azkenean, hitz eta letra hilen zentzua ondo ulertzean datzala. Baina, egitatean, sinesmenari ez zaio otutzen bere ziurtasuna honelako lekukoei eta ausazkotasunei lotzea; sinesmenak, bere ziurtasunean, bere objektu absolutuarekin guztiz sineskorki jokatzeko du; sinesmena *jakite* hutsa da, zerizan absolutuaren bere kontzientzian letrarik, hitzik eta izkriburik nahasten ez duen eta horrelako gauzen bidez bitartekotzen ez dena. Aitzitik, kontzientzia hori bere jakitearen oinarria da, bere burua bitartekotzen duen oinarria; gogoa bera da, bere buruaren lekukoa dena, bai kontzientzia *banakoaren barnean* bai guztiek horretan duten sinesmenaren *presentzia orokorraren* bitartez. Sinesmenak, historiaren bidez, ilustrazioak hizpide duen bere edukiaren oinarriaren edo, behintzat, egiaztapenaren halako modua ere bere buruari eman nahi badio, eta serioki pentsatu eta funtsezkotzat jotzen badu, orduan berak ilustrazioari utzi dio bere burua limurtzen; eta horrelako ahaleginak, bere burua horrelako moduan oinarritzeko edo finkatzekoak, ilustrazioak sinesmena kutsatu izatearen lekukoak besterik ez dira.

79

Oraindik hirugarren aldea falta da, *kontzientziak zerizan absolutuarekin* duen *harremana*, *egite* bat den aldetik. Egite hori indibiduoaren berezitasunaren edo bere berbaitarako izatearen modu berezkoa gainditzea da, eta hortik ziurtasun hau lortzen du, alegia, bere egitearen arabera autokontzientzia hutsa, hau da, *berbaitarako den* banako kontzientzia bezala zerizanarekin bat izatekoa. Egitean xedetasuna eta xedea ezberdintzen diren heinean, eta ulermen hutsak, era berean, egite horri dagokionez *negatiboki jokatzeko* duen heinean, eta, beste uneetan bezala, bere burua ukatzen duen heinean, orduan berak *xedetasunari* dagokionez bere burua adimen-eza bezala aurkeztu behar du, honi ulermena asmoarekin lotuta, hau da, xedearen eta

bitartekoaren adostasuna, beste gauzatat, aurkakotzat ere agertzen zaion heinean; *xedeari* dagokionez, aldiz, berak gaitz-dena, gozamina eta jabegoa, xede bihurtzen ditu, eta horrela asmo lizunen gisa agertzen da, asmo hutsa, era berean, beste gauza bezala, asmo lizuna delako.

Horren arabera ikusten dugu *xedetasunari* dagokionez ilustrazioak txorakeriatzat jotzen duela indibiduo sinestunak bere buruari gozamen eta plazer berezkoei kateatuta ez izateko kontzientzia garaiagoa ematea gozamen eta plazer berezkoei *benetan* uko eginez eta *ekintzaren bidez* frogatuz horiek erdeinatzea ez dela txantxa, *egiazkoa* baizik. Era berean, txorakeriatzat jotzen du indibiduoak guztiz banakoa, beste guztiak baztertzen dituen eta jabegoa duena izateko duen determinatutasunari honela muzin egitea, hots, bere jabego honi muzin eginez; horrela, *egiatan* erakusten du bere bakartzea ez dela benetakoa, baizik eta bere burua banakotzeko eta berbaitarako izatearen banakotze absolutu horretan bestek, *bere buruarekin* berdinak bezala, ukatzeko natur beharrezkotasunaz haraindi ezarri duela bere burua. Ulermen hutsak uste du biak direla xedegabeak eta bidegabeak. *Xedegabea* da bere burua plazeretik eta jabegotik aske mantentzeko plazerari uko egitea eta jabegoa inori ematea; alderantziz, ulermen hutsak *txoroa* dela deritzo, jateko, egiatan jateko bitartekoa hartzeari. — *Bidegabea* iruditzen zaio bazkari bati uko egitea, eta gurina edo arrautzak diruaren truke edo dirua gurinaren eta anautzen truke ez ematea, baizik eta zuzenean horren truke ezer hartu gabe ematea; bazkariari edo honelako gauzen jabegoari berezko xede deritzo, eta, horrela, hori egitatean asmo lizuntzat jotzen du, gozamenari eta jabegoari zerizanez lotuta dagoen asmotzat. Berriri asmo huts gisa adierazten du berezko existentziaren eta horretarako baliabide-gosearen gaintetik ezartzearen beharrezkotasuna; baina txorakeriatzat eta bidegabetzat dauka horien gaintetik ezartzea *ekintzaren bidez* frogatu beharra; beste modu batean esanda, asmo huts hori egiatan iruzurra da, zeinak *barneko* gaintitzearen plantak egiten dituen eta gaintitze hori eskatzen duen, baina hori serio hartzea, *benetan gauzatzea* eta *bere egiafrogatzea* alfenikakotzat, txorakeriatzat eta bidegabetzat ere jotzen duen. — Bere burua ukatzen du, orduan, ulermen huts gisa, bitartegabe xededun den egitea ukatzen duelako, eta asmo huts gisa, banakotasunaren xedeetatik aske dela frogatzeko asmoa ukatzen duelako.

80

Horrela, ilustrazioak bere burua ezagutarazten dio sinesmenari. Horrelako itxura doilorrarekin agertzen da, berak, beste batekin erlazioa duela medio, bere buruari *errealitate negatiboa* ematen diolako, edo bere burua bere buruaren aurkako gisa aurkezten duelako; baina ulermen eta asmo hutsak erlazio hori eman behar dio bere buruari, hori bere egikaritzapena baita. — Egikaritzapen hori lehenik errealitate negatibo bezala agertu zen. Bere errealitate positiboa, agian, hobeto osatuta dago; orain ikusiko dugu nola jokatzen duen horrek. Aurreiritzi eta sineskeria guztiak baztertu direnean, orduan galdera hau sortzen da: *eta orain, zer? Zein da ilustrazioak horren orde zabaldu duen egia?* — Berak eduki positibo hori jadanik adierazi du errua erauzteko orduan, bere baitatiko arrotze hura era berean bere errealitate positiboa baita. Sinesmenarentzat gogo absolutua den honetan ilustrazioak aurkitzen duen edozein *determinazio* hartzen du, egurra, harria, eta abar bezala, banako gauza errealizat; *determinatutasun* oro, hau da, edukia eta bere beteketa oro *mugatutasun* bat bezala, *giza zerizan* eta *giza errepresentaziotzat* harturik, *zerizan absolutua* bihurtzen zaio *hutsune* bat, zeinari ezein determinazio edo predikatu ezin zaion egotzi. Ezartze hori, berez, gaitzesgania izango litzateke; eta horrela sortu ziren, hain

zuzen, sineskeriaren mamuak. Arrazoimena, *ulermen hutsa* bera, ez dago hutsik, bere buruaren negatibo-dena *berarentzat* eta bere edukia den heinean, baizik eta aberatsa da, baina banakotasunean eta mugaketan soilik; zerizan absolutuari horrelakorik ez eskuratzea ezta egoztea ere, hori da ulermenaren bizimodu betea, zeinak bere burua eta mugatutasunaren aberastasuna bere lekuan ezartzen eta absolutu-dena era duinean tratatzen dakien.

81

Zerizan hutsal horren aurrean ilustrazioaren egia positiboaren *bigarren unea* dugu, zerizan absolututik baztertutako *banakotasuna* oro har, kontzientziaren eta izate guztien banakotasuna, *berbaitan eta ber baitarako izate absolutu* bezala. Bere lehen errealitatean *sentipenezko ziurtasuna* eta *iritzia* den kontzientzia bere esperientziaren bide guztietarik itzultzen da hemen, eta berriz *bere buruaren negatibo-den* horri buruzko edo *sentipenezko gauzei* buruzko, hau da, bere *berbaitarako izatearen* aurrean axolagabeak *diren gauzei* buruzko jakitea da. Hala ere, hor ez da *bitartegabeko* kontzientzia berezkoa, baizik eta halako *bihurtu* da berarentzat. Leherrik, bere hedapenean topatu zituen nahasmendu ororen eskuetan, eta orain ulermen hutsaren bidez bere hasierako tankerara itzulita, tankera hori *ondorio* gisa *esperientziatu* du. Kontzientziaren beste tankera guztien eta, beraz, sentipenezko ziurtasunaren haratagoko ororen baliogabetasunean *oinarrituta*, sentipenezko ziurtasun hori ez da jadanik iritzia, baizik eta egia absolutua. Sentipenezko ziurtasunaz haraindi doan edozein gauzaren baliogabetasuna, hain zuzen, egia horren froga negatiboa besterik ez da; baina ezin du beste frogarik izan, bere buruaz duen sentipenezko ziurtasunaren egia positiboa, hain zuzen, adigaiaren beraren *bitartegabeko* berbaitarako izatea baita, objektu den aldetik, eta, gainera, beste izatearen forman; ezen kontzientzia guztientzat ziurra baita bera *dela*, eta bere baitatik at *beste gauza errealak* daudela, eta bere izate *berezkoan*, gauza horietan bezala, *bere baitan* eta *bere baitarako dela*, edo *absolutua*.

Ilustrazioaren egiaren hirugarren unea, azkenik, banako zerizanaren eta zerizan absolutuaren arteko erlazioa da, lehen bi uneen arteko harremana. Ulermena, *berdin* den edo *mugagabea* den horren ulermen hutsa bezala, *ezberdin* den horretaz *haraindi doa*, hots, errealitate mugatuaz, edo bere buruaz, beste izate soila den aldetik. Beste izate horren haratagoko gisa *hutsunea* dauka, zeinari sentipenezko errealitatea lotzen dion. *Erlazio* horren determinazioan bi aldeak ez dira sartzen *eduki* bezala, bata hutsunea delako, eta eduki bat orduan bestearen, sentipenezko errealitatearen bitartez baino ez dagoelako eskura. Baina harremanaren *forma*, zeinaren determinazioan *berbaitanaren* aldeak parte hartzen duen, nahi den bezala egin daiteke; izan ere, *bere baitan negatiboa* eta horregatik bere buruari aurkakotzen zaiona da: izatea nahiz ezereza, *berbaitana* nahiz *aurkakoa*; edo, berbera dena, errealitateak *berbaitanarekin* duen harremana *haratagoko-dena den aldetik*, era berean, errealitate horren *ezeztatzea* nahiz *ezartzea* da. Errealitate mugatua har daiteke, beraz, behar den bezala. Sentipenezko-denapom *tiboki* lotzen zaio absolutu-denari, *berbaitan* den horri bezala, eta sentipenezko errealitatea bera *bere baitan* da; absolutu-denak egiten, mantentzen eta zaintzen du sentipenezko errealitatea. Bestalde, absolutudenari aurkako den horri bezala, bere *ez-izateari* bezala lortzen zaio; erlazio horren arabera, ez da bere baitan, *beste batentzat* bakarrik baizik. Kontzientziaren aurreko tankeran aurkakoaren *adigaiak on-dena* eta *gaitz-dena* bezala determinatu ziren eta, orain, berriz, horiek ulermen hutsarentzat *berbaitan* eta *beste batentzako* izatearen abstrakzio hutsenak bihurtzen dira.

Bi ikusmoldeak, mugatu-denak berbaitanarekin dituen harreman positiboa nahiz negatiboa, egitatean berdin dira beharrezkoak, eta dena da orduan bai *bere baitan* bai *beste batentzat*; edo dena da *erabilgarua*. — Dena besteen esku jartzen da, denak uzten du orain besteek erabil dezaten, eta *horientzat* da; eta, orain, dena erne jartzen da, nolabait esateko, besteen aurrean zakarki jokatzen du, bere baitarako da eta bestea erabiltzen du. — Gizakiarentzat, harreman horretaz *jabetzen* den gauza den aldetik, hortik bere zerizana eta bere kokagunea ondorioztatzen dira. Bitartegabe den heinean, *bere baitan* berezko kontzientzia bezala, *ona* da; banako kontzientzia bezala, *absolutua*; eta bestea *berarentzat* da; eta, hain zuzen, gizakiarentzat, bere buruaz jabetzen den animalia den heinean, uneek orokortasunaren esanahia daukatelako, *dena* bere atsegin eta gozamenerako da, eta jainkoaren eskutik datorrenez, munduan dabil berarentzat prestatutako lorategi bat izango balitz bezala. — Ongiaren eta gaizkiaren ezagutzaren zuhaitzetik jan behar izan zuen; horretan, besteengandik ezberdintzen duen probetxu bat lortu du, zeren, ausaz bere izaera, berez ona dena, halako moldez dago eratu non gozamenaren gehiegikeriek kalteak sortzen baitizkiote; edo, bestela esanda, bere banakotasunak hor du *bere haratagokoa*, bere buruaz haraindi joan daiteke eta bere burua deusezta dezake. Aitzitik, arrazoimena bitarteko erabilgarria zaio, haraindi joate hori egokiro mugatzeko; edo, hobeto, determinatu-den horretaz haraindi joaterakoan bere burua mantentzeko, hori baita kontzientziaren indarra. Bere baitan orokorra den eta bere buruaz jabetzen den zerizan *orokorraren* gozamena ezin da izan aniztasunaren eta iraupenaren arabera determinatutako gauza, baizik eta orokorra izan behar du; neurriak, beraz, gozamena bere aniztasunean eta iraupenean geldiarazi ez dadila eragin behar du; hau da, neurriaren betekizuna neurrigabekotasuna da. — Gizakiarentzat dena da erabilgarria, eta gizakia ere bai; eta bere determinazioa da treparen kide probetxugarria eta erabilgarria izatea denontzat. Bere buruaz arduratzen den neurri berberean, besteen alde egin behar du; eta besteen alde egiten duen neurri berberean, bere buruaz arduratu behar du; esku batek bestea garbitzen du. Ongi kokatuta dago dagoen tokian; besteak erabiltzen ditu eta besteek bera erabiltzen dute.

Gauza ezberdinak besteentzat beste modu batean dira erabilgarriak; baina gauza guztiek daukate elkarrekikotasun erabilgarri hori euren zerizanaren bidez, hau da, absolutu-denari era bikoitz honetan lotuz: positiboki, horrela *berbaitan eta berbaitarako* izanik, eta negatiboki, horrela *besteentzat* izanik. Zerizan absolutuarekiko *harremana*, edo erlijioa, beraz, erabilgarritasun guztien arrear erabilgarriena da; izan ere, *erabilgarritasun hutsa bera* da; gauza guztien iraupen hori da, edo horien *berbaitan eta berbaitarako izatea*, eta gauza guztien erorketa, edo horien *bestearentzako izatea*.

Sinesmenarentzat, noski, Ilustrazioaren emaitza positibo hori Ilustrazioak sinesmenaren aurrean duen jokaera negatiboa bezain aldrebeskeria handia da. Sinesmenari *gorrotagarria* zaio oro har zerizan absolutuaren *ulermen* hori, zeinak sinesmenean zerizan absolutua besterik ikusten ez duen, *etre supreme* edo *hutsunea*; dena bere bitartegabeko hor-izatean *bere baitan*, edo ona izateko *asmo* hori; azkenik, bere buruaz jabetzen den banako izateak zerizan absolutuarekin duen *harremanak*, *erlijioak*, erabilgarritasuna guztiz adieraztea. Ilustrazioaren *jakituria* propioa sinesmenari agertzen zaio nahitaez aldi berean *aun keria* bera bezala eta arinkeria *aitortza* bezala; Ilustrazioak azpimarratzen duelako, zerizan absolutuari buruz ezer ez

dakiela edo, berbera dena, berari buruz honako egia guztiz zozo hau dakiela: hori, hain zuzen, *zerizan absolutua* besterik ez dela, mugatutasun honi buruz soilik dakiela, aldiz, eta gainera egia-den hori bezala, honen jakite hori egia-den bezala dela jakite gorenena.

84

Sinesmenak jainkotiar eskubidea dauka, *bere buruarekiko berdintasun* absolutuaren edo pentsatze hutsaren eskubidea, Ilustrazioaren aurka, eta horren aldetik injustizia jasotzen du; izan ere, Ilustrazioak sinesmena bihurtzen du bere une guztietan, eta horiek euren barnean diren hori ez beste zerbait bihurtzen dute. Ilustrazioak, aldiz, sinesmenaren aurka eta bere egiaren alde giza eskubidea dauka; izan ere, honek egiten duen injustizia *ezberdintasunaren* eskubidea da, eta bihurriketan eta eraldaketan datza, *autokontzientziaren* izaerari dagokion eskubide bat, *zerizan* sinpleari edo *pentsatzeari* aurkakotua. Baina Ilustrazioaren eskubidea autokontzientziaren eskubidea den heinean, horrek bere eskubidea halako moldez mantendu ez ezik, non gogoaren bi eskubide berdinak bata bestearen aurka egongo bailirateke eta bietatik inork ezingo baitu bestea asebate, gainera, berak eskubide absolutua azpimarratuko du, autokontzientzia bere buruarentzat izateaz gain aurkakoa ere barnebiltzen duen negatibotasunaren adigaia delako; eta sinesmenak, kontzientzia den heinean, ezingo dio ukatu bere eskubidea.

Izan ere, Ilustrazioak kontzientzia sinestunaren aurrean ez du jokatzeko printzipio propioekin, baizik eta horrek bere baitan dituenekin. Hark sinesmenak berak oharkabean sakabanaturik dauzkan *pentsamendupropioak* biltzen dizkio; bere moduetako *batean*, Ilustrazioak sinesmenak berak *ere* badauzkan beste moduak oroitara dizkio, baina bata beti bestearen aurrean ahaztuz. Sinesmenaren aurrean ulermen hutsa bezala agertzen da, zeren une *jakin* batean osokia ikusten baitu, eta, orduan, une horri lotzen zaion *aurkakotua* ekartzen du eta, bata bestean eraldatuz, bi pentsamenduen *zerizan* ezezkua, hau da, *adigaia*, sortzen du. Beraz, sinesmenari, orduan, bihurriketa eta gezur bezala agertzen zaio, bere unean *beste izatea* erakusten duelako; itxuraz, horrela, une horiek bitartegabe euren banakotasunean diren hori ez beste zerbait bihurtzen ditu; baina *beste* hori era berean zerizanezkoa da, eta egiatan kontzientzia sinestunean eskura dago, baina horrek ez du pentsatzen horretaz, baizik eta edonon dauka. Ondorioz, sinesmenari beste hori ez zaio arrotza, eta sinesmenak ezin du hori ukatu.

85

Baina sinesmenari bere bakartutako unean aurkakoa gogorarazten dion Ilustrazio bera sinesmena bezain gutxi dago ilustratuta bere buruaz. Sinesmenaren aurrean *negatiboki* soilik jokatzeko du, bere araztasunetik edukia baztertzen duenean eta sinesmena bere buruaren negatibo-den gisa hartzen duenean. Ilustrazioak ez du berrezagutzen bere burua negatibo-den horretan, sinesmenaren edukian, eta honegatik ezin ditu lotu bi pentsamenduak, alegia, berak ekartzen duena eta horren aurka ekartzen duena. Ilustrazioak sinesmenean gaitzetsi duen hori bitartegabe bere pentsamendu propioa dela ezagutzen ez duen heinean, hori bi unean aurkakotzan da, eta sinesmenari aurkakotzen zaiona besterik ez du berrezagutzen, eta bestea, hain zuzen, sinesmenak egiten duen bezala, horretatik banatzen du. Beraz, Ilustrazioak ez du sortzen bien lotura, lotura bezala, hau da, *adigaia*; baina *adigaia* sortzen zaio Ilustrazioari bere baitarako, edo Ilustrazioak aurkitzen du *adigaia*, *eskura dagoena* bezala besterik gabe. Izan ere, bere baitan honetan datza, hain zuzen, ulermen hutsa gauzatzea: zerizantzat *adigaia* duen hori hasieran bere buruarentzat *beste* bat

bihurtzen da guztiz eta bere burua ukatzen du, zeren adigaiaren aurkakotza aurkakotza absolutua baita, eta beste izate horretatik bere baitara edo bere adigaira itzultzen baita. Baina ilustrazioa higidura hori soilik *da*, adigai hutsaren bere buruaz jabetzen ez den egiletasuna, zeina bere baitara itzultzen den objektu gisa, baina objektua *beste gauzatzat* hartzen duen, eta adigaiaren izaera ez duen ezagutzen, hots, ezberdin ez dena dela, hain zuzen, guztiz banantzen dena. — Sinesmenaren aurrean, orduan, ulermena adigaiaren *boterea* da, ulermena bere kontzientzian sakabanatutako uneen higidura eta lotura den heinean; eta lotura horretan une horien kontraesana agertzen da. Horretan datza bortxaren *zuzenbide* absolutua, ulermenak sinesmenaren aurka erabiltzen duena; baina bortxa hori ezartzen dion *errealitatea* honako honetan datza, hots, kontzientzia sinestuna bera adigaia dela, eta orduan ulermenak berari ekartzen dion aurkakotua berrezagutzen duela. Horregatik, ulermenak arrazoa dauka sinesmenaren aurrean, hark horretan baliodun bihurtzen duelako sinesmenari berari beharrezkoa zaiona eta bere baitan daukana.

Hasieran ilustrazioak adigaiaren unea dela baieztatzen du, *kontzientziaren egitea* dela; honako hau baieztatzen du sinesmenaren *aurka*: sinesmenaren zerizan absolutua *bere* kontzientziaren zerizana dela, norbera baten gisara, edo zerizan hori kontzientziaren bidez *sortzen* dela. Kontzientzia sinestunari bere zerizan absolutua, *berbaitana* den modu berean, ez zaio gauza arrotz bat, zeina hor *izango litzatekeen*, inork ez daki nola eta nondik etonita; baizik eta bere konfiantza, hain zuzen, honetan datza, alegia, hor bere burua *aurkitzean*, kontzientzia pertsonal *hau* bezala; eta bere obedientzia eta zerbitzua honetan datza, hots, hori *bere* zerizan absolutu bezala bere *egitearen* bitartez sortzean. Hori besterik ez dio gogorarazten ilustrazioak sinesmenari, horrek adierazten duenean zerizan absolutuaren *berbaitana* kontzientziaren *egitetik haraindi* daukala. — Baina ilustrazioak sinesmenaren aldebakartasunari *egitearen* aurkako unea ekartzen dionean *izatearen* aurka, sinesmenak hor hori baino ez duenean gogoan, baina bere pentsamenduak bildu gabe, orduan *egitearen* unea hutsa bakartzen du, eta sinesmenaren *berbaitanari* buruz adierazten du kontzientziak *sortutako* zerbait *besterik ez* dela. *Berbaitanari* aurkakotutako eta bakartutako egitea, berriz, ausazko egite bat da eta, errepresentatutako egite bat izanik, fikzioak sortzen ditu, *bere baitan ez* diren errepresentazioak; eta horrela aztertzen du ilustrazioak sinesmenaren edukia. — Baina, alderantziz, ulermen hutsak aurkakoa esaten du era berean. Adigaia bere baitan daukan *beste izatearen* unea baieztatzen duenean zera adierazten du, hots, sinesmenaren zerizana *ez dela inolaz ere kontzientziaren ardua*, kontzientziatik *haraindi* dagoela, berari arrotza eta ezagutezina zaiola. Sinesmenari berbera gertatzen zaio; batetik, konfiantza dauka bere zerizanean, eta horretan *bere buruaren ziurtasuna* dauka; besterik, zerizan horren bideak ulertezinak dira eta bere izatea lortezina.

86

Gainera, ilustrazioak kontzientzia sinestunaren aurrean azken horrek onartzen dion eskubidea baieztatzen du, bere gurtzaren objektua harri, egur edo beste edozein giza itxurako determinatutasun mugatutzat hartzen duenean. Izan ere, hori kontzientzia bikoitz hau denez, alegia, *errealitatearen haratagoko* bat eta *haratagoko* horren *honatagoko* huts bat duena, orduan horretan sentipenezko gauzaren *ikusker*a hau dugu eskura egitatean, zeinaren arabera horrek *berbaitan* eta *berbaitarako* balio duen; baina honentzat *behin* zerizan hutsa, beste batean *sentipenezko gauza* arrunt bat den *berbaitan* eta *berbaitarako izatearen* bi pentsamenduak ez ditu lotzen. —

Azken ikuspuntuak bere kontzientzia hutsean ere eragiten du; izan ere, horren sentipenez haraindiko erresumak adigaia falta zaiola-eta dituen ezberdintasunak *tankera* beregainen ilara bat dira, eta horien higidura *gertaera* bat, hau da, horiek errepresentazioan besterik ez dira, eta sentipenezko izatearen modua daukate euren baitan. Ilustrazioak, bere aldetik, *errealitatea* bakartzen du, gogoak utzitako zerizan bat bezala; determinatutasuna bakartzen du mugatutasun aldaezina bezala, zerizanaren gogo-higiduran bertan *une* bat izango ez litzatekeena, ez ezereza, ezta bere baitan eta bere baitarako *den* zerbait ere, baizik eta desagertzen ari dena.

87

Argi da berbera gertatzen zaiola *jakitearen oinarriari*. Kontzientzia sinestunak ausazko *jakite* bat berrezagutzen du, ausazkotasunekin erlazio bat daukalako, eta zerizan absolutua bera, honentzat, errepresentatutako errealitate arruntaren forman baita; horrela, kontzientzia sinestuna *ere* ziurtasun bat da, egia bere baitan ez daukana, eta aitortzen du halako kontzientzia zerizangabea dela bere burua ziurtatzen duen eta bermatzen duen gogoaz honatago. — Baina *une* hori ahazten du zerizan absolutuari buruz duen bitartegabeko gogo-jakitean. Baina hori gogora ekartzen dion Ilustrazioak *jakite* ausazkoan *besterik ez* du pentsatzen eta bestea ahazten du; hirugarren *arrotz* baten bitartez gertatzen den bitartekotzan pentsatzen du, eta ez bitartegabeko-dena hirugarren hori duen bitartekotzan, zeinaren bidez bera bestearekin, hau da, *bere buruarekin* bitartekotzen den.

Azkenean, Ilustrazioak sinestunaren *egiteaz duen ikuspuntuaren* arabera, bidegabea eta xedegabea deritzo gozamenari eta jabegoari uko egiteari. Bidegabea izateari dagokionez, kontzientzia sinestunaren adostasuna dauka, horrek jabegoa edukitzearen, mantentzearen eta horretaz gozatzearen errealitatea onartzen baitu; jabegoaren defentsan are zorrotzagoa eta setatiagoa, eta gozamenean are zakarragoa da, bere egite erlijiosoan (jabegoari eta gozamenari *uko egiten* diena) errealitate horretatik haraindi kokatzen denez, eta horrek alde honetarako askatasuna saltzen baitio. Berezko kinada eta gozamenari uko egitearen gurtza horrek ez dauka berez, aurkakotza hori dela eta, inolako egirik; mantentzea uko egitearekin *hatera* gertatzen da; hori ukazio erreala zati txiki batean bakarrik gertatzen dela eta hori honegatik egitatean *errerepresentatu* besterik egiten ez dela adierazten duen zeinua da.

Xedetasunari dagokionez, Ilustrazioak uste du jabego *bati* edo gozamen *bati* uko egitea desagokia dela, jabego *horretaz* edo gozamen *horretaz* aske dela jakiteko eta frogatzeko. Kontzientzia sinestunak berak hartzen du egite absolutua egite *orokortzat*; horrentzat bere zerizan absolutuaren ekitea, bere objektuarena bezala, ekite orokor bat izateaz gain, banako kontzientzia ere guztiz eta orokorrean bere sentipenezko zerizanetik askatu dela frogatu behar da. Baina jabego *bakar* bati edo gozamen *bakar* bati uko egitea ez da ekintza orokor hori; eta ekintzan zerizanez orokorra den *xedeak* eta banakoa den *gauzatzeak* kontzientziaren aurrean euren desagokitasunean agertu behar duten heinean, orduan ekitean itxuraz kontzientziak ez du parte hartzen, eta honela ekite hori *inozoegia* da itxuraz ekintza bat izateko; inozoegi da barau egitea jateko gogoaz aske gabela frogatzeko; inozoegi da *gorputzaren* beste atseginak baztertzea, Origenesek bezala, gairitu dituela frogatzeko. Ekintza bera agertzen da *kanpoko* eta *banako* egite gisa; baina irrika *barnean* dago errotuta, eta *orokorra* da; bere atsegina ez da desagertzen ez tresnarekin batera ezta banako ukazioaren bidez ere.

88

Baina Ilustrazioak, bere aldetik, hemen *barneko-dena, errealita te gabezia dena* bakartzen du errealitatearen aurka, sinesmenaren barnekotasunaren aurka bere begiespenean eta jaieran gauzatasunaren kanpokotasunari eutsi zion bezala. Zerizanezko-dena *asmoan, pentsamen duan* ezartzen du, eta horrela aurrezten du berezko xedeetatiko askapena benetan gauzatzea; alderantziz, barnekotasun hori bera berezko irriketan osatzen den alde formal da; eta irrika horiek barneko diren horretan, izate *orokorrari*, naturari dagozkion horretan legeztatzen dira.

Ilustrazioak, beraz, sinesmenaren gainean bortxa saihestezin bat dauka, hark bere kontzientzian bertan balioarazten dituen uneak aurkitzen dituelako. Indar horren eragina zehazki aztertuz gero, badirudi sinesmenaren aurren duen jokaerak *konfiantzaren* eta bitartegabeko *ziurtasunaren* batasun *ederra* urratzen duela; *sentipenezko* errealitatearen pentsamendu zitelen bidez bere gogo-kontzientzia lohizatzen duela; adimenaren eta norberaren nahimen eta errealizazioaren harrotasunaren bidez bere menpekotasunean *lasai eta seguru dagoen* gogamena deuseztatzen duela. Baina, egitatean, sinesmenean eskura dugun *pentsamendurik gabeko* edo *adigaigabeko banaketaren* gaindipena abiarazten du. Kontzientzia sinestunak bi neurri eta pisu ditu; bi motatako begiak, bi motatako belarriak, bi motatako hizkuntzak ditu; errepresentazio guztiak bikoiztu ditu, zentzu-bikoiztasun hori alderatu gabe. Edo sinesmena bi motatako hautemapenetan bizi da, alegia, *lo dagoenaren* hautemapena, adigaigabeko pentsamenduetan bizi da; eta sentipenezko errealitatean soilik bizi den kontzientzia ernea; eta sinesmenak bakoitzean bizimodu ezberdina dauka. Ilustrazioak zeruko mundu hura argizatzen du sentipenezko munduaren errepresentazioen bidez, eta horri sinesmenak ukatu ezin duen mugatutasuna erakusten dio, hori autokontzientzia baita eta, beraz, bi errepresentazio-motak dagozkion batasuna baita, non errepresentazio-mota horiek ez diren sakabanatzen; sinesmenaren helmuga berria den norbera bereiztezin *sinple* berberari baitagozkio.

89

Horrela, sinesmenak galdu egin du bere osagaia betetzen zuen edukia, eta bere barnean gogoaren joan-etorri sorgor batean erortzen da. Bere erresumatik egotzi dute, edoerresuma hori arpilatu dute, kontzientzia erneak horren bereizkuntza eta hedapen guztiak bereganatu dituen eta bere zati guztiak lurrari aldarrikatu eta berriz lurrari bere jabego gisa itzuli dizkion heinean. Baina horrela ez da asebeste sinesmena, zeren argiztapen horren bidez edonon banako zerizana besterik ez baita sortu, halako moldez non gogoari zerizangabeko errealitateak eta hark baztertutako mugatutasunak soilik eskaintzen baitiote elkarrizketa. — Sinesmenak edukirik ez duen eta hutsune horretan iraun ezin duen heinean, edo bere eduki bakana den mugatudenetik haraindi joaterakoan hutsunea besterik aurkitzen ez duen heinean, *gura hutsa* besterik ez da, bere egia haratagoko hutsala da, zeinarentzat eduki egokirik aurkitzerik ez dagoen, dena beste modu batean antolatuta dago eta. — Horrela, sinesmena egitatean Ilustrazioa den gauza berbera bihurtu da, hots, bere baitan den mugatudenaren eta predikaturik gabeko absolutu-den ezezagun eta ezagutezinen arteko harremanaren kontzientzia; baina hura Ilustrazio *asebetea* da; sinesmena, aldiz, *asetugabea*. Hala ere, Ilustrazioan ikusi beharko da ea bere asebetean iraun dezakeen; bere gogo-mundua galdu izatea deitoratzen ari den gogo ilurraren gura hura zelatan dago. Ilustrazioak berak dauka bere baitan asetugabearen gure orban hori, *objektu huts* bezala bere zerizan absolutu *kas kalean, egite* eta *higidura* bezala, bere banako zerizanetik *gaindi joaten* denean haratagoko osatugabera, *objektu osatu*

bezala, baliagarri-denaren *norberagabetasunean*. Orban hori gaindituko du; bere egia den emaitza positiboa hurbilagotik aztertzen baldin badugu, orban hori jadanik gaindituta dagoela ikusiko da.

b. ILUSTRAZIOAREN EGIA

90

Bere barnean ezer ezberdintzen ez duen gogoaren higidura sorgor hori, orduan, bere barnean kontzientziarik haraindi sartu da; honek, aldiz, bere burua argitu du. Argitasun honen lehen unea bere beharrezkotasunean eta baldintzan honela dago determinatuta, hots, ulermen hutsak edo *bere baitan* adigaia den ulermenak bere burua egikaritzen duela; beste izatea edo determinatutasuna horretan ezartzen duen heinean egiten du hori. Horrela, ulermen huts negatiboa da, hau da, adigaiaren negazioa; negazio hori, era berean, hutsa da; eta horrela *gauza huts*, bestelako determinaziorik ez daukan zerizan absolutu bihurtu da. Hori zehazten bada, ulermena adigai absolutu bezala jadanik ezein ezberdintasun ez diren ezberdintasunen ezberdintzea da, euren buruei jadanik eusten ez dien, baizik eta *higiduraren osokiaren bitartez* bakarrik sostengu eta bereizkuntza duten abstrakzioen edo adigai hutsen ezberdintzea da. Ezberdin ez diren horien ezberdintzea honetan datza, hain zuzen, adigai absolutuak bere burua bere *objektu* bihurtzen duela eta *higidura* horren aurrean bere burua *zerizan* bezala ezartzen duela. Horrela, zerizan horrek ez dauka abstrakzioak eta ezberdintasunak *banandurik* dauden aldea, eta, honegatik, *pentsatze huts* bihurtzen da *gauza huts* gisa. — Hori da, hain zuzen, gogoak bere barnean duen kontzientziarik gabeko higidura sorgor hura, zeinean sinesmena hondoratu zen, eduki ezberdina galdu zuenean; hori, gainera, autokontzientzia hutsaren *higidura* hura da, zeinarentzat honek haratagoko absolutuki arrotza izan behar duen. Izan ere, autokontzientzia huts horrek adigai hutsetako eta ezein ezberdintasun ez diren ezberdintasunetako higidura izan behar duenez, orduan egitatean bere buruaz jabetzen ez den higiduran hondoratzen da, hau da, *sentitze* hutsean edo *gauzatasun* hutsean. — Baina bere baitatik arrotzu den adigaiak (hori hemen oraindik anozketa horren mailan baitago) ez du berrezagutzen bi aldean (autokontzientziaren higiduraren eta bere zerizan absolutuaren) zerizan berdina, zeina egitatean bere substantzia eta iraupena den. Batasun hori berrezagutzen ez duen heinean, honentzat zerizanak haratagoko objektiboaren forman balio du soilik; baina ezberdintzen duen eta, honela, berbaitana bere baitatik at daukan kontzientziak kontzientzia mugatu gisa balio du.

Zerizan absolutu hari dagokionez, ilustrazioa lehen sinesmenarekin eduki zuen gatazkan gertatzen da orain bere buruarekin, eta bi alderditan banatzen da. Alderdi bat *irabazlea* bezala egiaztatzen da bere aldetik bi alderditan banatzen delako; izan ere, horrela erakusten baitu aurre egiten dion printzipioa bere baitan daukala eta, horrela, aurretik zuen aldebakartasuna gainditu duela. Berak eta besteak partekatzen zuten interes komuna orain bere baitan dago guztiz eta berak bestea ahaztu egiten du, ardura dion aurkakotza bere barnean aurkitzen duelako. Hala ere, aldi berean, aurkakotza osagai irabazle garaiagora goratzen da eta hor araztuta agertzen da. Horrela, alderdi batean sortutako desadostasuna, itxuraz zorigaitza zena, azken batean zorionekoa da.

91

Zerizan hutsak ez dauka ezein bereizketarik bere baitan; ondorioz, bereizketa sortzen zaio, horrelako bi zerizan hutsak *kontzientziarentzat* agertzen direlako, edo zerizanaren kontzientzia bikoiztua agertzen delako. —Zerizan absolutu hutsa pentsatze hutsean bakarrik dago, edo, hobeto, pentsatze hutsa bera da, orduan mugatu-den honen autokontzientziatik *haraindi* eta zerizan negatiboa besterik ez da. Baina, horrela, hain zuzen, izatea da, autokontzientziaren negatibo-dena. Horren *negatibo-dena* bezala horrekin ere harremanak dauzka; *kanpoko izatea* da, zeinak ezberdintasunen eta determinazioen gune den autokontzientziari lotuta, dastatu, ikusi, eta abar izateko ezberdintasunak bere baitan jasotzen dituen; eta erlazioa *sentipenezko* ziurtasuna eta hautemapena da.

Sentipenezko izate horretatik abiatzen baldin bagara, haratagoko negatibo hura nahitaez jaso behar duen horretatik, baina kontzientziaren harremanaren modu jakin hori baztertuz, orduan *materia* hutsa geratzen da, bere barneko higidura sorgor hori bezala. Horregatik, funtsezkoa da ohartzea *materia hutsa* geratzen dena besterik ez dela, ikustea, sentitzea, dastatzea, eta abar *baztertzen* ditugunean, hau da, hori ez da ikusitakoa, dastatutakoa, senritutakoa, etab.; ez da *materia* ikusten, senritzen, dastatzen, baizik eta kolore bat, harri bat, gatz mota bat, etab.; hori *abstrakzio hutsa* da gehienbat, eta horrela eskura duguna *pentsatzearen zerizan hutsa* edo pentsatze huts berbera da, bere baitan ezberdinduta ez dagoen, determinatuta ez dagoen predikaturik gabeko absolutu-dena den aldetik.

Ilustrazio batek zerizan absolutua deitzen dio predikaturik gabeko absolutu horri, kontzientzia errealetik haraindi abiapuntu zuen pentsatzean dagoen horri; beste ilustrazioak *materia* deitzen dio. *Natura* eta gogo edo *jainkoa* bezala bereizi izan balira, bere barnean bere buruaz jabetzen ez den higidurari, natura izateko, garatutako bizitzaren aberastasuna faltako litzaioke, eta gogoari edo jainkoari bere barnean bere burua ezberdintzen duen kontzientzia. Biak, ikusi dugun moduan, adigai berbera dira; ezberdintasuna ez datza gaian bertan, baizik eta bi garapenen abiapuntu ezberdinean besterik ez, eta pentsatzearen higiduran bakoitza toki ezberdin batean gelditzean.

92

Euren kokagunea gaindituko balute, elkar topatuko lukete eta berdinak bezala berrezagutuko lukete batak aldrebeskeriatzat, besteak ergelkeriatzat hartzen duena. Izan ere, batentzat, hain zuzen, zerizan absolutua bere pentsatze hutsean da, edo bitartegabe kontzientzia hutsarentzat, kontzientzia mugatutik at, azken horren haratagoko *negatiboa* da. Honi buruzko gogoeta egingo balu, hots, batetik, pentsatzearen bitartegabekotasun simple hori *izate hutsa* besterik ez dela; eta, besterik, kontzientziarentzat *negatiboa* den hori aldi berean kontzientziari lotzen zaiola, judizio negatibo batean «*da*» kopulak banatuta dauden biak era berean biltzen dituela, bada, orduan ondorioa litzateke haratagoko horrek kontzientziarekin duen harremana kanpoan denaren determinazioan, eta, horrela, *materia hutsa* deitzen dugun hori bera izango litzateke; eta falta zen unea lortuko litzateke, presentziarena. Beste ilustrazioa sentipenezko izatetik abiatzen da, gero dastatzearen, ikustearen, eta abarren sentipenezko harremana baztertzen du eta hori *berbaitan* huts bihurtzen du, *materia absolutu*, sentitzen ez dena eta dastatzen ez dena; horrela, izate hori predikaziorik gabeko simple-dena bihurtu da, *kontzientzia hutsaren* zerizan; adigai hutsa da *bere baitan* den horretan, edo *pentsatze hutsa bere barnean bertan*. Ulermen honek ez du egiten, bere kontzientzian, aurkako bidea, hots, baden

horretatik, badena *besterik* ez den horretatik, pentsatutakora, izan besterik ez den horren berbera denera; edo positibo besterik ez denetik negatibora doan bidea. Beraz, positibodena negazioaren bidez baino ez da *hutsa*; baina negatibo besterik ez dena, hutsa den aldetik, bere barnean bertan bere buruarekin berdin da eta, hain zuzen, horregatik da positiboa. Edo bi ilustrazioetatik bat berak ere ez du lortu Descartesen metafisikaren malla, non *bere baitan* izatea eta *pentsamendua* gauza berbera diren; ez du lortu pentsamendu hau, alegia, izatea, *izate hutsa*, ez dela *erreal-den konkretua*, baizik eta abstrakzio hutsa; eta alderantziz, pentsatze hutsa, bere buruarekiko berdintasuna edo zerizana, alde, autokontzientziaren *negatibo-dena* eta, beraz, izatea dela; alde, bitartegabeko sinpletasuna bezala, izatea besterik ez dela; *pentsatzea gauzatasuna* da, edo *gauzatasuna pentsatzea* da.

Zerizanak hemen *bikoiztasuna* bere baitan halako moduan dauka, non ikuspuntuaren bi moduei baitagokie; alde, zerizanak ezberdintasuna bere baitan eduki behar du; alde, bi ikuspuntu ezberdinak batean biltzen dira; izan ere, izate hutsaren eta negatibo-denaren une abstraktuak, zeinen bidez ezberdintzen diren, ikuspuntu horien objektuan batuta daude. — Orokor-den komuna euren barneko dardara hutsaren edo bere burua pentsatze hutsaren abstrakzioa da. Errotaziohigidura sinple horrek bere burua banatu egin behar du, bere uneak ezberdintzen dituen heinean baino ez baita higidura. Uneen bereizkuntza horrek atzean uzten du higitzen ez dena, izate hutsaren oskol hutsa bezala, zeina ez pentsatze errealik, ez bizitzarik ez den jadanik bere barnean; izan ere, bereizkuntza hori, bereizketa gisa, eduki oro da. Baina, horrela, *batasun* hartatik *at* ezartzen den bereizkuntza *bere baitara itzultzen* ez diren uneen aldaketa da, *berbaitan izatearen*, *beste batentzako izatearen* eta *berbaitarako izatearen* *uneen* aldaketa; errealitatea da, ulermen hutsaren kontzientzia errealarentzat objektu den lege, *erabilgarritasuna*.

93

Erabilgarritasuna sinesmenari edo sentikortasunari edo bere buruari espekulazio deitzen dion abstrakzioari, *berbaitana* finkatzen duenari, gaitz iruditu arren, hor osatzen du ulermen hutsak bere gauzapena, eta bere buruarentzat bere *objektua* da, zeina gehiago ez duen ukatzen eta zeinak horrentzat hutsunearen edo haratagoko hutsaren baliorik ez daukan. Izan ere, ulermen hutsa, ikusi dugunez, baden adigai hutsa bera edo bere buruarekin berdin den pertsonaltasun hutsa da, bere barnean bere burua halako moduan ezberdintzen duena, non ezberdindutako bakoitza ere adigai hutsa baita, hau da, bitartegabe ezberdinduta ez dagoena; bai *bere baitarako* bai *bere baitan* batasun bitartegabekoan den autokontzientzia sinple hutsa da. Bere *berbaitan izatea* ez da, beraz, irauten duen *izatea*, baizik eta bitartegabe uzten dio bere bereizketan zerbait izateari; baina bitartegabe euskarririk ez daukan honelako izatea ez da *bere baitan*, baizik eta zerizanez hori xurgatzen duen boterea den *beste batentzat* da. Baina lehenengoari (*berbaitan* izateari) aurkakotzen zaion bigarren une hori lehenengoa bezain azkar desagertzen da; edo, *beste batentzako izatea* besterik ez den heinean, *desagertzea* bera da; eta *ezartzen* dena *bere baitara itzulitako*, *berbaitarako izatea* da. Baina berbaitarako izate sinple hori, bere buruarekiko berdintasuna den heinean, *izate bat da*, edo, honela, *beste batentzat* da. Ulermen hutsaren izaera hori *bere uneen garapenean*, edo horrek objektu den aldetik, erabilgarri-dena adierazten du. *Bere baitan* mantentzen den zerbait da, edo gauza bat, berbaitan izate hori, aldi berean, une hutsa besterik ez da; eta, horrela, absolutuki

beste batentzat da, baina bere baitan den neurrian bakarrik da beste batentzat; bi une aurkakotu horiek itzuli dira berbaitarako izatearen batasun bereiztezinera.

94

Baina erabilgarri-denak ulermen hutsaren adigaia adierazten duen arren, ez da ulermena bere horretan, baizik eta *errepresentazio* bezala, edo bere *objektu* bezala; une horien aldaketa geldiezina besterik ez da; horietako bat bere baitara itzuli den izatea bera da, baina *berbaitarako* izate bezala bakarrik, hau da, beste uneen aldamenean une abstraktu bezala agertzen den une bezala. Erabilgarri-dena bera ez da zerizan negatiboa, *ikuspuntu bat eta berberean* une horiek euren aurkakotzan aldi berean *bereiztezin* izatea edo *pentsatze* bat bezala bere baitan izatea, ulermen hutsa gisa diren moduan; *berbaitarako izatearen* unea benetan dago erabilgarri-den horretan, baina ez halako moduan, non horrek beste uneak, *berbaitan* eta *bestearantzako izatea*, *bereganatzen* baititu eta, horrela, *norbera* izango bailitzateke. Ulermen hutsak erabilgarri-den horretan bere adigai propioa bere une *hutsetan objektutzat* dauka; *metafisika* horren kontzientzia da, baina oraindik ez da horren aditzea; *izatearen* eta *adigaiaren batasunera* ez da ailegatu oraindik. Erabilgarri-denak oraindik, ulermenarentzat, objektu baten forma daukanez, horrek *mundu* bat dauka, bere baitan eta bere baitarako ez bada ere, bere burua bere baitatik ezberdintzen duena. Baina aurkakotzak adigaiaren goiburura ailegatzeko direnean, hurrengo urratsa horiek hondoratzea izango da, eta ilustrazioak bere egintzen fruituak dastatzea.

Lortutako objektua alor oso horri lotuta aztertzen badugu, orduan kulturaren mundu erreala autokontzientziaren *harrotasunean* laburtzen da, mundu horren nahasmendua bere eduki gisa duen *berbaitarako izatean*, oraindik *banako* adigaia denean, eta bere baitarako *orokorra* oraindik ez denean. Baina adigaia, bere baitara itzulita, *ulermen hutsa* da; kontzientzia hutsa *norbera* hutsa bezala edo negatibotasuna, sinesmena *pentsatze hutsa* edo positibotasuna den era berean. Sinesmenak *norbera* horretan bera osatzen duen unea dauka; baina gaineraketa horren bidez hondoratuz, ulermen hutsean ikusten ditugu bi uneak: *pentsatu* besterik egiten ez den edo negatiboa den zerizan absolutua, eta *baden* positiboa den *materia*. — Osotasun horri falta zaiona autokontzientziaren errealitate hura da, kontzientzia harroari dagokiona, hots, *pentsatzea* bere baitara igotzeko abiapuntu zen mundua. Falta den hori erabilgarritasunean lortzen da, ulermen hutsak hor objektibotasun positiboa lortzen duen heinean; horren bidez bere barnean asetuta dagoen kontzientzia erreala da.

95

Objektibotasun honek osatzen du horren *mundua*; aurreko mundu osoaren, bai idealaren bai errearen egia bihurtu da. Gogoaren lehen mundua bere burua sakabanatzen den hor-izatearen eta bere buruaren banako *ziurtasunaren* erresuma zabala da, naturak bere bizitza tankera amaigabeki anitzetan sakabanatzen duen modu berean, horien *generoa* eskura izan gabe. Bigarrenak badu *generoa*, eta *berbaitan izatearen* edo *egiaren* erresuma da, ziurtasun hari aurkakotuta. Hirugarrena, *erabilgarri-dena*, era berean bere buruaren *ziurtasuna* den *egia* da. *Sinesmenaren* egiaren erresumari falta zaiona *errealitatearen* printzipioa da, edo bere buruaren ziurtasuna, *banako-den* horren ziurtasun gisa. Errealitateari, aldiz, edo bere buruaren ziurtasunari, *banako-den* horren ziurtasun gisa, *berbaitana* falta zaio. Ulermen hutsaren objektuan bi munduak batuta daude. Erabilgarri-dena objektua da, autokontzientziak hori guztiz zeharkatzen duen eta bere buruaren *banako ziurtasuna*,

bere gozamina (bere *berbaitarako izatea*) horretan daukan heinean; autokontzientziak hori guztiz *ulertzen* du horrela, eta ulermen horrek objektuaren *egiazko* zerizana barnebiltzen du (zeharkatua edo *beste batentzako* izatea); ulermena bera, orduan, *egiazko jakitea* da, eta autokontzientziak, era berean, bitartegabe bere buruaren ziurtasun orokorra dauka, bere *kontzientzia hutsa* erlazio honetan, non era berean *egia* eta presentzia eta *errealitate* ere batuta dauden. Bi munduak adiskidetu dira; eta zerua lurrera jaitsi da.

III. ASKATASUN ABSOLUTUA ETA IKARA

Kontzientziak erabilgarritasunean bere adigaia aurkitu du. Baina adigaia oraindik hein batean *objektua*, beste hein batean, hain zuzen, honegatik *helburua* da, eta kontzientziak ez du oraindik bitartegabe horren jabegoa. Erabilgarritasuna oraindik objektuaren predikatua da; ez da subjektua bera, edo bere *errealitate* bitartegabeko eta bakana. Lehen agertu zen gauza berbera da, hots, *berbaitarako izatea* ez zen azaldu gainerako uneen substantzia bezala, zeinaren bitartez erabilgarri-dena bitartegabe kontzientziaren norbera besterik ez litzatekeen izango, eta hori haren jabe izango litzatekeen. — Baina erabilgarri-denaren objektibotasunaren forma berreskuratzea gertatu da jadanik *bere baitan*, eta barneko iraultza horretatik sortzen da errealitatearen iraultza erreal, kontzientziaren forma berria, *askatasun absolutua*.

96

Egitean eskura dagoena objektibotasunaren itxura hutsala besterik ez da, zeinak autokontzientzia eta jabegoa banatzen dituen. Izan ere, hein batean mundu erreal eta sinestuen organizazioaren kide jakinen iraupena eta balioa determinazio simple honetara itzuli dira, bere oinarria eta gogora bezala; baina, beste hein batean, determinazio simple horrek ez dauka ezer propiorik, eta, aitzitik, metafisika hutsa da, autokontzientziaren adigai hutsa edo jakitea. Erabilgarri-denaren *berbaitan eta berbaitarako izate* objektu gisa daki kontzientziak bere zerizanez beste batentzako izatea dela; *berbaitan izatea, norberarik gabea* den heinean, egiatan norbera jasailea da, edo beste norbera batentzat dena. Baina kontzientziarentzat objektua *berbaitan-izatearen* forma abstraktu honetan da, zeren *ulertze hutsa* baita, zeinaren ezberdintasunak adigaiaren forma hutsean diren. — Baina beste batentzako izatearen helmuga den *berbaitarako izatea*, norbera, ez da Nia ez den beste norbera propioa, objektua deitzen zaion horren norbera; izan ere, kontzientzia, ulermen hutsa bezala, ez da *banako* norbera, zeinari objektua, era berean, norbera *propioa* bezala, aurkakotutako litzaiokeen, baizik eta kontzientzia adigai hutsa da, norberak norbera begizatzea, *bere burua* bikoiztuta ikusteko ekintza absolutua da; bere buruaren ziurtasuna subjektu orokorra da, eta bere adigai jakilea errealitate ororen zerizana. Erabilgarri-dena, orduan, bere *batasun* propiora itzultzen ez den uneen aldaketa besterik ez zen eta, ondorioz, oraindik objektua zen jakitearentzat, baina, orain, aldiz, hori izateari uzten dio, jakitea bera une abstraktu horien higidura baita; jakitea norbera orokorra da, bai beraren bai bere objektuaren norbera, eta orokorra den heinean, higidura horren bere baitara itzultzen den batasuna.

Horrela, gogoia *askatasun absolutu* bezala daukagu eskura; bere burua atzematen duen autokontzientzia da, horrela ulertuz bere buruaz duen ziurtasuna bai mundu errealaren bai sentipenetik haraindikoaren gogo-masa guztien zerizana dela; edo

alderantziz, zerizana eta errealitatea kontzientziak *bere buruaz* duen jakite hori direla. — Hori bere nortasun hutsaz eta horretan gogo- errealitate guztiaz jabetzen da, eta errealitatea guztia gogoaren alorrean baino ez dago; mundua honentzat bere nahimena besterik ez da, eta bere nahimen hori nahimen orokorra. Eta hori ez da, noski, nahimenaren pentsamendu kaskala, zeina onarpen jasailean edo ordezkatuan ezartzen den, baizik eta nahimen orokorra da benetan, *banako* guztien nahimena, halakotzat hartuta. Izan ere, nahimena bere baitan nortasunaren edo bakoitzaren kontzientzia da, eta egiazko nahimen erreal hori bezala izan behar du, nortasun guztien eta bakoitzaren zerizan *autokontziente* bezala, halako moldez non bakoitzak zatitu gabe beti dena egiten baitu, eta osokiaren egite bezala agertzen dena *bakoitzaren* egite bitartegabekoa eta kontzientea baita.

97

Askatasun absolutuaren zatitu gabeko substantzia hori munduaren tronura igotzen da, eta ezein boterek ezin dio aurre egin. Izan ere, egiatan kontzientzia osagai bakarra den heinean, non gogo-zerizan edo -botereak bere substantzia daukaten, orduan masetan zatitzearen bidez antolatu eta mantentzen zen sistema osoa hondoratzen da, banako kontzientziak objektua halako moldez hartu ondoren, non honek autokontzientzia ez zen beste ezein zerizan ez baitauka, edo hori absolutuki adigaia baita. Adigaia baden *objektu* bihurtu zuena bereizita *irauten* duten masetan bereiztea izan zen; baina objektua adigai bihurtzen den heinean, ez dago jadanik horretan irauten duen ezer; negatibotasunak bere une guztiak zeharkatu ditu. Bera halako moduan sartzen da existentzian, non banako kontzientzia bakoitza berari zegokion alorretik igotzen baita, masa berezi honetan bere zerizana eta bere emaitza dagoeneko ez baititu aurkitzen, baizik eta bere norbera nahimenaren adigai gisa, masa guztiak nahimen horren zerizan gisa atzematen baititu eta, horrela, bere burua lan osoa den lan batean bakanik egikari baitezake. Askatasun absolutu horretan estamentu guztiak, osokiaren antolamendu diren gogo-zerizanak direnak, baliogabetzen dira; honelako antolaketari zegokion eta bere barnean nahi eta bere burua osatzen zuen banako kontzientziak bere hesiak gaingitu ditu: bere xedea xede orokorra da, bere hizkuntza lege orokorra, bere emaitza emaitza orokorra.

Objektuak eta *bereizketak* galdu egin dute hemen izate erreal guztiaren predikatua zen *erabilgarritasunaren* esanahia; kontzientziak bere higidura ez du hasten bere baitan, hori bere baitara itzultzeko abiapuntu den *arrotza* bailitzan, baizik eta objektua horrentzat kontzientzia bera da; aurkakotza, orduan, *banako* kontzientziaren eta kontzientzia *orokorraren* arteko ezberdintasunean besterik ez datza; baina banakoa bere buruarentzat bitartegabe aurkakotzaren *itxura* zeukana da, kontzientzia eta nahimen orokorra da. Bere errealitate honen *haratagokoa* izate errealaren edo sinestuaren desagertutako beregaintasunaren gorpuaren gainean dago kulunkari, gas ustel baten *être suprême* hutsaren jariora bezala.

98

Gogo-masa ezberdinak eta indibiduen mugatutako bizitza eta, gainera, horien bi munduak gaingitu eta gero, eskura dugun gauza bakarra autokontzientzia orokorrak bere barnean duen higidura da, horren elkarrekintza gisa *orokortasunaren* eta kontzientzia *personalaren* forman; nahimen orokorra *bere baitara* doa, eta *banako* nahimena da, zeinari lege eta emaitza orokorra aurkakotzen zaion. Baina *banako* kontzientzia, era berean, bitartegabe bere buruaz jabetzen da nahimen orokor gisa; bere objektua nahimen orokorrak emandakoa izateaz eta nahimen orokorrak osatutako emaitza izateaz jabetzen da. Egiletasunera igarotzerakoan eta

objektibotasuna sortzerakoan, ez du banako den ezer egiten, baizik eta legeak eta estatu-akzioak besterik ez.

Horrela, higidura hori kontzientziak bere buruarekin duen elkarrekintza da, eta hor kontzientziak ez du ezer uzten bere aurrean agertzen zaion objektu askearen tankeran. Hortik ondorioztatzen da kontzientziak ezin duela emaitza positiborik lortu, ez hizkuntzaren edo errealtatearen lan orokorrak, ez *bere buruaz jabetzen den* askatasunaren lege eta antolaketa orokorrak, ezta *nahi duen* askatasunaren egintzak eta emaitzak ere. — Bere buruari *kontzientzia* ematen dion askatasunak honelako emaitza lor zezakeen, hots, substantzia *orokor* gisa, *objektu* eta *irauten duen izate* bihurtzea. Beste izate hori ezberdintasuna litzateke askatasunaren barnean, zeinaren arabera irauten duten gogo-masetan eta botere ezberdinen kideetan banatuko litzatekeen; hein batean, masa horiek zatitutako *botere* legegile, epaile eta eragile baten gauza-pentsamenduak izango lirateke; beste hein batean, aldiz, kulturaren mundu errealean sortzen ziren *zerizan errealak* eta, egite orokorraren edukia zehazkiago aztertzen dugun heinean, lanaren masa bereziak, zeinak berriro *estamentu* bereziagoetan ezberdintzen diren. — Askatasun orokorra, horrela bere kideetan bereizten den eta horren bidez *baden* substantzia bihurtuko litzatekeena, horren bidez banako pertsonaltasunaz aske izango litzateke eta honek *indibiduen multzoa* banatuko luke bere kide ezberdinen arabera. Baina, horrela, pertsonaltasunaren egitea eta izatea osokiaren adar batera mugatuta egongo litzateke, egitearen eta izatearen modu batera; *izatearen* osagaian ezarrita, *determinatu* baten esanahia edukiko luke; egiatan utzi egingo lioke autokontzientzia orokorra izateari. Hori ezin dute iruzurtu, *errealitateari* dagokionez, ez berari zati bat egokituko lioketen *norberak emandako* legeen arabeko obedientziaren *errepresentazioak*, ezta horrek legegintzan eta egite orokorrean duen *ordezkaritzak ere*; ez dute iruzurtzen errealtate honi dagokionez, *berak* bere buruari legea ematea eta ez banako emaitza, baizik eta orfeor-dena *bera* osatzea; izan ere, norbera *ordezkatuta* eta *errepresentatuta* bakarrik dagoen tokian hori ez da *erreal*; beste batek *ordezkatzen* duen tokian hori ez da.

99

Askatasun absolutuaren *emaitza orokor* honetan, *baden* substantzia bezala, banako autokontzientziak ez du bere burua aurkitzen; eta are gutxiago askatasun honen nahimenaren egintza propioetan eta banako ekintzetan. Orokor-denak egintza bat lortzeko, bere burua indibidualtasunaren Batean bildu eta autokontzientzia bakar bat ezarri egin behar du gailurrean; izan ere, nahimen orokorra Bat den norbera bakar batean da nahimen *erreal*. Baina, horrela, beste banako guztiak baztertzen dira egintza horren *osokitik*, eta modu mugatu batean parte hartzen dute horretan, halako moldez non egintza ez bailitzateke autokontzientzia *orokor errealaren* egintza izango. Ezein emaitza edo egintza positibok ezin du sortu askatasun orokorra; *egite negatiboa* besterik ez zaio geratzen; desagertzearen *amorrazioa* besterik ez da.

Baina askatasun orokorrari aurkakotutako errealtate goren, edo horrentzat oraindik bihurtzen den objektu bakana, autokontzientzia errealaren beraren askatasuna eta banakotasuna da. Izan ere, antolamendu organikoaren errealtatera eraman ezin den eta banatu gabeko jarraitasunean irautea helburutzat daukan orokortasun hori bere barnean ezberdintzen da aldi berean, higidura baita, edo kontzientzia oro har. Eta bere abstrakzio propioari jarraiki, mutur era berean abstraktuetan banatzen da: orokortasun simple eta zurrunki hotzean, eta

autokontzientzia errealaren puntualtasun egoskorrean eta irmotasun diskretu eta absolutuki gogorrean. Antolamendu erreala baliogabetu ondoren, eta orain berarentzat bakanik irauten duenean, hori da bere objektu bakana, ezein eduki, jabego, hor-izate eta kanpoko hedapenik ez daukan objektua, baizik eta bere buruaren jakite hori besterik ez dena, banako norbera guztiz huts eta aske gisa. Bere hor-izate *abstraktua* besterik ez da, objektu hori har daitekeen horretan. — Beraz, bi horien arteko erlazioa, zatitu gabe guztiz beraientzat direlako eta orduan erdigunera ezein zati bidali ezin dutelako, elkar lotu ahal izateko, guztiz *bitartekotugabea den* negazio hutsa da, eta, hain zuzen, banakoaren negazioa da, *badena* bezala, orokor den horretan. Askatasun orokorraren emaitza eta egintza bakana, orduan, *heriotza* da, eta, hain zuzen, ezein barneko hedapen eta osaketa ez daukan *heriotza*; izan ere, ukatzen dena norbera guztiz askearen puntu osatugabea da; beraz, heriotza hotzena, arruntena da, azaburua mozteko ekintza edo ur-zurrutada edateko ekintza baino esanahi gehiago ez duena.

100

Silaba horren arrunkerian datza gobernuaren jakituria, eta nahimen orokorraren adimena, bere osaketan. Gobernua bere burua finkatzen duen puntua besterik ez da, edo nahimen orokorraren indibidualtasuna. Gobernuak, puntu batetik abiatzen den nahi izate eta osatze batek, aldi berean ordena eta ekintza bat nahi du eta osatzen du. Honela, batetik, bere egintzatik baztertzen ditu gainerako indibiduoak, eta bestetik, nahimen determinatu bat den eta, horrela, nahimen orokorrari aurkakotzen zaion hori bezala eratzen du bere burua; beraz, *fakzio* baten gisara baino ezin dezake aurkeztu bere burua. Gobernua deitzen dena irabazi duen fakzioa da, eta, hain zuzen, fakzio izate honetan datza bitartegabe bere hondamendiaren beharrezkotasuna; eta gobernua izateak, alderantziz, fakzio bihurtzen du, eta errudun. Nahimen orokorrak gobernuaren ekite errealari eta gobernuak nahimenaren aurka egiten duen krimenari eusten badio, orduan gobernuak, bere aldetik, ez dauka ezer determinaturik eta kanpokorik aurkakotzen zaion nahimenaren errua hor aurkezteko; izan ere, gobernuari, nahimen orokor *erreala* den heinean, nahimen huts ez- erreala, *asmoa*, aurkakotzen zaio. Beraz, *susmagarri bihurtzea* agertzen da *errudun izatearen* lekuan, edo honek *errudun izatearen* esanahia eta eragina dauka, eta asmoaren barnealde sinplean dagoen errealitate horren aurkako kanpoko erreakzioa baden norbera horren baliogabetze lehorrean datza, bere izatea bera besterik kendu ezin zaion norbera horrena.

Bere berezko *emaitza* horretan askatasun absolutua objektu bihurtzen da bere buruarentzat, eta autokontzientziak askatasun absolutua zer den esperientziatzen du. *Bere baitan* askatasun absolutua, hain zuzen, bere barnean ezberdintasun oro eta ezberdintasunaren iraute oro baliogabetzen duen *autokontzientzia abstraktu* hori da. Horrelako moduan da askatasun absolutua objektua bere buruarentzat; heriotzaren *ikara* bere zerizan negatibo honen begiespena da. Baina bere errealitate horrek autokontzientzia guztiz askea honetaz zuen adigaia ez bezala aurkitzen du; hau da, bere adigaiaren arabera nahimen absolutua pertsonaltasunaren zerizan *positiboa* besterik ez da, eta pertsonaltasun horrek bere buru hori positiboki soilik daki, edo mantenduta. Baina autokontzientziak, ulermen hutsa den heinean bere zerizan positiboa eta negatiboa bereizten dituenak (predikatu gabeko absolutu-dena *pen tsatze* hutsa bezala eta *materia* hutsa bezala), hor eskura du *igarobide* absolutua zerizan batetik bestera bere errealitatean. — Nahimen orokorra, autokontzientzia erreal absolutuki *positiboa* dela eta, bera pentsatze *hutsera* edo materia *abstraktura*

igotako errealitate autokontzientea denez, zerizan *negatibo* bihurtzen da, eta erakusten du era berean *bere burua pentsatzearen* edo autokontzientziaren *gainditzea* dela.

101

Beraz, askatasun absolutuak, nahimen orokorraren bere buruarekiko berdintasun *hutsa* izanik, *negazioa* dauka, baina horrela *ezber dintasuna* oro har bere baitan, eta hori berriz garatzen du ezberdintasun erreala bezala. Izan ere, negatibotasun *hutsak* bere buruarekiko berdindun nahimen orokorrean *iraupenaren osagaia* dauka, edo *substantzia*, non bere uneak gauzatzen diren; bere determinatutasunean erabil dezakeen materia dauka; eta substantzia hori banako kontzientziarentzat negatiboden hori dela erakutsi den heinean, berriz gogo-masen antolaketa osatzen da, zeinei kontzientzia banakoen multzoa egokitzen zaien. Nagusi absolutuaren, heriotzaren, izua nabaritu duten horiek negazioa eta ezberdintasunak berriz onartzen dituzte, masen arabera ordenatzen dira eta banatutako eta mugatutako lanetara itzultzen dira, eta, horrela, euren errealitate substantziadunera.

Gogoia anabasa horretatik bere abiapuntura, kulturaren mundu etikora eta errelera atzera bidalia izango litzateke, gogoak berriz hanapatu dituen nagusiaren izuaren bidez freskatu eta gartzetu besterik egin ez den mundura. Gogoak beharrezkotasunaren zirkulua berriz ibili eta beti errepikatu beharko luke, autokontzientziaren eta substantziaren arteko erabateko adostasuna izango balitz emaitza; adostasun honetan autokontzientziak beraren aurka bere zerizan orokorraren indar negatiboa nabaritu eta bere burua ez du jakin eta aurkitu nahi banako-den hau bezala, baizik eta orokor-dena bezala, eta honegatik gogo orokorraren errealitate objektiboa, hori berezi-dena bezala baztertzen duen errealitatea, jasan ahal izango zuen. Baina askatasun absolutuan ez zegoen elkarrekintzarik, hor-izate anitzean hondoratuta dagoen edo helburu eta gogoeta jakinak finkatu dituen kontzientzian, ezta *kanpoko* (enealitatearen edo pentsatzearen) mundu baliiodunean ere; baizik eta munduan kontzientziaren forman, nahimen orokor bezala, eta era berean hedatutako hor-izate guztietatik edo helburu eta judizio anitzetatik norbera sinplera bildutako autokontzientzian.

102

Zerizan harekin elkarrekintzan lortutako kultura, beraz, gorena eta azkena da, bere errealitate huts sinplea bitartegabe desagertzen eta ezerez hutsera igarotzen ikustea. Kulturaren munduan bertan ez da ailegaten bere negazioa edo anozketa abstrakzio hutsaren forma honetan ikustera, baizik eta bere negazioa betea da: edo norberaren (zeinetik arrotzu den) lekuan lortutako ohorea edo aberastasuna; edo urratutako kontzientziak lortzen duen gogoaren eta ulermenaren hizkuntza; edo sinesmenaren zerua eta ilustrazioaren erabilgarri-dena. Determinazio horiek guztiak galtzen dira norberak askatasun absolutuan esperientziatzen duen galeran; bere negazioa heriotza hutsala da, negatibo-denaren ikara hutsa, zeinak bere barnean positiboa den eta betetzen duen ezer ere ez daukan. Baina, aldi berean, negazio hori bere errealitatean ez da *arrotza*; ez da haratago dagoen *beharrezkotasun* orokorra, non mundu etikoa hondoratzen den, ezta jabego propioaren banako ausa edo (urratutako kontzientziak nagusi gisa ikusten duen) jabearen apeta ere; baizik eta bere azken abstrakzio honetan positiboa den ezer ez daukan eta, honegatik, eskaintzaren truke ezer eman ezin duen *nahimen orokorra* da; baina, hain zuzen, honegatik, bat da bitartegabe autokontzientziarekin, edo guztiz positiboa da, guztiz negatiboa delako; eta heriotza hutsala, norberaren osatugabeko negatibotasuna, barneko adigaiari

positibotasun absolutu eraldatzen da. Kontzientziarentzat beraren eta nahimen orokorraren arteko batasun bitartegabekoa, bera nahimen orokorrean puntu jakin hori dela jakiteko eskakizuna, guztiz aurkako esperientzia bihurtzen da. Hor desagertzen zaiona *izate* abstraktua edo substantziarik gabeko puntuaren bitartegabekotasuna da, eta desagertutako bitartegabekotasun hori nahimen orokorra bera da, zeinak orain bere burua dakien, *gainditutako bitartegabekotasuna*, jakite hutsa edo nahimen hutsa den heinean. Horren bitartez badaki nahimen orokor hori bera dela eta bera zerizana dela, baina ez *bitartegabe den* zerizana; ez daki nahimen orokorra gobernu iraultzailea dela edo anarkia ezartzen saiatzen den anarkia dela, ezta fakzio honen edo bere aurkakoaren erdigunea dela ere, baizik eta nahimen orokorra bere *jakitea eta nahi izate hutsa* da; eta *hura* nahimen orokorra da, jakite eta nahi izate huts hori den heinean. Hark *bere burua ez du* galtzen, jakite eta nahi izate huts hura delako, kontzientziaren puntu atomikoa bezala. Beraz, hura jakite hutsak bere buruarekin duen elkarrekintza da; *jakite* hutsa, *zerizan* bezala, nahimen orokorra da; baina *zerizan* hori jakite hutsa besterik ez da. Autokontzientzia, orduan, zerizanari buruzko jakite hutsa da, jakite huts den aldetik. Gainera, *banako norbera* bezala, subjektuaren edo egite errearen forma da, hark *forma* gisa dakiena; era berean, errealtate *objektiboa*, izatea, norberarik gabeko forma da harentzat; izan ere, horrelako errealtatea ez dakiguna litzateke; baina jakite honek jakitea zerizan gisa daki.

103

Beraz, askatasun absolutuak banako nahimenaren eta nahimen orokorraren arteko aurkakotza bere buruarekin orekatu du; bere baitatik arrotzu den gogoak, bere aurkakotzaren gailunera ekarrita, non nahi izate hutsa eta nahi besterik ez duena oraindik ezberdinak diren, aurkakotza hori forma nabarmen bihurtzen du, eta hor bere burua aurkitzen du. Mundu errearen erresuma sinesmenaren eta ulermenaren mundura igarotzen da, eta, era berean, askatasun absolutua bere burua deuseztatzen duen errealtatetik bere buruaz jabetzen den gogoaren beste lur batera igarotzen da, non errealtate-eza horretan egia-den bezala balio duen; eta horren pentsamenduan gogoia indarberritzen da, *gogoia pentsamendua den* heinean eta hori izaten jarraitzen duen heinean, eta autokontzientziaren barnean sartuta dagoen izate hori zerizan betegin eta osatua bezala dakien heinean. *Gogo moralaren* tankera berria sortu da.

C. Bere buruaz ziur dagoen gogoa. Moraltasuna

Mundu etikoak erakutsi zuen bere baitan soilik hil den gogoa, *banako norbera*, bere patua eta bere egia bezala. Baina *zuzenbidearen pertsona* horrek bere substantzia eta bere osaketa bere baitatik at dauka. Kulturaren eta sinesmenaren munduaren higidurak pertsonaren abstrakzio hori gainditzten du, eta, arroketa burutuaren bidez, abstrakzio gorenaren bidez, gogoaren norberari substantzia bihurtzen zaio, hasieran, *nahimen orokor* eta, azkenean, bere jabego. Hemen, orduan, badirudi jakiteak azkenean lortu duela bere egiarekin bat bihurtzea, bere egia jakite hori bera baita, eta bi aldeen aurkakotza oro desagertu baita, eta, hain zuzen, ez *guretzat* edo *bere baitan*, baizik eta autokontzientziarentzat berarentzat. Beraz, autokontzientzia kontzientziaren aurkakotzaren maisu bihurtu da. Kontzientzia hori bere buruaz duen ziurtasunaren eta objektuaren aurkakotzan oinarritzen da; baina orain honentzat objektua bere buruaz duen ziurtasuna da, jakitea; era berean, bere buruaz duen ziurtasunak, halakotzat, ez dauka xede propiorik, eta beraz, ez dago determinatutasunean, baizik eta jakite hutsa da.

Autokontzientziaren jakitea, orduan, berarentzat *substantzia* bera da. Autokontzientziarentzat substantzia banatu gabeko batasun batean dago, bai *bitartegabe* baita absolutuki *bitartekotuta ere*. *Bitartegabe*, kontzientzia etikoak dakien eta betebeharra egiten duen, eta horri dagokionez, bere naturari bezala; baina substantzia ez da *izaera*, kontzientzia etikoa den bezala, zeina bere bitartegabekotasunaren ondorioz gogo jakin bat den, zerizantasan etikoetako *bati* bakanik dagokion, eta zeinak *ezjakiteko* aldea daukan. — *Bitartekotza absolutua* da, garatzen ari den kontzientzia eta kontzientzia sinestuna diren bezala; izan ere, zerizanez, norberaren higidura da, *bitartegabeko hor-izatearen* abstrakzioa gainditzeko eta *orokor-dena* bihurtzeko; baina ez bere norberaren eta errealtatearen arroketa hutsaren eta urraduraren bitartez, ezta ihesaren bitartez ere. Baizik eta hori *bitartegabe*, bere substantzian *presen te* dago, substantzia bere jakitea delako; hori bere buruaren begietsitako ziurtasun hutsa da; eta, hain zuzen, bere errealtate propioa den *bitartegabekotasun hori* errealtate osoa da, bitartegabeko-dena izatea bera delako, eta, negatibotasun absolutuaren bidez araztutako bitartegabekotasun hutsa bezala, izate hutsa da, izatea da oro har edo izate oro da.

Beraz, zerizan absolutua ez da agortzen *pentsatzearen zerizan* sinplearen determinazioan; baizik eta *errealtate* osoa da, eta errealtate hori jakite gisa besterik ez da; kontzientziak jakingo ez lukeenak ez luke zentzurik izango, eta horrek ezin du eduki inolako botererik horrentzat; bere nahimen jakilean gorde da objektibotasun guztia eta mundu guztia. Guztiz askea da, bere askatasuna dakielako, eta, hain zuzen, bere askatasunaren jakite hori da bere substantzia eta xedea eta eduki bakana.

a. MUNDU-IKUSKERA MORALA

Autokontzientziak betebeharra zerizan absolutu gisa daki; hura horren bidez bakarrik dago lotuta, eta substantzia hori bere kontzientzia huts propioa da; betebeharrak ezin du hartu arrotz baten forma honentzat. Baina horrela bere

barnean itxita, autokontzientzia morala ez dago oraindik *kontzientzia* bezala ezarrita eta ikusita. Objektua bitartegabeko jakitea da, eta, horrela, norberak zeharkatuta, ez da objektua. Baina autokontzientziak, zerizanez bitartekotza eta negatibotasuna izaki, badauka bere adigaiian *beste izate batekin* harremana, eta kontzientzia da. Beste izate hori da, batetik, betebeharrak osatzen duelako bere xede eta objektu zerizanezko bakana, horrentzat guztiz *garrantzirik gabeko* errealitatea. Baina kontzientzia hori bere barnean guztiz itxita dagoenez, beste izate horren aurrean guztiz aske eta axolagabe jokatzen du, eta, horregatik, hor-izatea, bestetik, autokontzientziak guztiz aske utzitako hor-izatea da, bere buruarekin baino lotzen ez den hor-izatea; autokontzientzia zenbat eta askeago izan, hainbat askeago izango da bere kontzientziaren objektu negatiboa. Horren bidez, objektu hori indibidualtasun propioa daukan eta bere barnean osatuta dagoen mundua da, lege bereizgarrien osoki beregaina, eta horien ibilbide beregaina eta egikaritzapen askea, hots, *natura* bat oro har, zeinaren legeak eta egitea berari bakarrik dagozkion, autokontzientzia moralak bost axola dion zerizan gisa, autokontzientziari horiek bezala.

Determinazio horretatik abiatuta *mundu-ikuskeraren morala* eratzen da, zeina berbaitan eta berbaitarako izate *moralaren* eta berbaitan eta berbaitarako izate *berezkoaren* arteko *harremanean* datzan. Harreman honen oinarrian daude, batetik, *naturaren* eta xede eta egiletasun *moralen* elkarrenganako erabateko *axolagabekeria* eta *beregaintasun* propioa; eta bestetik, betebeharraren ez beste inoren zerizantzasunaren kontzientzia eta naturaren erabateko menpekotasunaren eta zerizangabekotasunaren kontzientzia. Mundu-ikuskeraren moralak guztiz aurkakotutako baldintzen harreman horretan jasota dauden unen garapena barnebiltzen du.

Beraz, hasieran kontzientzia morala suposatu egiten da oro har; betebeharrak balio dio zerizantzat, *erreal* eta *ekilea* den eta bere errealitatean eta egintzan betebeharra egiten duen honi. Baina, aldi berean, kontzientzia moral horrentzat da naturaren aurre-suposatutako askatasuna; edo berak *esperientziatzen* du naturari bost axola zaiola bere errealitatearen eta haren arteko batasunaren kontzientzia ematea hari; eta beraz, naturak *beharbada zoriontsu* egingo duela, edo *beharbada ez*. Kontzientzia ez-moralak, aldiz, agian egikaritzapena ausaz aurkitzen du kontzientzia moralak ekiteko *abagunea* besterik ikusten ez duen horretan, baina horren bidez ez du ikusten burutzearen eta osatzearen gozamenaren zoriona ematen zaionik. Gehienbat aurkitzen du beraren eta hor-izatearen arteko desadostasun-egoeraz eta bere objektua *betebehar huts* gisa soilik edukitzeko baina objektua eta *bere burua* egikaritututa ikustea eragozten dion bidegabekeriak kexu izateko arrazoia duela.

106

Kontzientzia moralak ezin dio zoriontasunari uko egin; ezin du une hori bere xede absolututik at utzi. *Betebehar huts* gisa adierazten den xedeak zerizanez *banako* autokontzientzia hori barnebiltzeko beharrezkotasuna dauka; *banako uste osoak* eta horri buruzko jakiteak osatzen dute moralitasunaren une absolutua. Une hori *objektibo* bihurtutako *xedean*, *burututako* betebeharrean, bere burua egikaritututa begiesten duen *banako* kontzientzia da, edo *gozamina*; eta hori adigaiian dago, nahiz eta ez bitartegabe moralitasunarenean, *jaidura* gisa *hartuz*, *egikaritzapenaren* adigaiian baizik. Baina, honela, gozamina ere hor dago moralitasunean, *jaidura* gisa, zeren moralitasunaren asmoa ez baita egiteari aurkakotutako *jaidura* izatea, baizik eta *egitea*, edo bere burua egikaritzea. Xedea, osokia bere unen kontzientziarekin batera adierazita, hauxe da, hots, burututako betebeharra egite moralak nahiz

gauzatutako indibidualtasuna dela, eta *natura*, *banakotasunaren* alde gisa xede abstraktu aren aurka, bat dela xede honekin. — Bi aldeen desadostasunaren esperientzia beharrezkoa bada ere, natura askea delako, era berean, betebeharra soilik da zerizanezko-dena, eta natura horren aurrean norberarik ez duena. Harmonia osatzen duen *xede* oso hark bere barnean dauka errealitatea bera. Hori, aldi berean, *errealitatearen pentsamendua* da. Moraltasunaren eta naturaren arteko harmonia, edo (natura kontzientziak horrekin duen batasuna esperientziatzen duen heinean soilik hartzen denean aintzat) moralitasunaren eta zoriontasunaren arteko harmonia *pentsatzen* da beharrezkoa bezala, edo harmonia *postulatzen* da. Izan ere, *eskatzeak* adierazten du oraindik errealia ez den *zerbait* badena bezala pentsatzen dela; ez adigaiak adigai gisa duen beharrezkotasuna, izatearena baizik. Baina beharrezkotasuna, aldi berean, zerizanez adigaiaren bidezko harremana da. Eskatzen den izatea ez dagokio, orduan, kontzientzia ausazkoaren errepresentatzeari, baizik eta moralitasunaren beraren adigaiari datza, zeinaren egiazko edukia kontzientzia *hutsaren* eta *banako* kontzientziaren arteko *batasuna* den; azken honi dagokio batasun hori *berarentzat*, errealitate gisa, izan dadila; hots, xedearen *edukian* zoriontasuna dena, bere *forman*, aldiz, horizatea dela oro har. Eskatzen den hor-izate hori, edo bien batasuna, ez da, horregatik, desira bat edo, xede gisa hartuta, bere lorpena zalantzarri litzatekeen zerbait, baizik eta arrazoimenaren eskakizun bat da, edo arrazoimenaren ziurtasun eta baldintza bitartegabekoa.

107

Lehen esperientzia hura eta postulatu hori ez dira bakarrak, baizik eta postulatuen sorta oso bat agertzen da. Natura ez da *kanpoko* modu guztiz askea soilik, non, objektu huts batean bezala, kontzientziak bere xedea gauzatu beharko lukeen. *Bere baitan bertan* zerizanez honelako bat da, *zeinarentzat* beste erreal-den aske hori den, hau da, hori bera ausazkoa eta berezkoa da. Horri berea zaion natura hori *sentimena* da, zeinak nahi izatearen *tankeran*, *kinada* eta *joerak* bezala, bere baitarako zerizantasan jakin propioak edo banako xedeak dauzkan; eta beraz, nahimen hutsari eta bere xede hutsari aurkakotzen zaizkio. Baina, aurkakotasun horren aurka, kontzientzia hutsarentzat zerizana dena sentimenak horrekin daukan harremana da, honekin duen batasun absolutua. Biak, pentsatze hutsa eta kontzientziaren sentimena, *euren baitan*, *kontzientzia Bat* dira, eta batasun huts hori pentsatze huts horrentzat eta horretan da; baina horrentzat, kontzientzia gisa, bere buruaren eta kinaden arteko aurkakotza da. Arrazoimenaren eta sentimenaren arteko gatazka honetan arrazoimenarentzat zerizana gatazka desegitea eta, *emaitza* gisa, bi muturren batasuna sortzea da; ez *jatorrizko* batasuna, non biak indibiduo batean diren, baizik eta bien arteko aurkakotza *jakinetik* sortzen den batasuna. Halako batasuna bakanik da moralitasun *errealia*, zeren hor baitago barnebilduta norbera kontzientzia edo errealia eta egitatean norbera eta, aldi berean, orokor bihurtzen duen aurkakotza; edo hor adierazten da moralitasunari, ikusi dugunez, zerizanezkoa zaion *bitartekotza*. — Aurkakotzaren bi uneen arrear, sentimena *beste izatea* edo negatibo-dena izaki, eta betebeharraren pentsatze hutsa, aldiz, bertatik ezer baztertu ezin den zerizana, orduan itxuraz sortutako batasuna sentimena gaudituz soilik lor daiteke. Baina sentimena bera bilakaera horren unea, *errealitatearen* unea denez, orduan batasunarentzat hasieran nahikoa da esatea sentimena moralitasunari *egokitzen* zaiola. Batasun hori, era berean, postulatutako *izatea* da, *ez dago hor; hor dagoena* kontzientzia da, edo sentimenaren eta kontzientzia hutsaren arteko aurkakotza.

Baina, aldi berean, batasun hori ez da *berbaitan* bat, lehen postulatu bezala, non natura askeak alde bat osatzen duen eta non naturaren eta kontzientzia moralaren arteko harmonia kontzientzia moraletik at geratzen den; baizik eta natura hemen kontzientzian bertan dena da, eta hemen kontua moralitasuna da, halako gisa, egileak duen norbera propioaren harmonia da; kontzientziak sortu behar du harmonia, eta beti aurrerapenak egin behar ditu moralitasunean. Baina moralitasunaren *osaketa amaigaberaino atzeratzen da*; izan ere, benetan lortuko balitz, kontzientzia morala gaitutako litzateke. Izan ere, *moralitasuna* zerizan negatiboaren moduan bakanik da *kontzientzia* morala; zerizan horren betebeharrak hutsarentzat sentimenak esanahi *negatiboa* bakarrik dauka, eta *egokia ez dena* besterik ez da. Baina harmonian *moralitasuna*, *kontzientzia* edo bere *errealitate* gisa desagertzen da, *kontzientzia* moralean edo errealitatean bere harmonia desagertzen den modu berean. Osaketa ezin da benetan lortu, *eginbehar absolutu* bezala pentsatu besterik ezin daiteke egin, hau da, beti eginbehar dirauena. Aldi berean, hala ere, honen edukia *izan* behar duen eta eginbehar gisa irauten duen zerbait bezala pentsatu behar da; demagun, behin helmuga lortuz gero, kontzientzia morala guztiz gaitutako errepresentatzen dela, edo ez; ezin da argi ikusi benetan zer gertatzen den amaigabetasunaren urruntasun ilunean, non, horregatik, helmugaren lorpena kokatu den. Benetan esan beharko litzateke errepresentazio determinatua ez dela interesatzen eta ez dela aurkitu behar, horrek kontraesanak sortzen dituelako: eginbehar iraun behar duen eta, hala ere, bete behar den eginbeharrarena; kontzientzia ez den, errealia izan behar ez den moralitasunarena. Baina burututako moralitasunak kontraesana daukala adierazten bada, zerizantzen moralaren santutasunak jasango luke, eta betebeharrak absolutua errealia ez den zerbait bezala agertuko litzateke.

Lehenengo postulatu zen moralitasunaren eta natura objektiboaren harmonia, *munduaren* azken xedea; bestea, moralitasunaren eta sentipenezko nahimenaren harmonia, *autokontzientziaren* azken xedea; lehenengoa, orduan, harmonia *berbaitan izatearen* forman; bestea *ber baitarako izatearen* forman. Baina pentsatutako bi muturren azken xede horiek, erdigune gisa, lotzen dituen ekite *errealaren* higidura bera da. Horiek harmoniak dira, zeinen uneak euren ezberdintasun abstraktuan oraindik objektu bihurtu ez diren; hori errealitatean gertatzen da, non aldeak benetako kontzientzian agertzen diren, bakoitza bestearen *bestea* bezala. Horrela sortutako postulatuek lehen banatutako harmoniak barnebiltzen zituzten *euren baitan* eta *euren baitarako*, baina orain *euren baitan eta euren baitarako diren* harmoniak.

Kontzientzia morala, *betebehar* hutsaren *jakitea* eta *nahi izate sinple* gisa, ekitearen prozesuan bere sinpletasunari aurkakotutako objektuari lotzen zaio, *kasu anitzen* errealitateari, eta horregatik *erlazio* moral anitza dauka. Hemen sortzen dira, edukiaren arabera, lege *anitzak* eta, formaren arabera, kontzientzia jakilearen eta kontzientzia-ezaren botere kontraesankorrak. — Lehen eta behin *betebehar anitzei* dagokienez, kontzientzia moralak horietan baliadun gisa *betebehar hutsa* besterik ez du hartzen; *betebehar anitzak*, anitzak diren aldetik, *determinatuak* dira eta, horregatik, ez dira santua den ezer kontzientzia moralarentzat. Baina, aldi berean, errealitate anitz eta honegatik bere barnean harreman moral anitz ere badaukan *ekitearen* adigaiaren bitartez, betebeharrak anitz horiek, *nahitaez*, bere baitan eta bere baitarako gisa hartu behar dira. Gainera, *kontzientzia* moral batean bakarrik izan

daitezkeenez, aldi berean betebeharrak hutsa bere baitan eta bere baitarako huts eta santutzat duen kontzientzia moralean ez beste kontzientzia batean baino ez daude.

Postulatzen da, orduan, betebeharrak santu egin dituen edo betebehartzat jakin eta nahi dituen *beste* kontzientzia bat dagoela. Lehenengo kontzientziak betebeharrak hutsa jasotzen du, *eduki zehatzak zeinahi* direla ere, eta betebeharrak eduki horren aurreko axolagabekeria besterik ez da. Baina beste kontzientziak, era berean, zerizanezko den harremana barnebiltzen du ekitearekin eta eduki *zehatzaren beharrezkotasunarekin*; betebeharrak horri betebeharrak *determinatutzat* balio dioten heinean, edukia bezain zerizanezkoa zaio forma, zeinaren bitartez edukia betebeharrak den. Kontzientzia hori, horrela, halakoa da, non orokordena eta berezi-dena bat diren; eta bere adigai moralitasunaren eta zoriontasunaren harmoniaren adigai bera da. Izan ere, aurkakotza horrek *bere buruarekin berdin* den kontzientzia moralaren eta, *izate anitz* gisa, betebeharraren zerizan sinplea kontraesaten duen errealitatearen arteko banaketa adierazten du. Baina lehenengo postuluak moralitasunaren eta naturaren *baden* harmonia adierazten du, natura hor autokontzientziaren negatibodena, *izatearen* unea delako; orain, aldiz, *berbaitana* zerizanez kontzientzia gisa dago ezarrita. Izan ere, badenak orain *betebeharraren edukiaren* forma dauka, edo *betebeharrak determinatutan determinatutasuna* da. *Berbaitana*, orduan, *zerizantasan sinple* gisa pentsatzearen zerizantasanak eta, honegatik, kontzientzia batean bakarrik diren osagaien batasuna da. Kontzientzia hori, orduan, moralitasunaren eta zoriontasunaren arteko harmonia sortzen duen eta, aldi berean, betebeharrak, *anitzak airen* heinean, santu bihurtzen dituen munduaren nagusi eta menperatzailea da. Santu bihurtze horrek esan nahi du *betebeharrak hutsaren* kontzientziari betebeharrak determinatua ezin zaiola bitartegabe santu izan; baina, ekite determinatua bat den ekite errealari esker, betebeharrak determinatua era berean *beharrezkoa* delako, bere beharrezkotasuna kontzientzia hartatik at beste batean kokatzen da, zeina, horrela, betebeharrak determinatuaren eta hutsaren arteko bitartekaria den, eta betebeharrak determinatuak ere baliodun izateko oinarria den.

110

Baina ekintza errealean, kontzientziak norbera hori bezala jokatzeko du, guztiz banako kontzientzia gisa; errealitateari, halakoari gisa, begira dago, eta errealitatea dauka xedetzat; izan ere, burutu nahi du. Orduan, *betebeharrak oro har* bere baitatik at, betebeharrak hutsaren kontzientzia eta legegile santua den beste zerizan batean dago. Kontzientzia ekileari, hain zuzen, ekilea delako, betebeharrak hutsaren besteak bitartegabe balio dio; betebeharrak huts hori, orduan, beste kontzientziaren edukia da, eta zeharka baino ez da santua kontzientzia harentzat, hau da, kontzientzia honetan.

Horrela ezartzen delako betebeharraren balioa, *bere baitan eta bere baitarako* den santu-den gisa, kontzientzia errealetik at dagoela, orduan hori kontzientzia moral *osagabea* bezala agertzen da alde batean. Bere *jakitearen* arabera, badaki bere jakitea eta uste osoa osagabeak eta ausazkoak direla; eta bere *nahi izatearen* arabera, badaki sentimenak bere xedeak kutsatu egiten dituela. Duintasun ezagatik, ezin du hartu zoriontasuna beharrezko gisa, baizik eta ausazko zerbait gisa, eta dohain bezala lortzea baino ezin dezake itxaron.

Baina bere errealitatea osagabea izan arren, bere nahimen eta jakite *hutsari* betebeharrak zerizana zaie; adigaietan, errealitateari aurkakotuta dagoen heinean, edo pentsatzean da osatua. Baina zerizan absolutua, hain zuzen, pentsatutakoa eta errealitateetik haraindi postulatutakoa da; horregatik, jakite eta nahi izate moralki

osagabeak betegintzat hartzen dituen pentsamendua da, eta, horrela, horiei garrantzi nagusia ematen dien heinean, zorientasuna duintasunaren arabera banatzen duena da, hau da, horri *egotzitako merezimenduaren* arabera.

111

Hor mundu-ikuskerara osatuta dago; izan ere, autokontzientzia moralaren adigaiari bi aldeak, betebeharrak hutsa eta errealtatea, batasun *batean* eta, horrela, bai bata baita bestea ere *une* gisa edo gaindituta gisa daude ezarrita, eta ez bere baitan eta bere baitarako izango balira bezala. Hori kontzientziak izango du mundu-ikuskerara moralaren azken zatian; kontzientziak betebeharrak hutsa ezartzen du bere baitan ez beste zerizan batean, hau da, aldean, *errepresentatutako zerbait* gisa ezartzen du, aldean, bere baitan eta bere baitarako balio duen hori ez den zerbait bezala, baizik eta ezmorala-dena betegintzat hartzen da. Era berean, bere burua ezartzen du errealtatea, betebeharrak egokitzen ez zaiona, gaindituta izanik eta, *gaindituta* duen aldetik, edo zerizan absolutuaren *errepresentazioan*, ez du jadanik moralitasuna kontraesaten.

Hala ere, kontzientzia moralarentzat berarentzat, bere mundu-ikuskerara moralak ez dauka esanahi hau, hots, berak mundu-ikuskerara horretan bere adigaiak garatzen duela eta adigaiak bere objektutzat hartzen duela; ez du ohartzen formaren araberrako aurkakotza hori, ezta edukiaren araberrakoa ere; honen zatiak ez ditu lotzen eta alderatzen bata bestearekin, baizik eta bere garapenean aurrera doa, uneak elkar lotzen dituen *adigaiak* izan gabe. Izan ere, horrek *zerizan hutsa* edo objektua hori *betebeharrak* den heinean daki, bere kontzientzia hutsaren objektu *abstraktu* den heinean, jakite hutsa edo hori bera bezala. Orduan, pentsatu besterik ez du egiten, ez du aditzen. Horregatik, bere kontzientzia *errealaren* objektua ez zaio oraindik nabarmen; ez da adigai absolutua, zeinak *beste izatea* halako gisa edo bere aurkako absolutua bere burua bezala atzematen duen. Bai bere errealtate propioak bai errealtate objektibo guztia zaio *zerizangabe*; baina bere askatasuna pentsatze hutsaren askatasuna da, eta horren aurrean natura sortzen da, era berean askea den zerbait bezala. Kontzientzia moralean biak, *izatearen askatasuna* eta izatea kontzientziaren barnean itxita egotea, era berean daudelako, orduan bere objektua *baden objektu* bihurtzen da, zeina aldi berean *pentsatu* baino ez den egiten; begiespenaren azken zatian edukia halako moduan ezarrita dago, non bere izatea *errepresentatua* baita, eta izatearen eta pentsatzearen lotura egitatean den bezala adierazten da, *errepresentatzea*.

Mundu-ikuskerara morala halako moduan ikusten dugun heinean, non modu objektibo hori autokontzientzia moralaren adigaiak besterik ez baita (bere buruarentzat objektibo bihurtzen duena), orduan, bere sorreraren forman buruzko kontzientzia horren bidez, bere aurkezpenaren beste tankera bat ondorioztatzen da. — Hasiera, hots, abiapuntua autokontzientzia moral *errealak* da, edo *horrelako autokontzientzia* dagoela. Izan ere, adigaiak ezartzen du determinazio honetan: autokontzientzia moralarentzat edozein errealtatek zerizana dauka betebeharrak egokitzen zaion heinean; eta adigaiak zerizan hori jakite bezala ezartzen du, hau da, norbera erreallarekiko batasun bitartegabekoan; batasun hori, horrela, errealak da, kontzientzia moral errealak *da*. Horrek, kontzientzia bezala, bere edukia objektu bezala errepresentatzen du, hau da, munduaren *azken xedea* bezala, moralitasunaren eta errealtate guztiaren arteko harmonia bezala. Baina batasun hori *objektu* gisa errepresentatzen duen heinean, eta oraindik adigaiak ez den heinean, objektuaren

gainean boterea daukana, orduan batasuna autokontzientziaren negatibo-dena da horrentzat, edo horren baitatik at dago, bere errealitatearen haratagoko gisa, nahiz eta, aldi berean, *badena* bezala, baina pentsatua besterik ez.

112

Objektua ez *beste* bat den honi, autokontzientzia den heinean, geratzen zaiona betebeharrak-kontzientziaren eta errealitatearen (hain zuzen, bere buruaren errealitatearen) arteko harmonia-eza da. Esakuneak, beraz, hau dio orain: *ez dago moralki betegina den ezein* autokontzientzia *errealik*; eta morala dena betegina den heinean soilik denez, betebeharra nahastu gabeko *berbaitan* hutsa baita, eta moralitasuna hutsa den horri egokitzean datzanez, orduan bigarren esakuneak dio oro har: *ez dago moralki errealia* den ezer.

Baina, hirugarren, norbera *bat* den heinean, hori betebeharraren eta errealitatearen arteko batasuna da; batasun hori objektu bihurtzen zaio, moralitasun osatua bezala (baina bere errealitatearen *haratagoko* gisa), hala ere errealia izan behar duen moralitasuna.

Bi lehen esakuneen arteko batasun sintetikoaren helburu honetan, bere buruaz jabetzen den errealitatea eta betebeharra gaitutako une bezala bakanik daude ezarrita; izan ere, ez dira banakoak; aitzitik, horiek, zeinen determinazio zerizanezkoa *bestetik aske* izatea den, euren batasunean jadanik ez dira aske bakoitza bestetik, hau da, gaitutuak dira, eta, horrenbestez, edukiaren arabera, halako objektu bihurtzen dira, non bakoitzak *bestearen balioa* baitauka, eta, formaren arabera, horien arteko truke hori aldi berean *errepresentatua* besterik ez baita. Edo *errealiki morala ez dena*, pentsatze hutsa delako eta bere errealitatearen gaitetik dagoelako, errepresentazioan bai da morala, eta guztiz baliodun gisa hartzen da. Honela, berriz sortzen da lehenengo esakunea, autokontzientzia morala *badagoela*, baina bigarrenarekin lotuta, *ez dagoela*, hau da, badago bat, baina errepresentazioan bakarrik; edo ez dago bat bera ere, baina beste batek ematen dio balio hori.

113

b. LERRADURA

Mundu-ikuskeran moralean ikusten dugu, alde batetik, kontzientziak berak bere objektua sortzen duela *horretaz jabetuz*; beraz, ez dugu ikusten objektua arrotza den zerbait bezala aurkitzen duela ezta kontzientziarik gabe berari objektu bihurtzen zaiola ere; alderantziz, kontzientziak beti arrazoi baten arabera jokatzen du, eta horri jarraiki *zerizan objektiboa ezartzen* du; kontzientziak badaki, orduan, zerizana bera dela; badaki bera horren ekoizpenaren *eragilea* dela. Horrela, itxuraz bere lasaitasuna eta asebetea lortu ditu, hori bakarrik lor baitezake bere objektutik haraindi joan behar ez duenean, hori jadanik hartatik haraindi ez doalako. Bestalde, hala ere, kontzientziak objektua *bere baitatik at* ezartzen du, bere buruaren haratagokoa bezala. Baina berbaitan eta berbaitarako den hori, era berean, halako eran ezartzen da, non autokontzientziatik aske ez baita, baizik eta autokontzientziaren mesedetan eta beraren bidez baita.

Mundu-ikuskeran morala, orduan, egitatean oinarrian dagoen kontraesan honen garapena besterik ez da bere alde ezberdinetan; Kanten esamolde bat hemen,

egokien den tokian, erabiliz, pentsamendu gabeko kontraesarren *kabi osoa* da⁸. Kontzientziak garapen horretan halako moduan jokatzen du, non une bat finkatzen baitu eta hortik bitartegabe bestera igarotzen baita eta lehengoa gainditzen baitu; baina bigarren hori *aurkezten* duen bezain pronto, berriz *ezkutatzen du*, eta aurkakoa bihurtzen du zerizan. Aldi berean, bere kontraesanaz eta *lerraduraz ere* jabetzen da; izan ere, *bitartegabe une honekin berarekin lotuta* dagoen une batetik igarotzen da aurkakora; une batek inolako errealitaterik ez *daukanez* berarentzat, ezartzen du, hain zuzen, une erreal gisa; edo, berbera dena, *une bat* berbaitan den gisa baieztatzeko, *aurkako* den unea baieztatzen du berbaitan izate gisa. Horrela, aitortzen du egitatean bietako ezin ez duela serio hartzen. Hori zehazkiago aztertu behar da higidura iruzurti horren uneetan.

114

Utz dezagun oraingoz bakean kontzientzia moral erreal badagoela dioen auresuposizioa, bitartegabe aurretiko zerbaitekin harremanean ez baita egiten, eta moraltasunaren eta naturaren arteko harmoniaz ardura gaitzen, lehenengo postulatuaz. Harmoniak *bere baitan* izan behar du, eta ez kontzientzia errealarentzat; ez du hor aurrean izan behar, hori bien kontraesana baita. Hor aurrean *moraltasuna eskura dagoen* zerbait bezala hartzen da, eta errealitatea horrela ezartzen da, non ez baitago moraltasunarekin harmonian. Baina kontzientzia moral erreal *ekilea* da; horretan datza, hain zuzen, bere moraltasunaren errealitatea. *Ekitean* bertan, hala ere, kokapen hura tokiz aldatuta dago bitartegabe; izan ere, ekitea barneko xede moralaren egikaritzapena besterik ez da; *xedearen bidez determinatutako errealitatea* edo helburu moralaren eta errealitatearen arteko harmonia sortzea besterik ez. Aldi berean, ekintzaren burutzea kontzientziarentzat da, burutze hori errealitatearen eta xedearen arteko batasuna *aurrean izatean* datza; eta burututako ekintzan kontzientziak bere burua banako-den gisa gauzatzen duelako, edo hor-izatea kontzientziara itzulita begiesten duelako eta gozamina horretan datzalako, orduan xede moralaren errealitatean aldi berean barnebiltzen da gozamina eta zoriontasuna deitzen zaion forma. Ekiteak osatzen du bitartegabe, orduan, egitatean gertatzen ez dela adierazten zena, eta postulatu bat besterik izan behar ez zuena, haratagoko bat. Egintzaren bidez kontzientziak adierazten du, orduan, postulatzeko hori ez dela serioa, ekitearen zentzua baita hor aurrean ezartzea hor aurrean izan beharko ez lukeena. Eta ekitegarik harmonia postulatzeko den heinean (hau da, ekitearen bidez *erreal* izan behar dena, *bere baitan* horrela izan behar da, bestela errealitatea ez litzateke *ahalgarr* izango), orduan ekitearen eta postulatuaren arteko lotura halako moduan dago eratuta, non ekiteagatik, hau da, xedearen eta errealitatearen arteko harmonia *errealagatik*, harmonia hori *ez erreal gisa, haratagoko gisa* ezartzen baita.

Ekiten den heinean, xedearen eta errealitatearen arteko *desadostasuna* ez da serio hartzen; alderantziz, *ekitea* hartzen da serio. Baina, egitatean, ekite erreal *banako* kontzientziaren ekitea bakarrik da, hau da, egite bera banako den zerbait, eta emaitza ausazkoa. Baina arrazoimenaren xedea, guztia besarkatzen duen xede orokor gisa, mundu guztia da; eta azken xede hori banako ekintza horretatik haraindi doa guztiz, eta horregatik ekite erreal guztitik haraindi kokatu behar da.

115

Gauza onen orokorra gauzatu behar delako, ez da egiten ezer onik. Baina, egitatean, ekite errealaren *baliogabetasuna* eta xede *osoarena baino ez den errealitatea*, orain

⁸ Ikusi Kant, *Arrazoimen hutsaren kritika*, B 637; argudiaketa kosmologikoan «ustekeria dialektikoen kabi osoa» ezkutatzen da (Euskaraz, Klasikoak, 472 or.).

aurkeztu diren horiek, alde guztien arabera berriro lerratzen dira. Ekintza morala ez da ausazkoa eta mugatua den zerbait, *betebehar* hutsa baitauka zerizan gisa. Betebehar huts horrek osatzen du xede *oso bakarra*, eta ekintza, xedearen egikaritzapen gisa, edukiak beste edozein muga izan arren, xede absolutu guztiaren burutzea da. Edo bere lege *propioak* dauzkan eta betebehar hutsari aurkakotzen zaion errealitatea berriz natura gisa hartzen badugu, halako moldez non betebeharrak bere legea horretan ezin baitezake gauzatu, orduan, betebeharra, halako gisa, zerizana den heinean, egitatean, kontua ez da xede osoa den betebehar hutsa *burutzea*; izan ere, burutzearen xedea ez zen izango betebehar hutsa, baizik eta aurkakoa, hau da, *errealitatea*. Baina berriro ezkututzen da kontua errealitatea ez dela; izan ere, ekite moralaren adigaiaren arabera betebehar hutsa zerizanez kontzientzia *ekilea* da; ekin behar da, beraz, dena den; betebehar absolutua adierazi behar da natura osoan, eta lege morala naturaren lege bihurtu behar da.

Demagun *ongi gorena* zerizana dela, orduan kontzientziak ez du hartzen serio moraltasuna. Izan ere, ongi goren horretan naturak ez dauka moraltasuna ez den beste legerik. Horrela, ekite morala bera desagertzen da, ekiteak ekintzaren bidez gainditu behar den negatiboden bat behar baitu aurretik. Baina natura lege etikoaren arabera baldin bada, orduan lege hori ekitearen bidez hausten da, baden horren gainditzearen bidez. Suposizio hartan, orduan, honakoa onartzen da zerizanezko egoera gisa, non ekite morala alfenikakoa den, eta horrelakorik ez duen behar. Moraltasunaren eta errealitatearen arteko harmoniaren postulatua (biak adosteko ekite moralaren adigaiaren bidez ezartzen den harmonia) honela adierazten da alde honetarik: ekite morala xede absolutua denez, orduan xede absolutua da ekite morala eskura ez izatea inolaz ere.

Une horiek elkartzen ditugunean, zeinen bidez kontzientziak aurrera egiten duen bere errepresentatze moralean, argi geratzen da kontzientziak une bakoitza berriz bere aurkakoan gainditzen duela. *Bere* abiapuntua da moraltasuna eta errealitatea ez direla harmonizatzen; baina hori ez du hartzen serio, *horrek* ekintzan duelako hor aurrean harmonia hori. Baina *ekite* hori ere ez du hartzen serio, banako zer bait baita; izan ere, kontzientziak hain xede garaia dauka, *ongi gorena*. Baina hori berriz gaiaren ezkutatze bat besterik ez da, hor ekite eta moraltasun oro desagertzen baita. Edo ez du hartzen serio ekite *mora la*; baizik eta gehien desiratuko lukeena, absolutu-dena, ongi gorena burutua izatea eta ekite morala alferrikakoa izatea litzateke.

116

Emitza horretatik abiatuta, kontzientziak, bere higidura kontraesankorrean, aurrera joan behar du eta ekite moralaren *gainditzea* berriz nahitaez ezkutatu behar du. Moraltasuna berbaitana da; bera gertatzeko ez da beharrezkoa munduaren azken xedea burutua izatea, baizik eta kontzientzia morala *bere baitarako* izan behar da eta *aurkakotzen* zaion *natura* topatu behar du. Hala ere, kontzientzia morala bere baitan burutua izan behar da. Horrek beraren eta bere baitan bitartegabekoa den naturaren, hau da, sentimenaren arteko harmoniaren bigarren postulatura eramaten gaitu. Autokontzientzia moralak bere xedea hutsa bezala, joeretik eta kinadetatik aske aurkeztu du, halako moldez non berak sentimenaren xedeak bere barnean baliogabetu baititu. — Hala ere, sentipenezko zerizanaren aipatutako gainditze hori kontzientziak berriz ezkututzen du. Horrek ekiten du, bere xedea gauzatu du; eta gainditu behar den sentimen autokontzientea da, hain zuzen, kontzientzia hutsaren eta errealitatearen arteko erdigune hori; kontzientzia hutsak daukan tresna da bere

burua egikaritzeko, edo organoa; bulkada eta joera deitzen dena. Horregatik, joeren eta kinaden gainditze hori ez da serio hartzen, horiek baitira, hain zuzen, *bere burua egikautzen duen autokontzientzia*. Baina horiek ez dira *zapaldu* behar, baizik eta arrazoimenari *egokitu* behar zaizkio. Horri egokiak dira gainera, *ekite* moralak bere burua egikaritzen duen, hau da, *kinada* baten tankera bere buruari ematen dion kontzientzia besterik ez delako; hau da, kontzientzia bitartegabe da kinadaren eta moralitasunaren arteko harmonia hori. Baina, egitatean, kinada ez da, bera ez beste bat den baliabideak barnean daukan eta horrek eragin dezakeen tankera huts hori bakarrik. Izan ere, sentimena barnean lege eta bultzatzaile propioak dauzkan natura da; orduan moralitasunak ezin du serio hartu kinaden bultzatzailea, joeren makurdura-angelu izatea. Izan ere, horiek euren determinatutasun finko propioa eta eduki bereizgarria daukaten heinean, orduan horiei egokituko litzazkiekeen kontzientzia horiei egokitutakoa izango litzateke; autokontzientzia moralak bere buruari debekatzen dion egokitasuna. Bien arteko harmonia, beraz, *bere baitan* eta *postulatua* besterik ez da. — Ekite moralean moralitasunaren eta sentimenaren arteko harmonia hori aurkeztu zen, baina hori *ezkutatuta* dago; kontzientziarik haraindi dago urruntasun lainotsuan, non ezer ezin den argi ikusi edo aditu; izan ere, batasun hori aditzea, saiatu dugun bezala, ezinezkoa izan da. — Baina berbaitan horretan kontzientziak bere buruari uko egiten dio. Berbaitan hori bere burutze moralak da, non moralitasunaren eta sentimenaren arteko borroka bukatzen den, eta sentimena moralitasunari egokitu zaion ulertu ezin den modu batean. — Horregatik, burutze hori berriz gaia ezkutatzea da, egitatean horretan *moralitasunak* bere buruari uko egingo liokeelako, moralitasuna xede absolutuaren kontzientzia besterik ez delako, besteei guztiei aurkakotutako xede gisa, hau da, helburu *huts* gisa; xede huts horren *egiletasuna* da, eta sentimenaren ginetik goratzeaz, sentimenak muturra sartzeaz eta horren aurkakotzaren eta berarekin borrokan izateaz jabetzen da. — Burutze moralak serio ez hartzea bitartegabe adierazten du kontzientziak berak moralitasuna *mugagabetasunera* bidaliz ezkututzen duenean, hau da, inoiz ez dela burutuko baieztatzen duenean.

117

Kontzientziarentzat balio duena, orduan, burutugabeko bitarteko egoera hori da, baina gutxienez burutzerantz doan aurrerapena izan behar du egoera horrek. Hala ere, egoera horrek ezin du hori izan; izan ere, moralitasunean aurrera egitea horren hondamendirantz abiatzea litzateke. Helburua, hain zuzen, aipatutako ezereza edo moralitasunaren eta kontzientziaren beraren gainditzea izango litzateke. Baina ezerezari gero eta gehiago hurbiltzeari *gutxitzea* deitzen zaio. Gainera, *aurreratzeak* oro har eta *txikiagotzeak handieraren* ezberdintasunak onartuko lituzkete moralitasunean; baina ezinezkoa da horrelakorik onartzea. Moralitasunean, helburu etikoa bete behar *hutsa* zaion kontzientzia den aldetik, ezin da pentsatu ezberdintasunaz oro har, askoz gutxiago handieraren azaleko ezberdintasunaz; bertute *bakarra*, bete behar huts *bakarra*, moralitasun *Bakarra* besterik ez dago.

Serio hartzen dena ez burutze moralak, baizik eta bitarteko egoera den heinean, hau da, aipatu dugun bezala, egoera ez-moralak den heinean, beste alde batetik hurbiltzen gara lehenengo postuluaren edukira. Ezin da ulertu, hain zuzen, nola eska daitekeen zoriona kontzientzia moralarentzat bere *duintasuna* dela eta. Kontzientzia moralak badaki ez dela burutua, eta horregatik ezin du zoriontasuna benetan eskatu, merezimendu gisa, jasotzeko duin izango litzatekeen zerbait gisa; dohain aske batetik, hau da, zoriontasuna, *halako* gisa, bere baitan eta bere baitarako

eska dezake, eta ez oinarri absolutu batengarik; ausaz eta nahieraren arabera jasotzea espero dezake. — Moraltasun-ezak zer den adierazten du, hain zuzen, hemen, kontua ez dela moralitasuna, baizik eta zorientasuna bere baitan eta bere baitarako, harekin loturarik izan gabe.

118

Mundu-ikuskeraren moralaren bigarren alde honen bitartez lehen aldearen beste baieztapena ere gainditzen da, zeinaren arabera moralitasunaren eta zorientasunaren arteko harmonia-eza auresuposatzen den. — Esperientzia hau egiten omen da, alegia, gaurko munduan morala den horri askotan gaizki doakiola, moral-eza den horri, aldiz, ondo doakiola. Hala ere, burutugabeko moralitasunaren bitarteko egoerak, ondorioztatu denez zerizanezkoa denak, argi erakusten du hautemapen eta egin behaneko esperientzia hori gaia ezkutatzea besterik ez direla. Izan ere, moralitasuna burutu gabe dagoenez, hau da, egitatean moralitasunik egiaz ez dagoenez, zer ote du esperientziak, horri gaizki joateko? — Baina agertu denez, aldi berean, bere baitan eta bere baitarako den zorientasuna dela kontua, orduan erakusten da moral-eza den honi ondo doakiola juzgatzean ez dela hemen gertatzen den bidegabekeria bat esan nahi. Indibiduo bati moral gabekoa deitzea, moralitasuna oro har burutu gabekoa den heinean, *bere baitan* desagertzen da, horren oinarria hautazkoa baita. Esperientziaren judizioaren esanahia eta edukia honako hau besterik ez da, hots, bere baitan eta bere baitarako den zorientasuna batzuek ez luketela jaso beharko, hau da, judizio horren esanahia eta edukia *bekaizkeua* da, moralitasuna estalkitzat hartzen duen bekaizkeria. Baina beste batzuek honela deitzen zaion zoriona jaso behar izatearen zergatia adiskidetasun ona da, zeinak haiei eta bere buruari dohain hori, hau da, ausa hori, *eskaintzen eta desiratzen* dien.

Kontzientzia moralean moralitasuna burutu gabe dago; hau da orain aurkezten dena, baina moralitasunaren zerizana *huts-den* burutua izatea da; burutu gabeko moralitasuna, orduan, ez da hutsa, edo moralitasun-eza da. Moralitasuna bera, orduan, kontzientzia errealean ez beste zerizan batean dago; hori legegile moral santua da. Kontzientzian *burutu gabeko* moralitasunak, postulatze honen oinarria denak, *leherrik* esan nahi du moralitasuna, kontzientzian *erreal* gisa ezartzen den heinean, *beste batekin*, hor-izate batekin harremanean dagoela; beraz, bere baitan beste izatea edo ezberdintasuna onartzen du, zeinaren bidez agindu moralen multzo anitza sortzen den. Baina autokontzientzia moralak betebeharrak *anitz* horiek zerizangabekotzat jotzen ditu; izan ere, kontua betebeharrak huts *bakarra* besterik ez da, eta *horrentzat* horiek, *determinatuak diren* heinean, ez daukate inolako egirik. Orduan euren egia beste batean baino ezin dute eduki, eta legegile santuaren bitartez bakarrik dira santuak, ez autokontzientzia moralarentzat. — Hala ere, hori berriz gaia ezkutatzea da. Izan ere, autokontzientzia morala absolutu-dena da bere buruarentzat, eta betebeharrak horrek betebeharrak gisa *dakiena*. Baina horrek betebeharrak hutsa betebeharrak gisa daki; honentzat santua ez dena ez da bere baitan santua, eta bere baitan santua ez dena ezin da santu bihurtu zerizan santuaren bitartez. Kontzientzia moralak ez du serio hartzen zerbait santu bihurtzea bere burua ez *beste kontzientzia baten bitartez*; izan ere, *bere buruaren bitartez eta bere barnean* santua dena baino ez da santua horrentzat. — Ez da serioa, era berean, beste zerizan hori santua izatea, honetan zerizantasia lortu beharko bailuke kontzientzia moralarentzat, hau da, bere baitan ezein zerizantasiunik ez duen zerbaitek.

119

Zerizan santua halako moduan postulatzan baldin bada, non horretan betebeharrak, ez betebehar huts gisa, baizik eta betebehar *determinatuen* askotasun gisa balio baitu, orduan hori berriz ezkutatu behar da, eta beste zerizana santua izango da, bere baitan *betebehar hutsak* soilik balioa duen heinean. Betebehar hutsak balioa du egitatean beste zerizan batean, ez kontzientzia moralean. Hor itxuraz moralitasun hutsak soilik balio duen arren, kontzientzia moral hori beste modu batera kokatu behar da, aldi berean berezko kontzientzia baita. Honengan sentimenak eragiten dio moralitasunari, eta hori baldintzatzen du; hau da, moralitasuna ez da bere baitan eta bere baitarako, baizik eta *nahimen* askearen ausazkotasun bat da. Baina honengan, nahimen huts gisa, *jakitearen* ausazkotasun bat da; *bere baitan eta bere baitarako*, moralitasuna, horregatik, beste zerizan batean da.

Zerizan hori, orduan, guztiz osatutako moralitasuna da, honengan moralitasunak naturarekin eta sentimenarekin harremanik ez daukalako. Hala ere, betebehar hutsaren *errealitatea* datza horren *egikaritzean* naturan eta sentimenean. Kontzientzia moralak bere osotasun-eza honetan du, hots, horrengan moralitasunak naturarekiko eta sentimenarekiko harreman *positiboa* izatean; hori kontzientzia moralarentzat moralitasunaren une zerizanezkoa denez horrek naturarekiko eta sentimenarekiko harreman *negatiboa* bakarrik izatea. Zerizan moral hutsak, aldiz, naturarekin eta sentimenarekin duen *borrokaren* gaindi izaki, ez dauka harreman *negatiboa* horiekin. Egitatean, harreman *positiboa* bakarrik geratzen zaio, hau da, oraintsu burutugabetzat, ezmoraltzat jotzen zena. Baina errealitateetik guztiz banandua den *moralitasun hutsa*, horrekin harreman positiborik edukiko ez lukeena, kontzientziarik gabeko abstrakzio ez- erreal litzateke, non betebehar hutsaren pentsatzea izateko eta nahimena eta egitea izateko moralitasunaren adigaia guztiz gaudituko litzatekeen. Horregatik, honelako zerizan guztiz moral hori, berriz, gaia ezkutatzea da, eta baztertu behar da.

120

Baina zerizan guztiz moral horretan kontraesanaren uneak hurbiltzen dira, non errepresentatze sintetiko hori biraka dabilen; eta aurkakotutako *Ere-ak*, zeinak errepresentazioak, pentsamendu horiek bildu gabe, errenkan jartzen dituen, aurkari bat beti beste batek ordezkaziz, halako moldez non kontzientziak hor bere mundu-ikuskerara morala bertan behera utzi behar duen eta bere baitara ihes egin behar duen.

Izan ere, kontzientzia moralak badaki bere moralitasuna burutua ez dela, aurkakotzen zaion sentimenak eta naturak eragiten diolako; eta naturak, hein batean, moralitasuna bera, halako gisa, aztoratzen du; beste hein batean, betebeharren multzo bat sortarazten du, zeinen bitartez ekite errealaren kasu zehatzetan estuasunean gertatzen den; izan ere, kasu bakoitza harreman moral anitzen elkarketa da, hautemapenaren objektu bat oro har ezaugarri anitz dituen gauza bat den modu berean; eta betebehar *determinatua* xedea den heinean, horrek eduki bat dauka, eta bere edukia xedearen zati bat da, eta moralitasuna ez da hutsa. Horrek beste zerizan batean dauka bere *errealitatea*. Baina errealitate honen esanahia da moralitasuna hor *bere baitan* eta *bere baitarako* dela; *bere baitarako*, hau da, *kontzientzia* baten moralitasuna da; *bere baitan*, hau da, *hor-izatea* eta *errealitatea* dauka. Burutu gabeko lehenengo kontzientzia hartan moralitasuna ez dago gauzatuta; hor moralitasuna *berbaitan* da, *pentsamendu-gauzaren* zentzuan; izan ere, naturarekin eta sentimenarekin elkartuta dago, izatearen eta kontzientziaren errealitatearekin, zeinak bere edukia osatzen duen; eta naturak eta sentimenak ez dute inolako balio

moralik. Bigarren kontzientzian moralitasuna *burutua* bezala dago eskura, eta ez gauzatu gabeko pentsamendu-gauza bezala. Baina burutze hori hain zuzen, honetan datza, hots, moralitasunak *kontzientzia* batean *errealitatea* baita *errealitate askea* ere daukala, hor-izatea oro har; ez dela hutsunea, baizik eta edukiz gainezka dagoela; hau da, moralitasunaren burutzea honetan datza, alegia, oraintsu balio moralik gabekotzat jo zena horren barnean eta horren baitan eskura dagoela. Behin, moralitasunak abstrakzio hutsaren errealiterik gabeko pentsamendu-gauza bezala bakarrik eduki behar du balioa, baina, era berean, horrela ez du baliorik izan behar; bere egia errealitateari aurkakotuta izatean eta horretatik guztiz askea eta hutsunea izatean datza, eta, berriz, errealitatea izatean.

121

Mundu-ikuskeran moralean ageri diren kontraesan horien sinkretismoa bere baitan hondoratzen da, oinarri hartzen duen ezberdintasuna, nahitaz pentsatu eta ezarri egin behar den eta, aldi berean, zerizangabekoa den ezberdintasuna jadanik hitzezkoa ere ez den ezberdintasun bihurtzen den heinean. Azkenean, ezberdin den gauza gisa ezartzen dena, ezereza nahiz erreal den gauza gisa, gauza bat eta berbera da, hor-izatea eta errealitatea; eta izate eta kontzientzia errealetik guztiz *haraindi* izan behar eta, era berean, bere baitan bakarrik eta, haratagoko gisa, ezereza izan behar dena betebeharrak hutsa da, eta horri buruzko jakitea zerizan gisa. Ezein ezberdintasun ez den ezberdintasun hori egiten duen eta errealitatea aldi berean ezer ez dela eta errealia dela, moralitasun hutsa era berean egiazko zerizana eta zerizangabekoa dela adierazten duen kontzientziak berak lehen banatu zituen pentsamenduak orain elkartuta adierazten ditu; adierazten du *norberaren* eta *berbaitanaren* uneak horrela determinatzea eta banatzea ez duela serio hartzen; aitzitik, *kontzientziatik at dagoela* eta absolutua dela adierazten duena autokontzientziaren norborean gordeta mantentzen du, eta guztiz *pentsatua* edo *berbaitan* absolutua dela adierazten duena, egirik ez daukan zerbait bezala hartzen du. — Kontzientziari argi zaio une horiek banatzea kontua ezkutatzea dela; eta *itxurakeua* izango litzateke horri eustea. Hala ere, kontzientziak, autokontzientzia huts moral gisa, ihes egiten du, izututa, bere baitara, bere *errepresentatzearen* eta bere *zerizanaren* arteko ezberdintasun horretatik, ez-egiazkotzat jotzen duena egiazkotzat adierazten duen egia-eza horretatik. Bera, horrelako mundu-ikuskeran morala erdeinatzen duen *barrunbe hutsa* da; *bere buruaren barnean* bere buruaz ziur dagoen gogo sinplea da, zeinak bitartegabe, errepresentazio haien bitartekotzarik gabe, barneak aginduta ekiten duen eta bitartegabekotasun horretan bere egia daukan. Hala ere, lerratutako mundu hori autokontzientzia moralak bere uneetan duen garapena eta, horrela, bere *errealitatea* besterik ez baldin bada, orduan bere baitara itzultze horren bidez, bere zerizanaren arabera, ez da besterik izango; bere baitara itzultzea bere egia itxurazkoa izatearen *kontzientzia lortzea* da. *Bere* egiazkat *eduki* beharko luke beti, errepresentazio objektibotzat adierazi eta aurkeztu beharko luke bere burua, baina *jakingo* luke, aldi berean, hori lenadura⁹ bat besterik ez dela; horrela, egitatean, itxurakeria izango litzateke, eta lerradura haren *erdeinu* hura itxurakeriaren lehenengo adierazpena da.

122

c. BARRUNBEA. ARIMA EDERRA.

⁹ Hitz-jokoa egiten du *Vorstellung* (errepresentazio) eta *Verstellung* (lerradura) hitzak erabiliz (itzultzaileen oharra).

GAIZKIA ETA HORREN BARKAMENA

Mundu-ikuskeraren moralaren antinomia, hau da, kontzientzia moral bat dela eta ez dela, edo betebeharraren balioa kontzientziaren haratagoko bat dela eta, alderantziz, honengan soilik gertatzen dela, honako errepresentazio honetan laburbildu zen: kontzientzia ez-moralak moralizat balio du, bere jakitea eta nahi izate ausazkoa guztiz garrantzitsutzat hartzen da eta zoriontasuna berari dohain gisa ematen zaio. Bere burua kontraesaten duen errepresentazio honek ez zuen hartzen kontzientzia morala bere gain, beste zerizan batean ezartzen zuen. Baina nahitaez pentsatu behar duen hori bere baitatik at ezartzea, era berean, bere buruaren kontraesana da formaren arabera, hura edukiaren arabera den modu berean. Hala ere, kontraesankor agertzen den hori eta mundu-ikuskeraren morala behin eta berriz banatzen eta berriz desegiten saiatzen den hori bere baitan gauza bera denez, betebeharrak hutsa, *jakite hutsa* bezala, kontzientziaren *norbera* besterik ez denez, eta kontzientziaren *norbera* izatea eta errealitatea besterik ez; era berean, kontzientzia *errealetik* haraindi izan behar den hori pentsatze hutsa besterik ez denez, hau da, egitatean *norbera* besterik ez, orduan *guretzat* edo *bere baitan* autokontzientzia bere baitara itzultzen da eta zerizan hura bere burua bezala daki, non *erreal* dena aldi berean *jakite hutsa* eta *betebeharrak hutsa* den. Bere buruarentzat bere ausazkotasunean guztiz balio duena da, bere bitartegabeko banakotasuna jakite eta ekite huts gisa dakiena, bere burua egiazko errealitatea eta harmonia gisa dakiena.

123

Barrunbearen norbera hori, bere burua egia absolutua eta izatea dela bitartegabe ziur dakien gogoia, gogoaren hirugarren mundutik etorri zaigun *hirugarren norbera* da, eta lehenagoko norberekin laburki alderatu behar dugu. Mundu etikoaren egia bezala aurkezten den osotasuna edo errealitatea *pertsonaren* *norbera* da; bere horizatea *berrezagutua izatea* da. Pertsona substantziarik gabeko *norbera* den modu berean, bere horizate hori errealitate abstraktua da; pertsonak balio du, eta, hain zuzen, bitartegabe; *norbera* bere izatearen osagai bitartegabe datzan puntua da; puntu hori bere orokortasunetik bereizi gabe dago, biak ez daude, orduan, higitzen eta harremanean; orokor-denak ez dauka bereizkuntzarik horrengan, eta ez da *norberaren* edukia, eta *norberak* ez du bere burua osatzen. — *Bigarren norbera* bere egia lortu duen kulturaren mundua da, edo bere baitara itzuli den bikoiztasunaren gogoia, hots, askatasun absolutua. *Norbera* horretan banakotasunaren eta orokortasunaren bitartegabeko batasun hura hausten da; orokordena, era berean, gogo-zerizan erabateko, *berrezagutua izatea* edo nahimen eta jakite orokorra izaten irauten duena, *norberaren objektua* eta edukia eta bere errealitate orokorra da. Baina ez dauka *norberarengandik* askea den horizatearen forma; *norbera* horretan ez du lortzen, honegatik, ezein osotasun, ezein eduki positibo, ezein mundurik. Autokontzientzia moralak bere orokortasuna aske uzten du, halako moduan non hori natura propio bat bihurtzen baita, eta, era berean, bere barnean atxikitzen dio gaindituta bezala. Baina hori ezkutatzeko joko bat besterik ez da, non bi determinazio horiek euren lekuak rrukatzen dituzten. Autokontzientziak barrunbe gisa bakarrik lortzen du, *bere buruaren ziurtasunean, edukia* bai lehenago betebeharrak kaskala zenarentzat baita zuzenbide kaskalarentzat eta nahimen orokor kaskalarentzat ere; eta horizatea bera lortzen du, bere buruaz duen ziurtasun hori era berean *bitartegabeko-dena* delako.

Bere egia honetara ailegatuta, autokontzientzia moralak bere barnean zegoen banaketa baztertzen edo gainditzen du, ezkutatzearen abiapuntu zena, *berbaitanaren* eta *norberaren* banaketa, betebeharraren hutsaren, *xede* huts gisa, eta *errealitatearena*, helburu hutsari aurkakotzen zaion natura eta sentimen gisa. Honela bere baitara itzultzen da, gogo moral *konkretua* da, zeinak, betebeharraren hutsaren kontzientzian, ez dion ematen bere buruari kontzientzia errearen aurkakoa izango litzatekeen eredu huts bat, baizik eta betebeharraren hutsa eta horri aurkakotzen zaion natura gainditutako unek dira; gogo hori bitartegabeko batasunean *egikautzen den zerizan moral* da, eta ekintza bitartegabe tankera moral *konkretua*.

124

Demagun ekitearen kasu bat dugula; kontzientzia jakilearentzat errealitate objektibo bat da. Kontzientzia horrek, barrunbe gisa, kasu hori modu konkretu bitartegabekoan daki; eta, aldi berean, kasu hori kontzientziak hura dakien moduan bakarrik da. Jakitea ausazkoa da, objektua ez beste zerbait den heinean; baina bere buruaz ziur den gogoa ez da pentsamenduen honelako jakite eta sortze ausazkoa bere barnean, errealitatea horietatik ezberdina izaki, baizik eta kasua, *bere baitanaren* eta *norberaren* arteko banaketa gaindituta dagoen heinean, bitartegabe jakitearen sentipenezko *ziurtasunean* dago *bere baitan* dagoen bezala; eta hori *bere baitan* dago jakitea horretan dagoen bezala bakarrik. — Ekitea, egikaritzapen gisa, nahimenaren forma hutsa da honenbestez; errealitatearen iraulketa soila da, *baden* kasu batetik *egina* den errealitate batera, jakite *objektiboaren* modu soiletik *errealitateari* buruzko jakitearen modura, kontzientziak sortutakoa den aldetik. Sentipenezko ziurtasuna bitartegabe gogoaren berbaitanean jasotzen da edo, hobeto, iraultzen den modu berean iraulketa hori sinplea eta bitartekotu gabea da, adigai hutsaren zehar egindako igarobidea edukia aldatu gabe, berari buruz dakien kontzientziaren interesak determinatzen duen edukia aldatu gabe. — Barrunbeak, gainera, ez ditu bereizten kasuaren inguruabarrak betebeharraren ezberdinetan. Ez du jokatzeko *erdigune orokor positiboa* bezala, non betebeharraren anitzek, bakoitzak bere baitarako, substantzia aldaezina halako moduan jasoko luketen, non ekitea ezinezkoa izango bailitzateke, kasu konkretu bakoitzak aurkakotza eta kasu moralak den aldetik betebeharraren aurkakotza barnebilduko lukeelako (hau da, ekitearen determinazioan, alde *bat*, betebeharraren *bat* beti hautsiko litzatekeelako), *edo* ekitearen denean, bi betebeharraren aurkakotzetako bat egiatan hautsiko bailitzateke. Barrunbea gehienbat *Bat* negatiboa edo *norbera* absolutua da, zeinak substantzia moral ezberdin horiek baliogabetzen dituen; betebeharraren araberrako ekite sinplea da, betebeharraren hori edo hura osatzen ez duena, baizik eta eskubide konkretuak dakizkien eta egiten dituen. Orduan, leherrik oro har *egite* moralak da, egite gisa, ekintzarik gabeko aurreko moralitasunaren kontzientziak helmugatzat hartu duena. — Egintzaren tankera konkretua kontzientzia ezberdintzaileak analiza dezake ezaugarri ezberdinetan, hau da, hemen harreman moral ezberdinetan, eta horiek edo absolutuki baliiodun gisa har daitezke, izan behar duen bezala betebeharraren izan behar baldin badu, edo aldera eta analiza daitezke. Barrunbearen ekintza moral sinplean, betebeharraren hain nahasita daude non banako zerizan horiek guztiak bitartegabe *deuseztatzen* baitira eta, betebeharraren zein den probatzeko astindua ez baita gertatzen barrunbearen ziurtasun irmoan.

125

Are gutxiago dago eskura barrunbearen kontzientziaren joan-etorri zalantzati hura, zeinak behin moralitasun hutsa deitzen zaiona bere baitatik at beste zerizan santu batean ezartzen duen eta bere burua ezsantutzat hartzen duen, eta beste behin,

araztasun morala bere barnean eta sentipenezko-denaren eta morala-denaren arteko elkarlotura beste zerizanean ezartzen duen.

Mundu-ikuskeraren moralaren kokapen eta lenadura¹⁰ horiei guztiei uko egiten die, betebeharra eta errealtatea kontraesankor balira bezala hartzen duen kontzientziari uko egiten dion heinean. Azken horren arabera moralki ekiten dut, *jabetzen naizen heinean* betebeharrak hutsa bakarrik burutzen dudala, eta ez *beste edozer* gauza; horrek esan nahi du, egitatean, ekiten *ez dudan heinean*. Baina benetan ekiten dudana heinean, neure buruaz jabetzen naiz eskura dagoen eta sortu nahi dudana *errealitate* bat bezala, beste bat bezala, eta *xede jakin* bat daukat eta betebeharrak *jakin* bat betetzen dut; hori bilatu beharko litzatekeen betebeharrak hutsa ez *beste* gauza bat dago. — Barrunbea, aldiz, honen kontzientzia da, hots, kontzientzia moralak *betebeharrak hutsa* bere ekitearen zerizan gisa adierazten baldin bada, xede huts hori gaia ezkutatzea dela; izan ere, gaia da betebeharrak hutsa pentsatze hutsaren abstrakzio hutsalean datzala, eta bere errealtatea eta edukia errealtate jakin batean bakarrik daukala, kontzientziaren beraren errealtatea (eta ez pentsamendugauza bezala, baizik eta banako bat bezala) den errealtate batean. — Barrunbeak bere egia *bere baitarako* dauka bere buruaren *ziurtasun bitartegabekoan*. Bere buruaren ziurtasun konkretu *bitartegabeko* hori zerizana da; ziurtasun hori kontzientziaren aurkakotzaren arabera aztertzen bada, orduan *banakotasun* bitartegabeko propioa egite moralaren edukia da; eta egite horren *forma*, hain zuzen, norbera hori da, higadura huts gisa, hau da, *jakite gisa*, edo *uste oso propioa*.

Hori bere batasunean eta uneen esanahian zehazkiago aztertuz gero, kontzientzia moralak bere burua *berbaitana* edo *zerizana* bezala ulertzen du, baina barrunbe gisa ulertzen du *berbaitarako* izatea edo bere *norbera*. Mundu-ikuskeraren kontraesana *desegiten* da, hau da, bere oinarrian dagoen ezberdintasuna ez da inolako ezberdintasunik, eta negatibotasun hutsera igarotzen da; baina negatibotasun hori, hain zuzen, *norbera* da, *norbera* sinple bat, zeina era berean bere buruaren jakite *hutsa* den eta *banako* kontzientzia *horrena*. Norbera horrek osatzen du lehen hutsik zegoen zerizanaren edukia, norbera zerizan erreala delako, zeinak ez duen zerizanari arrotza zaion naturaren eta lege propioetan beregaina den naturaren esanahia. Negatibo gisa, zerizan hutsaren *desberdintasuna* da, eduki bat, eta, hain zuzen, bere baitan eta bere baitarako balio duena.

126

Gainera, norbera hori, bere buruarekin berdina den jakite huts gisa, *orokor-dena* da *erabat*, halako moldez non, hain zuzen, jakite hori, *bere jakite propio gisa*, uste oso gisa, *betebeharrak* baita. Betebeharrak ez da jadanik norberari aurkakotzen zaion orokor-dena, baizik eta badaki banatu izate horretan baliorik ez duela; legea da orain norberaren eskutik, eta ez norbera legearen eskutik. Baina legeak eta betebeharrak ez daukate *berbaitarako* izatearen esanahia bakarrik, baizik eta *berbaitan* izatearena ere bai, zeren jakite hori, bere buruarekiko berdina izateagatik, hain zuzen, *berbaitana* baita. Kontzientzian *berbaitan* hori berbaitarako izatearekin zuen batasun bitartegabeko hartatik bereizten da; horrela aurkakotuz, izatea da, *beste batentzako izatea*. — Betebeharrak badaki orain norberak baztertu duen betebeharrak gisa *unea* besterik ez dela; *zerizan absolutua* izateko esanahitik norbera ez den, *bere baitarako* ez den izatera hondoratu da, eta, horregatik, *beste batentzako izatea* da. Baina *beste batentzako izate* horrek zerizanezko une izaten dirau, norberak, kontzientzia gisa,

¹⁰ Hitz-jokoa egiten du *Stellung* (kokapen) eta *Verstellung* (lerradura) hitzak erabiliz (itzultzaileen oharra).

berbaitarako izatearen eta beste batentzako izatearen arteko aurkakotza osatzen duelako, eta orain betebeharra honengan bitartegabe kontzientzia *erreal* delako, ez kontzientzia huts abstraktua soilik.

Beste batentzako izate hori, orduan, *bere baitan* den, norberarengandik ezberdintzen den substantzia da. Barrunbeak ez dio uko egin betebeharrari hutsari edo *berbaitan abstraktuari*, baizik eta hori besteen aurrean *orokortasun* gisa jokatzean datzan zerizanezko unea da. Autokontzientziaren osagai komuna da, eta hori substantzia, non egintzak *iraupena* eta *errealitatea* daukan; besteek *berrezagutu izatearen* unea. Autokontzientzia moralak ez dauka berrezagutua izatearen, *hor dagoen kontzientzia hutsaren* unea, eta horregatik ez da kontzientzia ekilea, egikaritzaila. Bere *berbaitana* horrentzat, edo zerizan *ez-erreal* abstraktua edo izatea da, gogoaren maila ez duen *errealitate* gisa. Baina barrunbearen baden *errealitatea norbera* den errealitatea da, hau da, bere buruaz jabetzen den hor-izatea, berrezagutua izatearen gogo-osagaia. Egitea, honegatik, bere *banako* edukia osagai *objektibora* igortzea da, non edukia orokorra eta berrezagutua den, eta, hain zuzen, berrezagutua izateak bihurtzen du ekintza errealitate.

127

Ekintza berrezagutua eta horregatik erreal da, baden errealitatea uste osoarekin edo jakitearekin bitartegabe elkarlotuta dagoelako, edo bere xedeari buruzko jakitea bitartegabe hor-izatearen osagaia delako, berrezagutze orokorra. Izan ere, ekintzaren *zerizana*, betebeharra, barrunbeak horretan duen *uste osoan* datza; uste oso hori, hain zuzen, *berbaitana* bera da; *bere baitan* den *autokontzientzia orokorra* da, edo *berrezagutua* izatea eta, beraz, errealitatea. Betebeharraren uste osoarekin egiten denak, beraz, bitartegabe iraupena eta hor-izatea dauka. Jadanik ezin da esan asmo ona ez dela gauzatzen, edo on-dena egoera kaskarrean dagoenik; baizik eta betebeharraren bezala jakina dena burutzen eta gauzatzen da, hain zuzen, betebeharraren arabera autokontzientzia guztien orokordena, berrezagutua dena eta, beraz, badena baita. Baina banatuta eta bakarka hartuta, norberaren edukirik gabe, betebeharraren hori *beste batentzako izatea* da, garden-dena, edukirik gabeko zerizantasanaren esanahia duena oro har.

Begira dezagun atzera, *gogo-errealitatea* agertzen zen alorrera: adigaiak zen indibidualtasunaren adierazpena *berbaitan eta baitarakoa* dela. Baina adigai hori bitartegabe adierazi zuen tankera *kontzientzia zintzoa* zen, zeina *gai abstraktuaz beraz* arduratzen zen. *Gai* hori *bera* hor *predikatua* zen; baina barrunbean bakarrik da *subjektua*, zeinak kontzientziaren une guztiak bere baitan ezarri dituen eta zeinarentzat une horiek guztiak (substantziatasuna oro har, kanpoko hor-izate eta pentsatzearen zerizana) bere buruaren ziurtasun horretan barnebilduta dituen. Mundu etikoan du *gaiak berak* substantziatasuna oro har; kulturean du kanpoko hor-izatea; moraltasunean du bere burua dakien pentsatzearen zerizantasa; eta barrunbean une horiek bere baitan bertan dakizkien *subjektua* da. Kontzientzia zintzoak *gai kaskala bera* besterik eskuratzen ez baldin badu, orduan barrunbeak, aldiz, bere buruaren bitartez gaiari ematen dion bere osotasunean lortzen du.

128

Barrunbea botere hori da kontzientziaren unek *une* gisa dakizkielako eta bere zerizan negatibo gisa menpean dituelako. Barrunbea ekitean agertzen den aurkakotzaren banako determinazioei eta berak determinazio horien naturari buruz daukan kontzientziari lotuta aztertzen badugu, orduan lehen eta behin ekin behar den *kasuaren errealitatea dakienak* bezala jokatzen du. *Orokortasunaren* unea jakite

horretan dagoen heinean, ekite zintzoaren jakiteari dagokio bere aurrean zabaldutako errealitatea modu mugagabeen besarkatzea eta kasuaren inguruabarrak zehazki ezagutzea eta balioestea. Baina jakite hori, berak orokortasuna *une* bat bezala *ezagutzen* duelako, inguruabarrei buruzko halako jakitea da, zeinak badakien horiek ez dituela besarkatzen edo horietan ez dela zintzoa. Jakitearen harreman egiazki orokorra eta hutsa izango litzateke aurkakotutakoa ez denarekin izango lukeena, bere buruarekin izango lukeena; baina bere barnean zerizanezkoa den aurkakotzaren bidez *ekitea* kontzientziaren negatibo-denari lotzen zaio, *bere baitan den* errealitate bati. Kontzientzia hutsaren sinpletasunaren, guztiz *beste denaren* edo *bere baitango* aniztasunaren aurrean, hori inguruabarren aniztasun absolutua da, zeina mugagabe banatzen eta zabaltzen den, atzerantz bere baldintzetara, albora aldamenekora, aurrera bere ondorioetara. Kontzientzia zintzoa gaiaren izaeraz eta horrekin duen erlazioaz jabetzen da; eta badaki, berak ekiten duen kasua ez duela orokortasunaren eskakizunaren arabera ezagutzen eta inguruabar guztiak osoki balioetsi izanaren itxurak egiteak ez duela baliorik. Baina inguruabar guztiak ezagutzea eta balioestea nolabait eskura dago; baina *une* bezala bakanik, *besteentzat* den zerbait bezala; eta bere osatugabeko jakiteak, *bere* jakitea delako, balio dio jakite aski burutu gisa.

Berdina gertatzen da zerizanaren orokortasunari edo kontzientzia hutsaren bidezko edukiaren determinazioari dagokienez. Ekitera abiatzen den barrunbea kasuaren hainbat alderi lotzen zaio. Kasua guztiz apurtzen da, eta, ere berean, kontzientzia hutsak horrekin duen harremana, zeinaren bidez kasuaren aniztasuna *betebeharren* aniztasun bat den. Barrunbeak badaki betebeharren arrear aukeratu eta erabaki behar duela, bakar bat ere ez baita bere determinatutasunean edo bere edukian absolutua, *betebehar hutsa* baizik. Baina abstraktu horrek, bere errealitatean, bere buruaz jabetzen den Niaren esanahia lortu du. Bere buruaz ziur den gogoa bere barnean lasai dago barrunbe gisa, eta bere orokortasun *erreal* edo bere betebeharra betebeharrean daukan *uste oso* hutsean datza. Uste oso *huts* hori, halako gisa, *betebehar* hutsa bezain kaskala da; eta hutsa izateak esan nahi du honengan ezer ez dela, ezein eduki zehatzik ez dela betebehar. Baina ekin behar da, indibiduoak *erabaki* behar du; eta bere buruaz ziur den gogoak, zeinean *berbaitanak* bere buruaz jabetzen den Niaren esanahia lortu duen, badaki determinazio eta eduki hori bere buruaren *ziurtasun* bitartegabekoan hartzen.

129

Hori da, determinazio eta eduki gisa, *berezko* kontzientzia, hau da, kinadak eta joerak. Barrunbeak ez du onartzen inolako edukirik absolutu bezala, determinatu-den ororen negatibotasun absolutua baita. *Bere baitatik abiatuta* erabakitzen du; baina norberaren zirkulua, non determinazioa, halako gisa, kokatzen zen, sentimen deitzen zaiona da; bere buruaren ziurtasun bitartegabekotik eduki bat lortzeko, sentimena besterik ez daukagu eskura. — Aurreko tankeretan onden edo gaitz-den, lege edo zuzenbide gisa aurkeztu zen guztia bere buruaren ziurtasun bitartegabekoa ez *beste* zerbait da; hori, orain beste batentzako izate den *orokor-dena* da; edo, beste era batera, kontzientzia bere buruarekin bitartekotuz, kontzientziaren eta bere egia propioaren artean agertzen den objektua, kontzientzia bere baitatik bazterten duena, bere bitartegabekotasuna balitz bezala. — Baina barrunbearentzat bere buruaren ziurtasuna egia huts bitartegabekoa da; eta egia hori da *eduki* gisa errepresentatzen den bere buruaren ziurtasun bitartegabekoa, hau da, banakodenen nahiera eta kontzientziarik gabeko berezko izatearen ausazkotasuna.

Eduki horrek, aldi berean, *zerizantasan* moral edo *betebehar* gisa balio du. Izan ere, betebehar hutsa, jadanik legeak aztertzerakoan argi geratu zen bezala, axolagabekoa da edozein edukiren aurrean, eta edozein eduki onartzen du. Hemen, aldi berean, *berbaitarako* izatearen forma zerizanezkoa du, eta banako uste osoaren forma hori betebehar hutsaren hutsaltasunaren kontzientzia besterik ez da, betebehar hutsa unea besterik ez izatearen kontzientzia, bere substantziasuna predikatu bat besterik ez izatearen kontzientzia, bere subjektua edukia dohain gisa ematen dion, edozein eduki forma horri lotu eta edozein edukiri bere ardura lotu diezaiokeen indibiduoan daukan predikatua. Indibiduo batek bere ondasuna modu jakin batean gehitzen du; betebeharra da bakoitza bere burua eta bere familia mantentzeaz arduratzea, baita era berean bere auzokoentzat baliagarri izateko eta behartsuak laguntzeko *ahalbidez ere*. — Indibiduoak badaki hori betebeharra dela, eduki hori bere buruaren ziurtasunean barnean duelako bitartegabe; gainera, ulertzen du kasu horretan betebeharra betetzen duela. Besteek agian modu jakin hori gezurtzat hartuko dute; *horiek* kasu konkretuaren beste aldeei eusten diete; *horrek*, aldiz, alde horri eusten dio ondas una gehitzea berarentzat betebehar hutsa dela dakielako.

130

Besteek indarkeria eta bidegabekeria deitzen duten honek bere beregaintasuna baieztatzeko betebeharra osatzen du; horiek koldarkeria deitzen dutena bere bizitza eta auzokoentzat erabilgarri izateko aukera mantentzeko betebeharra da; ausardia deitzen dutenak, aldiz, bi betebehar hausten ditu. Baina koldarkeriak ezin du hain ezgauza izan jakiteari uzteko bizitza eta besteei baliagarri izateko aukera mantentzea betebeharrak direla; bere ekitea betebeharraren araberakoa izateaz *uste osoa ez* edukitzeko, eta betebeharrarekin adostasuna *jakitean* datzala jakiteko; bestela ezmorala izateko baldarkeria egingo luke. Moraltasuna betebeharra bete izateko kontzientzian datzanez, orduan egiteari ez zaio ez koldarkeria ezta ausardia deitzen den hori ere faltako; betebehar deitzen den abstraktuak eduki hura izan dezake, hori izan dezakeen bezala; ekiten duena badaki, beraz, betebeharra dela, eta hori dakien heinean eta betebeharrean uste osoa izatea betebeharraren araberakoa izatea den heinean, honela berrezagutzen dute besteek hori; honen bitartez ekintzak balio du eta hor-izate erreala dauka.

Betebehar eta jakite hutsaren erdigune jasaile orokorrean edozein eduki, berdin zein den, ezartzen duen askatasun honen aurka alferrikakoa da beste eduki bat ezarri beharko litzatekeela esatea; izan ere, berdin zein den, guztiek daukate *determinatutasunaren orbana* euren baitan; jakite hutsak, aldiz, ez dauka orban hori, uko egin diezaioke edozein determinatutasuni, edo nahi duen determinatutasuna onar dezake. Eduki oro, determinatua delako, besteen maila berean dago, horrek itxuraz bere barnean berezi-dena gainditu arren. Kasu errealean betebeharra *aurkakoan* eta, horren bidez, *banakoaren* eta *orokorraren* arteko aurkakotzan bikoizten den heinean, itxuraz betebehar hark, zeinaren edukia orokor-den bera den, horren bidez bitartegabe betebehar hutsaren izaera bere baitan dauka, eta forma eta edukia guztiz adostuta daude; halako moldez non, adibidez, guztien onaren mesederako ekintzak lehentasuna baitauka on banakoaren mesederakoaren aldean. Baina betebehar orokor hori, oro har, bere baitan eta bere baitarako den substantzia gisa, zuzenbide eta lege gisa *agertzen* dena da; eta honek bai jakitea eta uste osoa bai banakoaren interes bitartegabekoa ere *zei nahi ere diren* balio du; hain zuzen, horren *formaren* aurka zuzentzen da moraltasuna oro har. Baina bere *edukiau* dagokionez, eduki *jakin* bat da, guztien ona banako onari *aurkakotzen* zaion heinean; horrela, bere

legea halakoa da, non barrunbeak baitaki horretatik guztiz aske dela, eta bere buruari eskumen absolutua ematen dio legea onartzeko edo baztertzeko, uzteko edo betetzeko. — Beraz, banakoari eta orokorrari buruzko betebeharra ezberdintzea, aurkakotzaren izaeraren arabera, ez da gauza finkoa. Aitzitik, banakoak bere buruarentzat egiten duenak orokorrari ere ekartzen dio onura; zenbat eta gehiago arduratu bere buruaz, hainbat eta handiago da bere *aukera besteentzat* baliagarri izateko eta, gainera, bere *errealitatea* besteekin izatean eta bizitzean bakarrik datza; bere gozamen bakarrak besteei beraiena emateko eta euren gozamina lortzen laguntzeko zentzua dauka funtsean. Banakoari, hau da, bere buruari dagokion betebeharra betetzean, bada, orokorrari dagokiona ere betetzen da. — Betebeharren balioespenak eta erkaketak, hemen gertatuz gero, orokor-denak ekintzan lortuko lukeen abantaila neurtzera eramango luke; baina horrela, hein batean, moraltasuna *ulermenaren* beharrezko *ausazkotasunean* erortzen da; beste hein batean, barrunbearen zerizana da neurtze eta balioeste hori *alde batera uztea* eta honelako arrazoirik gabe berez erabakitzea.

131

Modu horretan ekiten du eta mantentzen du bere burua barrunbeak *berbaitan* izatearen eta *berbaitarako* izatearen batasunean, pentsatze hutsaren eta indibidualtasunaren batasunean; eta bere buruaz ziur den gogoia da, zeinak bere egia bere baitan daukan, bere norberarengan, bere jakitean, eta horretan betebeharrari buruzko jakite gisa. Bere burua mantentzen du ekintzan *positiboa* den hori, hau da, bai edukia bai betebeharraren forma eta betebeharrari buruzko jakitea, norberari, bere buruaren ziurtasunari dagokiolako; baina norberari *aurkakotu* nahi zaion horrek *berbaitan propio* gisa, ez-egiatzat, gainditutzat, unetzat bakarrik balio du. Ez du balio, orduan, *jakite orokorrak* oro har, baizik eta inguruabanei buruz duen *ezagupenak*. Betebeharrean, *bere baitan den* orokor gisa, sartzan du bere indibidualtasun berezkotik hartzen duen edukia; izan ere, eduki hori bere baitan bertan dagoen edukia da; edukia, bere erdigune orokorraren bitartez, betetzen duen *betebehar* bihurtzen da; eta betebehar huts kaskala, hain zuzen, horregatik, gainditu gisa edo une gisa ezartzen da; eduki hori bere gainditutako hustasuna edo beteketa da. — Baina, era berean, barrunbea edozein edukitik aske da; lege gisa balio behar duen edozein betebehar zehatz baztertzan du bere baitatik; bere buruaren ziurtasunaren indarrean barrunbeak lotzeko eta askatzeko autarkia absolutuaren bikaintasuna dauka. *Autodeterminazio* hori, horregatik, bitartegabe, betebeharren arabera da erabat; betebeharra jakitea bera da; baina norberatasun simple hori *berbaitana* da; izan ere, *berbaitana* bere buruarekiko berdintasun hutsa da, eta hori kontzientzia horretan da.

132

Jakite huts hori bitartegabe *beste batentzako izatea* da; izan ere, bere buruarekiko berdintasun huts bezala *bitartegabekotasuna* da, edo izatea. Baina izate hori, aldi berean, orokor-den hutsa da, guztien norberatasuna; edo ekitea berrezagutua da eta, horregatik, erreal. izate hori barrunbea bitartegabe autokontzientzia guztiakin berdintasun harremanean ezartzen duen osagaia da; eta harreman horren esanahia ez da norberarik gabeko legea, baizik eta barrunbearen norbera.

Baina barrunbeak egiten duen zuzenbide hori aldi berean *bestearentzako izatea* delako, itxuraz ezberdintasun bat sortzen da honengan. Burutzen duen betebeharra eduki *jakin* bat da; kontzientziaren *norbera* da, eta horrela bere buruaz duen *jakitea*, bere buruarekin duen *berdintasuna*. Baina berdintasun hori, behin burutuz gero,

behin *izatearen* erdigune orokorrean ezarriz gero, ez da jadanik *jakitea*, ez da bere ezberdintasunak era berean bitartegabe gainditzen dituen ezberdintzeekintza; *izatean*, aldiz, ezberdintasuna iraupenaren moduan ezartzen da, eta ekintza ekintza *determinatu* bat da, guztien autokontzientziaren osagaitik ezberdina, hau da, ez da nahitaez berrezagutua. Bi aldeak, ekiten duen barrunbea eta ekintza hori orokortzat berrezagutzen duen kontzientzia orokorra, egite horren determinatutasunetik *aske* daude biak. Askatasun honen ondorioz, loturaren erdigune erkidean gertatzen den harremana erabateko ezberdintasunaren erlazioa da; honen bidez, kontzientziak, ekintzaren helmuga denak, ekiten duen eta bere buruaz ziur den kontzientziaz erabateko ziurtasun gabezia du. Gogoak ekiten du, berak baden determinatutasun bat ezartzen du; *izate* horri, bere egia den aldetik, eusten diote besteek, eta horrela gogo horretaz ziur daude; hor adierazi du berarentzat betebeharra *zer* den. Baina edozein betebeharrak *zehatzetik* aske da; besteek erreala dela pentsatzen duten puntutik at dago; eta izatearen beraren erdigune horrek eta betebeharrak, *bere baitan* den zerbait gisa, une gisa soilik hartzen ditu. Besteek aurkezten diena berriro ezkututzen du, edo bitartegabe ezkutatu du. Izan ere, horrentzat bere *errealitatea* ez da aurkeztutako betebeharrak eta determinazio hori, baizik eta bere buruaz duen ziurtasun absolutuan daukana.

133

Besteek, orduan, ez dakite barrunbe hori moralki ona edo txarra den, edo, are gehiago, hori ezin jakiteaz gain txartzat hartu behar dute. Izan ere, barrunbea betebeharraren *determinatutasunetik* eta betebeharretik, *bere baitan* den zerbait gisa, askea denez, besteak ere askeak dira modu berean. Barrunbeak horiei aurkezten dien hori horiek badakite ezkututzen; honen bidez, beste baten *norbera* bakarrik adierazten da, ez beraiena; horiek badakite horretatik aske direla, eta, gainera, euren kontzientzia propioan desegin behar dute, juzgatuz eta argituz deuseztatu behar dute, euren norbera mantentzeko.

Baina barrunbe horren ekintza ez da norbera hutsak baztertutako izatearen *determinazioa*. Betebeharrak gisa balio duen eta berrezagutu behar den hori jakitearen eta honen uste osoaren (betebeharrarena balitz bezala) bitartez bakanik da, egintzan bere buruaz duen jakitearen bitartez da. Egintzak norbera hori jadanik bere baitan edukitzeari uzten baldin badio, bere zerizana den hori izateari uzten dio. Kontzientzia honek baztertu duen bere hor-izatea errealitate arrunta izango litzateke, eta ekintza bere atsegina eta guraren burutzea bezala agertuko litzaziguke. *Hor izan* behar den hori hemen zerizantasa da, bere burua adierazten duen indibidualtasun gisa *dakielako*; eta *jakina izate* hori berrezagutua dena da eta, *halako* gisa, *hor-izatea* eduki behar duena.

Norbera hor-izatera sartzen da *norbera gisa*; bere buruaz ziur den gogoia besteentzat existitzen da halako gisa; bere *bitartegabeko* ekintza ez da balio duen eta erreala den hori; berrezagutua dena ez da *determinatua* eta *berbaitan den hori*, baizik eta bere burua dakien *norbera* soilik halako gisa. Irautearen osagaia autokontzientzia orokorra da; osagai horretan sartzen dena ezin da izan ekintzaren *eragina*; horrek ezin du hor geratu eta ez du irauterik; autokontzientzia bakarrik da berrezagutua dena, eta errealitatea lortzen du.

Horrela ikusten dugu berriz *hizkuntza* gogoaren hor-izate gisa. Hori *besteentzat* den autokontzientzia da, zeina bitartegabe *halako gisa eskura* dagoen eta, *horrela*, orokorra den. Hori bere baitatik banatzen den norbera da, zeina $N_i = N_i$ huts gisa

objektibo bihurtzen den, eta objektibotasun horretan bere burua norbera *hori* bezala mantentzen duen eta, aldi berean, besteekin bat egiten duen eta *beraien* autokontzientzia den; besteek bera jasotzen duten modu berean jasotzen du bere burua, eta jasotzea, hain zuzen, *norbera bihurtutako hor-izatea* da.

134

Hizkuntzak hemen lortzen duen edukia ez da jadanik kulturaren munduaren bihurritutako eta bihurritzen duen eta unatutako norbera, baizik eta bere baitara itzulitako, bere buruaz eta bere norberarengan bere egiari buruz edo bere berrezagutua izateari buruz ziur den eta, jakite hori gisa, berrezagutua den gogoa. Gogo etikoaren hizkuntza legea da, eta agindu sinplea, etakexa, gehienbat beharrezkotasunagatik jariatzen den malkoa dena; kontzientzia morala, aldiz, oraindik *mutua* da, bere barnean itxita dago, norberak honengan oraindik hor-izaterik ez baitauka, baizik eta hor-izateak eta *norberak* kanpoko harremana dute oraindik. Baina beregainak diren eta berrezagutuak diren autokontzientzien erdigune gisa baino ez da agertzen hizkuntza, eta *baden norbera* bitartegabe orokorra, anitza eta aniztasun horretan berrezagutua izate sinplea da. Barrunbearen hizkuntzaren edukia *bere burua zerizan gisa dakien norbera* da. Hori besterik ez da hizkuntzak adierazten duena, eta adierazte hori da egitearen egiazko errealitatea eta ekintzaren balioa. Kontzientziak bere *uste osoa* adierazten du; uste oso horretan baino ez da ekintza betebeharrak; eta ekintzak betebeharrak gisa *balio* du uste osoa *adierazten* den heinean. Izan ere, autokontzientzia orokorra *baden* ekintza *zehatzetik* aske da; horrek, *hor-izate* gisa, ez dio ezer balio, baizik eta ekintza betebeharrak izatearen *uste osoak*, eta uste oso hori hizkuntzan da errealak. Ekintza egikaritzeak ez du esan nahi hemen bere edukia *xedearen* edo *berbaitarako izatearen* formatik errealitate *abstraktuaren* formara igortzea, baizik eta bere buruaren bitartegabeko *ziurtasunaren* formatik (zeinak bere jakitea edo berbaitarako izatea zerizan gisa dakien) kontzientziak betebeharrean uste osoa daukala eta betebeharrak barrunbe gisa *bere buruaren bidez* dakiela dioen *baieztapenaren* formara; baieztapen horrek baieztatzen du, orduan, kontzientziak uste osoa duela bere uste osoa zerizana izateaz.

Ea betebeharrean uste osoa izanik ekiteko baieztapena *egiazkoa* den, ea egiten dena *benetan betebeharrak* den, galdera edo zalantza horiek ez daukate zentzurik barrunbearen begietan. — Ea *baieztapena egiazkoa* den galdetzen dugunean, ontzat jotzen dugu barneko asmoa eta itxurazkoa ezberdinak direla, hau da, banako norberaren nahia kontzientzia orokor eta hutsaren betebeharratik, nahimenetik bana daitezkeela; azkena hitzaldiari egotziko litzaiokeen; lehenengoa, aldiz, ekintzaren egiazko bultzatzailea litzateke. Hala ere, kontzientzia orokorraren eta banako norberaren arteko ezberdintasun hori da, hain zuzen, gaintitu izan den hori, eta zeinaren gaintitzea barrunbea den.

135

Bere buruaz ziur den norberaren bitartegabeko jakitea legea eta betebeharrak da; bere asmoa, hori bere asmoa delako, zuzen-dena da; eskatzen den bakana da horrek hori jakin dezala, eta honetan uste osoa duela esan dezala, bere jakitea eta nahia zuzen-dena direla. Baieztapen honen adierazpenak bere baitan gaintitzen du bere berezitasunaren forma; hor *norberaren beharrezko orokortasuna* berrezagutzen du; *barrunbe* deitzen den heinean, berari buruzko jakite hutsa eta nahi izate abstraktu hutsa, hau da, jakitea eta nahi izate orokor deitzen da, zeinak besteak berrezagutzen dituen, besteen *berdina* den, besteak, hain zuzen, eurei buruzko jakite eta nahi izate huts hori baitira, eta zeina, horregatik, besteek berrezagutzen duten. Bere buruaz ziur

den norberaren nahi izatean, norbera zerizana dela jakite horretan datza zuzenaren zerizana. Beraz, barrunbeak eskatuta ekiten duela esaten duenak egia esaten du, bere barrunbea dakien eta nahi duen norbera baita. Hala ere, hori zerizanez *esan* behar du, norbera horrek aldi berean norbera *orokorra* izan behar baitu. Hori ez da ekintzaren *edukian*, eduki hori bere determinatutasuna dela eta bere baitan axolagabekoa baita, baizik eta orokortasuna ekintzaren forman datza; forma hori da erreal gisa ezarri behar dena; hori da hizkuntzan erreal den *norbera*, bere burua egiazko gisa adierazten duena, hain zuzen, horrela norbera guztiak berrezagutzen dituen eta besteek berrezagutzen dutena.

Barrunbeak, beraz, lege determinatuaren eta betebeharraren edozein edukiren gainetik goratzearen bikaintasunean nahierazko edukia ezartzen du bere jakitean eta nahi izatean; jentotasun moralak da, zeinak bere jakite bitartegabekoaren barneko ahotsa ahots jainkotiar gisa dakien; eta horrek jakite horretan, era berean, bitartegabe hor-izatea dakien heinean, indar sortzaile jainkotiarra da, zeinak bere adigai bizitasuna daukan. Gainera, jainkoaren zerbitzua da bere barnean; izan ere, bere ekitea bere jainkotasun propio hori begiesteko ekintza da.

Jainkoaren zerbitzu bakarti hori, aldi berean, zerizanez *elkarte* batek egiten duen jainkoaren zerbitzua da, eta barneko bere buruaren jakite eta hautemate hutsa aurrera doaz *kontzientziaren* unera. Bere burua begiestea bere hor-izate *objektiboa* da, eta osagai objektibo hori bere jakitea eta nahi izatea *orokor-dena* bezala adieraztea da. Adierazpenaren bitartez norbera baliiodun bihurtzen da, eta ekintza egintza gauzatzaile. Errealitatea eta bere egitearen iraupena autokontzientzia orokorra da; hala ere, barrunbea adierazteak bere buruaren ziurtasuna norbera hutsa bezala ezartzen du eta, honenbestez, norbera orokor bezala; besteek baliozkotzat hartzen dute ekintza hizketa horren ondorioz, non norbera zerizan gisa adierazten eta berrezagutzen den.

136

Horien batasunaren gogoa eta substantzia, orduan, horien arduraren, asmo onen elkarrekiko baieztapena da, elkarrekiko araztasunari buruzko poza, jakitearen eta adieraztearen edertasunean eta halako bikaintasunaz arduratzean lortzen den gozamina. — Barrunbe horrek bere kontzientzia *abstraktua* eta bere *autokontzientzia* ezberdintzen dituen heinean, bere bizitza jainkoan *gordeta* dauka; beraz, jainkoa, *bitartegabe*, bere gogoari eta bihotzari, bere norberari agertzen zaie; baina ageri dena, bere kontzientzia erreal eta kontzientzia honen higidura bitartekaria horrentzat gordetako barnealde hura eta hor aurrean dagoen zerizanaren bitartegabekotasuna ez beste zerbait da. Baina barrunbea osatzean gainditzen da bere kontzientzia abstraktuaren eta autokontzientziaren arteko bereizketa. Horrek badaki kontzientzia *abstraktua*, hain zuzen, *norbera hori*, bere buruaz ziur den berbaitarako izate hori dela; badaki norberaren eta norberarengandik at ezarrita zerizan abstraktua den eta horri ezkututzen zaion berbaitanaren arteko *harremanaren bitartegabekotasunean ezberdintasun hori gaindituta* dagoela. Izan ere, harreman hori *bitartekaria* da, non harremana dutenak ez diren bat eta berbera, baizik eta *beste* bat elkarrekiko, eta hirugarren batean bakarrik diren bat; baina harreman *bitartegabekoak* egitatean batasuna besterik ez du esan nahi. Ezberdinak ez diren ezberdintasun horiek oraindik ezberdintzat hartzeko pentsamendugabeziaren gain dagoen kontzientziak badaki zerizanaren presentziaren bitartegabekotasuna bere barnean zerizanaren eta bere norberaren arteko batasun

gisa; badaki, orduan, bere norbera berbaitan bizi gisa eta bere jakite hori erlijio gisa, zeina begietsitako edo baden jakite gisa elkarteak bere gogo propioari buruz egiten duen hitzaldia den.

Horrela, ikusten dugu hemen autokontzientzia bere barnekoenera itzuli dela, kanpokotasun oro, halako gisa, desagertzen zaiola; Ni = Ni-aren begiespena itzuli da, non Ni hori zerizantasan eta hor-izate oro den. Bere buruaren adigai horretan hondoratzen da, bere muturren ertzetaraino bultzatu baitzaio, eta hain zuzen, horrela, non une ezberdinak, zeinen bidez hori erreala edo oraindik *kontzientzia* den, guretzat ez baitira mutur hutsak bakarrik; baizik eta bere baitarako den hori eta horrentzat *bere baitan* eta *hor-izate* den hori desegiten dira kontzientziarentzat inolako oinarririk, inolako substantziarik ez daukan abstrakzio gisa; eta orain arte kontzientziarentzat zerizan zen guztia abstrakzio horietara itzuli da. Kontzientzia, araztasun horretan, bere tankera txiroena da, eta bere ondasun bakarra den txirotasuna desagertze bat da; *ziurtasun* absolutu hori, non substantzia desegin den, bere barnera hondoratzen den *egia-eza* absolutua da; *autokontzientzia* absolutua da, non *kontzientzia* hondoratzen den.

137

Bere barnean hondoratze hori ikusita, kontzientziarentzat *bere baitan* den *substantzia jakitea* da, *bere* jakite gisa. Kontzientzia gisa, bere buruaren eta berarentzat zerizana den objektuaren arteko aurkakotzan banatuta dago; baina objektu hori, hain zuzen, erabat garden-dena da, *bere norbera* da, eta bere kontzientzia bere buruaz duen jakitea besterik ez da. Bizitze oro eta gogozerizantasan oro norbera honetara itzuli dira, eta Ni-norberarekin zuen ezberdintasuna galdu du. Kontzientziaren uneak, beraz, muturreko abstrakzioak dira, zeinetatik inork ez dion bere buruari eusten, baizik eta bere burua bestean galtzen duen eta hori sortzen duen. Zoritzarreko kontzientziak bere buruarekin egiten duen trukea da, zeina orain, ordea, horren barnean gertatzen den horrentzat eta zeinak zoritzarreko kontzientzia *bere baitan* bakarrik den arrazoimenaren adigaia dela dakien. Bere buruaz duen ziurtasun horri, kontzientzia den aldetik, bitartegabe desagertzen ari den oihartzun, bere berbaitarako izatearen objektibotasun bihurtzen zaio; baina sortutako mundu hori bere *hizketa* da, zeina horrek era berean bitartegabe entzun duen eta zeinaren oihartzuna berari bakarrik itzultzen zaion. Itzulera horrek ez du esan nahi hor norbera *bere baitan* eta *bere baitarako* dela; izan ere, zerizana ez da horrentzat *berbaitana*, baizik eta bera; are gutxiago dauka *hor-izatea*, zeren objektibo-dena ez baita iristen norbera errealaaren negatiboa izatera, norbera errealtatera iristen ez den bezala. Horretarako, kanporatzeko indarra falta zaio, ni gauza bihurtzeko eta izatea jasotzeko indarra. Kontzientzia bere barnekodenaren dotorezia distira zikintzeko beldurrean bizi da ekintzaren eta hor-izatearen bitartez; eta bere bihotzaren araztasuna mantentzeko, errealtatea ukitzeari ihes egiten dio eta indargabetasun egoskorrari eusten dio, hots, azken abstrakzioraino goratutako norberari uko egiten dio eta bere buruari substantzia ematen dio, edo bere pentsatzea izate bihurtzen du eta bere burua ezberdintasun absolutuaren esku uzten du. Kontzientziak bere buruarentzat sortzen duen objektu hutsalak hutsunearen kontzientziarekin soilik betetzen du bera; bere egitea, horregatik, mira izatea da, zeinak bere burua zerizangabeko objektu bihurtzean bere burua galtzen duen eta, galera horretatik haraindi berriz bere burura itzuliz, bere burua galdutako gisa baino ez duen aurkitzen; bere uneen araztasun garden honetan zoritzarrezko *arima eder* deitzen zaiona bihurtzen da, bere argia bere barnean

iraungitzen da eta formarik gabeko lurrin batean desagertzen da, airean desegiten den lurrinean.

138

Baina lurrindutako bizitzaren mamirik gabeko zerizantzenen elkargune barea oraindik barrunbearen *errealitatearen* beste esanahian eta bere higiduraren *agerpenean* hartu behar da, eta barrunbea ekile gisa aztertu behar da. — Kontzientzia horretan une *objektiboa* lehenago kontzientzia orokorra bezala determinatu da; bere burua dakien jakitea, norbera *hori* gisa beste edozein norberarengandik ezberdintzen da; hizkuntza, non guztiek elkar berrezagutzen duten ekile zintzo bezala, berdintasun orokor hori, banako berbaitarako izatearen ezberdintasunean desegiten da, edozein kontzientzia bere orokortasunetik bere baitara islatzen da oro har; horrela nahitaez banakotasunaren eta beste banakodirenen eta orokor-denaren arteko aurkakotza agertzen da; eta harreman hori eta bere higidura aztertu behar da. — Edo orokortasun horrek eta betebeharrak guztiz aurkakoa esan nahi du, hau da, orokor-denetik baztertzen den *banakotasun* determinatua, zeinarentzat betebehar hutsa *azalean* agertzen den eta kanporantz bihurritutako orokortasuna den; betebeharra hitzetan baino ez datza eta beste batentzako izate bezala balio du. Barrunbeak, hasieran jarrera *negatiboa* bakarrik edukiz betebeharraren aurrean, eskura dagoen betebehar determinatu hori den aldetik, horretatik aske dela daki; baina betebehar hutsala *bere baitatik hartzen duen* eduki *determinatu* batekin osatzen duen heinean, kontzientzia positiboa dauka honi buruz, hots, norbera *hori* gisa bere buruarentzat edukia sortzen duela; bere norbera hutsa, jakite hutsal gisa, edukirik eta determinaziorik gabekoa da; barrunbeak bere buruari ematen dion edukia bere norberarengandik, determinatua den *hori* den aldetik, bere burutik hartzen du banakotasun berezkotik bezala; eta bere ekiteak hartzen duen arduraz hitz egiterakoan bere norbera hutsaz jabetzen da; baina bere ekitearenxedean, eduki erreal gisa bere buruaz jabetzen da banako berezi hori bezala, eta bere baitarako den horren eta beste batentzat den horren arteko aurkakotzaz, orokortasunaren edo betebeharraren eta betebeharretik islatua izatearen arteko aurkakotzaz jabetzen da.

139

Horrela, barrunbea *ekile* gisa agertzen den aurkakotza bere barneko-denean adierazten baldin bada, hori aldi berean ezberdintasuna da kanporantz hor-izatearen osagaien, bere banakotasun bereziaren ezberdintasuna beste banakoen aurrean. — Bere berezitasuna honetan datza, hots, bere kontzientzia osatzen duten bi uneek, norberak eta berbaitanak, *balio ezberdinak* dauzkatela bere barnean, hain zuzen, bere buruaz duen ziurtasuna zerizana dela; eta *berbaitanak* edo *orokor-denak*, aldiz, une gisa baino ez du balio. Barneko determinazio horri, orduan, horizatearen osagaia edo kontzientzia orokorra aurkakotzen zaio, zeinarentzat orokortasuna, betebeharra zerizana den, eta orokor-denaren aurrean bere baitarako den banakotasunak, aldiz, gainditutako une gisa bakarrik balio duen. Betebeharrari euste horri lehenengo kontzientziak *gaitz* gisa balio dio, *bere barnean izatearen* eta orokor-denaren arteko ezberdintasuna delako; eta lehenengo kontzientziak aldi berean bere egitea bere buruarekiko berdintasun bezala adierazten badu, betebehar eta kontzientzia arduratsu bezala, orduan *itxurakeria* gisa balio du.

Aurkakotza horren *higidura*, leherrik, gaitza bere barnean den horren eta horrek adierazten duen honen arteko berdintasunaren sortze formala da; ongi nabari izan behar du hori gaitza dela, eta honela bere hor-izatea eta bere zerizana berdinak direla; *itxurakeriau mozorroa* kendu behar zaio. Itxurakerian dagoen

ezberdintasunetik berdintasunera itzultze hori ez da jadanik gertatu itxurakeriak, esaten den bezala, betebeharrari eta bertuteari dien begirunea honetan frogatzen duelako, hots, beraien *itxura* hartzen duela eta mozorro gisa bere kontzientzia propioarentzat eta beste kontzientzia arrotzarentzat ere erabiltzen duela; bere baitan aurkakotu-denaren horrelako berrezagutzean berdintasuna eta adostasuna barnebilduko lirateke. Baina itxurakeria hitzeko berrezagutze horretatik kanpo eta bere baitara islatuta dago; eta horrek *berbaitan dena beste batentzako izate* bezala erabiltzen duenean, hor guztientzat barnebiltzen da bere buruari egiten dion erdeinua eta bere zerizangabetasunaren aurkezpena. Izan ere, kanpoko tresna bezala erabil daitekeena bere barnean pisu propiorik ez daukan gauza bat bezala agertzen da.

140

Berdintasun hori ez da gauzatzen ez kontzientzia gaiztoak bere buruari euste aldebakar horren bitartez ezta orokor-denaren judizioaren bitartez ere. — Kontzientzia gaiztoak betebeharraren kontzientziaren aurrean bere burua ukatzen badu eta azken horrek okerkeriaz eta orokorreakiko ezberdintasun absolutuaz adierazten duena barneko lege eta barranbearen araberako ekite gisa baieztatzen badu, orduan berdintasunaren baieztapen aldebakar horretan bestearekin duen ezberdintasuna mantentzen da, horrek baieztapen hori sinesten eta berrezagutzen ez duelako. — Edo mutur *bati* euste aldebakarrak bere burua desegiten duenez, orduan gaitz-denak aitortuko luke gaitz dela, baina honela *bitartegabe* bere burua gaindituko luke, eta ez litzateke izango itxurakeria, eta ez luke itxurakeriaren mozorroa kenduko. Aitortzen du egitatean gaiztoa dela, baieztatzen duenean, berak berrezagututako orokordenari aurkakotua izanik, *bere* barneko legearen eta barrunbearen arabera ekiten duela. Lege eta barrunbe hori bere *banakotasunaren eta nahimen arbitrarioaren* legea izango ez balira, orduan hori ez litzateke barnekoa, propioa den zerbait, baizik eta orokorki berrezagutua dena. Horregatik, esaten duenak *bere* legeen eta barrunbearen arabera besteen aurka ekiten duela, egitatean esaten du besteak gaizki tratatzen dituela. Baina barrunbe *erreal*a ez da jakiteari eta nahimenari euste hori, orokor-denari aurkakotzen zaiona, baizik eta orokor-dena bere *hor-izatearen* osagaia da, eta bere hizkuntzak bere egitea adierazten du *berrezagututako* betebeharr gisa.

Kontzientzia orokorrak bere judizioari eusten baldin badio, horrek ere ez dio kentzen mozorroa itxurakeriari, eta ez du hori desegiten. Kontzientzia orokorrak adierazten duenean itxurakeria maltzurra, doilorra, eta abar, dela, horrelako judizioan *bere* legea baliatzen du, kontzientzia gaiztoak *berea* bezala. Izan ere, hura horren aurka agertzen da eta horrela lege berezi bat bezala. Horrek ez dauka, orduan, inolako lehentasunik bestearen aurrean; aitzitik, bermatu egiten du, eta grina horrek uste duenaren aurkakoa egiten du; hain zuzen, erakusten du egiazko betebeharr deitzen duen hori eta *orokorki* berrezagutu behar den hori *ez-berrezagutua* dela, eta horren bidez besteari berbaitarako izatearen eskubide berbera onartzen dio.

Baina judizio horrek, aldi berean, beste alde bat dauka, eskura dugun aurkakotza desegiteko abiapuntu dena. *Orokor-denaren* kontzientziak ez du jokatzeko *erreal* eta *ekile* bezala lehenengo kontzientziaren aurrean (azkena hori baita *erreal*a), baizik eta horri aurkakotuz, ekitean agertzen den banakotasunaren eta orokortasunaren arteko aurkakotzan harrapatuta egongo ez balitz bezala jokatzeko du. *Pentsamenduaren* orokortasunean geratzen da, *hartzaile* gisa jokatzeko du, eta bere lehenengo ekintza

judizioa besterik ez da. Judizio honen bidez bere burua, goian esan dugun moduan, lehenengoaren *aldamenean* kokatzen du, eta azken horrek, *berdintasun horren bidez*, bere burua begiesten du beste kontzientzia horretan. Izan ere, betebeharraren kontzientziak *hartzaille gisa*, era *jasailan* jotzen du; baina horrela bera buruarekin kontraesanean dago betebeharraren nahimen absolutua den aldetik, oro har bere kabuz determinatzen duen horrekin kontraesanean. Erraz mantentzen du bere burua araztasunean, *ez baitu ekiten*; juzgatzea egintza errealtzat hartu nahi duen itxurakeria da, eta bere zuzentasuna ez du ekintzaren bidez probatzen, baizik eta jaidura bikaina adieraziz. Betebeharra hitzetan baino ezartzen ez duela egozten zaion hori bezalaxe dago eratuta erabat. Bietan errealtatearen alde berdin ezberdintzen da hitzalditik, batean ekintzaren *xede berekoiaren* bitartez, bestean *ekitearen gabeziaren* bitartez oro har, ekitearen beharrezkotasuna betebeharrari buruzko hitz egitean datzanez, horrek egintzarik gabe ez baitauka inolako zentzurik.

141

Baina juzgatzea pentsamenduaren ekintza positibo bezala ikusi behar da gainera, eta eduki positibo bat dauka; alderdi horren bidez, kontzientzia hartzailean eskura dagoen kontraesana eta lehenengoarekin daukan berdintasuna are beteagoak gertatzen dira. — Kontzientzia ekileak bere egite determinatu hori betebeharrari gisa adierazten du, eta juzgatzen duen kontzientziak ezin dio hori ukatu; izan ere, betebeharra bera edozein eduki izan dezakeen forma da, edukirik gabeko forma; edo ekintza konkretuak, bere baitan duen aniztasunean ezberdinak izaki, bere barnean dauka bai betebeharrat hartzen den alde orokorra, baita indibiduoaren ekarpena eta interesa osatzen duen alde berezia ere. Hala ere, juzgatzen duen kontzientzia ez da geratzen betebeharraren alde hartan eta ekileak duen jakite honetan, hau da, hori bere betebeharra, bere errealtatearen erlazioa eta egoera dela; baizik eta beste aldeari eusten dio, ekintza barnerantz erakartzen du, eta argitzen du ekintzaren *asmoa* ekintzatik ezberdintzen dela eta *bultzatzaile* berekoiak dituela. Edozein ekintza betebeharraren araberakoa izatearen ikuspuntutik azter daiteke, eta, era berean, *berezitasunaren* ikuspuntutik azter daiteke; izan ere, ekintza gisa indibiduoaren errealtatea da. — Juzgatze horrek, orduan, ekintza bere hor-izateatik at ateratzen du eta barneko denean edo bere berezitasun propioaren forman islatzen du.— Loria erdiesten baldin badu, orduan bere barnekoa *loria-irrika* gisa daki; indibiduoaren mailari egokitzen bazaio, maila hori gaintu gabe, eta indibidualtasunak maila kanpoko determinazio bat bezala beregan ezarria izanik ez badago eratuta, baizik eta orokortasun hori bere kabuz betez eta, horrela, bere burua zerbait garaiagoa lortzeko gai ikusten badu, orduan judizioak ekintzaren barnekoa goranahi gisa hartzen du, eta abar.

142

Ekintzan oro har ekileak objektibotasunean *bere burua* begiestea edo bere horizatean bere burua sentitzea eta, horrela, gozatzea lortzen duen heinean, orduan judizioak barnekoa zoriontsu izateko irrika gisa daki; nahiz eta zoriontasuna barneko harrokeria morala besterik ez izan, bere bikaintasunaren kontzientziak daukan gozamina besterik ez izan eta geroko zoriontasunean duen itxaropenaren dastamen aurreratua besterik ez izan. Ezein ekintzak ezin dio juzgaketara horri ihes egin, zeren betebeharra betebeharragatik, xede huts hori, errealtate-eza baita; horrek bere errealtatea indibidualtasunaren egitean dauka, eta horrela ekintzak honengan berezitasunaren alde dauka. Zerbitzariak ez du heroirik; baina ez hori heroia ez delako, baizik eta hura zerbitzaria delako; heroiak heroi den aldetik ez dauka zer

ikusirik harekin, jaten, edaten, janzten duen bat bezala ez bada, hau da, premiaren eta errepresentazioaren banakotasunean. Ez dago juzgatzearentzat ezein ekintzarik, non berak indibidualtasunaren banakotasunaren aldearen eta ekintzaren alde orokorraren arteko aurkakotza ezarri ezin duen, eta non ekilearen aurrean moralitasunaren zerbitzariaren tokia ezingo lukeen hartu.

Horrela, juzgatzen duen kontzientzia *zitala* da, ekintza zatitzen duelako eta bere buruarekin daukan ezberdintasuna sortzen eta mantentzen duelako. Gainera, *itxurakeria* da, gaiztoa izateko *beste modu* bat bezala ez delako aurkezten halako juzgatzea, baizik eta ekintzaren *kontzientzia zuzen* bezala; bere errealitate-egan eta ongi eta hobeto jakitearen harrokerian bere burua berak erdeinatutako egintzen gainetik ezartzen duelako, eta bere egintzarik gabeko hizketaldia *errealitate* bikaintzat har dadila nahi duelako. Horrela, bere burua beraz juzgatzen duen ekilearekin parekatuz, horrek hura berarekin berdina bezala berrezagutzen du. Horrek sentitzen du hark zerbait arrotza eta beretik ezberdina dena bezala hartzen duela, eta, gainera, bere eraketaren arabera bere buruarekin berdina den zerbait bezala hartzen duela. Berdintasun hori begietsiz eta *adieraziz*, hori *aitortzen* dio hari, eta espero du besteak, egitatean bere buruarekin berdindu duenak, *bere hizketaldiari* erantzungo diola eta hor bere berdintasuna adieraziko duela eta, horrela, berrezagutzen duen hor-izatea sortuko dela. Bere aitortpena ez da bestearekin erlazioan duen abaildura, beheratzea, doilorkeria; izan ere, adierazpen hori, zeinaren bidez harekin daukan *ezberdintasuna* ezarri zuen, ez da aldebakarra, baizik eta beraren eta bestearen arteko berdintasuna begietsiz adierazten du, *bere berdintasuna* adierazten du bere aldetik eta hori adierazten du, hizkuntza gogoaren *hor-izatea* delako, norbera bitartegabeko gisa; espero du, orduan, besteak bere ekarpena egitea hor-izate horri.

143

Baina *honela naiz* gaiztoaren aitortpen horri ez zaio janaiki aitortpen berdinen erantzuna. Juzgatze hark ez zuen hori adierazi nahi; alderantziz! Horrek harremanak edukitzeari uko egiten dio; bihotz gogorra da, berekoia eta bestearekin jarraitasuna izatea baztertzen duena. — Horrela, eszena iraultzen da. Aitortpena egin zuena baztertua sentitzen da, eta bestearen bidegabekeria ikusten du, zeinak bere barnekoa hitzaren hor-izatera ateratzeari uko egiten dion, eta gaitzari bere arimaren edertasuna aurkakotzen dion, baina aitortpenari berdin irauten duen izaeraren janera burugogorra eta bere barnean mantentzeko eta beste baten aurrean ez makurtzeko mututasuna. Hemen bere buruaz ziur den gogoaren matxinada handiena ezartzen da. Gogoak bestean den *norberaren jakite sinple* hori bezala begiesten du bere burua, eta, hain zuzen, halako moduan non beste horren kanpoko tankera ez baita zerizangabekoa, gauza bat, aberastasunean bezala; baizik eta gogoari begira mantentzen den pentsamendua, jakitea bera baita; hain zuzen, berarekin trukerik edukitzeari uko egiten dion *jakite* hutsaren jarraitasun guztiz jariakor hori da; jadanik bere aitortpenean *banatutako berbaitarako izateari* uko egin zion, eta gainditutako berezitasun gisa eta horren bidez bestearekiko jarraitasun gisa, orokor-den gisa, ezarri zuen bere burua. Baina besteak *bere baitan* bere buruarentzat gordetzen du trukerik onartzen ez duen bere berbaitarako izatea; aitortzen duen horretan eusten dio aitortzaileak jadanik uko egin dion horri berari. Horrela, bestea agertzen da gogorik gabeko eta gogoari uko egiten dion kontzientzia bezala, zeren ez baitu berrezagutzen gogoia, bere buruaren ziurtasun absolutuan, edozein egintzaren eta errealitatearen maisua dela, eta horiei uko egin diezaiekeela eta horiek ez gertatzea

egin dezakeela. Aldi berean, besteak ez du kontraesan hau onartzen, hots, *hizketan* gertatzen den gaitzespena egiazko gaitzespenzat hartu nahi ez izatea, aldi berean bere gogoaren ziurtasuna ez ekintza erreal batean, baizik eta bere barnean eta barneko horren hor-izatea bere judizioaren *hizketan* daukanean. Beraz, bestea da egintzatik hizketaren gogo-maila duen hor-izatera eta gogoaren berdintasunera doan itzulera eragozten duena; eta gogortasun horren bidez oraindik eskura dugun ezberdintasuna sortzen du.

144

Orain, bere buruaz ziur den gogoak, arima eder gisa, bere buruaz bere baitan mantentzen duen jakitea kanporatzeko nahiko indarrrik ez daukan heinean, ezin du lortu baztertutako kontzientziarekin berdintasuna izatea eta, orduan, bestean bere buruaren batasuna begiestea; ezin du lortu hor-izatea; berdintasuna negatiboki soilik sortzen da, gogorik gabeko izate bat bezala. Errealitaterik gabeko arima edena, norbera huts horren eta izateraino kanporatzeko eta errealitate bihurtzeko beharrezkotasunaren arteko kontraesanean, aurkakotza irmo horren *bitartegabekotasunean* (bere abstrakzio hutseraino igotako aurkakotzaren erdigunea edo adiskidetzea eta izate hutsa edo ezerez kaskala den bitartegabekotasunean), arima edena, beraz, bere adiskidetu gabeko bitartegabekotasunean kontraesan honen kontzientzia bezala erotasuneraino urratzen da, eta ahuleria nostalgikoan iraungitzen da. Horrela, egitatean kontzientziak *berbaitarako izatearen* finkotasun gogorra baztertzen du, baina izatearen gogorik gabeko *batasuna* besterik ez du sortzen.

Egiazko, hau da, *bere buruaz jabetzen den* eta *baden* orekatzea hor aurrean dago barnebilduta jadanik bere beharrezkotasunaren arabera. Bihotz gogorra haustea eta orokortasunera igotzea bere aitortpena egin zuen kontzientzian adierazi zen higadura bera da. Gogoaren zauriak sendatzen dira orbanik utzi gabe. Egintza ez da iraungitzen ez dena, baizik eta gogoak hartzen du bere barnean, eta asmo gisa edo baden negatibotasun eta horren muga gisa eskura dagoen banakotasunaren alde bitartegabe desagertzen dena da. *Norbera* egikaritzaila, bere ekintzaren forma, osokiaren *une* bat besterik ez da eta, era berean, judizioaren bitartez determinatzen duen eta ekintzaren banako aldearen eta alde orokorraren arteko ezberdintasuna finkatzen duen jakitea da. Gaitz hark bere kanporatze hori edo bere burua *une* bezala ezartzen du, bestean bere burua begietsiz aitortzen duen hor-izateak liluratuta. Baina, hari bere berbaitarako izate bereziaren berrezagutua ez zaion hor-izate aldebakarra bezala, beste horri berrezagutua ez den bere judizio aldebakarra hautsi egin behar zaio; eta hark gogoak bere errealitatearen gainean daukan boterea erakusten duen bezala, horrek bere adigai determinatuaren gainean daukan boterea.

145

Baina azken horrek pentsamendu banatzaileari eta bere baitan irmo mantentzen den berbaitarako izatearen gogortasunari uko egiten die, hain zuzen, egitatean bere burua lehenengoan ikusten duelako. Bere errealitatea baztertzen duen eta bere burua *gainditutako Hori* bihurtzen duen horrek egitatean orokor-den gisa aurkezten du bere burua; bere kanpoko errealitateak bere baitara itzultzen da zerizan gisa; kontzientzia orokorrak bere burua berrezagutzen du hor. — Lehenengo kontzientziari bigarrenak eskaintzen dion barkamena bere buruari uko egitea da, bere zerizan *ez-errealari*, zeinarekin ekintza *erreal* zen beste hura parekatzen duen, eta on gisa berrezagutzen du pentsamenduak gaitz gisa hartzen duen hori, hau da, ekintza; edo pentsamendu determinatuaren eta berbaitarako den judizio determinatzailearen

arteko ezberdintasuna baztertzen du, besteak ekintza berbaitarako den zerbait bezala determinatzea baztertzen duen modu berean. — Adiskidetzearen hitza *baden* gogoa da, zeinak bere buruaren jakite hutsa, zerizan *orokor* gisa, bere aurkakoan begiesten duen, hau da, bere buruaren jakite hutsean absolutuki bere barnean den *banakotasun* gisa, hots, *gogo absolutua* den elkar berrezagutzea.

Gogo absolutua gailurrean soilik sartzen da hor-izatean, non bere buruaren jakite hutsa bere buruaren aurkakotza eta bere buruarekiko trukea den. Bere *jakite hutsa* zerizan *abstraktua* dela jakinez, gogo absolutua betebeharrak jakile hori da, bere burua norberaren *banakotasun* absolutu gisa zerizana dela dakien jakiteari absolutuki aurkakotuz. Lehenengo jakitea orokor-denaren jarraipen hutsa da, zeinak bere burua zerizan gisa dakien banakotasuna bere baitan baliogabe gisa, *gaitz* gisa dakien. Bigarren jakitea, aldiz, bere burua bere Bat hutsean absolutu gisa dakien eta orokor-den hura *besteentzat* bakarrik den errealitaterik gabeko diskrezio absolutua da. Bi aldeak araztu egin dira, eta araztasun horretan ez dago ezein norberarik gabeko hor-izaterik, ezta kontzientziaren ezein negatiborik ere, baizik eta *betebeharrak* hura bere buruaren jakitearen izaera iraunkorra da, eta gaitz horrek bere xedea *bere barnean izatean* eta bere errealitatea bere hizketan dauka; hizketa horren edukia gogo horren irautearen substantzia da; hizketak gogoak bere barnean duen ziurtasuna baieztatzen du. — Euren buruez ziur diren bi gogoen xedea euren norbera hutsa besterik ez da, eta euren errealitatea eta hor-izatea norbera huts hori besterik ez da. Baina ezberdinak dira oraindik, eta ezberdintasuna absolutua da, zeren adigai hutsaren osagai horretan ezarrita baitago. Hori ez da guretzat bakarrik, baizik eta aurkakotza horretan dauden adigaiak. Izan ere, adigai horiek elkar *determinatuta* daude, baina aldi berean euren baitan orokorrak dira halako moldean non norberaren hedapen osoa betetzen baitute eta norbera honek bere determinatutasun hori ez den beste edukirik ez baitu, ez horretatik haraindi doana ezta bera baino mugatuagoa dena ere; izan ere, bata, absolutuki orokor-dena, bere burua dakiena da, eta bestea, banakotasunaren diskrezio absolutua, eta biak euren buruaren jakite hutsa besterik ez dira. Beraz, bi determinatutasunak adigai jakile hutsak dira, zeinen determinatutasuna bitartegabe jakitea den edo zeinen *erla zioa* eta aurkakotza Nia den. Horrela, *elkarri* aurkakotutako horiek dira; hori guztiz *barnekoa* da, horrela bere aurrean dagoena eta hor-izatera iritsi dena. Adigai horiek osatzen dute jakite hutsa, aurkakotza horren bidez *kontzientzia* bezala ezartzen dena. Baina oraindik ez da *autokontzientzia*. Egikaritzapen hori aurkakotzaren higiduran lortzen du. Izan ere, aurkakotza hori Ni = Ni-aren *jarraipen ez-diskretua* eta *berdintasuna* da; eta *bere baitarako* bakoitza, hain zuzen, bere orokortasun hutsaren kontraesanaren bitartez, aldi berean, bestearekin berdin izateari oraindik aurka egiten dion eta, horrela, horretatik banatzen den orokortasunaren bitartez, horretan bere burua gainditzen du. Kanporatze horren bitartez bere hor-izatean bikoiztuta dagoen jakitea bere norberaren batasunera itzultzen da; Nia *erreal* da, *bere buruaren* jakite orokorra bere *aurkako absolutuan*, *bere barnean* den jakitean, zeina bere barnean izate bereziaren araztasunari esker orokor-den betegina den. Adiskidetzen duen *Bai* hori, non bi Niek euren aurkakotutako *hor-izatea* baztertzen duten, bitasunera zabaldu den *Niaren hor-izatea* da; hor bere buruaren berdin mantentzen den eta bere erabateko kanporatzean eta aurkakoan bere buruaren ziurtasuna daukan Niarena; euren burua jakite gisa dakiten horien artean agertzen den jainkoa da.

VII ERLIJIOA

Orain arteko tankeratzetan, orokorrean *kontzientzia*, *autokontzientzia*, *arrazoimen* eta *gogoaren* arrear bereizten direnetan, *erlijioa ere* agertu da, noski, *zerizan absolutuaren* kontzientzia gisa, baina zerizan absolutuaz jabetzen den *kontzientziaren ikuspuntutik*; hala ere, zerizan absolutua ez da *bere baitan eta bere baitarako* agertu, gogoaren autokontzientzia ez da agertu forma haietan.

Kontzientzia, *adimen* den heinean, dagoeneko bada *sentipenaz haratago-denaren* kontzientzia edo hor-izate objektiboaren *barnekodena*. Baina sentipenaz haratago denak edo betiko-denak, edo edonola deitzen zaion horrek, *ez du norberarik*; hasiera batean *orokor-dena* da, bere burua gogo gisa ezagutzen duen gogo izatetik urrun dagoena oraindik. Gainera, *zoritxarreko* kontzientziaren tankeran osaketa lortzen zuen *autokontzientzia* objektibitatea lortzeko borrokatzen duen baina hori lortzen ez duen *gogo-mina* da. *Banako* autokontzientziaren eta horren *zerizan* aldaezinaren batasunak, hark lortzen duenak, beraz, haren *haratagokoa* izaten dirau. *Arrazoimenaren* bitartegabeko horizateak, guri min hartatik sortu zitzaigunak, eta honen tankera bereziek ez dute erlijiorik, zeren arrazoimenaren autokontzientziak orainaldi *bitartegabekoan* baitaki edo bilatzen baitu *bere burua*.

Bestalde, mundu etikoan erlijio bat ikusi genuen, eta gainera *behe-munduko erlijioa*; *patuaren* gau ezezagun eta izugarri batean dugun sinesmena da, eta *gogo bananduaren* Eumenidean dugun sinesmena: hura negatibotasun hutsa da orokortasunaren forman, eta hori negatibotasun berbera banakotasunaren forman. Zerizan absolutua azken forma horretan *norbera* da, noski, eta *hor dago*, norberak hor izan behar baitu; baina *banako* norbera orokortasuna, patua dena, bere baitatik bereizita duen banako itzal *hori* da. Itzala da, noski, *gainditu den Hori*, eta beraz, norbera orokorra; baina esanahi negatibo hura oraindik ez da eraldatu esanahi positibo horretan, eta honegatik norbera gaindituak, aldi berean, bitartegabe norbera berezi eta zerizangabeko hori esan nahi du. Baina norberarik gabe bere buruaz jabetzen ez den gaua izaten dirau patuak, zeinak ez duen lortzen bereizkuntzarik bere barnean, ezta bere buruaren ezagutzearen argitasunik ere.

148

Beharrezkotasunaren ezerezean eta behe-munduan dugun sinesmen hori *zeruan dugun sinesmen* bihurtzen da, zeren norbera bananduak bere orokortasunarekin bat egin behar baitu, horrek bere baitan jasotzen duena bereiztu behar du eta, horrela, bere burua argitu behar du. Baina ikusi genuen sinesmenaren *erresuma* horrek pentsatzearen osagaien bere edukia adigairik gabe garatzen zuela, eta honegatik bere patuan hondoratu zen, hau da, *Ilustrazioaren erlijioan*. Hor adimenaren sentipenaz haratagoko dena berriro sortzen da, baina halako moldez non autokontzientzia hemen asebetetzen baita, eta sentipenaz haratagoko-den *hutsala*, ezagutu ezin den eta beldurrik eragiten ez duena, ez du ezagutzen ez norbera gisa ezta botere gisa ere.

Moraltasunaren erlijioan azkenean hau beneraikitzen da: zerizan absolutua eduki positiboa dela, baina Ilustrazioaren negatibotasunari lotuta dagoela. *izate* bat da, baina era berean norberarengan atzera hartuta eta hor giltzapetuta dagoena, eta

eduki bereiztu bat da, zeinaren zatiak era berean bitartegabe ukatzen diren, azaltzen diren bezain pronto. Baina patua, non higidura kontraesankor hori hondoratzen den, bere buruaz jabetzen den norbera da, *zerizantasunaren* eta *errealitatearen* patu gisa.

Bere burua ezagutzen duen gogo erlijioan bitartegabe bere *autokontzientzia* hutsa da. Aztertu diren horren tankerek (egiazko gogo, bere baitatik arrotzu den gogo, bere buruaz jabetzen den gogo) osatzen dute gogo elkarrekin bere *kontzientzia*, zeinak bere *munduari* aurre eginez ez duen bere burua ezagutzen. Baina kontzientzia moralean hura eta bere mundu objektiboa menpeko bihurtzen dira, baita haren errepresentazioa eta haren adigai jakinak ere, eta honela bere baitan den autokontzientzia da. Hor berez du, *objektu gisa erre presentatuta*, gogo orokorra izateko esanahia, zerizan oro eta errealitate oro barnebiltzen duen gogo; baina ez da errealitate askearen forman edo beregainki agertzen den naturaren forman. Badu, noski, *tankera* edo izatearen forma, bere kontzientziaren *objektu* den heinean, baina hori erlijioan *autokontzientzia* izateko zerizanezko determinazioan ezarrita dagoenez, tankera guztiz nabarmena da; eta horrek barnebiltzen duen errealitatea horren baitan itxita dago edo horren baitan gaindituta dago, *errealitate oroz* hitz egiten dugunean bezala; errealitate *pentsatu* orokorra da.

149

Beraz, erlijioan gogoaren kontzientzia propioaren determinazioak *beste izate* askearen forma ez duen heinean, haren *hor-izatea* haren *autokontzientziatik* bereizten da, eta horren benetako errealitatea erlijiotik at kokatzen da; bi horien gogo *bat* da, baina horren kontzientziak ez ditu biak jasotzen, eta erlijioa hor-izatearen eta egitearen eta aritzearen zati gisa agertzen da, eta honen beste zatia bizitza da bere mundu errealean. Orain badakigunez gogo bere munduan eta bere buruaz gogo gisa jabetzen den gogo edo erlijioaren gogo berbera direla, orduan erlijioaren osaketa honetan datza, hots, bi hauek gauza berbera bihurtzean, erlijioak gogoaren errealitatea atzematea, batetik, eta, bestetik, hori bere buruaz jabetzen den gogo gisa erreal bihurtzea eta bere *kontzientziaren objektu* bihurtzea. — Gogoak erlijioan bere burua *errerepresentatzen* duen heinean, hori kontzientzia da, noski, eta horretan itxita dagoen errealitatea bere errepresentazio aren tankera eta jantzia da. Errealitateari errepresentazio horretan ez zaio dagokiona ematen guztiz, hau da, jantzia soilik ez izatea, baizik eta hor-izate aske beregaina; eta alderantziz, errealitate hori, osaketa bere baitan ez duelako lortzen, tankera *jakin* bat da, lortzen ez duena aurkeztu behar duena, hau da, bere buruaz jabetzen den gogo. Horren tankerak gogo bera adierazi behar badu, orduan horrek gogo baino ezin du izan, eta gogoak bere zerizanean den bezala agertu edo erreal izan behar du. Honen bidez baino ezin da lortu itxuraz aurkakoaren eskakizuna izan daitekeena, hau da, kontzientziaren *objektuak* aldi berean errealitate askearen forma izatea; baina norberarentzat gogo absolutu gisa objektu den gogo soilik da norberarentzat errealitate askea, halako moldez non hor bere buruaz jabetzen baitirau.

150

Hasiera batean autokontzientzia eta benetako kontzientzia, *erli jioa* eta gogo bere munduan edo gogoaren *hor-izatea* bereizten diren heinean, orduan azken hori gogoaren osokia da, bere uneak bananduta eta bakoitza bere aldetik aurkeztu dituen heinean. Baina une horiek *kontzientzia*, *autokontzientzia*, *arrazoimena* eta *gogo* dira, gogo a bitartegabeko gogo gisa, oraindik gogoaren kontzientzia ez dena. Horien osotasunak, *batera hartuta*, gogo osatzen du bere hor-izate mundutarrean; gogoak halakoa den aldetik orain arteko tankeratzeak barnebiltzen ditu determinazio

orokorretan, oraintsu aipatu diren uneotan. Eriijioak horien ibilbide osoa aurreuposatzen du eta horien osotasun *sin plea* edo horien norbera absolutua da. Une horien bidea, bestalde, ezin da denboran errepresentatu erlijioarekin erlazioan. Gogo osoa baino ezin da izan denboran, eta tankerak, *gogo* osoaren tankerak direnak, hori osoa den aldetik, ilara batean aurkezten dira; izan ere, osokiak baino ez du benetako errealtatea, eta horregatik askatasun hutsaren forma da bestearen aurrean, denbora gisa adierazten den forma. Baina horren *uneek*, kontzientzia, autokontzientzia, arrazoimena eta gogo, *uneak* direlako, ez dute elkar ezberdintzen den hor-izaterik. Gogo bere une horietatik ezberdindu zen bezala, hirugarren urrats gisa une horietatik euren determinazio banakotua ezberdindu behar da. Ikusten genuen une horietako bakoitza, hain zuzen, bere baitan bere bidean ezberdintzen zela eta tankera ezberdinak hartzen zituela; adibidez, kontzientzian sentipenezko ziurtasuna eta hautemapena ezberdintzen ziren moduan. Azken alderdi horiek denboran banantzen dira eta *osoki bere zi* bati dagozkio. Izan ere, gogo *orokortasunetik banakotasunera* behehitzen da *determinazioaren* bidez. Determinazioa edo erdigunea *kontzientzia*, *autokontzientzia* eta abar da. *Banakotasuna*, ordea, une horien tankerek osatzen dute. Horiek, beraz, gogo bere banakotasunean edo *errealitatean* aurkezten dute eta denboran ezberdintzen dira, baina halako moldez non ondorengo *uneak* aurrekoa bere baitan gordetzen baitu.

Baldin eta, horrenbestez, erlijioa gogoaren betegintzarrea bada, eta banako *uneak* euren *oinarrira itzultzen* badira (kontzientzia, autokontzientzia, arrazoimena eta gogo) eta *itzuli* badira, orduan horiek elkarrekin gogo osoaren *hor-den errealtatea* osatzen dute, bere alderdien higadura gisa baino ez *den* gogo, ezberdintzen den eta bere baitara itzultzen den higadura dena. *Erlijioaren* bilakaera *oro har* une orokorren higaduran bilduta dago.

151

Baina atributu horietako bakoitza aurkeztu zen heinean, ez orokorrean determinatzen den bezala, baizik eta *bere baitan eta baitarako den* bezala, hau da, bere barnean osoki gisa garatzen den bezala, orduan honela erlijioaren bilakaera *oro har* sortu ez ezik alderdi *banakoen* bide osatu horiek, aldi berean, *erlijioaren beraren determinatutasunak* barnebiltzen dituzte. Gogo osoa, erlijioaren gogo, bere bitartegabekotasunetik abiatuta *bere baitan* edo bitartegabe denaren *jakitea* lortzen duen higadura da, eta gogoak kontzientziarentzat agertzen denean duen *tankera* bere zerizanarekin berdintzea eta bere burua den bezala begiestea lortzen duen higadura da. Bilakaera horretan gogoak, beraz, tankera *determinatuak* ditu, zeintzuek higadura horren bereizketak osatzen dituzten; aldi berean, horrela erlijio determinatuak era berean gogo *erreal determinatua* du. Beraz, bere burua dakien gogoari *oro har* kontzientzia, autokontzientzia, arrazoimena eta gogo egokitzen bazaizkio, orduan forma *determinatuak*, hots, kontzientziaren, autokontzientziaren, arrazoimenaren eta gogoaren barnean bakoitzean ezberdin garatzen diren formak bere burua dakien gogoaren tankera *determinatuei* dagozkie. Erlijioaren tankera determinatuak bere gogo errearentzat erlijioari egokitzen zaiona aukeratzen du bere une bakoitzaren tankera horietatik. Erlijioaren determinatutasun *bakarrak* horren hor-izate errearen alderdi guztiak zeharkatzen ditu eta horiei ezaugarri komun hori ezartzen die.

Horrela, orain arte agertu diren tankerak orain arte izan duten agerkera ordenan ez bezala ordenatzen dira, eta horri buruz, laburki, beharrezkoa dena esan behar da aurretik. Aztertu den ilara ordenatuan une bakoitza, bere baitan sakonduz, osoki bat

izateraino garatzen zen bere printzipio propioan; eta ezagutzea zen hondoa, edo gogoia, non berez iraupenik ez duten unek euren substantzia zuten. Baina substantzia hori orain agertu da; bere buruaz jabetzen den gogoaren hondoa da, zeinak printzipio banakoari ez dion baimentzen bakartzea eta bere barnean osoki bihurtzea, baizik eta une horiek guztiak bere barnean bilduz eta gordez aurrera egiten du bere gogo errealaren erresuma osoan, eta horren une berezi guztiek batera hartzen eta jasotzen dute osokiaren determinatutasun osoa euren barnean. Bere buruaz jabetzen den gogoia eta horren higidura dira une horien egiazko errealitatea, eta banako une bakoitzari dagokion *berbaitan eta berbaitarako izatea*. Beraz, baldin eta orain arte bere aurrerapenean atzerapausoak korapiloen bidez adierazten dituen ilara *bat* bageneukan, baina horietatik abiatuta luzera *batean* aurrera egiten zuela, orduan ilara korapilo horietan, une orokorretan, hautsita dago eta lerro askotan sakabanatzen da, zeintzuk sorta *batean* bilduta aldi berean simetrikoki elkartzen diren, halako moldez non bereizketa berberak, zeinetan une berezi bakoitzak bere barnean tankera hartzen zuen, elkartzen baitira. — Aurkezpen oso horretatik berez argitzen da nola ulertu behar den hemen aurkezten den noranzko orokorren koordinazioa; eta alferrikakoa da ohartaraztea bereizketa horiek zerizanez bilakaeraren une gisa ulertu behar direla, ez zati gisa; gogo errealean honen substantziaren arributuak dira, baina erlijioan subjektuaren predikatuak dira. — Era berean, forma guztiak oro har *euren baitan* edo *guretzat* gogoan eta gogo bakoitzean barnebiltzen dira; baina horren errealitatearen mamia hauxe da, alegia, horrek zein determinatutasun duen bere *kontzientzian*, non horrek bere norbera adierazten duen, edo zein tankeratan dakien horrek bere zerizana.

152

Gogo *errealaren* eta bere burua gogo gisa ezagutzen duen gogoaren arteko bereizketa, edo kontzientzia den aldetik eta autokontzientzia den aldetik egin dena, bere egian ezagutzen den gogoan gaintitzen da; bere kontzientzia eta autokontzientzia orekatzen dira. Baina hemen hasieran erlijioa *bitartegabe* baino ez denez, bereizketa hori ez da gogora itzuli. Erljioaren *adigaia* baino ez da ezarri; hor zerizana egia oro den eta horretan errealitate oro barnebiltzen duen *autokontzientzia* da. Autokontzientzia horrek, kontzientzia den aldetik, bere burua du objektutzat; *bitartegabe* bere burua baino ez dakien gogoia, beraz, gogoia da bere buruarentzat *bitartegabekotasunaren forman*, eta horrek agertzen duen tankeraren determinatutasuna *izatearena* da. izate hori, noski, ez du sentsazioak edo ekai askotarikoak, ezta bestelako une, xede eta determinazio aldekarrek ere *betetzen*, baizik eta gogoak betetzen du, eta egia oro eta errealitate oro gisa ezagutzen du bere burua. *Beteketa* hori, honenbestez, ez da bere *tankera*, zerizan gisa ez da bere kontzientzia. Hasteko, gogo absolutu gisa da errealia, horrek *bere buruaz duen ziurtasunean* den bezala bere *egian ere* badenean, edo kontzientzia gisa muturretan banatzen denean mutur horiek elkarrentzat gogotankeran direnean. Gogoak bere kontzientziaren objektu gisa hartzen duen tankeratzea gogoaren ziurtasunak nahiz substantziak betetzen dute; eduki horren bidez objektua objektibotasun hutsera, autokontzientziaren negatibotasunaren formara hondoratzea saihesten da. Gogoak bere buruarekin duen batasun bitartegabekoa da oinarria edo kontzientzia hutsa, zeinaren *barnean* kontzientzia banatzen den. Horrela, bere autokontzientzia hutsean itxita, erlijioan ez da existitzen *naturaren* sortzaile gisa; baizik eta gogoak higidura horretan ekoizten duena bere tankerak dira, gogo diren aldetik, zeintzuek elkarrekin haren agerpenaren osotasuna osatzen duten, eta higidura hori bera da haren

errealitate beteginaren bilakaera horren alderdi banakoen bitartez, edo horren errealitate osatugabeen bitartez.

153

Horren *lehen* errealitatea erlijioaren beraren adigaia da, edo erlijioa *bitartegabeko* eta, beraz, *berezko erlijio* bezala; hor gogoak bere burua daki berezko edo bitartegabeko tankera duen bere objektua den aldetik. *Bigarren* errealitatea, berriz, honakoa da halabeharrez: *berezkotasun gaindituaren* edo *norberaren* tankeran bere burua jakitea. Hori, beraz, *antzearen erlijioa* da; izan ere, tankera *norberaren* formara igotzen da kontzientziaren *ekoizpenaren* bidez, zeinaren eskutik honek bere objektuan bere egitea edo norbera begiesten duen. *Hirugarren* errealitateak, azkenik, bi lehenen aldebakartasuna gainditzen du; *nor bera bitartegabe* da, *bitartegabekotasuna norbera* den bezala. Lehen errealitatean gogoak oro har kontzientziaren forma badu, eta bigarrengoan autokontzientziarena, orduan hirugarrengoan bien arteko batasunaren forma du; *berbaitan eta berbaitarako izatearen* tankera du; eta, gainera, bere baitan eta bere baitarako den moduan errepresentatzen den heinean, orduan hori *agerkundearen erlijioa* da. Gogoak hor bere egiazko *tankera* lortzen badu, orduan *tankera* bera eta *errepresentazioa* oraindik gainditu ez den aldea dira, hortik gogoak *adigaira* igaro behar baitu, bere barnean objektibotasunaren forma guztiz desegitearren, era berean bere aurkakoa biltzen duen horren barnean. Horrela, gogoak bere buruaren adigaia atzematen du, guk orain azkenik gogoak atzeman dugun moduan, eta bere tankera edo bere hor-izatearen osagaia, hori adigaia den heinean, gogoak bera da.

A. Berezko erlijioa

154

Gogoa dakien gogoa bere buruaren kontzientzia da, eta berez da objektibitatearen forman; gogoa *da*; eta, aldi berean, *berbaitarako izatea* da. *Hori bere baitarako da*, autokontzientziaren alderdia da, eta, gainera, bere kontzientziaren alderdiaren edo bere buruarekin *objektu* gisa lotzearen alderdiaren aurka. Bere kontzientzian aurkakotza da, eta horren bidez tankeraren *determinatutasuna*, non gogoa agertzen den eta bere burua dakien. Eta hori baino ez da autua erlijioaren ikuspegi honetan, bere zerizan tankeragabea edo horren adigai hutsa lehen ere aztertu baitugu. Kontzientziaren eta autokontzientziaren arteko bereizketa aldi berean azken horretan kokatzen da; erlijioaren tankerak ez du barnebiltzen gogoaren hor-izatea, pentsamendutik aske den natura gisa, ezta hor-izateatik aske den pentsamendu gisa ere; baizik eta pentsamenduan barnebilduta dagoen hor-izatea da, pentsatu den zerbait gisa, hor dagoena. Gogoak bere burua dakien tankera horren *determinatutasunaren* arabera ezberdintzen da erlijio bat bestetarik; baina aldi berean ohartarazi behar da bere buruaren jakite horren aurkezpenak, *determinatutasun banako* horren arabera egiten denak, egitatean ez duela agortzen erlijio erreale baten osokia. Sortzen den erlijio ezberdinen ilarak, era berean, bakar batean hainbat alderdi aurkezten ditu, eta gainera *bakar bakoitzarenak*, eta erlijio erreale bat itxuraz besteetatik bereizten duten errepresentazioak bakoitzean agertzen dira. Baina, aldi berean, ezberdintasuna erlijioen arteko ezberdintasun gisa ere hartu behar da. Izan ere, gogoak bere kontzientziaren eta autokontzientziaren bereizketan kokatzen den heinean, higidurak bereizketa nagusi hori gainditzeko helburua du eta tankerari, kontzientziaren objektua denari, autokontzientziaren forma emateko helburua. Baina bereizketa hori ez da honen bidez gainditzen, hots, hark barnebiltzen dituen tankerak norberaren unea ere euren baitan izatea, eta jainkoa *autokontzientzia gisa errerepresentatzea*. Norbera *errerepresentatua* ez da norbera *erreal*; tankeraren beste determinazio zehatzago bakoitza bezala egiatan honen zati izan dadin, hori aldeztu autokontzientziaren egitearen bidez hartan ezarri behar da, aldeztu behe determinazioa goi determinazioak gainditu duela eta aditu behar duela argitu behar da. Izan ere, errerepresentatua denak errerepresentatua izateari eta bere jakiteari arrotz izateari soilik uzten dio norberak ekoiztu duenean, eta orduan objektuaren determinazioa *berea* bailitzan hartzen du eta, horrenbestez, horretan bere burua begiesten du. — Egiletasun honen bidez behe determinazioa aldi berean desagertzen da; izan ere, egitea negatiboa da, beste baten bizkanetik garatzen den egitea; determinazio hori oraindik ere agertzen den heinean, zerizangabetasunera itzuli da; bestalde, behe determinazioa nagusi denean, baina goi determinazioa agertzen bada, orduan batak norbera gabe bestean hartzen du lekua ondoren.

155

Beraz, erlijio bakan baten barneko errepresentazio ezberdinek horien formen higidura osoa aurkezten badute, orduan horietako bakoitzaren izaera kontzientziaren eta autokontzientziaren batasun bereziak determinatzen du, hau da, azken horrek lehenaren objektuaren determinazioa jasotzen duelako bere barnean, bere egitearen bidez guztiz bereganatzen duelako eta hori zerizanezko gisa dakielako bestean aurrean. — Erljio-gogoaren determinazioan dugun sinesmenaren egia erakusten da gogo *erreal* eratuta dagoelako hori erlijioan begiesten den tankera bezala, adibidez, jainkoa gizaki bihurtzeak, ekialdeko erlijioetan agertzen denak, ez du egiaz, horren

gogo errealak ez baitu adiskidetze hori. — Ez da egokia orain determinazioen osotasunetik banakoetara itzultzea eta erakustea zein tankeratan barnebiltzen den euren barnean eta euren erlijio berezian beste guztien osotasuna. Forma garaia goa behekoaren azpian ezartzen bada, norberaren buruaren jabe den gogoarentzat esanahia galtzen du, gogoari eta bere errepresentazioari azalean baino ez dagokio. Hori bere esanahi berezian aztertu behar da, erlijio berezi horren printzipio den eta erlijio horren gogo errealaren bermea duen lekuan.

a. ARGIZKO ZERIZANA

Gogoia, *autokontzientzia* den *zerizan* gisa, edo norberaren buruaren jabe den zerizana, egia oro dena eta errealtate oro bere burua bezala dakiena, bere kontzientziaren higiduran bere buruari ematen dion errealtatearen aurrean hasiera batean *bere adigaita* baino ez da, eta adigaita hori garapen horren egunaren aurrean bere zerizanaren gaua da, bere uneen hor-izatearen aurrean, tankera beregainak diren aldetik, bere jaiotzaren sekretu sortzailea. Sekretu horrek bere barnean du bere agerkundea; izan ere, hor-izateak adigaita horretan du bere beharrezkotasuna, hori bere burua dakien gogoia baita, eta, beraz, bere zerizanean kontzientzia izateko eta bere burua objektiboki errerepresentatzeko unea duelako. — Nia hutsa da, zeinak bere baitatik at irtetean bere barnean *objektu orokor* gisa bere buruaren ziurtasuna duen, edo objektu hori niarentzat pentsatze ororen eta errealtate ororen zeharkatzea da.

156

Bere burua dakien gogo absolutuaren lehen bikoizketa bitartegabekoan horren tankerak *bitartegabeko kontzientzian* edo *sentipenezko* ziurtasunari dagokion determinazioa du. *Izatearen* forman begiesten du bere burua, baina ez sentsazioaren determinazio ausazkoez betea dagoen *izate* gogogabearen forman, sentipenezko ziurtasunari dagokionean, baizik eta gogoak betetzen duen izatea da. Era berean, bere barnean jasotzen du *autokontzientzia* bitartegabekoan agertu zen forma, *nagusia*ren forma bere objektutik atzera egiten duen gogoaren autokontzientziaren aurrean. — Gogoaren adigaitak betetzen duen *izate* hori, beraz, gogoak bere buruarekin duen harreman *sinplearen tankera* da, edo tankeragabeziaren tankera. Determinazio horri esker egunsentiaren *argizko zerizana* da, dena barnebiltzen duena eta dena betetzen duena, bere substantziatasun formagabearen bere burua mantentzen duena. Horren beste-izatea era berean sinplea den negatibo-dena da, *iluntasuna*; horren higidurak bere baitatik at irteteko, bere beste-izatearen osagai erresistentziagabekoan egiten dituen sorkuntzak argi-isurketak dira, euren sinpletasunean aldi berean berbaitarako bihurtzea eta bere horizatetiko itzulera dira, tankeratzea jaten duten su-adarrak. Bere buruari ematen dion bereizketa hor-izatearen substantzian hedatzen da, eta horrek naturaren formen tankera hartzen du; baina honen pentsatzearen zerizanezko sinpletasuna horietan dabil kulunkari eta ulertezin, euren mugak hedatzen dituzte neurrigabekoraino, eta oparoa izateraino iritsi den euren edertasuna horren bikaintasunean desegiten da.

Izate huts honek garatzen duen edukia, edo horren hautematea, beraz, substantzia honekin zerizangabe jostatzea da, *goratu* besterik egiten ez den substantzia bere baitara *beheititu* gabe, subjektu bihurtu gabe eta norberaren bidez bere bereizketak finkatu gabe. Horren determinazioak beregaintasuna izatea lortzen ez duten arributuak dira, baizik eta izen asko dituen Bataren izena baino ez dira. Hori

hor-izatearen hainbat indarrez eta errealtatearen hainbat tankeraz janzten da norberarik gabeko edergarri batez izango balitz bezala; horiek haren boterearen nahimen propiorik gabeko mezulariak dira, haren nagusitasunaren begiespenak eta haren goraiamenaren ahotsak.

Baina bizitza kulunkari horrek bere burua *berbaitarako izate* gisa determinatu behar du eta bere tankera desagerkorrei iraupena eman behar die. *izate bitartegabekoa*, non hori bere kontzientziaren aurrean ezartzen den, botere *negatiboa* da, bere bereizketak desegiten dituena. Beraz, egiatan *norbera* da; eta horregatik gogo bere burua norberaren forman jakitera igarotzen da. Argi hutsak bere sinpletasuna formen amaigabetasun gisa sakabanatzen du, eta bere burua eskaintzen dio opari gisa *berbaitarako izateari*, halako moldez non banako-denak haren substantziarik jasotzen baitu iraupena.

157

b. LANDAREA ETA ANIMALIA

Norberaren buruaz jabetzen den gogoak, zerizan tankeragabekotik bere barnera igaro denak edo bere bitartegabekotasuna oro har norbera izatera igo duenak, bere sinpletasuna *berbaitarako izatearen* aniztasun gisa determinatzen du, *gogo-hautemapenaren* erlijioa da, non gogo gogo ahulago eta indartsuagoen, aberatsago eta txiroagoen askotasun zenbatezinean sakabanatzen den. Panteismo hori, hasiera batean gogo-atomo horien iraupen *lasaia* dena, bere barnean higidura *etsaikor* bihurtzen da. *Lorearen erlijioaren* inozotasuna, norberaren norberarik gabeko errepresentazioa baino ez dena, borrokatzen duen bizitzaren seriotasun izatera igarotzen da, *animaliaren erlijioaren* hobena izatera, begiesten duen indibidualtasunaren lasaitasuna eta ezintasuna *berbaitarako izatea* deuseztatzaile izatera heltzen da. Alferrik da hautemapenaren gauzei *abstrakzioaren heriotza* kentzea eta horiek gogo-hautemapenaren zerizan izateraino goratzea; gogo-erresuma honen bizitzeak heriotza du hartan determinatutasunaren eta negatibotasunaren eskutik, haren axolagabetasun inozoan sartzen den heriotza. Horren bidez landare-tankera lasaien aniztasunean sakabanatzea higidura *etsaikor* bihurtzen da, non euren *berbaitarako izatearen* gorrotoak agortzen dituen. Gogo sakabanatu horren autokontzientzia *erreal*a herri-gogo banakotu eta lagungabeen multzoa da, euren gonotoan heriotzaraino elkar borrokatzen dute eta animalia-tankera jakinez jabetzen dira euren zerizan gisa, ez baitira animalia-gogoak baino, orokortasunik ez izateaz jabetzen den animalia-bizitza banatzailea baino.

Gorroto horretan, ordea, negatiboa baino ez den *berbaitarako izatea* agortzen da, eta adigaiaren higidura horren bidez gogo beste tankera batean agertzen da. *Berbaitarako izate gainditua objektuaren forma* da, norberak ekoiztu duena edo norbera ekoiztua, bere burua agortzen duen norbera, hau da, gauza bihurtzen den norbera dena. Elkar txikitzen duten animalia-gogoen gain gailentzen da, beraz, langilea, zeinaren egitea ez den soilik negatiboa, baizik eta *lasaia* eta positiboa. Gogoaren kontzientzia, beraz, aurrerantzean *berbaitan izate* bitartegabekoaz nahiz *berbaitarako izate* abstraktuaz haraindi dagoen higidura da. *Berbaitana* aurkakotzaren bidez determinatutasun batera behehitzen den heinean, hori ez da gehiago gogo absolutuaren forma propioa, baizik eta errealtate bat, zeinak bere kontzientzia bere buruari aurkakotuta aurkitzen duen hor-izate arrunt gisa eta hori

gainditzten duen, eta, era berean, ez den berbaitarako izate gainditzaille hori, baizik eta honen errepresentazioa ere sortzen duen, objektu baten formara beheitzen den berbaitarako izatea. Sortze-ekintza hori ez da oraindik, ordea, egiletasun betegina, baizik eta baldintzatua, eta eskura dagoenari forma ematea.

158

c. ARTISAUA

Gogoia hemen, beraz, *artisaia* gisa agertzen da, eta honen egitea (zeinaren bidez horrek bere burua objektu gisa ekoizten duen, baina bere buruaren pentsamenduan oraindik atzeman gabe) senaren lan bat da, erleek euren gelatxoak eraikitzen dituzten modura.

Lehen forma, bitartegabekoa denez, adimenaren forma abstraktua da, eta emaitza ez dago oraindik bere baitan gogoz betea. Forma zorrotzaren artisaia honen lanak piramide eta obeliskoen beirak dira, lerro zuzenen lotura sinpleak, azalera lauak eta zatien arteko proportzio berdinak dituztenak, zeinetan biribilaren neurgaiztasuna baliogabetuta dagoen. Formaren adigarritasun soila dela eta, hori ez da bere esanahia bere baitan, gogozko norbera. Emaitzek, beraz, gogoia euren barnean jasotzen dute, agurra eman zaion gogo arrotz gisa, errealtatearekin duen elkar-hartze bizia utzi duena eta, hilda, bizitarik ez duten beira horietara itzultzen dena; edo kanporik lotzen zaizkio gogoari, bere aldetik kanpotik eta ez gogo gisa hor dagoenari, bere esanahia horietara jaurtitzen duen goizeko argia den aldetik.

Gogo langilearen abiapuntua den banaketa, *berbaitan izatearen*, horrek lantzen duen ekai bihurtzen denaren, eta *berbaitarako izatearen*, autokontzientzia langilearen *alderdia* denaren artekoa, bere emaitzan objektibo bihurtu zaio. Bere ahaleginak asmo hau izan behar du, alegia, arimaren eta soinen arteko banaketa gainditzea, hura bere baitan janztea eta tankeratzea, eta hori, bestalde, biziaraztea. Bi alderdiek, gertuago jartzen diren heinean, horrela gogo errepresentatuaren eta hori inguratzen duen geruzaren determinatutasuna mantentzen dute; bere buruarekiko batasunak banakotasunaren eta orokortasunaren arteko aurkakotza hori barnebiltzen du. Emaitza bere alderdietan bere baitara hurbiltzen den heinean, bestea ere gertatzen da, hau da, autokontzientzia langileari hurbiltzen zaiola, eta horrek bere burua jakitea lortzen du emaitzan, bere baitan eta bere baitarako den moduan. Baina, horrela, gogoaren *egiletasunaren* alderdi abstraktua baino ez du osatzen, zeinak oraindik ez dakien bere edukia bere barnean, baizik eta bere emaitzan, hau da, gauza batean. Artisaia bera, gogo osoa, ez da oraindik agertu, baizik eta oraindik barnean ezkutatuta dagoen zerizana da, zeina osoki gisa hor aurrean zatituta baino ez dagoen, autokontzientzia ekilean eta horrek ekoiztutako objektuan.

159

Inguruko eraikina, kanpoko errealtatea, adimenaren forma abstraktura baino goratzen ez dena, artisaia forma bizi bihurtzen du. Landareen bizitza, jadanik aurreko panteismo ezindua ez bezala santua ez dena, honek bere burua berbaitarako den zerizan gisa ulertzen duenak baliagarri gisa hartzen du, eta atzean uzten da kanpoko alderdi eta edergarri gisa. Ez du, ordea, aldatu gabe erabiltzen, baizik eta norberaren buruaren jabe den formaren langileak aldi berean baliogabetu egiten du bizitza horren existentzia bitartegabekoak bere baitan daukan iraungitasuna, eta

horren forma organikoak pentsamenduaren forma zonotzago eta orokorragoetara hurbiltzen ditu. Forma organikoak, aske uzten denean berezitasunean hedatzen denak, baina bere aldetik pentsamenduaren formak menperatzen duela, altxa egiten ditu, bestalde, tankera zuzen eta lau horiek biribilketa bizietara; nahasketa hori da arkitektura askearen erroa.

Etxebizitza horrek, *osagai orokorraren* edo gogoaren izaera ezorganikoaren alderdiak *banakotasunaren* tankera bat ere jasotzen du bere barnean, zeinak lehen hor-izatek bananduta zegoen gogo, honi barneko edo kanpoko zitzaion gogo, errealitateari hurbiltzen dion eta horren bidez emaitza autokontzientzia ekilearen berdinago bihurtzen duen. Langileak leherrik *berbaitarako izatera* jotzen du oro har, *anima lia-tankerara*. Bere buruaz bitartegabe animalia-bizitzan gehiago jabetzen ez dela honela frogatzen du, hots, horren aurrean bere burua indar ekoizle gisa eratzten duela eta hor *bere* emaitza bezala bere burua dakiela; eta horren bidez aldi berean hori indar gainditu bihurtzen du, eta beste esanahia duen hieroglifikoa, pentsamendu batena. Horregatik, ez du langileak soilik eta osorik erabiltzen, baizik eta pentsamenduaren tankerarekin nahasita, giza tankerarekin nahasita. Baina emaitzari oraindik tankera eta hor-izate bat falta zaio, non norbera norbera gisa existitzen den; falta zaio bere baitan adieraztea bere barnean barne esanahi bat jasotzen duela; hizkuntza falta zaio, zentzu betegarria eskura ematen duen osagaia. Horregatik, emaitza, animalari dagokionaz araztu den arren eta bere baitan autokontzientziaren tankera soilik duen arren, oraindik ere doinurik ez duen tankera da, gorantz doan eguzkiaren izpiak behar dituen, doinua izateko, zeina argiak ekoiztu duenez soinu baino ez den, ez hizkuntza, kanpoko norbera besterik ez duen erakusten, ez barnekoa.

160

Tankeraren norbera kanpoko honen aurrean bestea dago, zeinak iragartzen duen *barneko-den* bat duela bere baitan. Horren zerizanera atzera egiten duen izaerak haren aniztasun bizia, banakotzen dena eta bere higiduran nahasten dena, zerizangabeko egitura huts batera behehitzen du, *barneko-denaren estalkia* denera; eta barneko-den hori hasiera batean iluntasun sinplea da, higitzen ez dena, harri beltz formagabea¹¹.

Bi aurkezpenek *barnekotasuna* eta *hor-izatea* barnebiltzen dituzte, gogoaren bi unek; eta bi aurkezpenek horiek aldi berean erlazio aurkakotuetan barnebiltzen dituzte, norbera barneko-den gisa nahiz kanpoko-den gisa. Biak batu behar dira. — Gizaitxurako estatuen arima ez dator barneko-denetik oraindik, ez da hizkuntza oraindik, bere baitan barnekoa den hor-izatea, eta forma asko dituen hor-izatearen barneko-dena doinurik gabekoa da oraindik, bere baitan bere baitatik bereizten ez dena, eta bere kanpoko-denetik, zeinari bereizketa oro dagokion, bananduta dagoena oraindik. — Artisauak biak batzen ditu, beraz, tankera berezkoaren eta norberaren buruaz jabetzen denaren arteko nahasketan, eta bi zerizan zentzubiko horiek, eurentzat ere misteriotsuak direnak, bere buruaz jabetzen dena bere buruaz jabetzen ez denarekin borrokan, barneko-den sinplea tankera asko dituen kanpokodenarekin, pentsamenduaren iluntasuna adierazpenaren argitasunarekin erkatuz, jakituria sakon eta zailki adigarriaren hizkuntzan sartzen dira indarrez.

Emaitza horretan amaitzen da emaitza kontzientziarik gabekoak autokontzientziaren aurrean ekoiztu zuen senezko lana; izan ere, hor

¹¹ Mekan dagoen harria (itzultzaileen oharra).

autokontzientzia osatzen duen artisauaren egiletasunari aurre egiten dio era berean bere buruaz jabetzen den eta adierazten den barneko-denak. Hor nekez bere kontzientiaren bikoizketa hori lortu du, non gogoak gogo topatzen duen. Bere buruaz jabetzen den gogoak bere buruarekin duen batasun horretan, hori bere kontzientiaren tankera eta objektu den heinean, araztu egiten dira natur tankera bitartegabekoaren modu kontzientzia gabekoarekin dituen nahasketak. Tankera, hizkera eta egitateari dagokienez munstroak diren horiek gogo-tankeran desegiten dira, bere baitara doan kanpoko-den batean eta bere baitatik eta bere baitan adierazten den barneko-den batean; pentsamenduan, bere burua sortzen duen eta bere tankera horren arabera mantentzen duen hor-izate argia den horretan. Gogo *artista* da.

B. Antzearen erlijioa

Gogoak bere kontzientziarentzat hor egotea dakarren tankera kontzientzia beraren formara igo du, eta halako bat ekoizten du. Artisauak utzi egin dio lan *sintetikoa* egiteari, pentsamenduaren eta berezkoa denaren forma arrotzak *nahasteari*; tankerak norberaren buruaren jabe den egiletasunaren forma lortu duen heinean, gogo-lan bihurtu da.

Galdetzen badugu zein den antzearen erlijioan bere zerizan absolutuaren kontzientzia duen gogo *erreal*, orduan ondorioztatzen da gogo *etiko* edo *egiazko* gogo delat. Ez da soilik banako-den ororen substantzia orokorra, baizik eta horrek kontzientzia errearentzat kontzientziaren tankera duenez horrek esan nahi du substantzia, indibidualizazioa duena, indibiduoek euren zerizan eta emaitza propio gisa dakitela. Beraz, substantzia horientzat ez da argizko zerizana, zeinaren batasunean autokontzientziaren berbaitarako izatea negatiboki, era iraungikorrean soilik barnebiltzen den eta bere errealtatearen nagusia begiesten duen, ezta elkar gorrotatzen duten herrien deuseztapen etengabea ere, ezta horiek kasten moduan menpekotzea ere, batera osoki osatu baten antolaketaren itxura lukeena baina indibiduoaren askatasun orokorra falta zaiona. Baizik eta herri askea da, non ohiturak guztien substantzia osatzen duen, zeinaren errealtatea eta hor-izatea guztiek eta banako bakoitzak dakizkien euren nahimen eta egitate gisa.

Gogo etikoaren erlijioa, ordea, bere errealtateaz haraindi goratzea da, *bere egiatik* atzera joatea *bere buruaren jakite* hutsera. Herri etikoa bere substantziarekiko batasun bitartegabekoan bizi den heinean eta autokontzientziaren banakotasun hutsaren printzipioa bere baitan ez duen heinean, orduan bere erlijioa bere osaketan bere *iraupenetik bananduz* agertzen da. Izan ere, substantzia etikoaren *errealtateak*, aldeztu, autokontzientziaren higidura absolutuaren aurkako *aldaeizintasun* lasaian hartzen du oin, eta, beraz, autokontzientzia bere ohitura lasaitik eta bere konfiantza finkotik bere barnera ez joatean; eta, aldeztu, bere antolaketan hartzen du oin hainbat eskubide eta betebeharetan, eta gainera, horrela sortzen den banaketan hainbat estamentutan eta euren egite berezietan, osokia lortzeko elkartzen denean; eta, beraz, banako-dena bere hor-izatearen mugaketarekin askiestean eta bere norbera askearen pentsamendu mugagabea oraindik ez ulertu izatean. Baina substantzian genuen konfiantza *bitartegabeko* lasai hura *norberarenganako* konfiantza eta *norberaren ziurtasun* bihurtzen da, eta eskubide eta betebeharen askotasuna nahiz egite mugatua etiko-denaren higidura dialektiko bera da gauzen eta euren determinazioaren askotasunaren aldean; lasaitasuna eta finkotasuna bere buruaz ziur dagoen gogoaren sinpletasunean baino aurkitzen ez duen higidura. Etikotasunaren osaketa, autokontzientzia aske bihurtuz, eta mundu etikoaren patua, beraz, bere barnera joan den indibidualtasuna da, gogo etikoaren arintasun absolutua, zeinak bere iraupenaren bereizketa finko guztiak eta bere antolamendu organikoaren masak bere barnean desegin dituen, eta bere buruaz erabat seguru poztasun mugagabea eta bere buruaren gozamen askeena lortu duen. Gogoak bere barnean duen ziurtasun simple hori zentzubiko-dena da, iraupen lasaia eta egia finkoa, baita ezinegon absolutua eta etikotasunaren heriotza izatekoa ere. Baina azken hori bihurtzen da,

gogo etikoaren egia hasiera batean oraindik zerizan eta konfiantza substantziadun hori besterik ez baita, non norberak bere burua ez dakien banakotasun aske gisa, eta, beraz, hondoratu egiten da banekotasun horretan edo norberaren askapenean. Beraz, konfiantza hautsi den heinean, herriaren substantzia bere barnean apurtu den heinean, orduan gogo, mutur aldakonen erdigunea zena, orain bere burua zerizan gisa atzematen duen autokontzientziaren muturrean agertzen da. Bere buruaz ziur den gogo da, bere munduaren galera arrenkuratzen duena eta bere zerizana, errealtateaz haraindi duena, norberaren araztasunetik abiatuta ekoizten duena.

Halako garaietan antze absolutua sortzen da; lehenago senezko lan egitea da, horizatean hondoratuta horretatik irteten dena eta honetan sartzen dena, eta bere substantzia ez duena etikotasun askean, eta honegatik gogo-egiletasun askea ez duena norbera langilearentzat. Gerora, gogo antzeaz haraindi doa, bere aurkezpen garaiena lortzeko; hau da, ez soilik norberarengandik jaiotzen den *substantzia*, baizik eta bere aurkezpenean objektu den aldetik *norbera hori* izatea; ez soilik bere adigaitik abiatuta bere burua sortzea, baizik eta bere adigaia tankera gisa izatea, halako moldez non adigaiak eta antze-lan ekoiztuak elkar ezagutzen duten gauza bat eta berbera bezala.

163

Substantzia etikoa, beraz, bere hor-izateetik bere autokontzientzia hutsera itzuli den heinean, hori adigaiaren edo *egiletasunaren* alderdia da, eta honekin gogoak bere burua objektu gisa sortzen du. Forma hutsa da, zeren banako-denak menekotasun eta zerbitzu etikoan bere buruaz jabetzen ez den hor-izate eta determinazio finko oro kendu baititu, substantzia bera zerizan isurkari hori bihurtu den moduan. Forma hori gaua da, non substantzia saldua izan den eta subjektu bihurtu zen; gogo etikoa bere buruaren ziurtasun huts horren gauetik berpizten da, naturatik eta bere hor-izate bitartegabekotik askatutako tankera gisa.

Adigai hutsaren *existentzia*, non gogoak bere soinetik ihes egin duen, gogoak bere minaren edukiontzi gisa hautatu duen indibiduo bat da. Horretan gogo bere orokordena eta bere boterea bezala da, bortxatzen duen boterea; bere jasapena da, eta horri emanik bere autokontzientziak askatasuna galtzen du. Baina orokortasunaren botere positibo hari indibiduoaren norbera hutsa gailentzen zaio, botere negatiboa den aldetik. Egiletasun huts horrek, galdu ezin duen indarrak jabetzen dela, zerizan tankeragabekoarekin egiten du borrokan; honen maisu bihurtuz, jasapena bere ekai bihurtu du eta horren edukia eman dio bere buruari, eta batasun hori agertzen da emaitza gisa, gogo orokorra banakotuta eta errepresentatuta.

a. ANTZE-LAN ABSTRAKTUA

Lehen antze-lana, bitartegabekoa den aldetik, abstraktua eta banakoa da. Bere aldetik, modu bitartegabeko eta objektibotik autokontzientziarantz higitu behar du, eta bestalde, autokontzientziak bere baitarako kultuan bereizkuntza gainditzeko asmoa du, hasieran bere gogoarekiko bereizkuntza dena, eta horren bidez bere baitan bizia duen antze-lana ekoizteko asmoa du.

164

Lehen modua bitartegabeko modua da, non antze-gogoak bere tankera eta bere kontzientzia ekilea gehien banatzen dituen elkarrengandik, hots, tankera *hor dago gauza* gisa oro har. — Modu horretan tankera banatu egiten da banakotasunaren,

norberaren tankera bere baitan daukanaren, eta orokortasunaren, zerizan ez-organikoa tankerari dagokionez bere inguru eta etxebizitza gisa aurkezten duenaren arteko bereizketan. Tankera horrek gogoari dagokion forma hutsa lortzen du, osokia adigai hutsera goratuz. Ez da beira adigarria, hilda dagoenaren egoitza dena, edo kanpoko arimak argitzen duena, ezta landaretik leherrik sortzen den nahasketa ere, naturaren eta pentsamenduaren formena, zeinaren egiletasuna hemen oraindik ere *imitazioa* den. Baizik eta adigaiak soinetik kentzen ditu oraindik formei erroan, adarretan eta orrietan itsasten zaiena, eta araztu egiten ditu irudi bihurtuz, non beiraren lerro zuzena eta lautasuna erlazioa neurtezinetara goratzen diren, halako moldez non organiko-denaren bizitza adimenaren forma abstraktuan jasotzen baita eta, aldi berean, adimenarentzat bere zerizana, neurtezintasuna, gordetzen baita.

Barnean bizi den jainkoa, ordea, animalia-aren zuloatik irten den harri beltza da, kontzientziaren argiak zeharkatzen duena. Giza tankerak berearekin nahastuta zuen animalia-tankera soinetik kentzen du; animalia jainkoarentzat ausazko mozorroa baino ez da; bere egiazko tankerarekin batera agertzen da, eta ez du balio berez aurrerantzean, baizik eta beste baten esanahi izatera, zeinu soil izatera beheitzen da. Jainkoaren tankerak horren bidez bere baitan animalia-aren hor-izatearen berezko baldintzen premiatasuna kentzen du soinetik, eta bizitza organikoaren barne eraketak iradokitzen ditu bere azalean urtuta daudela eta horri soilik dagozkiola. Jainkoaren *zerizana*, ordea, naturaren horizate orokorraren eta bere buruaz jabetzen den gogoaren, bere errealitatean hari itxuraz aurkakotzen zaion gogoaren arteko batasuna da. Aldi berean, hasteko, tankera *banako* bat izaki, bere hor-izatea naturaren osagaietako bat da, bere buruaz jabetzen den errealitatea gogo-herri banakoa den bezala. Baina hura batasun horretan gogoan islatzen den osagaia da, pentsamenduaren bidez eraldatutako natura, bere buruaz jabetzen den bizitzarekin batuta dagoen natura. Jainko-tankerak, horregatik, bere natur osagaia osagai gainditu gisa du, bere barnean duen oroitzapen ilun bat bezala. Osagaien hor-izate askearen zerizan kaotiko eta borroka nahasia, titarren erresuma ez-etikoa, gailendua da, eta baztertu egiten da argi bihurtu den errealitatearen ertzera, gogoan dagoen mundu lasaiaren muga uhenetara. Jainko zahar horiek, non argizko zerizana iluntasunarekin erkatuz leherrik bereizten den, alegia, zerua, lurra, itsasoa, eguzkia, lurraren suzko haize itsua, beste tankerek ordezkatzeko dituzten, hots, euren baitan ilunki titan horien oroimena baino ez dutenek, eta natur zerizanak ez direnek, baizik eta euren buruez jabetzen diren herrien gogo etiko argiak direnek.

165

Tankera sinple horrek, beraz, banakotze amaigabearen ezinegona (horrena, natur osagaia den aldetik, zerizan orokor gisa baino ez dena beharrezko, baina bere hor-izatean eta higiduran ausazko eran jokatzen duena, eta horrena, herriarena den aldetik, egitearen masa berezian eta autokontzientziaren banako puntuetan sakabanatuta egonik, zentzu eta egite askotariko hor-izate bat duena) baliogabetu du bere baitan eta indibidualtasun lasaian bildu du. Horren aurrean, beraz, ezinegonaren unea dago, *zerizanaren* aurrean *autokontzientzia*, zeinak ezinegon horren jaioleku gisa ez duen ezer gordetzen beretzat, salbu *egiletasun hutsa* izatea. Substantziari dagokiona artistak osoki emaitzari ematen dio, baina bere emaitzan bere buruari, ordea, indibidualtasun determinatu bezala ez dio ezein errealitateari ematen; emaitzari osaketa eman ziezaiokeen soilik bere berezitasuna bere baitatik erauziz eta, soina utziz, egite hutsaren abstrakzioa goratuz. — Bitartegabeko lehen sorkuntza honetan emaitzaren eta bere buruaz jabetzen den egiletasunaren arteko banaketa ez

dago berriro batuta; emaitza ez da, beraz, bere baitarako benetan bizitua, baizik eta *osokia* da, baina bere *bilakaerarekin* batera besterik ez. Antze-lanean komun dena, alegia, kontzientzian sortzen dela eta giza eskuek egiten dutela, adigai gisa existitzen den adigaiaren unea da, horri aurkakotzen zaiona. Eta adigai hori, artista edo behatzaile gisa hain eskuzabala bada, non antze-lana bere baitan absolutuki bizi gisa adierazten baitu eta bere burua, ekilea edo begieslea, ahazten baitu, bada, aitzitik, bere buruaz jabetzeko unea baztertu ezin duen gogoaren adigaiari eutsi behar zaio. Baina une hori emaitzari aurkakotzen zaio, zeren gogoak bere lehen bikoizketa horretan bi alderdiei *egitearen* eta *gauza* izatearen euren determinazio abstraktuak ematen baitizkie, eta horiek ez dira itzuli oraindik euren abiapuntu zen batasunera.

166

Artistak, beraz, bere emaitzan ikusten du *bere antzeko zerizanik ez duela* ekoiztu. Hortik, noski, kontzientzia bat datorkio atzera, halako moldez non jendetza miretsi batek ohoratzen baitu bere zerizana den gogo gisa. Baina bizitze hori, horri autokontzientzia miresmen gisa soilik itzultzen dion heinean, horrek artistari egiten dion aitorten bat da gehienbat, hori bezalakoa ez dela dioena. Oro har poztasun gisa itzultzen denez, artistak hor ez du aurkitzen bere garapenaren eta soneraren mina, ez du bere lanaren nekea aurkitzen. Horiek emaitza juzgatuko dute edo oparia ekarriko diote, edonola dela ere euren kontzientzia hor ezarriko dute, eta horiek euren ezagupenarekin gainean ezartzen badira, horrek badaki zenbat balio duen bere *egitateak* bere ulermenaren eta hizketaren aldean; *azpian* ezartzen badira eta horretan menpekotzen dituen *zerizana* ezagutzen badu, haren maisu bezala ezagutzen du bere burua.

Antze-lanak, beraz, bere hor-izatearen beste osagai bat eskatzen du, eta jainkoak hori ez den beste sorrera, non bere gau sortzailearen sakonetik aurkakoan erortzen den, kanpokotasunean, bere buruaz jabetzen ez den *gauzaren* determinazioan. Osagai garaiago hori *hizkuntza* da, bitartegabe bere buruaz jabetzen den hor-izate bat dena. Hor *banako* autokontzientzia dago eta, era berean, kutsadura *orokor* bat bezala da bitartegabe; berbaitarako izatearen bereizketa osoa, aldi berean, norbera askoren isuria eta orokorki iragarritako batasuna da; arima gisa existitzen den arima da. Beraz, hizkuntza bere tankeraren osagai gisa duen jainkoa bere baitan bizituta dagoen antze-lana da, zeinak bitartegabe bere hor-izatean egiletasun hutsa daukan, gauza gisa existitzen zenean aurkakotzen zitzaiona. Edo autokontzientzia bere baitan geratzen da bere zerizanaren objektibo bihurtzean. Bere zerizanean bere baitan izanik, pentsatze *hutsa* da edo jarespena, zeinaren *barnekotasunak* aldi berean *hor-izatea* duen ereserkian. Horrek autokontzientziaren banakotasuna gordetzen du bere barnean, eta horri entzunez banakotasun hori aldi berean orokor bezala da hor; jarespena, denongan piztuta, gogo-isurkia da, autokontzientziaren askotarikotasunean bere buruaz jabetzen dena guztien *egite* berbera gisa eta *izate sinple* gisa; gogoak guztien autokontzientzia orokorra den aldetik batasun *batean* ditu bai bere barnekotasuna, bai beste batentzat izatea, baita banako-denaren berbaitarako izatea ere.

167

Hizkuntza hori jainkoaren beste hizkuntza batetik bereizten da, autokontzientzia orokorrarena ez dena. Antze-erlijioaren eta aurreko erlijioen jainkoaren *orakulua* horren lehen hizkuntza beharrezkoa da, zeren horren *adigai*an jasotzen baita naturaren zerizana eta gogoaren zerizana dela, eta, beraz, hor-izate berezkoa ez ezik gogozkoa ere baduela. Une hori leherrik bere *adigai*an datzan heinean, eta oraindik

erlijioan egikaritu ez den heinean, hizkuntza erlijioaren autokontzientziarentzat autokontzientzia *arrotz* baten hizkuntza da. Bere taldeari arrotza zaion autokontzientzia ez *da hor* oraindik bere adigaiak eskatzen duen moduan. Norbera berbaitarako izate simple eta, beraz, guztiz *orokorra* da; hori, ordea, faldearen autokontzientziatik bananduta dagoena, leherrik *banakoa* baino ez da. Hizkuntza propio eta banako horren edukia determinatutasun orokorretik ondorioztatzen da, non gogo absolutua oro har bere erlijioan ezartzen den. Egunsentiaren gogo orokorrak, bere hor-izatea oraindik berezitu ez duenak, zerizanaz era berean sinpleak eta orokorrak diren esakuneak adierazten ditu, zeinen eduki substantziaduna bikaina den euren egia sinplean, baina orokortasun hori dela eta, areago garatzen ari den autokontzientziari aldi berean arrunta iruditzen zaion.

Gehiago garatu den norbera, bere burua *berbaitarako izatera* goratzen duena, substantziaren jasapen hutsaren maisu da, sortzen ari den argizko zerizanaren objektibotasunaren maisu, eta egiaren sinpletasun hura *berbaitan dena* bezala du, zeinak ez duen hor-izate ausazkoaren forma hizkuntza arrotz baten bidez, baizik eta *jainkoen lege seguru eta ez-idatzi gisa, zeina betikoa den eta inork ez dakien noiz agertu zen*. Argizko zerizanak agerrarazi zuen egia orokorra hemen barneko denera edo beheko denera itzuli bada eta, beraz, agerpen ausazkoaren formari ihes egin badio, bada, orduan, aitzitik, antze-erlijioan, jainkoaren tankerak kontzientzia eta, beraz, oro har banakotasuna hartu zuenez, jainkoaren hizkuntza propioa, herri etikoaren gogoa dena, orakulua da, herri horren arazo bereziak ezagutzen dituen eta horretan erabilgarria dena iragartzen duena. Baina egia orokorrek, horietaz *berbaitan dena* bezala jabetzen garelako, *pentsatze jakileak* aldarrikatzen dituzte, eta horien hizkuntza ez zaio arrotza, baizik eta norberarena. Eta antzinako modu hark ona eta edena dena bere pentsatzean bilatzen zuenez eta, bestalde, demonioari uzten zionez jakitearen eduki txar eta ausazkoa jakitea, ea ona zen horrentzat hau edo bestea egitea, ezagun batentzat ona zen bidaia hori egitea eta halako gauza muntagabeak, era berean kontzientzia orokorrak ausazko-denaren jakitea txorietatik jasotzen du, edo zuhaitzetatik edo harrotzen den lurretik, zeinaren lurrunez autokontzientziari bere zuhertasuna kentzen dioten; izan ere, ausazko-dena zuhurra ez dena eta arrotza dena da, eta kontzientzia etikoa ere era ez-zuhur eta arrotzean determinatzen uzten da, dadoak jauziko balitu bezala.

168

Banako-denak bere adimenaren bidez bere burua determinatzen badu eta gogoetatsu baliagarri zaiona aukeratzen badu, orduan autodeterminazio honen oinarrian datza izaera bereziaren determinatutasuna; hori bera ausazko-dena da; eta adimenaren jakite hura, banako-denari baliagarri zaiona orakulu haren edo patuarena bezalako jakitea da; baina orakuluari edo patuari galdetzen dionak ausazko-denaren aurrean axolagabekeriaren jarrera adierazten du, eta beste hark bere baitan ausazko-dena bere pentsatzearen eta jakitearen zerizanezko interes gisa hartzen du. Baina bi horiek baino garaiagoa da, noski, gogoeta ausazko egitearen orakulu bihurtzea, baina ekintza gogoetatsu bera ausazko den zerbait gisa jakinez, berezi-denarekin harremana duelako eta baliagarritasuna duelako.

Bere buruaz jabetzen den hor-izate egiazkoa, gogo hizkuntzan jasotzen duena, autokontzientzia arrotzaren eta, beraz, ausazkoaren, autokontzientzia orokorraren hizkuntza ez dena, oraintsu ikusi dugun antze-lana da. Hori estatuak gauza gisa duen alderdiari aurkakotzen zaio. Hori hor-izate lasaia den bezala, hura desagerkorra da;

horretan objektibotasunak aske utzita norbera bitartegabeko propiorik ez duen bezala, hura gehiegi geratzen da norberarengan sartuta, tankeratze gutxiegi du eta, denbora bezala, ez dago bitartegabe hor, hor dagoen heinean.

Bi alderdien higidurak osatzen du *kultua*, non autokontzientziaren sentipenezko osagai hutsean *higitzen* den tankera jainkotiarrak eta gauzatasunaren osagaian *lasai* dagoen tankera jainkotiarrak euren determinazio ezberdina uzten duten eta honen zerizanaren adigaia den batasuna hor-izatera datorren. Kultuan norberak bere buruari zerizan jainkotiarraren jaistearen kontzientzia ematen dio, haratago denetik bere baitara jaistearena, eta zerizan honek, lehenago ez- erreal eta objektiboa baino ez zenak, honen bidez autokontzientziaren benetako errealitatea lortzen du.

Kultuaren adigai hori bere baitan dagoeneko barnebilduta eta eskura dago ereserkiaren isurian. Jarespen hori norberaren asebate huts bitartegabekoa da norberaren bidez eta norberaren barnean. Arima araztua da, araztasun horretan bitartegabe zerizan baino ez dena eta zerizanarekin bat egiten duena. Bere abstrakzioa dela eta, ez da bere objektua bere baitatik bereizten duen kontzientzia, eta, beraz, bere horizatearen gaua eta bere tankeraren *egoitza prestatua* da. *Kultu abstrak tuak*, beraz, norbera goratzen du *osagai jainkotiar* huts hori izateraino. Arimak garbitze hori osatzen du horretaz jabetuz; baina oraindik ez da norbera, bere sakonera beheratu dena, bere burua gaitz gisa dakiena, baizik eta *baden bat* da, arima bat, bere kanpokotasuna ura erabiliz arazten duena, jantzi zuriak jartzen dizkiona, eta bere barnekotasuna larren, zigorren eta sarien bide errepresentatutik gidatzen du, berezitasuna kanporatzen duen garapenaren bidetik oro har, zeinaren bidez dohatasunaren etxebizitzetara eta elkartera iristen den.

169

Kultu hori lehenrik *sekretua* baino ez da, hau da, errepresentatua baino ez den egikaritze ez- erreal; ekintza *erreal* izan behar du, ekintza ez- errealak bere burua kontraesaten du. *Kontzientzia benetakoa* horren bidez bere autokontzientzia *hutsa* goratzen da. Zerizanak hor objektu aske baten esanahia du, eta kultu errealaren bidez hori norberarengana itzultzen da, eta horrek kontzientzia hutsean errealitatearen haratago hutsean bizi den zerizanaren esanahia duen heinean, zerizan hori bere orokortasunetik bitartekotza horren bidez banakotasunera jaisten da eta, horrela, errealitatearekin elkartzen da.

Bi alderdiak ekiten hasteko modua honela determinatzen da, hots, bere buruaz jabetzen den alderdiarentzat, kontzientzia *erreal* denez, zerizana *izaera erreal* gisa aurkezten da; batetik, izaera hori horri dagokio eduki eta jabego gisa, eta *berbaitan* ez den hor-izatezat jotzen da; bestetik, *bere* errealitate eta banakotasun bitartegabeko *pro pioa* da, horrek era berean zerizangabetzat hartzen duena eta gainditzen duena. Aldi berean, ordea, bere kontzientzia *hutsarentzat* kanpoko izaera hark *aurkako* esanahia du, hau da, *berbaitan den* zerizana izatekoa, zeinaren aurrean norberak bere zerizangabetasuna oparitzen duen, izaeraren zerizangabeko alderdiak bere burua oparitzen duen bezala. Ekintza honen bidez gogozko higidura da, zeren hori bi alderdi dituen zera baita, *zerizanaren* abstrakzioa (jarespenak objektua determinatzeko modua) gainditzea eta egikaritzea, eta *erreal-dena* (ekileak objektua eta bere burua determinatzeko modua) gainditzea eta orokortasunera goratzea.

170

Kultuaren beraren ekintza, beraz, jabego baten *oparitze* hutsarekin hasten da, zeina jabeak beretzat baliorik izango ez balu bezala ahazten duen edo hauts bihurtzen duen. Hemen, bere kontzientzia hutsaren zerizanaren aurrean bere jabegoari eta

jabetza-eskubideari eta honen gozamenari uko egiten dio, nortasunari eta egitea norberarengana itzultzeari uko egiten dio, eta ekintza orokor-denean islatzen du, edo zerizanean, bere baitara islatuko balu bezala. — Baina alderantziz hor era berean *baden zerizana* hondoratzen da. Oparitzen den animalia jainko baten *zeinua* da; jaten diren fruituak Zeres eta Bako *biziak dira*; hartan goi zuzenbidearen botereak hiltzen dira, odola eta bizitza erreala duen zuzenbidearenak; beste horretan behe zuzenbideko botereak, odolik gabe botere sekretu maltzurra duen zuzenbidearenak. — Substantzia jainkotiarraren oparitzea bere buruaz jabetzen den alderdiari dagokio, substantzia hori *egite* den aldetik; eta egite erreal hori ahalgarri izateko, zerizanak dagoeneko bere burua *bere baitan* oparitu izan behar du. Eta hori egin du bere buruari *hor-izatea* ematean eta animalia *banako* eta fruitu bihurtzean. Ukazio horrek, *bere baitan* beraz dagoeneko zerizana egikaritzen duenak, norbera ekilea hor-izatean eta bere kontzientziarentzat aurkezten du, eta zerizanaren *bitartegabeko* errealitate hura garaiago batez ordezkutzen du, *hots, bere buruarenaz. Izan ere*, sortzen den batasuna, banakotasun gairidituaren eta bi alderdien banaketaren emaitza dena, ez da soilik patu negatiboa, baizik eta esanahi positiboa du. Lurrazpiko zerizan abstraktuari baino ez zaio guztiz ematen oparitutakoa, eta, horrela, jabegoaren eta berbaitarako izatearen isla orokordenean norberarengandik ezberdin gisa ezaugarritzen da, halakoa den aldetik. Baina, aldi berean, hori *alderdi* txiki bat da, eta beste oparitzea baliagarri ez denaren deuseztapena eta gehienbat oparituaren prestakuntza da jateko, eta horren banketeak ekintza saltzen du bere esanahi negatiboan. Oparitzen duenak lehen opari hartan gehiena gordetzen du, eta horretan bere *gozamenerako* baliagarri dena. Gozamen hori botere negatiboa da, zeinak *zerizana* nahiz *banakotasuna* gairiditzen dituen, eta aldi berean hori errealitate positiboa da, non zerizanaren hor-izate *objektiboa bere buruaz jabetzen den* hor-izate bihurtzen den, eta norberak zerizanarekin duen batasunaren kontzientzia duen.

Gainerakoan, kultu hori ekintza erreala da, baina honen esanahia jarespenean dago gehienbat; horri dagokiona ez da objektiboki sortzen, emaitzak *gozamenean* bere buruari bere hor-izatea lapurtzen dion moduan. Kultua, beraz, harantzago doa eta gabezia hori honela osatzen du hasiera batean, *hots, bere jarespenari iraupen objektiboa* emanez, kultua elkarrekin edo banaka edonork egin dezakeen lana den heinean, zeinak jainkoaren etxebizitza eta edergarria ekoizten dituen horren ohoretan. — Horren bidez, alde, estatuaren objektibotasuna gairiditzen da, bere opari eta larren eskaintzaren bidez langileak jainkoaren faborea lortzen baitu eta bere norbera hari balegokion bezala begiesten baitu; alde, egite hori ez da artistaren banako lana, baizik eta berezitasun hori orokortasunean desegiten da. Ez da jainkoaren ohorea soilik sortzen, eta horren faborearen bedeinkapena ez da isurtzen *erre presentazioan* soilik langilearen gain, baizik eta lanak alderantzizko esanahia ere badu lehenak adierazpen eta ohore arrotz gisa duenaren aurrean. Jainkoaren etxebizitzak eta gelak gizakiek erabiltzeko dira, horietan gordeta dauden altxorak gizakiarenak dira premiazko kasuan; hark bere dotorezian jasotzen duen ohorea herri artistiko eta eskuzabalaren ohorea da. Festan herriak etxebizitzak eta jantziak edertzen ditu gauza dotoreekin, baita zeremoniak ere. Horrela jasotzen ditu bere eskaintzaren ordainetan jainko esker onekoaren erantzuna eta honen faborearen frogak, zeinari lanaren bidez lotu zitzaion, ez itxaropenean eta geroko errealitate batean, baizik eta eskaintako ohorean eta eskaintzen aurkezpenean lortuz bitartegabe bere aberastasunaren eta dotoreziaren gozamena.

b. ANTZE-LAN BIZIA

Antze-erlijioaren kultuan bere jainkoari hurbiltzen zaion herria herri etikoa da, zeinak bere estatua eta horren ekintzak bere buruaren nahimen eta egikaritzapen gisa dakizkien. Gogo hori, bere buruaz jabetzen den herriari aurre egiten diona, beraz, ez da argizko zerizana, norberarik gabe banako-denaren ziurtasuna bere barnean barnebiltzen duena, baizik eta honen zerizan orokorra eta botere nagusia baino ez da, non haiek desagertu egiten diren. Zerizan tankeragabe sinple horren erlijioaren kultuak, beraz, bere kideei hau itzultzen die orokorrean, hots, horiek euren jainkoaren fiema direla; horrek euren iraupena eta oro har substantzia sinplea eskuratzen die, baina ez euren norbera erreala, gehienbat baztertzen dena. Izan ere, euren jainkoa sakontasun hutsala bezala gurtzen dute, ez gogo bezala. Antze-erlijioaren kultuak, ordea, ez dauka bestalde zerizanaren *sinpletasun* abstraktu hura, eta, beraz, ezta horren *sakonera ere*. Baina *norberarekin bitartegabe batuta dagoen zerizana* gogo da *bere baitan* eta *egiajakilea*, nahiz eta oraindik ez izan egia jakina edo bere burua bere sakontasunean dakiena. Zerizanak hor norbera bere baitan duenez, orduan bere agerpena abegikor da kontzientziaren aurrean, eta kultuan horrek ez du bere iraupenaren legeztapena soilik jasotzen, baizik eta, gainera, bere barnean bere buruaz jabetzen den hor-izatea; era berean, alderantziz, zerizanak ez du norberarik gabeko errealitatearik substantzia soilik onartzen zaion herri baztertu batean, baizik eta *norbera* bere substantzian onartzen zaion herri batean.

172

Kultutik, beraz, bere zerizanean asebate den autokontzientzia sortzen da, eta jainkoa hor kokatzen da bere egoitza balitz bezala. *Egoitza* hori berez da substantziaren gaua edo horren indibidualtasun hutsa, baina ez artistaren indibidualtasun tinkatua, oraindik *objektibo* bihurtzen ari den bere zerizanarekin adiskidetu ez dena, baizik eta gau asebatea, zeinak bere jasapena bere baitan duen premiarik gabe, zeren begiespenetik, objektibotasun gainditutik, itzultzen baita. — *Jasapen* hori bere baitarako *egunsentiaren* zerizana da, baina aurrerantzean bere barnean *hondoratu* den egunsentia, eta bere baitan bere gainbehera duena, autokontzientzia, eta horrekin batera hor-izatea eta errealitatea. Hemen bere egikaritzapenaren higidura osatu du. Bere zerizantasan hutsetik natur indar objektibo bateraino eta horren adierazpenetaraino behehituz, bestearentzako hor-izatea da norberarentzat, zeinak jan egiten duen. Norberarik gabeko naturaren zerizan lasaiak bere fruituan maila bat lortzen du, non natura bere burua prestatuz eta janda norberaren bizitzari ematen zaion; edana eta jana izan ahal izatearen baliagarritasunean lortzen du bere betegintzarre gorena; izan ere, hor existentzia garaiago baten ahagarritasuna da, eta gogozko hor-izatea ukitzen du; alde, substantzia indartsu lasairaino iristen delako eta, alde, gogozko hartziduraraino, lurraren gogo bere itxura-aldaketan; hor elikaduraren emakumezko printzipio izateraino iristen da, hemen bere buruaz jabetzen den hor-izatearen indar bultzatzailearen gizonezko printzipio izateraino.

Gozamen honetan, beraz, goratzen den argizko zerizan hura erakusten da bere horretan; zerizan horren misterioa da. Izan ere, mistiko-dena ez da sekretu baten edo ezjakintasun baten ezkutatzea, baizik eta honetan datza, alegia, norberak badakiela zerizanarekin bat dela, eta hori, beraz, agerrarazten dela. Norbera baino ez zaio

agertzen bere buruari, edo agertzen dena bere buruaren ziurtasun bitartegabekoan soilik agertzen da. Baina hor zerizan sinplea ezartzen da kultuaren bitartez; gauza erabilgarri den aldetik, ikusi, sentitu, usaindu, dastatzen den hor-izatea ez ezik, gainera, inikaren objektu ere bada, eta gozamen erreala bidez bat da norberarekin, eta horren bidez horretan erakusten da eta horri agertzen zaio. Zerbaitez esaten bada arrazoimenari, bihotzari agertzen zaiola, egitatean oraindik sekretua da, zeren oraindik hor-izate bitartegabekoaren ziurtasun erreala falta baita, bai objektiboa baita gozatzailea ere, zeina erlijioan ez den soilik ziurtasun pentsamendurik gabekoa, bitartegabekoa, baizik eta aldi berean norberak duen ziurtasuna, jakilea baino ez dena.

173

Horrela kultuaren bidez bere buruaz jabetzen den gogoari bere baitan nabarmen bihurtzen zaiona zerizan *sinplea* da, higidura den aldetik, alde gaueko ezkututik kontzientziara irteteko, horren substantzia elikagarri lasaia izateko, eta, alde, ordea, berriro lurrazpiko gauean norberarengan galtzeko eta goian amaren mira lasaian soilik geratzeko. Baina bultzada ozena egunsentiaren argizko zerizana da, izen asko dituen zerizana, eta horren bitzta gorabeheratsuak, bere izate abstraktuak era berean utzi duenak, lehen fruituaren hor-izate objektiboari heltzen dio, eta, gero, autokontzientziari bere burua eskainiz, hor bere errealitate propioa lortzen du, eta orain joan-etorri dabil emakume gogoberoen samalda baten modura, naturaren bizitasun lotezina bere buruaz jabetzen den tankeran.

Baina oraindik kontzientziari gogo absolutua baino ez zaio erakutsi, zerizan sinple hori, eta ez gogo gisa bere baitan dagoena, edo gogo *bitartegabekoa* soilik erakutsi zaio, naturaren gogo. Bere buruaz jabetzen den bitzta, beraz, ogiaren eta ardoaren misterioa da, Zeres eta Bakorena, eta ez beste jainkoena, benetan gorenak direnena, zeinen indibidualtasuna autokontzientziak bere baitan jasotzen duen zerizanezko une gisa. Oraindik ez zaio gogo *bere buruaz jabetzen den* gogo gisa eskaini, eta ogiaren eta ardoaren misterioa ez da oraindik haragiaren eta odolaren misterioa.

Jainkoaren bizitasun finkaezin horrek *objektu* bihurtuz lasaitu behar du, eta kontzientziara iristen ez den gogoberotzeak emaitza bat ekoiztu behar du, horri era berean osatua den emaitza gisa aurre egiten diona, baina ez bere baitan bizitzarik ez duen norbera gisa, baizik eta norbera *bizi* gisa, estatua aurreko artistaren gogoberotzeari aurkakotzen zaion bezala. Halako kultua da gizakiak bere ohorerako bere buruari eskaintzen dion festa, nahiz eta horretan zerizan absolutuaren esanahia ez duen ezartzen oraindik; izan ere, *zerizana* zaio hasieran nabari, ez gogo; ez *zerizanez* giza tankera hartzen duen gogo.

174

Baina kultu horrek agerkunde honen oinarria ezartzen du, eta horren uneak banatuta azaltzen ditu. Beraz, hemen zerizanaren *gorpuztasun* biziaren une *abstraktua* da, lehen bien batasuna zen bezala kontzientziarik gabeko gogoberotzean. Gizakiak estatuaren ordeztu bere burua ezartzen du, *higidura* guztiz askea izateko hezia eta landua izan den tankera gisa, hura *lasaitasun* guztiz askea den bezala. Banako bakoitzak bere burua gutxienez suaren eramaile gisa aurkezten baldin badaki, orduan horietako bat nabarmentzen da, zeina higidura tankeraduna den, kide guztien indar jaria korra eta lantze leuna; antze-lan bizi arimadun bat, indarra bere edertasunarekin erkatzen duena, zeinari estatua ohoratze erabili zen edergania bere indarraren sari gisa eskuratzen zaion eta bere herrian harrizko jainkoaren ordeztu aurkezpen soindun garaiena izateko ohorea eskuratzen zaion.

Oraintsu sortu diren bi aurkezpenetan eskura dugu autokontzientziaren eta gogozko zerizanaren batasuna, baina euren arteko oreka falta zaie. Bakoar gogoberotzean norbera bere baitatik at dago, baina gorpuztasun ederrean gogozko zerizana dugu. Kontzientziaren sorgortasun hura eta zezeldura basari hura azken honen hor-izate argian jaso behar dira, eta azkenaren gogo gabeko argitasuna lehenaren barnekotasunean. Osagai betegina, non barnekotasuna era berean kanpoko den eta kanpokotasuna barnekoa, hizkuntza da, baina ez orakuluarena, edukian guztiz ausazkoa eta banakoa dena, ezta sentitzen duena eta jainko banakoa soilik goraiatzeko duen ereserkia ere, ezta eldarnio bakoarraren eduki gabeko zezeldura ere. Baizik eta hizkuntzak bere eduki argi eta orokorra lortu du; bere eduki *argia*, artistak lehen gogoberotze guztiz substantziadunetik irten eta tankera bat eratzen duelako, zeina berez bere higidura guztietan bere buruaz jabetzen den arimak zeharkatzen duen eta honekin batera ematen den hor-izatea den; eta eduki *orokorra*, festa horretan, gizakiaren ohorea denean, nazio baten gogo, jainkotasunaren izaera determinatu bat barnebiltzen duten estatuen alderdikartasuna desagertzen baita. Borrokalari edena, noski, bere herri bereziaren ohorea da, baina gorputzez banakotasuna da, non esanahiaren osotasuna eta seriotasuna eta bere herriaren bizitza, ardura, premia eta ohitura bereziak sustatzen dituen gogoaren barne izaera hondoratu diren. Gorpuztasun osora irtete horretan gogoak naturaren inpresio eta hots bereziak baztertzen ditu, zeinak herriaren gogo erreal gisa bere barnean biltzen zituen. Bere fiema, beraz, ez da jabetzen horretan duen berezitasunaz, baizik eta horren bazterketaz eta bere hor-izate gizatianaren orokortasunaz.

175

c. GOGOAREN ANTZE-LANA

Euren zerizanaren tankera animalia berezi batean onartzen duten herri-gogoak *bateratu* egiten dira; horrela, herri-gogo eder bereziak panteoi *batean* bateratu ziren, zeinaren osagaia eta etxea hizkuntza den. Bere buruaren begiespen hutsak, *gizatasun orokorra* den aldetik, herri-gogoaren errealtatean forma hau du, hots, honek besteekin, zeinekin naturaren bidez nazio *bat* osatzen duen, ekimen komun baterako lotzen dira, eta emaitza horretarako herri oso bat eta, beraz, zeru oso bat osatzen ditu. Orokortasun hori, zeina gogoak bere hor-izatean lortzen duen, lehena baino ez da, leherrik etiko-denaren indibidualtasunetik abiatzen dena, bere bitartegabekotasuna oraindik gaintitu ez duena, jende horiek erabiliz oraindik estatu *bat* bildu ez duena. Herri-gogo errealaren etikotasunak, alde, banako-denak bere herriaren osokian duen konfiantza bitartegabekoan hartzen du oin eta, alde, guztiek maila bereizketak alde batera utzita gobernuaren erabaki eta ekintzetan duten parte-hartze bitartegabekoan. Bateratze horretan, hasiera batean ez ordena iraunkor batean, baizik eta ekintza komun batean soilik, guztien eta bakoitzaren parte-hartzearen askatasun hura alde batera uzten da *aldi batez*. Lehen elkartasun hori, beraz, indibidualtasunen batuketa da, pentsamendu abstraktuaren nagusigoa baino, banakoei osokiaren nahimenean eta egitateetan duten parte-hartze kontzientea ostuko liekeen pentsamendua.

Herri-gogoen batuketak tankeren zirkulu bat osatzen du, zeinak orain natura osoa eta mundu etiko osoa jasotzen duen. Horiek ere baten *agindupean* daude, horren *nagusigopean* baino. Euren baitarako substantzia orokorrak dira, *bere buruaz*

jabetzen den zerizanak bere baitan dena eta egiten duenaren substantziak. Baina horrek indarra osatzen du, eta hasiera batean erdigunea ere bai gutxienez, zerizan orokor haiek lortzen ahalegintzen direna, eta hasieran baino ez dirudi horrek haien betekizunak ausazko eran lotzen dituela. Baina zerizan jainkotiarra autokontzientziara itzultzea da dagoeneko horrek indar jainkotiar haren erdigunea eratzeko eta zerizanezko batasuna hasiera batean bi munduen arteko kanpoko harreman laguntasunezkoaren formapean ezkutatzeko oinarria barnebiltzen duena.

176

Orokortasun berberak, eduki horri dagokionak, halabeharrez kontzientziaren forma du, eta forma honetan agertzen da. Ez da aurrerantzean kultuaren egite erreala izango, baizik eta oraindik adigaira goratu ez den, soilik *errepresentazioa* iritsi den egitea, hor-izate kanpokoaren eta bere buruaz jabetzen denaren elkarlotura sinterikora. Errepresentazio horren hor-izatea, *hizkuntza*, lehen hizkuntza da, *epopeia* bere horretan, eduki orokorra barnebiltzen duena, gutxienez munduaren *osotasun gisa*, *pentsamenduaren orokortasun gisa* ez bada ere. *Kantaria* banako-dena eta erreal-dena da, mundu horren subjektu gisa hori ekoiztu eta sustatzen duena. Bere jasapena ez da natur botere zorabiatzailea, baizik eta Mnemosine, barneratzea eta garatzen doan barnekotasuna, lehen bitartegabekoa zen zerizanaren oroitzapena. Bere edukian desagertzen den organoa da, ez du bere norberak balio, baizik eta bere musak, bere kantu orokorrak. Baina egitatean eskura dagoena ondorioa da, non orokortasunaren muturra, jainkoen mundua, banakotasunarekin, kantariarekin elkarlotzen den, berezitasunaren erdigunearen bidez. Erdigunea herria da bere herrietan, zeintzuk gizaki banakoak diren, kantaria bezala, baina *errepresentatuak* soilik, eta, beraz, aldi berean *orokorrak*, orokortasunaren mutur askea bezala, jainkoak.

Epopéia horretan oro har kultuan *bere baitan* sortzen dena *aurkezten* zaio kontzientziari, jainkoek gizakiekin duten harremana. Edukia bere buruaz jabetzen den zerizanaren *ekintza* da. *Ekiteak* substantziaren lasaitasuna aztoratzen du eta zerizana kitzikatzen du, eta, honela, bere sinpletasuna banatzen da eta indar etiko eta berezkoen mundu anitzean zabaltzen da. Ekintza lur lasaia zauritzea da, odolak biziartzten duen leizea, zeinak gogo desagertuak deitzen dituen, bizitzaren egarri, hori autokontzientziaren egitean jasotzen duten gogoak. Ahalegin orokorrak bilatzen duen betekizunak bi alderdiak ditu, *norberarena*, herri errealean osotasunarena eta gailurrean dauden indibidualtasunena, eta alderdi *orokorra*, bere botere substantziadunek sortua izatea. Bien arteko *harremana* leherrik honela determinatu zen, alegia, orokor-denaren eta banako-denaren arteko lotura *sintetiko*a dela, edo *errepresentatzea*. Determinatutasun horren menpe dago mundu honi buruzko juzgaketa. Bien arteko erlazioa, beraz, nahasketa bat da, egitearen batasuna ondoriogabe zatitzen duena, eta ekintza alderdi batetik bestera bidaltzen duena alferrikako eran.

177

Botere orokorrek indibidualtasunaren tankera eta, beraz, ekitearen printzipioa euren baitan dute; euren eragitea, beraz, itxuraz euren baitatik abiatzen den egite askea da, gizakiena bezain askea. Beraz, jainkoek eta gizakiek gauza bat eta berbera egin dute. Botere haien seriotasuna soberakin banegarria da, horiek egitatean indibidualtasun ekilearen indarra baitira; eta horien nekea eta lana era berean ahalegin hutsala da, haiek baitira dena gidatzen dutenak. — Hilkor grinatsuak, ezereza direnak, aldi berean *norbera* boteretsuak dira, zerizan orokorrak menpeketzen dituen, jainkoak zauritzen

dituen, eta horiei oro har errealitatea eta egitearen interes bat eskuratzen dien norberak; alderantziz, orokortasun boteregabe horiek, gizakien eskaintzak janez elikatzen direnak eta horien bidez lehenbizikoz eginkizun bat lortzen dutenak, zerizan berezkoa eta gertaera guztien ekaiak dira eta, era berean, materia etikoa eta egitearen jasapena. Euren izaera sinpleak indibidualtasunaren norbera askearen bidez leherrik errealitatea eta erlazio ekilea ematen badie, era berean orokor-dena dira, lotura horri ihes egiten diona, bere determinazioan mugaezin irauten duena, eta bere batasunaren malgutasun gaindiezinaren bidez ekilearen eta bere figurazioen puntueltasuna ezabatzen ditu, bere burua huts-hutsean mantentzen du, eta indibiduala den guztia bere jariakortasunean desegiten du.

Jainkoek aurrean duten norberaren izaerarekin harreman kontraesankor hori duten bezala, horien orokortasuna gatazkan gertatzen da bere determinazio propioarekin eta besteekin duen erlazioarekin. Indibiduo eder betikoak dira, euren hor-izatean lasai, iraungikortasunari eta bortxa arrotzari ihes egiten diotenak. Baina, aldi berean, osagai *determinatuak* dira, jainko *bereziak*, besteekin erlazionatzen direnak. Baina besteekiko erlazioa, aurkakotzaren arabera horiekin duten gatazka dena, horiek euren izaera betikoaz ahazte bitxi bat da. — Determinatutasuna iraupen jainkotiarrean enotzen da, eta bere mugapenean indibidualtasun osoaren beregaintasuna du; horren bidez izaerek, aldi berean, berezitasunaren zorrotasuna galtzen dute eta nahastu egiten dira esanahi-aniztasunean. — Egiletasunaren xede bat eta horren egiletasuna bera, hori beste baten aurka eta, beraz, indar jainkotiar garaiezin baten aurka zuzentzen denez, harrotze hutsal eta ausazkoa da, zeina era berean desagertzen den eta ekintzaren itxurazko seriotasuna emaitza eta arrakastarik ez duen joko batean, bere buruaz seguru dagoen joko aniskugabearen eraldatzen duen. Baina bere jainkozkoatasunaren izaeran negatibo-dena edo horren determinatutasuna bere egiletasunaren ondoriogabetasun gisa eta xedearen eta arrakastaren kontraesan gisa baino ez bada agertzen, eta segurtasun beregain hura nagusi bada determinatu-denaren gain, orduan horrela *negatibo-denaren indar hutsa* aurkakotzen zaio, eta, gainera, bere azken botere gisa, zeinaren aurka ezin duten ezer egin. Jainkoak orokor-dena eta positibo-dena dira hilkorren *norbera banakoaren* aurrean, euren boterearen aurka ezer egin ezin duten hilkorren aurrean; baina *norbera orokorra* honegatik horien gainean kulunkan dabil eta errepresentazioaren mundu osoaren gainean, zeinari eduki osoa dagokion; *beharrezkotasunaren hustasun adigaiga bea* den aldetik; gertaera horren aurrean jainkoek norberarik gabe eta minduta jokatzen dute, zeren izaera *determinatu* horiek ez baitute araztasun hori.

178

Beharrezkotasun hori, ordea, *adigaiaren batasuna* da, zeinari banako uneen substantziatasun kontraesankorra menpekotzen zaion, non bere egitearen ondoriogabetasuna eta ausazkotasuna ordenatzen den eta bere ekintzen jokoak euren seriotasuna eta balioa euren baitan biltzen dituen. Errepresentazioaren munduaren edukiak loturarik gabe erakusten du *erdigunean* bere higidura bere baitarako, heroi baten indibidualtasunaren inguruan bilduta, zeinak bere indarrean eta edertasunean bere bizitza hautsita sentitzen duen eta heriotza goiztiar bat aitzinatuz mintzen den. Izan ere, *bere barnean finkoa eta erreala den banakotasuna* muturretik baztertzen da, eta horren uneak banatzen dira, oraindik aurkitu eta batu ez direnak. Banako-den bat, ez- erreala den *abstraktua* beharrezkotasuna da, erdigunearen bizitzan parte hartzen ez duena, besteak parte hartzen ez duen bezala, banako-den *errealak*, kantariak, horren baitatik at mantentzen den eta bere

errepresentazioan hondoratzen denak. Bi muturrak edukiari hurbildu behar zaizkio: bata, beharrezkotasuna, edukiak bete behar du; besteak, kantariaren hizkuntzak, horretan parte hartu behar du; eta lehen bere honetan utzi zen edukiak negatibodenaren ziurtasuna eta determinazio finkoa jaso behar du bere baitan.

179

Hizkuntza garai horrek, *tragediak*, hurbilago elkartzen du mundu zerizanezkoaren eta ekilearen uneen sakabanaketa; jainkozkodenaren *substantzia* bere tankeretan banatzen da *adigaiaren izaeraren arabera*, eta horren *higidura* era berean hari egokitzen zaio. Forman dagokionez hizkuntzak kontalari izateari uzten dio edukian sartzen den heinean, edukiak eduki errepresentatua izateari uzten dion bezala. Heroia bera da hizlaria, eta errepresentazioak entzuleari erakusten dio, aldi berean, ikuslea denari, *euren buruez jabetzen diren* gizakiak, euren eskubideak eta xedea, euren determinatutasunaren boterea eta nahimena *dakitenak* eta *esaten* dakitenak. Artistak dira, baina ez bizitza errealean egite arruntarekin batera doan hizkuntzak bezala, honetaz jabetu gabe, berez eta inozoki, euren erabakiaren eta hastearen *kanpoko-dena* adierazten dutenak, baizik eta barneko zerizana adierazten dutenak, euren ekitearen eskubidea frogatzen dutenak, euren jasapena bere indibidualtasun orokorrean lasai baieztatzen dutenak eta zehazki adierazten dutenak, inguruabar ausazkoetarik aske, pertsonalitateen berezitasunetik aske. Izaera horien *hor-izatea* azkenean gizaki *errealak dira*, herioen figura jasotzen dutenak eta hitz egite errealean aurkezten dituztenak, ez kontalarian baizik eta hitz egite propioan. Estatuari zerizanezkoa zaion bezala gizakien eskuek egindakoa izatea, zerizanezkoa zaio antzezleari bere mozorroa, ez kanpoko baldintza bezala, ikuspegi artistikoak baztertu behar duena; edo ikuspegi horretan, dena den, hori baztertu behar bada, horren bidez esan nahi da antzeak oraindik ez duela bere barnean barnebiltzen egiazko norbera benetakoa.

Adigaitik abiatuta ekoiztu diren tankera horien higidura erabiltzen duen *zoru orokorra* lehen hizkuntza errepresentatzailearen eta horren norberarik gabeko eduki sakabanatuaren kontzientzia da. Herri arrunta da, zeinaren jakituriak *adinaren koruan* hitz egiten duen; indar gabekia horretan du bere ordezkaria, zeren honek berak aurkakotzen zaion gobernuaren indibidualtasunaren ekai positiboa eta jasailea baino ez baitu osatzen. Negatibo-denaren boterea ukatzen zaionez gero, ezin du bizitza jainkotiarraren aberastasuna eta betetasun nabarra bildu eta lotu, baizik eta sakabanatzen uzten du, eta bere ereserki ohoragarrietan une banako bakoitza gorai patzen du jainko beregain gisa, orain bat, gero bestea. Baina adigaiaren seriotasuna sumatzen duenean, tankera horietan horiek txikituz sartzen denean bezala, eta ikusten duenean zein egoera txarretan dauden gorai patzen dituen jainkoak, adigaia nagusi den zoru horretan ibiltzen ausartzen direnak, orduan ez da botere negatibo bera ekinez erasotzen duena, baizik eta horren pentsamendu norberarik gabekoan geratzen da, *patu arrotzaren* kontzientzian, eta lasaitzearen desira hutsala eta baretzearen hizketa ahula sortzen ditu. Goibotereen *beldurrez*, substantziaren bitartegabeko besoak direnen beldurrez, elkarren aurkako borrokaren beldurrez, eta beharrezkotasunaren norbera sinplearen beldurrez, zeinak horiek bezala horiekin lotuta dauden bizidunak txikitzen dituen; horien *errukian*, aldi berean norbera bezalakoak direla dakiela, beretzat higidura horren izu ez-ekilea baino ez da, era berean lanturu ezindua, eta amaiera gisa beharrezkotasunaren aurrean errenditzearen lasaitasun hutsala, zeinaren emaitza ez den ulertzen izaeraren ekintza beharrezko gisa eta zerizan absolutuak bere barnean duen ekintza gisa.

Kontzientzia ikusle horretan, errepresentatzearen zoru axolagabea balitz bezala, gogoagertzen da, ez sakabanatua izan den aniztasunean, baizik eta adigaiaren bikoizketa sinplean. Bere substantzia, beraz, bi muturreko botereetan hautsita agertzen da. Zerizan *orokor* sinple horiek aldi berean euren buruaz jabetzen diren *indibidualtasunak dira*, heroiak, zeintzuek botere horietako batean ezartzen duten euren kontzientzia, horretan duten euren izaeraren determinatutasuna, eta horiek osatzen dute euren abiaraztea eta errealtatea. — Indibidualtze orokor hori, aipatu den bezala, hor-izate benetakoaren errealtate bitartegabekora beheitzen da, eta ikusle multzo handi bati aurkezten zaio, zeinak koruan bere isla duen edo, hobe, bere burua adierazten duen errepresentazio propioa.

Gogoaren edukia eta higidura, hemen beretzat objektu dena, dagoeneko substantzia etikoaren izaera eta egikaritzapentzat jotzen da. Bere erlijioan bere buruaren kontzientzia lortzen du, edo bere kontzientziari bere forma hutsenean eta tankeratze sinpleenean aurkezten zaio. Horrela, baldin eta substantzia etikoa bere adigaiaren bidez, bere *edukiaren* arabera, bi botereetan banatzen bada, zeinak *jainkotiarra* eta *gizatiarra*, edo lurrazpikoa eta goi-zuzenbide gisa determinatu ziren (*hura familia*, *hori estatuaren boterea*), lehena *emakumezko izaera* eta bigarrena *gizonezko izaera* izaki, orduan leherrik forma asko zituen eta bere determinazioetan aldagarria zen jainkoen zirkulua bi botere horietara murrizten da, zeina determinazio horren bidez benetako indibidualtasunera hurbiltzen den. Izan ere, aurreko sakabanaketa, osokiarena indar asko eta abstraktuetan, substantziadun gisa agertzen direnetan, *subjektuaren desegitea* da, zeinak haiek *une* gisa soilik aditzen dituen bere norberarengan, eta indibidualtasuna, beraz, zerizan haien azaleko forma besterik ez da. Alderantziz, *izaera-bereizketa* egotzi behar zaio nortasun ausazkoari eta bere baitan kanpokoa den nortasunari, aipatutako bereizketa baino handiagoa, hain zuzen.

Aldi berean, zerizanak bere burua zatitzen du bere *formaren* edo *jakitearen* arabera. Gogo *ekilea* kontzientzia gisa agertzen da eragiten dion objektuaren aurrean, eta horrela objektu hori jakilearen *negatiboden* gisa determinatzen da; ekilea, horrenbestez, jakitearen eta ez-jakitearen arteko aurkakotzan kokatzen da. Bere izaeratik hartzen du bere xedea eta hori zerizantasan etiko gisa daki; baina izaeraren determinatutasunaren bidez substantziaren botere bat baino ez daki, eta bestea ezkutatuta dago harentzat. Orain aurrean dugun errealtatea, beraz, beste bat da *bere baitan* eta beste bat da kontzientziarentzat; goi- eta behe-zuzenbideak harreman horretan botere jakilearen esanahia eta kontzientziari agertzen zaion eta ezkututzen den eta ezkutuan zelatan dagoen boterearen esanahia jasotzen du. Bata *argiaren alderdia* da, orakuluaren jainkoa, zeinak bere berezko unearen arabera dena argizatzen duen eguzkitik jalkita dena dakien eta agerrarazten duen, *Febo*, eta bere aita, *Zeus*. Baina egia esaten duen jainko honen aginduak eta *badenari* buruz egiten dituen aldarrikapenak iruzurtiak dira gehienbat. Izan ere, jakite hori bere adigaian bitartegabe ez-jakitea da, zeren *kontzientzia* bere baitan ekitean aurkakotza hori baita. Esfingearen misterioa argitzeko gai dena, haur baten moduan konfiantza zuena bezala, hondamenera erortzen da jainkoak agertzen dionaren eskutik. Emakumezko apaiz hori, zeinaren bidez jainko ederrak hitz egiten duen, ez da patuaren ahizpa zentzubikoa baino, zeinak agintzen duenaren bidez krimenera bultzatzen duen, eta segurutzat jotzen duen ezen, horren zentzubikotasuna dela eta agertu den zentzuan konfiantza izan zuena iruzurtzen duela. Horregatik, kontzientzia, aurrekoa baino

aratzagoa dena, sorginetan sinesten duena, eta lehena baino zuhunagoa eta sakonagoa, emakumezko apaizean eta jainko edenean konfiantza duena, zalantzari dago mendekua hartzeari buruz, aitaren gogoak bera hil zuen krimenari buruz egindako agerkundea dela eta, eta beste frogak eskatzen ditu, gogo agertzaile hori deabrua ere izan baitzitekeen.

Konfiantza eza horrek, beraz, oinarria du, zeren kontzientzia jakileak bere burua bere buruaren ziurtasunaren eta zerizan objektiboaren arteko aurkakotzan ezartzen baitu. Eskubide etikoak, hots, errealitatea *bere baitan* ezer ez izateak lege absolutuaren aurrean, bere jakitea aldebakarra dela esperientziatzen du, bere legea bere izaeraren legea baino ez dela, substantziaren botere bakarra baino ez duela heldu. Ekintza bera *jakina-den* horren iraulketa da bere *aurkakoan, izatean*, izaeraren eta jakitearen eskubidearen eraldaketa da aurkakotu-denaren zuzenbidean (zeinarekin hura substantziaren zerizanean elkarlotzen den), etsaikorki sortutako beste botere eta izaeraren Erinian eraldatzen da. *Behe-zuzenbidea Zeusekin* esertzen da tronuan eta zuzenbide agerraraziaren eta jainko jakilearen onespen berbera jasotzen du.

182

Indibidualtasun ekileak koruaren jainko-mundua hiru zerizan horietara murrizten du. Bata *substantzia* da, era berean sukaldearen boterea eta senitartetasunaren gogo nahiz estatuaren eta gobernuaren botere orokorra dena. Substantziari bere horretan bereizketa hori dagokion heinean, ez da indibidualizatzen errepresentazioan bi tankera ezberdinetan, baizik eta errealitatean bere izaeren bi pertsonak ditu. Aitzitik, jakitearen eta ez-jakitearen bereizketa *autokontzientzia erreal bakoitzean* kokatzen da, eta abstrakzioan soilik, orokortasunaren osagaien banatzen da bi tankera indibidualetan. Izan ere, heroiaren norberak hor-izatea kontzientzia oso den aldetik baino ez du, eta, beraz, zerizanez bereizketa *osoa* da, formari dagokiona; baina bere substantzia determinatua da, eta horri edukiaren bereizketaren alderdi bakana dagokio. Horregatik, kontzientiaren bi alderdiek, errealitatean ezein indibidualtasun banaturik ez dutenek, *errepresentazioan* bakoitzak bere tankera berezia du; bata jainko agertzailearena, besteak ezkutuan geratzen den Eriniarena. Biek, alde, ohore berberaz gozatzen dute, eta, alde, *substantziaren tankera*, Zeus, bien arteko *harremanaren* beharrezkotasuna da. Substantzia harreman hau da, alegia, jakitea bere baitarako dela, baina bere egia simple-denean izanik; kontzientzia erreal izanarazten duen bereizketak bera baliogabetzen duen barneko zerizanean duela oinarria; *ziurtasunaren segurtapenak* bere baieztapena *ahazturan* duela.

Kontzientziak aurkakotza hori ekitearen bidez argitu du; agerarazitako jakitearen arabera ekinez, horren iruzurra esperientziatzen du, eta edukiaren arabera substantziaren arributu *baten* eskutan jartzean, bestea zauritu du eta honi ematen dio eskubidea bere aurrean. Jainko jakileari jarraiki, agerrarazi ez denari lotzen zaio, eta zigorra ordaintzen du jakitean konfiantza izateagatik, zeinaren zentzubikotasunak, bere izaera denez, *kontzientiarentzat ere* eskura izan beharko zukeen eta horren *abisu* bat izan beharko zukeen.

183

Emakumezko apaizaren eldarnioa, sorginen tankera ez gizatiarra, zuhaitzaren, txoriaren ahotsa, ametsa, eta abar, ez dira egia agertzeko moduak, baizik eta iruzurraren, zuhurtasun ezaren, jakitearen banakotasunaren eta ausazkotasunaren zeinu ohargarriak dira. Edo gauza berbera dena, botere aurkakotua, horrek zauritzen duena, eskura dago lege adierazia eta indarrean dagoen zuzenbide bezala; dela

familiaren dela estatuaren legea; kontzientzia, aldiz, norberaren jakiteari jarraiki zitzaien, eta agerrarazitakoa ezkututzen dio bere buruari. Baina edukiaren eta kontzientziaren elkarren aurka egiten duten botereen egia emaitza hau da, alegia, biek eskubide berbera dutela eta honegatik euren aurkakotzan, ekiteak ekoizten duenean, eskubide-eza berbera dutela. Egitearen higidurak bere batasuna erakusten du bi botereen eta euren buruaz jabetzen diren izaeren elkar hondoratzean. Aurkakotza bere buruarekin adiskidetzeari *behemunduko Letea* da heriotza, edo *goimunduko Letea*, absolutio gisa, ez hobena, hori kontzientziak ezin baitu ukatu, ekiten zuenez, baizik eta krimenarena, eta bere baretze ordaintzaile gisa. Biak dira *ahaztura*, substantziaren botereen errealitatearen eta egitearen desagertuta izatea, euren indibidualtasunena, eta ongiaren eta gaitzaren pentsamendu abstraktuaren botereena, zeren horietako ezein ez baita zerizana berez, baizik eta hori osokiaren lasaitasuna da bere barnean, patuaren batasun higigaitza, hor-izate lasaia, eta, beraz, familiaren eta gobernuaren ekimen gabezia eta bizitza gabezia, eta ohore berbera eta, beraz, Apoloren eta Eriniaren errealitate eza axolagabea, eta euren gogobizitzearen eta egiletasunaren itzulera Zeus sinplera.

Patu horrek zeruko biztanleen hustuketa osatzen du, indibidualtasunaren eta zerizanaren arteko pentsamendu gabeko nahasketa, zerizanaren egitea ondoriogabe, ausazko, beretzat ezduin gisa agerrarazten duen nahasketa; izan ere, zerizanari azalean soilik itsatsiz, indibidualtasuna zerizangabea da. Errepresentazio zerizangabe horien bazterketa, antzinako filosofoek eskatu zutena, tragedian dagoeneko honen bidez hasten da oro har, hots, substantziaren zatiketa adigaiak kudeatzen duela, eta horrela indibidualtasuna zerizanezko indibidualtasuna dela eta determinazioak izaera absolutuak direla. Horretan errepresentatzen den autokontzientziak, beraz, botere goren *bat* baino ez du ezagutzen eta onesten, eta Zeus hori estatuaren edo sukaldearen botere gisa besterik ez, eta jakiteari aurkakotuz *berezi-denaren* tankera bihurtzen ari den jakitearen aita gisa, eta zin egitearen eta Eriniaren Zeus gisa, *orokordenaren* Zeus gisa, ezkutuan bizi den barneko-denarena. Oraindik adigaitik errepresentaziora sakabanatzen diren uneak, koruak liaran balioesten dituenak, ez dira, aldiz, heroien jasapena, baizik eta hori hondoratzen dute jasapenera, une ausazko, zerizangabeetara, norberarik ez duen koruak goraiatzen dituen uneetara, bai, baina heroien izaera osatu ezin dutenetara, eta heroiei euren zerizan gisa ahotan hartu eta errespetatzea ezinezkoa zaien uneetara.

184

Baina zerizan jainkotianaren pertsonak berak ere, horren substantziaren izaerak bezala, kontzientzia gabekoaren sinpletasunean elkartzen dira. Beharrezkotasun horrek autokontzientziaren aurrean determinazio hau du, hots, agertzen ari diren tankera guztien botere negatiboa izatea, horretan bere burua ez ezagutzea, baizik eta hor aldiz hondoratzea. Norbera *izaerei* egotzita baino ez da agertzen, ez higiduraren erdigune gisa. Baina autokontzientzia, bere buruaren *ziurtasun* sinplea, egitatean botere negatiboa da, Zeusen batasuna, zerizan *subs tantziadunarena* eta beharrezkotasun *abstraktuarena*, gogoaren batasuna da, eta guztia horretara itzultzen da. Autokontzientzia erreala oraindik substantziarik eta patutik ezberdintzen denez, hori, *aldez*, korua da edo ikusleen jendetza, zeinak bizitza jainkotiarraren higidura hori *arrotz* bat bezala izuz betetzen duen, edo hor higidura horrek gertuko zerbait gisa ekilea ez den *errukiaren* zirrara ekoizten duen. Aldez, kontzientziak laguntzen duen heinean eta izaerei dagozkien heinean, bateratze hori, egiazkoa, norberarena, patuarena eta substantziarena, oraindik eskura ez dagoenez, kanpokoa

da, *zurikeria* bat; ikusleen aurrean agertzen den heroia bere mozorroan eta antzezlearengan desegiten da, pertsonarengan eta norbera errearengan.

Heroiaren autokontzientziak mozorrotik irten eta bere burua aurkeztu behar du koruko jainkoen nahiz botere absolutuen patua dela jakinez, eta aurrerantzean korutik, kontzientzia orokorretik, bereiztu gabe.

Komediak hasiera batean, beraz, alderdi hau du, autokontzientzia erreala jainkoen patu gisa aurkezten duela. Zerizan single horiek ez dira ezein norbera, une *orokorrak* diren aldetik, eta ez dira errealak. Indibidualtasunaren formaz hornituak daude, noski, baina itxurazkoa baino ez da, eta ez dagokie bere baitan eta bere baitarako; norbera errealak ez du halako une abstraktua bere substantzia eta eduki gisa. Hori, subjektua, halako une batez haraindi dago, baita ezaugarri banako batez haraindi ere, eta mozorro hori jantzita horren ironia adierazten du, bere baitarako zerbait izan nahi duena. Zerizantasan orokorraren harrokeria norberarengan erakusten da; errealtate batean lotuta agertzen da eta mozorroa erortzen uzten du, hain zuzen, zerbait zuzena izan nahi duenean. Norberak, hemen errealden aldetik duen esanahian agertuz, mozorroarekin jokatzeko duen behin jantzten duena bere pertsona izateko, baina itxura horretatik berehala irteten da bere biluztasunera eta arruntasunera, benetako norberarengandik, antzezlearengandik, nahiz ikuslearengandik bereizten ez dena, erakusten denez.

185

Zerizantasan tankeraduna bere indibidualtasunean desegite orokor hori serioago eta, beraz, ausartago eta zakarrago bihurtzen da bere edukian, horrek bere esanahi serioena eta beharrezkoena duen heinean. Substantzia jainkotiarrak bere barnean zerizantasan berezkoaren eta etikoaren esanahia bateratzen ditu. Lehenengoari dagokionez, autokontzientzia errealak dagoeneko horren erabilera edergarri gisa, egoitza gisa, eta abar gisa, eta bere opariaren bazkari ederrean patu gisa, erakusten du bere burua, zeinari naturaren norberazerizantasan sekretua jakinarazi zaion; ogiaren eta ardoaren misterioan biak bereganatzen ditu batera barneko zerizanaren esanahiarekin, eta komedian esanahi horren ironiaz jabetzen da oro har. — Bada, esanahi horrek zerizantasan etikoa barnebiltzen duen heinean, hori, alde, herria da, bere bi alderdietan, estatuarena edo benetako *demosarena*, eta sendi-banakotasunarena; baina, alde, bere buruaz jabetzen den jakite hutsa, edo orokor-denaren pentsatze arrazoiduna. — *Demos* hark, masa orokorrak, bere burua nagusi eta gobernari gisa nahiz errespetatu behar den adimen eta ulermen gisa dakienak, bere burua hertsatzen du eta aztoratzen du bere errealtatearen berezitasunaren bidez, eta alde barregarria aurkezten du bere buruaz duen iritziaren eta bere hor-izate bitartegabekoaren artean, bere beharrezkotasunaren eta ausazkotasunaren artean, bere orokortasunaren eta arruntasunaren artean. Orokor-denetik bananduta dagoen banakotasunaren bere printzipioak, errealtatearen benetako tankeran agertzen bada eta elkargoa, zeinaren kalte sekretua den, nabarmenki bereganatzen badu eta antolatzen badu, orduan are modu bitartegabekoan erakusten da orokor-denaren, teoria bat den aldetik, eta praxiaren benetako gaia denaren arteko aldea, banakotasun bitartegabekoaren xedeen askapen osoa erakusten da ordena orokorretik eta hark horri egiten dion isekatik.

186

Pentsatze arrazoidunak zerizan jainkotiarrari bere tankera ausazkoa kentzen dio, eta koruaren jakitua adigaigabeari aurkakotzen zaio, zeinak zenbait esakune etiko sortzen dituen eta hainbat lege eta betebeharraren eta zuzenbidearen adigai

determinatu indarrean jartzen dituen, horiek *eder-denaren* eta *on-denaren* ideia sinpleetara altxatzen ditu. Abstrakzio horren higidura dialektikaren kontzientzia da, maxima eta lege horiek euren baitan dituen dialektikarena, eta honen bidez baliotasun absolutuaren, lehen agertoki izan zuten honen, desagertzearen kontzientzia. Determinazio ausazkoa eta indibidualtasun azalekoa, errepresentazioak zerizantasan jainkotiarrei egozten ziena, desagertzen diren heinean, euren hor-izate bitartegabekoaren biluztasuna baino ez zaie geratzen euren alderdi *berezkoan*, hodeiak dira, desagertzen den lurrina, errepresentazio haiek bezala. Euren zerizantasan *pentsatuaren* arabera *eder-denaren* eta *on-denaren* pentsamendu *sinple* bihurtu dira, edozein edukiz beteak izatea onartuz. Jakite dialektikoaren indarrak ekitearen lege eta maxima determinatuak utzi egiten dizkio gazteria limurtuaren atsegin eta arinkeriarri, eta armak ematen dizkio eskura bizitzaren banakotasunera murriztutako zahartzaroaren txepelkeriarri eta ardurari. Eder-denaren eta on-denaren pentsamendu hutsak, beraz, iritzi horretatik askatuz, hots, euren determinatutasunak eduki gisa eta euren determinatutasun absolutuak kontzientziaren irmotasuna barnebiltzen dutela, bada, antzezlan komikoa hutsal eta, horregatik, indibidualtasun ausazkoaren iritzi eta nahieraren joko bihurtzen erakusten du.

Hemen lehen bere buruaz jabetzen ez zen patua, lasaitasun hutsala eta ahaztea dena eta autokontzientziatik bananduta dagoena, horrekin batzen da. *Norbera banakoa* indar negatiboa da, zeinaren bitartez eta zeinetan jainkoak eta haren uneak, baden natura eta honen determinazioen pentsamenduak desagertzen diren; aldi berean, hori ez da desagertzearen hustasuna, baizik eta bere burua jasotzen du ezereztasun horretan, bere burua aldean du eta errealtate bakana da. Antzearen erlijioa hor osatzen da eta bere baitara itzuli da guztiz. Banako kontzientzia bere buruaren ziurtasunean botere absolutu hori bezala aurkezten dena izaki, horrek *errerepresentatua denaren* forma du, *kontzientziatik* oro har *bananduta dagoena* eta, honi arrotz, galduta dagoena, estatuak ziren bezala, baita gorpuztasun eder eta bizia edo epo

peiaren edukia eta tragediaren botereak eta pertsonak ziren bezala ere; batasuna ere ez da kultuaren eta misterioen *kontzientziarik gabekoa*, baizik eta antzezlearen benetako norberak bere pertsonarekin bat egiten du, ikusleak errerepresentatzen zaionean guztiz etxean dagoen eta bere burua antzezten ikusten duen bezala. Horretan autokontzientzia honek begiesten duena da horren aurrean zerizantasanaren forma hartzen duena bere pentsatzean, hor-izatean eta egitean desegiten dela eta amore ematen duela, orokor-den guztiaren itzulera da norberaren ziurtasunera, zeina horren bidez arrotz den guztiaren beldur gabezia eta zerizan gabezia osoa den, eta kontzientziaren ongizate eta ongi izanaraztea, komedia horretatik at ezin aurkitu den bezala.

C. Agerkundearen erlijioa

Antzearen erlijioaren bidez gogo *substantziaren* formatik irten da eta *subjektuaren* forma hartu du, zeren hark horren tankera *sortzen* baitu, eta, beraz, horretan *egitea* edo substantzia beldurganiaman desagertu baino egiten ez den eta konfiantzan bere burua ulertzen ez duen *autokontzientzia* ezartzen du. Zerizan jainkotiarraren gizaki-bilakatzeko hori estatuatik abiatzen da, zeinak bere baitan norberaren *kanpoko* tankera baino ez duen, baina *barnekoa*, horren egiletasuna, horretatik at kokatzen den; baina kultuan bi alderdiak bateratzen dira, antzearen erlijioaren emaitzan batasun hori bere osaketan, aldi berean, gainera norberaren muturrera igaro da; gogoan, kontzientziaren banakotasunean bere buruaz osorik ziur dagoenean, zerizantzasun oro hondoratuta dago. Arinkeria hori adierazten duen esakuneak honela dio: *norbera zerizan absolutua da*; zerizana, substantzia, non norbera akzidente bat zen, predikatu izateraino hondoratu da, eta gogoak *autokontzientzia horretan*, zeinari zerizanaren forma duen ezer ez zaion aurkakotzen, bere *kontzientzia* galdu du.

Norbera zerizan absolutua dela dioen esakunea berez argitzen denez, gogo ez-erlijiosoari dagokio, gogo errealari, eta gogora ekarri behar da zein den hori adierazten duen tankera. Horrek gogoaren higadura eta iraulketa barnebilduko ditu aldi berean, zeintzuek norbera predikatu izatera behehitzen duten eta substantzia subjektu izatera goratu.

Halako moldez, hain zuzen, non alderantzizko esakuneak ez baitu *bere baitan* edo *guretzat* substantzia subjektu bihurtzen, edo gauza berbera dena, ez baitu substantzia honela birsortzen, hots, gogoaren kontzientzia bere abiapuntura, berezko erlijiora itzularaziz, baizik eta iraulketa *autokontzientziarentzat* eta *horren bidez* osatuz. Autokontzientziak horretaz jabetuz amore ematen duen heinean, bere kanporatzean mantentzen da eta substantziaren subjektu izaten irauten du, baina, era berean, bere burua kanporatu duen aldetik, aldi berean, substantziaren kontzientzia du; edo autokontzientziak bere sakrifizioaren bidez substantzia subjektu gisa *ekoizten* duen heinean, subjektuak horren norbera propio dirau. Horren bidez lortzen da ezen, lehen esakunean subjektua desagertu baino ez bada egiten substantziatasunean, eta bigarrenetan substantzia predikatu baino ez bada, eta bi alderdiak esakune bakoitzean eskura badaude balioaren ezberdintasun aurkakotua izanik, bada, bi izaeren bateratzea eta elkar zeharkatzea sortzea, non biak balio berbera izanik zerizanezkoak eta, aldi berean, *uneak* baino ez diren; horren bidez gogo aldi berean bere buruaren *kontzientzia* eta bere substantzia *objektiboarena* da, baita bere barnean geratzen den *autokontzientzia* sinplea ere.

Antzearen erlijioa gogo etikoari dagokio, lehen *zuzenbide-egoeran* hondoratzen ikusten genuenari, hau da, esakune honetan: *norbera bere horretan, pertsona abstraktua, zerizan absolutua da*. Bizitza etikoan norbera bere herriaren gogoan hondoratuta dago, orokortasun *betea* da. *Banakotasun sinpleak*, ordea, eduki horretatik gora egiten du, eta horren arinkeriak pertsona izateraino, zuzenbidearen orokortasun abstraktua izateraino arazten du. Hor gogo etikoaren *errealitatea* galtzen da, herri-indibiduen gogo edukigabeak panteoi *batean* biltzen dira, ez

errepresentazioaren panteoi batean, zeinaren forma boteregabeak gogo bakoitzak nahi duena egiten uzten duen, baizik eta orokortasun abstraktuaren panteoian, pentsamendu hutsarenean, horiei soina erauzten dienean eta norbera gogogabeari, pertsona banakoari, berbaitan eta berbaitarako izatea esleitzen dienean.

Baina norbera horrek edukia askatu du bere hustasuna dela eta; kontzientzia *bere barnean* baino ez da zerizana; bere *hor-izate* propioan, pertsonaren legezko berrezagupena bete ez den abstrakzioa da; beraz, bere buruaren pentsamenduaren jabe da gehienbat, edo hori *den* eta bere burua objektu gisa dakien moduan, *ez-erreal*a dena da. Beraz, *pentsatzearen beregaintasun* estoikoa besterik ez da, eta horrek, kontzientzia eszeptikoaren higidura osatuz, *zoritxarreko autokontzientzia* deitu zitzaion tankeran aurkitzen du bere egia.

189

Autokontzientzia horrek badaki zein den pertsona abstraktuaren balio erreal eta, era berean, horrek pentsamendu hutsean duen balioa. Badaki halako balioa gehienbat galera erabatekoa dela, hori bera da bere buruaz jabetzen den galera hori, eta bere buruaz duen jakitearen kanporatzea. — Ikusten dugu kontzientzia zoritxarreko horrek bere barnean guztiz zorionekoa den kontzientziaren, kontzientzia komikoaren beste aldea eta burutzea osatzen duela. Azken honetan jainkotiar zerizan oro itzultzen da, edo *substantziaren kanporatze* betegina da. Hura, berriz, *bere buruaren ziurtasunaren*, bere baitan eta bere baitarako izan behar duen ziurtasunaren patu tragikoa da. *Zerizant*asun ororen galeraren kontzientzia da *ziurtasun horretan*, eta bere buruaz duen jakitearen galeraren kontzientzia ere bai, substantziarena nahiz norberarena; hitz gogor hauetan adierazten den mina da: *jainkoa hil da*.

Zuzenbide-egoeran, beraz, mundu etikoa eta horren erlijioa kontzientzia komikoan hondoratu dira, eta zoritxarreko kontzientzia galera horren *guztiaren* jakitea da. Horrek bere bitartegabeko pertsonalitatearen berezko balioa nahiz bitartekotua, pentsatua, galdu ditu. Era berean, isildu egin da jainkoen lege betikoetan zegoen konfiantza, berezidena omen zekiten orakuluetan zegoena ere bai. Estatuak gorpuak baino ez dira, arima bizigarria galdu dutenak, ereserkiak sinesmenik ez zaien hitzak diren bezala; jainkoen mahaiak gogoarentzako jaki eta edaririk gabe daude, eta jainkoen joko eta festek ez diote itzultzen kontzientziari zerizanarekin zuen batasun pozgarria. Musen lanei gogoaren indarra falta zaie, gogoak bere buruaren ziurtasuna jainkoen eta gizakien zapaltzetik lortu baitzuen. Estatuak, bada, guretzat direna baino ez dira, zuhaitzetik eroritako fruitu ederrak, lagun dugun patu batek eskaintzen dizkigunak, neska batek fruitu haiek aurkezten dituen bezala; ez dago horren hor-izatearen bizitza errealik, ezta fruituak zituen zuhaitza ere, ez lurra eta bere substantzia osatzen zuten osagaiak, ezta horien determinatutasun osatzen zuen klima ere, ezta urtaroen aldaketa ere, fruituen bilakaeraren prozesua gidatzen zuena. — Horrela, patuak antze haren emaitzekin ezin digu eman haien mundua, ezta haien loraldia eta heltze prozesua bizi zituzten bizitza etikoaren udaberria eta uda ere, baizik eta errealitate horren oroitzapen ezkutatua. — Gure egitea horietaz gozatzen dugunean, beraz, ez da jainkoa gurtzen duena, zeinaren bidez gure kontzientziak asebetetzen duen egia osoa jasoko lukeen, baizik eta kanpoko egitea da, zeinak fruitu horietatik euri tanta batzuk edo hauts-izpi batzuk kentzen dizkion, eta etiko-denaren errealitate ingurutzailaren, sortzailaren eta gogo-bizitzailearen barneko osagaiaren orde z bere kanpoko existentziaren osagai hilaren, hizkuntzaren, historiko-denaren

armazoi hedatua ezartzen duen, baina ez horietan barnean bizitzeko, baizik eta horiek bere barnean errepresentatzeko besterik ez. Baina bildutako fruituak eskura ematen dizkigun neskatxa fruitua bitartegabe eskaintzen zuen haren natura, haren baldintzetan eta osagaietan, zuhaitzean, airean, argian, eta abarretan, hedatutako natura baino gehiago zen bezala, era garaiago batean hori guztia bere buruaz jabetzen den begiaren izpian eta eskaintzaren keinuan biltzen duen heinean, bada, patuaren gogo, antze-lan haiek eskaintzen dizkiguna, herri haren bizitza etikoa eta errealitatea baino gehiago da, zeren hori haietan oraindik *adierazitako gogoaren oroitzapena*¹² baita; patu tragikoaren gogo da, jainko indibidual haiek denak eta substantziaren atributuak panteoi bakar hartan biltzen dituen, bere buruaz gogo den aldetik jabetzen den gogoan.

190

Horren sortzearen baldintza guztiak eskura daude, eta honen baldintzen osotasun horrek *bilakaera*, *adigaia* edo *berbaitan den* sortzea osatzen ditu. Antzearen sorkuntzen zirkuluak substantzia absolutuaren kanporatzeen formak biltzen ditu; indibidualtasunaren forman gauza bat bezala da, sentipenezko kontzientziaren *baden* objektu bezala, hizkuntza hutsa bezala edo tankeraren bilakaera bezala, zeinaren horizatea ez den norberarengandik irteten eta objektu *desagerkorra* baino ez den; *autokontzientzia* orokorrarekiko *batasun* bitartegabeko gisa bere gogo-bizitzean, eta batasun bitartekotu bezala kultuaren egitean; *norberaren gorpuztasun* eder bezala, eta azkenik *errepresentazioraino* goratzen den horizate bezala eta horren hedapen bezala, azkenean, era berean, *bere buruaren ziurtasun den* orokortasunean biltzen den mundu batean. Forma horiek, eta beste aldean *pertsonaren* eta zuzenbidearen *munduak*, edukiaren osagai askatuen basatikeria deuseztatzaileak, gainera estoizismoaren pertsona *pentsatuak* eta kontzientzia eszeptikoaren ezinegon lasaitezinak osatzen dute tankera hauen periferia, espero laman autokontzientzia bihurtzen den gogoaren jaiolekuaren inguruan dauden tankerena; horiek denak zeharkatzen dituen autokontzientzia zoritzarrekoaren mina eta mira da horien erdigunea eta horren jaiotzaren erditze-min komuna: adigai hutsaren sinpletasuna, tankera horiek bere une gisa barnebiltzen dituen.

191

Gogoak bi alderdiak bere baitan ditu, lehenago bi esakune alderantzizko gisa aurkeztu direnak; batak dio *substantziak* bere burua kanporatzen duela eta autokontzientzia bihurtzen dela; besteak, berriz, *autokontzientziak* bere burua kanporatzen duela eta gauzatasun edo norbera orokor bihurtzen dela. Horrela bi alderdiek elkar topatu dute, eta honen bidez sortu da euren arteko egiazko bateratzea. Substantziaren kanporatzeak, hori autokontzientzia bihurtzeak, aurkakora igarotzea adierazten du, *beharrezkotasunaren* kontzientziarik gabeko igarobidea, edo adierazten du hori *bere baitan* autokontzientzia dela. Alderantziz, autokontzientziaren kanporatzeak azaltzen du *bere baitan* zerizan orokorra dela, edo, norbera *berbaitarako* izate hutsa denez, aurkakoan bere baitan geratzen dena, horrentzat dela, substantzia autokontzientzia dela eta horrexegatik gogo dela. Beraz, gogo horretaz, substantziaren forma utzi duen eta autokontzientziaren tankeran horizatean sartzen den gogoaz esan daiteke (berezko ugalketatik hartutako erlazioak erabili nahi baditugu) ama *erreal*a duela baina *berbaitan* den aita; izan ere,

¹² *Er-Innerung* idazten du, eta, beraz, oroitzapena esan nahi duen arren, barnera sartzeko bat dela azpimarratzen du hitzaren etimologia nabarmenduz (itzultzaileen oharra).

errealitatea edo autokontzientzia eta *berbaitana* substantzia den aldetik dira horren bi unek, eta horien kanporatzearen bidez, bata beste bihurtzen dela, gogoak horien batasun gisa hor-izatea lortzen du.

Autokontzientziak modu aldebakarrean *bere* kanporatze *propioa* soilik atzematen duen heinean, bere objektua dagoeneko, beraz, izatea nahiz norbera den arren eta hor-izate oro gogozko zerizan gisa dakien arren, ez zaio honegatik egiazko gogo bihurtu, hain zuzen, izateak oro har edo substantziak *euren baitan* era berean eurak kanporatzen ez ziren eta autokontzientzia bihurtzen ez ziren heinean. Izan ere, horrenbestez, hor-izate hori *kontzientziaren ikuspuntutik* baino ez da gogozko zerizan, ez bere baitan. Era horretara *irudikatu* baino ez da egiten gogo hor-izateari egozten zaiola; eta irudikazio hori *gogoberotzea* da, zeinak naturari eta historian, munduari eta aurreko erlijioen errepresentazio mitikoei agerpenean kontzientziari bitartegabe eskaintzen diotena ez beste zentzu barnekoa egozten dien, eta erlijioei dagokienez horietan autokontzientziak (horren erlijioak ziren horiek) dakiena ez beste beste zentzua. Baina zentzu hori maileguan hartutakoa da, eta agerpenaren biluztasuna estaltzen ez duen eta sinesmen eta gurtzapenik jasotzen ez duen jantzia da, baizik eta kontzientziaren gau lausoa eta norberaren lilurapena izaten dirauena.

192

Objektu-denaren esanahi hori irudikazio soila izan ez dadin, horrek *bere baitan* izan behar du, hau da, *lehenengoz* kontzientziari *adigaitik* sortu behar zaio eta bere beharrezkotasunean sortu behar du. Horrela, *kontzientzia bitartegabekoaren* ezagutzearen bidez, edo *baden* objektuaren kontzientziaren ezagutzearen bidez, horren higadura beharrezkoaren eskutik bere burua dakien *gogoa* sortu zaigu. Adigai horrek, bitartegabeko adigai den aldetik bere kontzientziarentzat ere *bitartegabekotasunaren* tankera duenak, bere buruari *bigarrenik berbaitango* autokontzientziaren tankera eman dio, hau da, adigaiaren beharrezkotasunari jarraiki, *izatea* edo *bitartegabekotasuna*, sentipenezko kontzientziaren objektu edukigabekoa dena, bere baitatik kanporatzen den aldetik, eta kontzientziarentzat nia bihurtzen den aldetik. Baina *bitartegabeko berbaitana* edo *baden beharrezkotasuna berbaitan pentsatzailetik* edo *beharrezkotasunaren ezagutzetik* ezberdintzen da; aldi berean, ordea, bereizketa hori ez da kokatzen adigairik at, adigaiaren *batasun sinplea* izate *bitartegabeko* bera baita; hori era berean bere baitatik kanporatzen duena da edo *begietsi den beharrezkotasunaren* bilakaera, hori honetan bere barnean den eta horrek beharrezkotasun hori dakien eta aditzen duen aldetik. Gogoaren *bitartegabeko berbaitanak*, bere buruari autokontzientziaren tankera ematen dionak, hauxe esan nahi du, alegia, mundu-gogo erreala bere buruaren jakite horretara iritsi dela; orduan soilik sartzen da jakite hori bere kontzientzian egia gisa. Lehenago argitu da hori nola gertatu den.

Gogo absolutuak bere buruari autokontzientziaren tankera ematea *bere baitan* eta, horrenbestez, bere *kontzientziarentzat ere* ematea orain honela agertzen da, hots, hori *munduaren sinesmena* dela, gogo autokontzientzia gisa, hau da, gizaki erreal gisa *hor dagoela*, bitartegabeko ziurtasunarentzat dagoela, sinesten duen kontzientziak jainkotasun hori *ikusi* eta *sentitu* eta *entzuten* duela. Horrela, autokontzientzia hori ez da irudikazioa, baizik eta *sinestunean dago benetan*. Orduan, kontzientzia ez da *bere* barneko-denetik abiatzen, pentsamendutik, eta ez du lotzen *bere barnean* jainkoaren pentsamendua hor-izatearekin, baizik eta hor aurrean dagoen hor-izate bitartegabekotik abiatzen da, eta horretan ezagutzen du jainkoa. —

Bitartegabeko izatearen unea adigaiaren edukian honela dugu eskura, alegia, gogo erlijiosoa zerizantasan orok kontzientziara egiten duen itzuleran norbera positibo *sinple* bihurtu dela, eta era berean gogo erreala, halakoa den aldetik, kontzientzia zoritxarrekoan bere buruaz jabetzen den negatibotasun *sinple* hori bera dela. Baden gogoaren norberak honen bidez bitartegabekotasun beteginaren forma du; ez da ezartzen ez pentsatutako ez errepresentatutako gisa, ezta ekoiztutako gisa ere, bitartegabeko izateari alde berezko erlijioan, alde antze-erlijioan gertatzen zaion moduan. Baizik eta jainko hori bitartegabe norbera gisa begiesten da sentipenaren bidez, gizaki banako erreala den aldetik; honela baino ez *da* autokontzientzia.

193

Zerizan jainkotiarra gizaki bihurtzea edo horrek zerizanez eta bitartegabe autokontzientziaren tankera izatea da erlijio absolutuaren eduki sinplea. Hor zerizanez jabetzen gara gogo gisa, edo hori gogo izateko duen kontzientzia da. Izan ere, gogo bere buruaren jakitea da bere kanporatzean; bere beste-izatean bere buruarekiko berdintasuna mantentzen duen higidura den zerizana da. Baina hori substantzia da, hori bere akzidente izaeran era berean bere baitara islatzen den heinean, ez ordea zerizangabeko baten aurrean eta, beraz, arrotza den batean aurkitzen denaren aurrean axolagabe gisa, baizik eta horretan *bere barnean*, hau da, substantzia *subjektu* edo *norbera* den heinean. Erlijio horretan, beraz, zerizan jainkotiarra *agerrarazi* da. Honen ageri izatea honetan datza argiki, hots, badakigula zer den. Baina jakitera iristen gara, hain zuzen, gogo gisa dakigulako, zerizanez *autokontzientzia* den zerizan gisa. *Kontzientziarentzat* bere objektuan zerbait sekretua dago, hori kontzientziarentzat *beste bat* edo *arrotza* denean, eta kontzientziak hori *bere burua* bezala ez dakienean. Sekretu izate horrek izateari uzten dio, zerizan absolutua gogo gisa kontzientziaren objektu den heinean; izan ere, hori horrela *norbera* gisa da horrekin duen erlazioan; hau da, kontzientziak honetan bere burua daki bitartegabe, edo horretan bere buruari agertzen zaio; kontzientzia bere buruaren ziurtasun propioan soilik ageri da; bere objektu hura *norbera* da, baina norbera ez da anotza, baizik eta bere buruarekiko batasun banaezina, bitartegabe orokordena. Adigai hutsa da, pentsatze hutsa edo bitartegabe izate den eta, beraz, *beste batentzako izate* den *berbaitarako izatea*, eta *beste batentzako izate* hori bezala bitartegabe bere baitara itzultzen dena, eta bere barnean dagoena; beraz, egiatan agerrarazi den bakarra da. Ona, zuzena, santua, zeruaren eta lurraren sortzailea, eta abar, subjektu baten *predikatuak* dira, gune horretan euren sostengua duten une orokorrak, kontzientzia pentsatzera itzultzen denean baino ez direnak. — *Une horiek* dakizkigunean horien oinarria eta zerizana, *subjektua* bera, ez da oraindik agerrarazi, eta era berean orokor-denaren *determinazioak* ez dira *orokor-den hori bera*. *Subjektua* bera eta, beraz, *orokor-den huts hori*, ordea, ageri da *norbera* gisa, hori hain zuzen bere baitara islatutako barneko-dena baita, bitartegabe hor dena eta norbera honen ziurtasun propioa dena, hots, hor egoteko arrazoia den norberarena. Gogoaren egiazko tankera, beraz, bere *adigaiaren* arabera agerrarazi dena izatea da, eta bere tankera hori, adigaia, era berean horren zerizana eta substantzia da soil-soilik. Gogo autokontzientzia gisa dakigu eta horri ageri zaio bitartegabe, hori bera baita; izaera jainkotiarra eta gizatiana gauza bera dira, eta batasun hori begiesten da.

194

Hemen, beraz, egitatean kontzientzia edo zerizana horrentzat izateko modua, horren tankera, bere autokontzientziarekin berdintzen da; tankera hori bera autokontzientzia bat da; horrela, aldi berean, *baden* objektua da, eta *izate* horrek, era

berean, bitartegabe *pentsatze hutsaren* esanahia du, zerizan absolutu arena. — Zerizan absolutua, autokontzientzia erreal gisa hor dagoena, itxuraz bere betiko sinpletasunetik *beheititu* da, baina egitatean, horrela, bere zerizangaraiena lortu du. Izan ere, zerizanaren adigaia, bere araztasun simplea lortu duenean baino ez da *abstrakzio* absolutua, zeina *pentsatze hutsa* eta, beraz, norberaren banakotasun hutsa den, bere sinpletasuna dela eta *bitartegabedena* edo *izatea* den moduan. Sentipenezko kontzientzia deitzen zaiona da, hain zuzen, abstrakzio huts hori, izatea bitartegabe-dena zaion pentsatze hori da. Behekoena, beraz, garaiena ere bada; guztiz *azalera* irten den nabari-dena, hain zuzen, horrela *sakonen-dena* da. Zerizan garaiena baden autokontzientzia gisa ikusia, entzuna, eta abar, izatea, beraz, egitatean bere adigaiaren osaketa da; eta osaketa horren bidez zerizana bitartegabe *dago* hor zerizan den aldetik.

Hor-izate bitartegabeko hori ez da soilik aldi berean kontzientzia bitartegabekoa, baizik eta kontzientzia erlijiosoa da; modu banaezinean bitartegabekotasunak *baden* autokontzientiaren esanahia ez ezik pentsatua baino ez den zerizanarena edo *zerizan* absolutuarena ere badu. Gure adigaiari honetaz jabetzen gara, hots, *izatea zerizana* dela, eta kontzientzia erlijiosoa ere horretaz jabetzen da. Izatearen eta zerizanaren *batasun* hori, bitartegabe *hor-izate* den pentsatzearena, era berean horren jakite *bitartegabekoa* da, kontzientzia erlijioso horren *pentsamendua* edo horren jakite *bitartekotua* den bezala; izan ere, izatearen eta pentsatzearen batasun hori *autokontzientzia da*, eta hor da, edo *pentsatutako* batasunak aldi berean hori denaren tankera dauka. Jainkoa, beraz, hemen *agerrarazten da, den bezala; hor da bere baitan den moduan*; hor da gogo den aldetik. Jakite espekulatibo hutsean baino ezin da iritsi jainkoarengana, eta bere barnean baino ez da eta hori bera baino ez da, gogo baita; eta jakite espekulatibo hori agerkunde-erlijioaren jakitea da. Jakite horrek jainkoa *pentsatze* edo zerizan huts gisa daki, eta pentsatze hori izate eta hor-izate gisa daki, eta hor-izatea bere buruaren negatibotasun gisa, eta, beraz, norbera gisa, norbera *hori* eta orokorra; hori daki, hain zuzen, agerkunde-erlijioak. — Aurreko munduaren itxaropenek eta iguripenek agerkunde hori baino ez zuten nahi zerizan absolutua zer den begiesteko eta norberaren burua horretan aurkitzeko; zerizan absolutuan norberaren burua begiesteko poztasun hori autokontzientiari sortzen zaio eta mundu osoa hartzen du; izan ere, gogo da, hauxe adierazten duten une huts haien higidura simplea da: zerizana *bitartegabeko* autokontzientzia gisa begiesten denean baino ez dakigula gogo gisa.

195

Bere burua gogo gisa dakien gogoaren adigai hori bitartegabeko adigaia da, oraindik garatu ez dena. Zerizana gogo da, edo agertu da, agerrarazi da; lehenbizikoz agerkari izate hori ere *bitartegabekoa* da; baina bitartegabekotasuna era berean bitartekotze hutsa edo pentsatzea da; beraz, bere baitan halakoa denez hori aurkeztu behar du. — Hori zehazkiago aztertzen badugu, orduan gogo autokontzientiaren bitartegabekotasunean autokontzientzia *banako hori* da, *orokorrari* aurkakotuta; Bata baztertzailea da, zeina kontzientiarentzat, *horrentzat* baitago hor, *sentipenezko beste* baten forma erabakigabea duen; honek gogo oraindik ez daki berea bezala, edo gogo ez dago oraindik hor, norbera *banakoa* den bezala, era berean norbera orokor bezala, norbera oro bezala. Edo tankeran ez du oraindik *adigaiaren* forma; hau da, norbera orokorrarena, bere errealitate bitartegabekoan era berean gaudituen, pentsatze, orokortasun den norbera, horretan hura galdu gabe. — Baina orokortasun horren forma hurbilena eta, gainera, bitartegabekoa ez da dagoeneko *pentsatzearen*

forma bera, *adigaiarena adigaia den aldetik*, baizik eta errealtatearen orokortasuna, norberaren orotasuna, eta hor-izatearen goratzea errepresentazio izateraino; beti bezala, eta adibide jakin bat aipatzeko, *sentipenezko Hori* gainditua *hautemapenaren* gauza baino ez da, oraindik ez da adimenaren *orokor-dena*.

196

Gizaki banako horrek, beraz, zerizan absolutua horrela agerrarazi denez, bere baitan banako-den aldetik *sentipenezko izatea* osatzen du. *Bitartegabe* hor aurrean dagoen jainkoa da; honen bidez horren *izatea izandako izatera* igarotzen da. Kontzientzia hark, sentipenezko orainaldi hori ezagutzen dionak, utzi egiten dio hura ikusteari, entzuteari; ikusi *du* eta entzun *du*; eta horrexegatik soilik, hura ikusi eta entzun *duelako* bihurtzen da gogo-kontzientzia, edo lehen harentzat *sentipenezko hor-izate* gisa sortzen den moduan orain *gogoan* sortu da. — Izan ere, hura sentipenaren bidez ikusten eta entzuten duen aldetik baino ez da bitartegabeko kontzientzia, zeinak objektibotasunaren ezberdintasuna ez duen gainditu, ez duen atzera jaso pentsatze hutsean, baizik eta banako-den objektibo hori dakien, baina ez norberaren burua gogo gisa. Zerizan absolutu gisa jakin denaren hor-izate bitartegabekoaren desagertzean bitartegabe-denak bere une negatiboa jasotzen du; gogoak errealtatearen bitartegabeko norbera dirau, baina elkartearen *autokontzientzia orokor* gisa, bere substantzia propioan dagoena patxadan, substantzia hori gogoan subjektu orokor den bezala; ez banako-dena berez, baizik eta elkartearen kontzientziarekin batera eta hori elkartearantzat denarekin batera da gogoaren osokia.

Lehenaldia eta *urrunera*, ordea, bitartegabeko modua bitartekotzeko edo orokorki ezartzeko forma osatugabea baino ez da; hori azaleko moduan baino ez da agertu pentsatzearen osagaien, sentipenezko modu *gisa* gordetzen da hor, eta ez da batzen pentsatzearen izaerarekin. *Errepresentatzeraino* goratu besterik ez da egin, hori sentipenezko bitartegabekotasunaren eta haren orokortasunaren edo pentsatzearen arteko lotura sintetikoa baita.

Errepresentatzearen forma horrek osatzen du gogoak elkarte horretan bere buruaz jabetzeko duen determinatutasuna. Forma hori ez da oraindik adigai gisa bere adigaia lortu duen gogoaren autokontzientzia; bitartekotza ez da osatu oraindik. Beraz, izatearen eta pentsatzearen arteko lotura horretan gabezia bat dago, hots, gogo-zerizana oraindik bikoizketa ez-adiskidetu bat izanik, honatago eta haratago batean harrapatuta dagoela. *Edukia* egiazkoa da, baina horren une guztiek, errepresentatzearen osagaien ezarrita, izaera hau dute, alegia, adituak ez izatekoa, baizik eta alderdi beregain oso gisa agertzen dira, *kanpotik* elkar lotzen diren alderdi gisa. Kontzientziaren garapen garaiagoa behar da egiazko edukiak gainera kontzientziarentzat horren egiazko forma barnebiltzeko, substantzia absolutuaz duen begiespena adigaira igotzea eta *horrentzat* bere kontzientzia autokontzientziarekin orekatzea behar da, guretzat edo *bere baitan* gertatu den bezala.

197

Eduki hori bere kontzientzian dagoen moduan aztertu behar da. Gogo absolutua *edukia* da, eta honela bere *egiaren* tankera du. Baina bere egia ez da soilik elkartearen substantzia izatea edo horren *berbaitana* izatea, ezta barnekotasunetik errepresentatzearen objektibitatera irtetea ere besterik gabe, baizik eta norbera erreala bilakatzea, bere baitara islatzea eta subjektu izatea. Hori da gogoak bere elkartean osatzen duen higadura, edo hori da honen bizitza. Bere burua agerrarazten duen gogo hori *bere baitan* eta *bere baitarako* zer den ez da honen bidez azalarazten,

alegia, bere bizitza aberatsa elkartean, esaterako, desarilkatuz eta lehen harira itzularaziz, adibidez lehen elkarte osagabearen errepresentazioetara, edo gizaki errealak ahoskatu duen horretara. Itzulketa horren oinarrian adigaira jotzeko sena dago; baina *jatorria* lehen agerpenaren *hor-izate bitartegabekoa* den aldetik, nahastu egiten du *adigaiaren sinpletasunarekin*. Gogoaren bizitzaren txirotze honen bidez, elkartearen errepresentazioaren eta elkarreak errepresentazioaren aurrean duen egitearen bazterketaren bidez adigaiaren ordezkari kanpokotasun eta banakotasun soila sortzen dira, agerpen bitartegabekoaren modu historikoa eta ustezko tankera banako baten eta horren lehenaldiaren oroitzapen gogogabea.

Gogo bere kontzientziaren edukia da, leherrik *substantzia hutsaren* forman, edo bere kontzientzia hutsaren edukia da. Pentsatzearen osagai hori hor-izatera edo banakotasunera beheitzeko higadura da. Horien arteko erdigunea euren lotura sintetikoa da, beste-bihurtzearen kontzientzia edo errerepresentatzea bere horretan. Hirugarren unea errerepresentaziotik edo beste izatetik egiten den itzulera da, edo autokontzientzia beraren osagaia. Hiru une horiek osatzen dute gogo; errerepresentazioan sakabanatzea honetan datza, alegia, modu *determinatu* batean izatea; determinatutasun hori, ordea, ez da gogoaren unetako bat baino. Horren higadura osatua, beraz, hau da, hots, bere une bakoitzean osagai batean izango balitz bezala bere izaera hedatzea; zirkulu horietako bakoitza bere barnean osatzen den heinean, bere baitara egiten duen isla hori, aldi berean, beste batera doan igarobidea da. *Errepresentazioak* osatzen du pentsatze hutsaren eta autokontzientziaren arteko erdigunea, eta determinatutasunetako *bat* besterik ez da; baina, aldi berean, azaldu denez, honen izaera, lotura sintetikoa izatea, osagai horien guztien gainean hedatzen da eta horien determinatutasun komuna da.

198

Aztertu behar den edukia, aldeztu, dagoeneko agertu da kontzientzia *zoritzarrekoaren* edo *sinestunaren errerepresentazio* gisa; lehen horretan, ordea, *kontzientziatik sortutako* eta *mira zaion* edukiaren determinazioan, non gogoak ezin duen bere burua asebetu, ezta lasaitu ere, gogo ez delako oraindik bere edukia *bere baitan* edo bere *substantzia* gisa; beste horretan, aldiz, gogo munduaren norberarik gabeko *zerizana* bezala edo errerepresentatzearen zerizanez *objektiboa* den eduki bezala aztertu da; errerealitateari oro har ihes egiten dion errerepresentatzea, eta, beraz, *autokontzientziaren ziurtasunik ez* duena, zeina, aldeztu, jakitearen harropuzkeria gisa, aldeztu, ulermen sakon huts gisa hartatik bereizten den. Elkarrearen kontzientziak, aldiz, edukia bere *substantzia* gisa du, eta, era berean, edukia gogo propioaren *ziurtasuna* da.

Hasiera batean *pentsatze hutsaren osagaien* substantzia gisa errerepresentatua, gogo horrenbestez bere buruaren berdina den *zerizan* betikoa da bitartegabe, baina ez zerizanaren *esanahi* abstraktu hori duena, baizik eta gogo absolutuarena. Baina gogo honelakoa da, esanahia ez dena, barneko-dena ez dena, baizik eta errealdena. Zerizan simple betikoa, beraz, hitz kaskalen arabera baino ez litzateke gogo, baldin eta zerizan simple betikoaren errerepresentazioan eta adierazpenean geratuko balitz. Zerizan sinplea, ordea, abstrakzioa denez, egitatean *negatibo-dena da bere baitan*, eta, gainera, pentsatzearen negatibotasuna, edo hori *zerizanean* bere baitan den moduan; hau da, bere baitatik *bereizketa* absolutua da, edo bere beste-bihurtze hutsa. *Zerizan* gisa *bere baitan* edo guretzat besterik ez da; baina araztasun hori, hain zuzen, abstrakzioa edo negatibotasuna den heinean, hori *bere baitarako* da, edo

norbera, adigaia. Beraz, *objektiboa* da; eta errepresentazioak oraintxe aipatu dugun adigaiaren *beharrezkotasuna gertakari* gisa ulertu eta adierazten duen heinean, orduan esan beharko da zerizan betikoak beste bat *ekoizten* duela. Baina beste izate horretan, era berean, bitartegabe bere baitara itzultzen da; izan ere, bereizketa *bere baitan* gertatzen den bereizketa da, hau da, bitartegabe bere burutik baino ez da bereizten, eta, beraz, bere baitara itzuli den batasuna da.

199

Beraz, hiru une bereizten dira, *zerizanarena, berbaitarako izatearena*, zeina zerizanaren beste-izatea den eta zeinarentzat zerizana den, eta *bestean berbaitarako izatearena* edo norberaren burua jakitearena. Zerizanak bere berbaitarako izatean bere burua baino ez du begiesten; kanporatze horretan bere barnean geratzen da, zerizanetik baztertzen den berbaitarako-izatea *zerizanak bere buruaz duen jakitea* da; ahoskatu ondoren ahoskatzailea arrotuta eta hustuta atzean uzten duen hitza da, baina, era berean, entzun egiten zaio bitartegabe, eta bere buruari entzute hori baino ez da hitzaren hor-izatea. Halako moldez non egin diren bereizketak egin diren bezain pronto desegiten diren eta desegiten diren bezain pronto egiten diren, eta egia-dena eta erreal-dena bere barnean biraka dabilen higidura horixe da.

Bere barneko higidura horrek zerizan absolutua *gogo* gisa adierazten du; gogo gisa atzematen ez den zerizan absolutua hutsaltasun abstraktua baino ez da, higidura horren gisara atzematen ez den gogo hitz kaskala den bezalaxe. Bere *uneak* euren araztasunean atzematen diren heinean, horiek adigai urduriak dira, zeintzuk euren aurkakoa euren baitan izatea eta euren lasaitasuna osokian izatea baino ez diren. Baina elkartearen *errerepresentatze-ekintza* ez da pentsatze *aditzaile* hori; baizik eta edukia horren beharrezkotasunik gabe du, eta adigaiaren formaren ordeztaren eta semearen arteko berezko erlazioa eramaten du kontzientzia hutsaren erresumara. Pentsatzen duenean bere burua *errerepresentatuz* jokatzeko duen heinean, zerizana jakina ageri zaio, baina horren *uneak* horri, aldeztu, elkar banantzen zaizkio errerepresentazio sintetiko hori dela eta, halako moldez non ez baitira elkar lotzen euren adigai propioaren bidez, eta, aldeztu, hori bere objektu huts horretatik aldentzen da eta horri kanpotik baino ez zaio lotzen; arrotz batek agerrarazten dio hori eta gogoaren pentsamendu horretan ez du bere burua ezagutzen, ez du autokontzientzia hutsaren izaera ezagutzen. Errepresentatzearen formaz eta berezko denetik hartutako erlazio haiez haraindi joan behar dugun heinean, eta, beraz, bereziki gogo den higiduraren *uneak* substantzia bakartu ez-kulunkarizat edo subjektutat, ez une igarokortzat, hartzeaz haraindi joan behar dugun heinean, hori leherrik beste kontu bat zela eta aipatu zen moduan adigaiaren bultzada gisa ikusi behar da; baina sena besterik ez den heinean, bere burua ez du ezagutzen, formarekin batera edukia baztertzen du, eta gauza berbera dena, edukia errerepresentazio historiko eta tradizioaren oinordekotza izatera behehitzen du; horrela, sinesmenaren kanpoko alderdia baino ez da jasotzen, eta, beraz, ezagutzen ez duen hildako gisa, baina horren *barneko alderdia* desagertu da, zeren hori bere burua adigai gisa dakien adigaia izango bailitzateke.

200

Gogo absolutua, zerizan hutsean errerepresentatuta, ez da, noski, zerizan huts *abstraktua*, baizik eta hori, gogoan une bat besterik ez denez, *osagai* izateraino behehitu da. Gogoaren aurkezpenak, ordea, *osagai* horretan formaren arabera *zerizanak* zerizan den aldetik duen gabezia berbera du. Zerizana abstraktu-dena da, eta, honegatik, bere sinpletasunaren negatibo-dena, beste bat; era berean, *gogoa*

zerizanaren osagaian *batasun sinplearen forma* da, honenbestez era berean zerizanez beste-bihurtzea dena. Edo gauza berbera dena, zerizan betikoak bere berbaitarako izatearekin duen harremana pentsatze hutsaren bitartegabe *sinplea* da; bere burua beste batean begiesteko ekintza simple horretan, beraz, *beste izatea ez* da bere horretan ezartzen; bereizketa da, pentsatze hutsean bitartegabe *bereizketa ez* den moduan; *maitasunaren* berrezagutze-ekintza, non biak ez ziren *aurkakotzen* euren zerizarren arabera. — Pentsatze hutsaren osagaian adierazten den gogoa hauxe da zerizanez, hots, bere barnean soilik ez izatea, baizik eta *errealagoa* izatea, zeren horren adigaiian baitatza dagoeneko *beste izatea*, hau da, pentsatua baino ez den adigai hutsaren gaintze-ekintza.

Pentsatze hutsaren osagaia, abstraktua delako, bestalde bere sinpletasunaren *beste alde* da, eta honegatik *errepresentatzearen* benetako osagaira igarotzen da: osagai horretan adigai hutsaren unek elkarrenganako hor-izate *substantziaduna* jasotzen dute, eta, era berean, subjektuak dira, hirugarren baten aurrean izatearen axolagabetasuna ez duten *subjektuak*, baizik eta euren baitara islatuta elkar aldentzen eta aurkakotzen direnak.

Beraz, betikoa edo abstraktua baino ez den gogoa bere buruarentzat *beste* bihurtzen da edo hor-izatean sartzen da eta bitartegabe *hor-izate bitartegabekoan*. Horrek, bada, mundu bat *sortzen* du. *Sortze* hori errepresentazioaren hitza da *adigaiarentzat* berarentzat bere higidura absolutuaren arabera, edo absolutuki adierazten den simple-dena edo pentsatze hutsa, hori abstraktua delako, edo are negatibo-dena eta horrenbestez bere buruari aurkakotu-dena edo *bestea* delako; edo, gauza berbera beste forma batean esateko, *zerizan* gisa ezarritakoa *bitartegabekotasun* simplea edo *izatea* delako, baina norberarik ez duen bitartegabekotasun edo izate gisa, eta, beraz, barnekotasunik gabe *jasalea* edo *beste batentzako izate* delako. -*Beste batentzako izate* hori aldi berean *mundu bat* da; gogoa *beste batentzako izatearen* determinazioan lehen pentsatze hutsean sartuta zeuden unean iraupen lasaia da, eta, beraz, euren orokortasun sinplearen desegitea eta horren sakabanatzea bere berezitasun propioan.

201

Mundua, ordea, ez da bananduta osotasunera eta horren kanpoko ordenara jaurtia izan den gogoa, baizik eta zerizanez barneko simplea denez, hori hartan ere badago eskura; *baden gogoa*, kontzientzia duen eta bere burutik beste bat balitz bezala edo mundu bezala bereizten den norbera banakoa dena. Norbera banako hori hasiera batean bitartegabe ezarrita dagoen moduan ez da oraindik *gogoa bere baitarako*; ezin da oraindik, beraz, *gogo bezala* izendatu, agian *inozo* gisa, baina ez *on* gisa. Egitatean, norbera eta gogoa izateko, era berean, *beste* bat bihurtu behar du hasteko, zerizan betikoak bere burua beste baterantzko higiduran bere buruarekin berdin bezala aurkezten duen modura. Gogo hori hasieran bitartegabe *baden* gisa edo bere kontzientziaren aniztasunean sakabanatuta bezala determinatzen den heinean, bada, horren beste bihurtzea jakitearen *bere barnera* joatea da oro har. Horizate bitartegabekoa pentsamendu izatera igarotzen da, edo sentipenezkoa baino ez den kontzientzia pentsamenduaren kontzientzia izatera, eta, gainera, hori, jatorria bitartegabekotasunean duen edo *baldintzatua den* pentsamendua delako, ez da jakite hutsa, baizik eta beste izatea bere baitan duen pentsamendua, eta, beraz, bere buruari aurkakotzen zaion *ongiaren* eta *gaitzaren* pentsamendua. Gizakia errepresentatzen da *gertatu* balitz bezala, beharrezkoa ez balitz bezala, *ongiaren* eta

gaitzaren ezagutzaren zuhaitzetik fruituak biltzeagatik bere buruarekiko berdintasunaren forma galdu balu bezala eta kontzientzia inozoaren egoeratik, lanik gabe eskaintzen den naturatik eta paradisuatik, animalien loretoetik egotzi balute bezala.

Baden kontzientzia bere barnera joate hori bere buruarekiko *desberdin* bihurtze gisa determinatzen den heinean, bada, *gaitza* bere barnera doan kontzientziaren lehen hor-izatea da itxuraz; eta *ongiaren* eta *gaitzaren* pentsamenduak guztiz aurkakotuak direnez eta aurkakotza hori oraindik desegin ez denez, orduan kontzientzia hori zerizanez *gaitza* besterik ez da. Baina, aldi berean, eta aurkakotza honi esker, hain zuzen, horren aurrean kontzientzia *ona ere* badaukagu eskura, eta horien arteko erlazioa. — Bitartegabeko hor-izatea *pentsamendu* izatera iristen den heinean, eta *bere barnean izatea* zehazkiago determinatzen den heinean, alde, pentsatze gisa eta, alde, zerizanaren *beste bihurtzearen* une gisa, orduan *gaitz* bihurtzea dagoeneko baden mundutik jaurti daiteke atzeraka pentsatzearen lehen erresumara.

202

Esan daiteke, beraz, argiaren lehen semea, bere barnera joatean erori egin dela, baina horren ordez berehala beste bat ekoiztu dela. Soilik errepresentazioari, baina adigaiari ez dagozkion forma horiek, *erortzea*, *semea* eta horrelakoek, era berean adigaiaren uneak errerepresentatzera beheitzen dituzte, edo errerepresentatzea pentsamenduaren erresumara igortzen dute. — Era berean, axolagabea da betiko zerizanean *beste izatearen* pentsamendu sinpleari gainera beste tankeren aniztasun bat elkartzea, eta *bere barnera joatea* horietara eramatea. Elkartze hori, honegatik, onestu behar da aldi berean, zeren *beste izatearen* une horrek, behar duenez, aldi berean ezberdintasuna adierazten baitu; eta, gainera, ez askotasun gisa oro har, baizik eta aldi berean ezberdintasun determinatu gisa, halako moldez non alderdi bat, semea, bere burua zerizan gisa dakien sinplea den, eta beste aldea, berriz, berbaitarako-izatearen kanporatzea, zeina zerizanaren goraiamenean baino ez den bizi; alderdi horretan, beraz, berriro berbaitarako izate kanporatuaren berreskuratzea eta *gaitzaren* bere barnera joatea ezar daitezke. Beste izatea bitan banatzen den heinean, gogoia bere uneetan era determinatuagoan adieraziko litzateke, edo uneak zenbatuko balira, laubatekotasun gisa, edo jendea bere aldetik bi zatitan banatuta dagoenez, on iraun dutenak eta gaizto bihurtu direnak, bostekobatasun gisa. Baina uneak *zenbatzea* balio gabetzat har daiteke, alde, ezberdintzen dena era berean *bat* denez, hots, *pentsamendu* baino ez den bereizketaren pentsamendua bera bezala, pentsamendua ezberdintzen duen *hori* den aldetik, lehen haren aurreko bigarrena; baina, alde, asko batean biltzen dituen pentsamenduari bere orokortasuna kendu behar zaiolako eta hiru edo lau ezberdin baino gehiagotan bereizi behar delako; eta orokortasun hori bata abstraktuaren, zenbakiaren printzipioaren determinatutasun absolutuaren aurrean determinatugabetasun gisa agertzen da zenbakiarekin harremanean, halako moldez non oro har *zenbakiez hitz* egin baitaiteke soilik, hau da, ez bereizketen *kopuru* bati buruz, eta, beraz, hemen oro har zenbakian eta zenbatzean pentsatzean alferrikakoa litzateke erabat, handiera eta kopuruaren bereizketa soila adigaigabea eta esanahirik gabekoa den bezala.

203

Ongia eta *gaitza* pentsamenduaren bereizketa determinatuak zirela ondorioztatu zen. Horien aurkakotza oraindik desegin ez den heinean, eta horiek pentsamenduaren zerizan gisa errerepresentatu diren heinean, bakoitza berez

beregaina izanik, bada, gizakia norbera zerizangabea eta honen hor-izatearen eta borrokaren zoru sintetikoa da. Baina botere orokor horiek, era berean, norberari dagozkio, edo norbera da horien errealitatea. Une honen arabera gertatzen da ezen, gaitza gogoaren hor-izate berezkoaren bere barnera joatea besterik ez denez, ongia bere aldetik errealitatean sartzen dela eta baden autokontzientzia gisa agertzen dela. Pentsatu baino egin ez den gogo batean iradoki baino egiten ez dena, zerizan jainkotiarraren *beste bihurtze* gisa oro har, hemen errepresentatzerako egikaritze gisa izatetik hurbilago dago; horrentzat bere abstrakzioa eta errealitate eza baztertzen dituen zerizan jainkotianak egiten duen bere buruaren umiliatzean datza. Beste alderdiarentzat, gaitzarentzat, errepresentatzea zerizan jainkotianari arrotza zaion gertakaria da; *hori horren baitan atzematea bere haserre bizi gisa* bere buruarekin borrokan dabilen errepresentatzearen ahalegin garaien eta gogonena da, zeinak antzu dirauen, adigairik ez duelako.

Zerizan jainkotianaren anoztea, beraz, bere modu bikoitzean ezartzen da; gogoaren norbera eta honen pentsamendu sinplea dira bi uneak, zeinen batasun absolutua gogo bera den; horren anoztea honetan datza, alegia, elkar banantzen direla eta bata balio desberdina duela bestearen aldean. Desberdintasun hori, honegatik, bikoitza da, eta bi lotura sortzen dira, zeinen une komunak aipatutakoak diren. Horietako batean *zerizan jainkotiarrak* zerizanezko gisa balio du, baina hor-izate berezkoa eta norbera zerizangabe gisa eta gainditu behaneko gisa; bestean, *ordez, berbaitarako-izateak* balio du zerizanezko gisa, eta jainkotiar den sinpleak zerizangabe gisa. Horien erdigunea, oraindik bete ez dena, *hor-izatea* da oro har, honen bi uneen komuntasun soila.

Aurkakotza horren desegitea ez da lortzen bien borrokaren bidez, zerizan banandu eta beregain gisa errepresentatzen diren bien borrokaren bidez. Horien *beregaintasunean* datza bakoitzak *bere baitan* hartan bere burua desegin behar izatea; borroka amaitzen da biek uzten diotenean pentsamenduaren eta hor-izate beregainaren nahasketa horiek izateari eta biak pentsamendu gisa soilik aurkakotzen direnean.

204

Izan ere, orduan adigai determinatu diren aldetik zerizanez harreman aurkakotuan baino ez dira; beregain gisa, ordea, euren zerizantasuna aurkakotzatik at dute; euren higidura, beraz, askea da, eta euren higidura propioa da. Beraz, bien higidura *berbaitango* higidura denez, hori haietan aztertu behar delako, orduan higidura bietatik bestearen aurrean berbaitan den gisa determinatuta dagoenak abiarazten du. Hori egite aske gisa errepresentatzen da; baina honen kanporatzearen beharrezkotasuna adigai honetan datza, hots, berbaitan denak, aurkakotzan baino ez dagoenak honela determinatuta, honexegatik ez duela iraupen egiazkoa; beraz, zerizan gisa ez berbaitarako-izatea baizik eta sinpledene balio dionak bere burua kanporatzen du, heriotzara doana, eta horren bidez zerizan absolutua bere buruarekin adiskidetzen duena. Izan ere, higidura horretan bere burua *gogo* gisa aurkezten du; zerizan abstraktua arrotzu egin da, hor-izate berezkoa eta errealitate propioa dauka; bere beste izate hori edo horren sentipenezko orainaldia bigarren beste bihurtzeak ezabatzen du eta gainditu gisa, *orokor* gisa, ezartzen du; horren bidez zerizana orainaldi horretan bere burua bihurtu da; errealitatearen hor-izate bitartegabekoak utzi egin dio arrotza edo kanpokoa izateari, gainditua, orokorra den heinean; heriotza hori, beraz, gogo gisa duen sonera da.

Bere buruaz jabetzen den zerizanaren bitartegabeko orainaldi gauditua zerizan hori da autokontzientzia orokor gisa; norbera banako gauditua den adigai honek, zerizan absolutu den norbera horrenak, honegatik adierazten du bitartegabe elkarte baten osaketa, zeina orain arte errepresentatzean zain zegoen eta orain bere barnera itzultzen den, norbera den aldetik; eta gogoia honen bidez bere determinazioaren bigarren osagaitik, errerepresentatzetik, *hirugarrenera* igarotzen da, autokontzientziara bere horretan. Orain errerepresentatze hark bere aurrerabidean nola jokatzeko duen aztertzen badugu, orduan hasteko ikusten dugu adierazten dela zerizan jainkotiarrek giza izaera hartzen duela. Hor dagoeneko *adierazten* da *berez* biak ez daudela bananduta; era berean, hor ez da adierazten zerizan jainkotiarrek bere burua *hasieratik* kanporatzen duela, horren hor-izatea bere barnera doala eta gaizto bihurtzen dela, baina honetan *barnebiltzen* da, hots, *bere baitan* horizate gaizto hori ez dela horrentzat anotza; zerizan absolutuak izen hutsal hori baino ez luke izango, hori ez den *beste* batego, horren *soberakin* bat batego; *bere barnean izatearen* unek, hain zuzen, *gogoaren norberaren* zerizanezko unea osatzen du. — *Bere barnean izatea* eta, horrenbestez, *errealitatea* zerizanari soilik dagokiola, guretzat adigai den hori, eta adigai den heinean, kontzientzia errerepresentatzaileari *gertakari* adiezin gisa agertzen zaio; *berbaitanak izate axolagabearen* forma hartzen du kontzientziarentzat.

205

Baina itxuraz elkar ihes egiten dioten une haiek (zerizan absolutua eta berbaitarako den norbera) bananduta ez daudela dioten pentsamendua errerepresentatze horri *ere* agertzen zaio, horrek egiazko edukia baitauka, baina beranduago, haragi bihurtzen den zerizan jainkotiarren kanporatzean. Errepresentazio hori, era horretara oraindik *bitartegabe* dena eta horrexegatik oraindik gogoaren maila lortu ez duena, edo zerizanaren giza tankera hasiera batean soilik tankera berezi gisa, oraindik orokor gisa ez dakiena, kontzientzia horrentzat gogoaren mailako bihurtzen da zerizan fankeradunaren higiduran, alegia, bere hor-izate bitartegabekoa berriro eskaintzeko eta zerizanera itzultzeko higiduran; zerizana *bere baitara islatzen* denean da gogo lehenbizikoz. Beraz, hor errerepresentatzen da zerizan jainkotiarren *adiskidetzea bestearekin* oro har eta, zehazkiago, honen *pentsamendurekin, gaitzarekin*. Adiskidetze hori bere *adigaiaren arabera* honela adierazten bada: *gaitza bere baitan ongia* den gauza berbera delako, edo zerizan *jainkotiarra* natura bere hedapen osoan den gauza berbera delako osatzen dela, era berean natura zerizan jainkotiarretik bananduta *ezereza* delako; bada, orduan hori inolaz ere gogoaren arabera ez den adierazteko modutzat hartu behar da, halabeharrez gaizkiulertzeak sortu behar dituena. Gaitza ongia den horixe *bera* denez, orduan, hain zuzen, gaitza ez da gaitza, ezta ongia ongi ere, baizik eta biak gauditzen dira, gaitza oro har bere barnean den berbaitarako izatea eta ongia simple-den norberarik gabea. Horrela, biak euren adigaiaren arabera adierazi diren heinean, euren batasuna argitzen da aldi berean; izan ere, bere barnean den berbaitarako-izatea jakite simplea da; eta simple-den norberarik gabea, era berean, bere barnean den berbaitarako-izate hutsa da. Beraz, adigai horren arabera ongia eta gaitza, hau da, ongia eta gaitza ez diren heinean gauza *berbera* direla esan behar den bezalaxe esan behar da ez direla gauza berbera, baizik eta guztiz *ezberdinak* direla, berbaitarako-izate simplea edo, gainera, jakite hutsa era berean negatibotasun hutsa edo bereizketa absolutua direlako euren baitan. Bi esakune horiek osatzen dute azkenik osokia, eta lehenaren baieztapenari eta segurtapenari beste esakuneari eustea aurkakotu behar zaio egoskortasun

gaindiezinarekin; biek arrazoi berbera duten heinean, biak ez dabilta zuzen era berean, eta horien zuzentasun eza honetan datza, hots, halako forma abstraktuak, adibidez *berbera* eta *berbera ez dena*, *identitatea* eta *ez-identitatea*, egiazko, finko eta erreal den gauzatat hartzea eta horietan oin hartzea.

206

Ez bata ez besteak ez du egia, baizik eta bien higidurak: berbera sinplea abstrakzio dela eta, beraz, bereizketa absolutua dela, baina hori bere baitan bereizketa denez, bere burutik bereiztean, beraz, bere buruarekiko berdintasuna dela. Eta horixe gertatzen da zerizan jainkotiarraren eta naturaren eta bereziki giza naturaren *berberatasunari* dagokionez; hura natura da zerizan ez den heinean; hori jainkotiana da bere zerizaren arabera; baina bi alderdi abstraktuak egiatan diren moduan, hots, *gainditu* gisa gogoan ezartzen dira, eta ezartze hori ezin da adierazi judizioaren bidez eta gogorik gabeko *DA-ren* bidez, horren kopularen bidez. — Era berean, natura ez da ezer bere zerizanetik at; baina ezerez hori *bada*, dena den; abstrakzio absolutua da, beraz, pentsatze hutsa edo bere barnean izatea, eta gogo-batasunarekin duen aurkakotzaren unearrekin batera *gaitza* da. Adigai horietan topatzen dugun zailtasuna *DA*ri eustea besterik ez da, eta pentsatzea ahaztea, non uneak *diren* eta aldi berean *ez diren*, baina gogoan den higidura hori *diren*. — Gogo-batasun hori edo bereizketak une soil gisa edo gaindituta dituen batasun hori sortu zaio kontzientzia errepresentatzaileari adiskidetze horretan, eta, hori autokontzientziaren orokortasuna den heinean, horrek utzi egiten dio errepresentatzaile izateari; higidura honetara itzuli da.

Gogoan, beraz, hirugarren osagaien ezarrita dago, *autokontzientzia orokorrean*; bere *elkartea* da. Elkartearen higidura autokontzientziarena den aldetik, bere buruaren errepresentazioetik bereizten dena, *bere baitan* izatera iritsi denaren *ekoizpena* da. Jainkotiar gizaki hila edo jainko gizatiarra *bere baitan* da autokontzientzia orokorra; hori bihurtu behar du *autokontzientzia horrentzat*. Edo errepresentazioaren aurkakotzaren alderdi *bat* osatzen duen heinean, hots, gaiztoa, zeinarentzat berezko hor-izatea eta berbaitarako-izate banakoa zerizan diren, orduan alderdi horrek, beregain baina oraindik une gisa errepresentatzen ez denak, beregaintasun horren mesedetan berbaitan eta berbaitarako gogo izateraino igo behar du, edo bere higidura horretan aurkeztu behar du.

207

Hori *berezko gogoan* da; norberak berezkoatasun horretatik aldentu behar du eta bere baitara joan behar du, hau da, *gaizto* bihurtu behar du. Baina dagoeneko bada gaiztoa *bere baitan*; bere barnera joatea honetan datza: *norberaren burua* honetaz *konbentzitzea*, hots, berezko hor-izatea gaitza dela. *Baden* gaizto bihurtzea eta munduaren gaizto izatea, baita zerizan absolutuaren *baden* adiskidetzea ere kontzientzia errepresentatzaileari egokitzen zaizkio; baina errepresentatu den hori *autokontzientziari* egokitzen zaio formaren arabera gainditutako une gisa soilik, zeren *norbera* negatibo-dena baita; beraz, *jakitea* dagokio, kontzientziak bere barnean duen egite hutsa besterik ez den jakite bat. *Negatibo-denaren* une hori edukian ere adierazi behar da era berean. Hain zuzen, zerizana *bere baitan* bere buruarekin dagoeneko adiskidetzen den eta gogo-batasuna den heinean, non errepresentazioaren zatiak zati *gaindituak* edo *uneak* diren, bada, orduan hau aurkezten da, ezen errepresentazioaren zati bakoitzak hemen *aurkako* esanahia jasotzen duela, lehen zuenarekin alderatuz; esanahi bakoitza bestean osatzen da, eta edukia horren bidez baino ez da gogo-edukia; determinatutasuna era berean

aurkakoa den heinean, beste izatean den batasuna, gogozkodena osatzen da; lehen guretzat edo *bere baitan* esanahi aurkakotuak bateratzen zituen bezala, eta *berberaren* eta *ez-berberaren*, *identitatearen* eta *ez-identitatearen* forma abstraktuak gainditzen ziren bezala.

Beraz, kontzientzia errepresentatzailean berezko autokontzientziaren *barneko* bihurtzea *baden gaitza* baldin bazen, orduan *barneko bihurtzea* autokontzientziaren osagaian *gaitzaren jakitea* da, *bere baitan* hor-izatean den aldetik. Jakite hori, beraz, gaizto bihurtze bat da, baina *gaitzaren pentsamenduaren* bilakaera besterik ez, eta horregatik adiskidetzearen lehen une gisa berrezagutzen da. Izan ere, gaitz gisa determinatuta dagoen naturaren bitartegabekotasunetik bere baitara itzultzea den aldetik, hori haren uztea da eta bekatuaren heriotza. Kontzientziak ez du berezko hor-izatea bere horretan uzten, baizik eta aldi berean gaitz gisa dakigun hor-izatea. *Barnera joatearen* higidura bitartegabekoa era berean higidura bitartekotua da; bere burua jotzen du aurretik emantzat, edo norberaren oinarria da; bere barnera joatearen oinarria da, hain zuzen, zeren natura bere baitan dagoeneko bere barnera joan baita; gizakiak bere barnera joan behar du gaitza dela eta, baina *gaitza* bera da bere barnera joatea. Lehen higidura hori, beraz, honegatik bitartegabekoa da, edo honen *adigai sinplea*, zeren bere oinarriaren gauza berbera baita. Higidura edo beste bihurtzea, beraz, oraindik agertzeke dago bere forma bereizgarrian.

208

Bitartegabekotasun horretaz gain errepresentazioaren *bitarteko tza ere* beharrezkoa da. *Bere baitan* naturaren *jakite*, gogoaren hor-izate ez-egiazkoa bezala, eta bere barnean bilakatu den norberaren orokortasuna dira gogoaren adiskidetzeara bere buruarekin. *Berbaitan* horrek aditzen ez duen autokontzientziarentzat *baden* baten forma eta horri *erre presentatua izan zaionaren* forma jasotzen du. Aditzea, beraz, ez da harentzat adigaiaren atzematea, zeinak gainditutako berezotasuna horrenbestez orokor gisa, bere buruarekin adiskidetu den gisara dakien, baizik eta *errerepresentazio* haren atzematea da, hain zuzen, zerizan jainkotiarrek bere buruaren kanporatzearen *gertakariaren* bidez, gizaki bilakatze gertatutakoaren bidez eta bere heriotzaren bidez zerizan jainkotiarra bere hor-izatearekin adiskidetu duen errepresentazio harena. — Errepresentazio horren atzemateak zehazkiago zera adierazten du, hots, lehen horretan gogozko berpizte deitu zena, edo bere autokontzientzia banakoa orokor edo elkarte bihurtzea. — Gizaki jainkotiarren *heriotza*, *heriotza den aldetik*, negatibotasun *abstraktua* da, *berezko* orokortasunean baino gelditzen ez den higiduraren bitartegabeko emaitza. Berezko esanahi hori gogoaren autokontzientzian galtzen du heriotzak, edo honetaz oraintsu aipatutako adigai bilakatzen da heriotza; bitartegabe duen esanahitik, *banako-den horren ez-izate*tik gogoaren *orokortasunera* goratzen da heriotza, bere elkarte bizi den eta horretan egunero hiltzen den eta berpizten den gogoaren orokortasunera.

Errepresentazioaren osagaiari dagokiona, hain zuzen, gogo absolutuak *banako bat* edo, are, *berezi bat* den aldetik bere hor-izatean gogoaren izaera errerepresentatzen duela, hemen autokontzientziara ekartzen da, *beste izatean* bere burua mantentzen duen jakitera; hori, beraz, ez da benetan *hiltzen*, *berezi-dena benetan* hiltzen dela *errerepresentatzen* den moduan, baizik eta bere berezitasuna bere orokortasunean hiltzen da, hau da, bere *jakitean*, zeina bere buruarekin adiskidetu den zerizana den. Hasiera batean aurretik doan *errerepresentatzearen osagaia* hemen, beraz, gainditu gisa ezartzen da, edo norberarengana itzuli da, bere adigaira; hartan *baden* soila

subjektu bihurtu da. Eta horren bidez, hain zuzen, *lehen osagaia ere, pentsatze hutsa* eta horretan betiko den gogo, ez dago kontzientzia errepresentatzaileaz haratago ezta norberaz haratago ere, baizik eta osokia bere baitara itzultzea haxe da, hots, une guztiak bere barnean barnebiltzea. — Norberak atzematen duen bitartekariaren heriotza bere *objektutasunaren* edo bere *berbaitarako izate bereziaren* gaintitze-ekintza da; *berbaitarako-izate berezi* hori autokontzientzia orokor bihurtu da. — Bestalde, *orokordena*, hain zuzen, horrexegatik autokontzientzia da, eta pentsatze sonaren gogo huts edo ez- erreala *erreal* bihurtu da. — Bitartekariaren heriotza ez da horren *berezko alderdiaren* edo horren *berbaitarako-izate bereziaren* heriotza soilik; ez da hiltzen zerizanetik erauzi den bilduki hila soilik, baizik eta zerizan jainkotiarraren *abstrakzioa ere* bai.

209

Izan ere, bitartekaria, bere heriotzak oraindik adiskidetzeara osatu ez duen heinean, aldebakar-dena da, zeinak pentsatzearen sinple-dena *zerizan* gisa dakien erreallitateari aurkakotuta; norberaren mutur horrek ez du oraindik zerizanaren balio berbera; hori norberak gogoan lortzen du lehenleherrik. Errepresentazio honen heriotzak, aldi berean, beraz, norbera gisa ezarrita ez dagoen *zerizan jainkotiarraren abstrakzioaren* heriotza barnebiltzen du. Heriotza kontzientzia zoritxarrekoak duen sentimendua da, hots, *jainkoa bera hil dela*. Adierazpen gogor hori norberaren burua sinpleki jakite barnekoenaren adierazpena da, kontzientziaren itzulera da nia = nia- ren gauaren iluntasunera, zeinak bere baitatik at ezer ez duen bereizten eta ezer ez dakien. Sentimendu hori, beraz, egitatean *substantziaren* eta hori kontzientziari aurkakotzearen galera da; baina, aldi berean, substantziaren *subjektibitate* hutsa da, edo norberaren ziurtasun hutsa, zeina hari falta zitzaion, objektu edo bitartegabeden edo zerizan huts gisa. Jakite hori, beraz, *gogo-bizitzea* da, zeinaren bidez substantzia subjektu bihurtu den, horren abstrakzioa eta bizigabetasuna hil diren, eta, beraz, substantzia *benetan* autokontzientzia sinple eta orokor bihurtu den.

Beraz, gogo *bere burua* dakien gogo da; bere burua daki; beretzat objektu den hori da, edo bere errepresentazioa egiazko *eduki* absolutua da; horrek, ikusi genuen bezala, gogo bera adierazten du. Ez da, aldi berean, autokontzientziaren *edukia*, ezta *horrentzat* objektu ere, baizik eta gainera *gogo erreala* da. Hori da bere izaeraren hiru osagaiak zeharkatzen dituen heinean; bere burua zeharkatzen duen higidura horrek bere erreallitatea osatzen du; higitzen dena da, hori da higiduraren subjektua, eta hori da *higitzea* bera, edo subjektuak zeharkatzen duen substantzia. Gogoaren adigaia guri bihurtu zitzaigun erlijioan sartu ginenean, hain zuzen, bere buruaren ziur den gogoaren higidura gisa, gaitza barkatzen duena eta, horrela, aldi berean, bere sinpletasun propioa eta aldaezintasun gogorra baztertzen dituen, edo absolutuki *aurkakotu dena berbera* gisa ezagutzen duen eta ezagutze hori mutur horien arteko *Bai* gisa azaltzen duen higidura gisa; kontzientzia erlijiosoak, zerizan absolutua ageri zaionak, adigai hori *begiesten* du, eta *norberaren* eta *begietsi duenaren* arteko *bereizkuntza* gaintitzen du; subjektu den moduan substantzia ere bada, eta, beraz, gogo *da*, hain zuzen, higidura hori delako eta higidura hori den heinean.

210

Baina elkarte hori ez dago osatua bere autokontzientzia horretan; bere edukia oro har *errerepresentatzearen* forman dago horrentzat, eta bikoizketa horrek elkartearen *gogozkotasun erreala* du oraindik bere baitan, haren errerepresentatze-tik itzulera, pentsatze hutsaren osagaiari eragiten diona era berean. Elkarte oraindik ez da honetaz jabetzen, alegia, ea zer den; gogoaren autokontzientzia da, objektu hori

bezala ez dena edo bere buruaren kontzientzia izatera iristen ez dena; baizik eta kontzientzia den heinean, azertu ziren errepresentazioak ditu. — Ikusten dugu autokontzientzia bere azken biratokian *barneko* bihurtzen dela, eta *bere barnean izatearen jakitea* lortzen duela; ikusten dugu bere hor-izate berezkoa adierazten, eta negatibotasun hutsa lortzen duela. Baina esanahi *positiboa*, hau da, negatibotasun hori edo *jakitearen barnekotasun* hutsa era berean *bere buruarekiko berdin den zerizana* dela, edo substantziak hor lortzen duela autokontzientzia absolutu izatea, hori guztia kontzientzia jareslearentzat *beste* gauza bat da. Alderdi hau atzematen du, hots, jakitearen barneko bihurtze hutsa *bere baitan* sinpletasun absolutua dela edo substantzia dela, honela *adigaiaren* arabera ez baizik eta asebate *arrotz* baten ekintzaren arabera den zerbaiten errepresentazio gisa. Edo ez du hau horrentzat, hots, norbera hutsaren sakonera hori *zerizan abstraktua* bere abstrakziotik erauzten duen eta jarespen huts horren indarraren bidez norbera izateraino goratzen duen boterea dela. — Norberaren egiteak horren bidez esanahi negatibo hau jasotzen du horren aurrean, zeren substantziaren kanporatzea bere aldetik haren aurrean *berbaitan* bat delako, zeinak ez duen ulertzen eta aditzen era berean, edo ez duen aurkitzen *bere* egitean halakoa den aldetik. *Bere baitan* zerizanaren eta norberaren batasun hori sortu denez, kontzientziak adiskidetzearen *errepresentazio* hori oraindik ere errepresentazio gisa dauka. Asebatea lortzen du bere negatibotasun hutsari horrek berak zerizanarekin *kanpotik* duen batasunaren esanahi positiboa gaineratzen diolako; beraz, horren asebeteari haratago-den baten aurkakotza batek eragiten dio. Bere adiskidetze propioa, beraz, bere kontzientzian *urrunekoa* balitz bezala sartzen da, *etorkizunean* urrun dagoena, beste *norberak* lortu zuen adiskidetzea *lehenaldiaren* urrunera gisa agertzen den bezala.

211

Gizaki jainkotiar *banakoak berbaitan* den aita bat eta ama *erreal* bakarra dituen moduan, gizaki jainkotiar orokorrak, elkarteak, bere *egitea* eta *jakitea* du aitatzat eta *betiko maitasuna* bere amatzat, horrek *sentitzen* duen maitasuna baina bere kontzientzian *objektu* bitartegabeko erreal gisa begiesten ez duena. Horren adiskidetzea, beraz, bere bihotzean dago, baina honen kontzientziatik banatuta oraindik, eta horren errealitatea oraindik hautsita dago. *Berbaitana* bezala edo *bitartekotza hutsaren* alderdi bezala horren kontzientzian sartzen dena haratago datzan adiskidetzea da; baina *bitartegabekotasunaren* eta *hor-izatearen* alderdia bezala, *orain*, mundua da, oraindik ere bere goratarrearen zain geratu behar duena. Mundua dagoeneko zerizanarekin adiskidetuta dago *bere baitan*; eta *zeunanak* badaki, noski, horrek objektua ez duela dagoeneko ezagutzen arrotzu gisa, baizik eta bere buruaren berdin gisa bere maitasunean. Baina autokontzientziarentzat orainaldi bitartegabeko horrek oraindik ez du gogo-tankerarik. Elkartearen gogoia, horrela, bere kontzientzia bitartegabekoan bere kontzientzia erlijiosotik bananduta dago, zeinak adierazten duen, bai, biak *euren baitan* ez daudela bananduta, baina *berbaitan* hori ez dago egikarrituta, edo ez da oraindik era berean berbaitarako izate absolutu bihurtu.

VIII. JAKITE ABSOLUTUA

Agerkundearen erlijioaren gogoak ez du oraindik bere kontzientzia gainditu, bere horretan hartuta; edo, berdina dena, bere autokontzientzia erreala ez da bere kontzientziaren objektua; gogo hori oro har eta bere barnean ezberdintzen diren uneak errepresentatzean eta objektutasunaren forman erortzen dira. Errepresentatzearen *edukia* gogo absolutua da; eta bere egitekoa forma soil hori gainditzea da; edo, hobeto, forma *kontzientziari halakoa den aldetik* dagokiolako, bere egia kontzientzia honen tankeratzetan azaldu behar izan da jadanik. — Kontzientziaren objektuaren gaindipen hori ez da hartu behar eragiketa aldebakarra bezala, non objektuak bere burua norberarengana itzuliz erakusten zuen; baizik eta modu determinatuago batean, halako moldez non batetik objektuak halako gisa norbera desagertuz aurkezten baitu, eta bestetik, are gehiago, autokontzientziaren kanporatzea baita gauzatasuna ezartzen duena, eta kanporatze horrek esanahi negatiboa ez ezik, gainera, positiboa baitauka, ez guretzat edo bere baitan soilik, baizik eta bere buruarentzat ere bai. *Bere buruarentzat* objektuaren negatibodenak edo objektuak bere burua gainditze horrek esanahi positiboa dauka; edo autokontzientziak *badaki* objektuaren ezereztasuna, alde batetik honegatik, hots, berak bere burua kanporatzen duelako, kanporatze horretan autokontzientziak *bere burua* objektu gisa ezartzen duelako, edo objektua bere burua gisa, *berbaitarako izatearen* batasun zatiezina dela eta. Beste aldetik, hemen beste unea dago aldi berean, hau da, autokontzientziak kanporatze hori eta objektutasuna era berean gainditu duela eta bere barnean hartu duela berriro; hots, *bere* beste izatean, halako gisa, bere baitan dagoela. Hori da *kontzientziaren* higidura, eta, higidura horretan, kontzientzia bere uneen osotasuna da. Kontzientziak objektuarekin bere determinazioen osotasunaren arabera jokatu behar du, eta objektua determinazio bakoitzaren arabera hartu behar izan du horrela. Bere determinazioen osotasun horrek *objektua, bere baitan*, gogo-zerizan bihurtzen du, eta objektua egiatan hori bihurtzen da kontzientziarentzat banako determinazioetako bakoitza norberarena bezala hartuz edo horiekin lehenago aipatu den gogo-jokaera izanez.

214

Objektua, orduan, hein batean, bitartegabeko izatea da, edo gauza bat oro har, bitartegabeko kontzientziari dagokiona; beste hein batean, bere beste izatea da, bere harremana edo *bestearantzako izatea* eta *berbaitarako izatea*, determinatutasuna, *hautemapenari* dagokiona; beste hein batean, zerizana da edo orokor-dena bezala, adimenari dagokiona. Osoki gisa, objektua arrazoiketa da, edo orokor-denaren higidura banakotasunera daraman determinazioaren bitartez, baita alderantzizko higidura ere, banakotasunetik determinazioaren bitartez gaindituta bezala edo orokor-denera daraman determinazioa bezala. — Hiru determinazio horien arabera jakin behar du kontzientziak, beraz, objektua bere burua bezala. Hala ere, hemen kontua ez da jakitea objektuaren aditze ekintza huts bezala; baizik eta jakite hori bere

bilakaeran soilik erakutsi behar da, edo bere uneetan kontzientziari, halako gisa, dagokion aldetik, eta adigai benetakoaren edo jakite hutsaren uneak kontzientziaren tankeratzen forman erakutsi behar dira. Horregatik, objektua oraindik ez da agertzen kontzientzian, halako gisa, gogo-zerizantasuna bezala, oraintsu adierazi dugun moduan, eta kontzientziak objektuarekin duen jokaera ez da hori bere osotasunean aztertzea, halako gisa, ezta bere adigai-forma hutsean ere, baizik eta objektua, hein batean, kontzientziaren tankera da, eta beste hein batean, *guk* biltzen ditugun halako tankeren kopuru bat, non kontzientziaren objektuaren eta jokaeraren uneen osotasuna bere uneetan deseginda baino ezin daitekeen erakutsi.

Horrela, objektua atzematearen alderdi honetarako, kontzientziaren tankeran den moduan, jadanik agertu diren kontzientzia horren aurreko tankerak ekarri behar dira gogora. Objektuari dagokionez, orduan, bitartegabeko eta *axolagabeko izatea* den heinean, ikusi genuen nola arrazoimen behatzailea axolagabeko gauza horietan bere buruaren *bila ibili* zen eta nola bere burua *aurkitu* zuen, hau da, nola bere egiteaz jabetzen zen kanpoko egite baten gisara, eta nola objektuaz jabetzen zen baina bitartegabeko objektu baten gisara besterik ez. Ikusi genuen, gainera, nola bere gailurrean bere determinazioa amaigabeko judizio honetan adierazten den, *Niaren izatea gauza bat dela*. Eta, hain zuzen, sentipenezko, bitartegabeko gauza; Niari *arima* deitzen zaionean, orduan Nia gauza bezala errepresentatzen da, noski, baina ikusi ezin den, sentitu ezin den, eta abar, gauza bezala, eta, orduan, egitatean, ez bitartegabeko gauza bezala eta ez gauza esaten denean esan nahi den hori bezala. Judizio hark, zuzen-zuzenean hartuta, ez dauka gogorik, edo, hobeto, gogo-gabezia bera da. Baina bere *adigaiaren* arabera, egitatean, gogo betea da, eta horretan oraindik *eskura ez* dagoen *barneko alderdi* hori da azertu behar diren beste bi uneez adierazten dutena.

215

Gauza Nia da; egitatean amaigabeko judizio horretan gauza gaituta dago; ez da ezer bere baitan; gauzak harremanean bakanik dauka esanahia, *Niaren bidez* eta Niari lotuz besterik ez. Une hori kontzientziarentzat ulermen hutsean eta ilustrazioan gauzatu da. Gauzak *erabilgaruak* dira oro har, eta duten erabilgarritasunaren arabera baino ez dira hartu behar aintzat. Bere burua arrotzu duen gogoaren mundua zeharkatu egin duen *garatutako* autokontzientziak bere kanporatzearen bidez sortu du gauza bere burua bezala, eta oraindik bere burua gauzan mantentzen du eta gauzaren menpekotasuna daki, edo gauza *zerizanez bestearentzako izate* besterik ez da; edo *harremana* guztiz adieraziz gero, hau da, objektuaren izaera hemen osatzen duen gauza bakar hori, harentzat gauza *berbaitarako den* gauza da; sentipenezko ziurtasuna egia absolutu gisa adierazten du, baina *berbaitarako izate* hori bera desagertu besterik egiten ez den une bezala, eta bere aurkakora, baztertu den bestearentzako izatera igarotzen den une bezala.

Baina horrela gauzaren jakitea ez da oraindik osatu; gauza ez da izatearen bitartegabekotasunaren eta determinatutasunaren arabera soilik jakin behar, baizik eta, gainera, *zerizana* edo *barnekoa* bezala, norbera bezala jakin behar da. Hori *autokontzientzia moralean* dugu eskura. Horrek bere zerizana *zerizantasun absolutu* gisa daki, edo izatea nahimen edo jakite huts gisa; ez *da* ezer, nahimen eta jakite hori besterik ez; beste bati zerizangabeko izatea baino ez dagokio, hau da, bere baitan ez dena, izatearen oskol huts-hutsa besterik ez. Kontzientzia moralak bere mundu-errepresentazioan *hor-izatea* norberaz aske uzten duen heinean, hori berriz bere

barnean hartzen du berriro. Jaidura bezala ez da, azkenik, hor-izatearen eta norberaren arteko txandakako kokatze eta lerratze hori; baizik eta badaki, bere *hor-izatea*, *halako* gisa, bere buruaren ziurtasun huts hori dela; norberak bere buruaz duen jakite hutsa besterik ez da osagai objektibo hori, non berak bere burua ekile gisa ezartzen duen.

216

Une horietaz osatzen da gogoaren adiskidetzea bere benetako kontzientziarekin; horiek euren baitarako banakoak dira, eta adiskidetze honen indarra osatzen duena horien gogo-batasuna da. Baina une horietako azkena, nahitaez, batasun hori bera da, eta horrek egitatean une guztiak bere barnean batzen ditu, argi denez. Bere buruaz bere horizatean ziur den gogoak *hor-izatearen* osagaitzat bere buruari buruzko jakite hori besterik ez dauka; egiten duena betebeharrari buruzko uste osoz egiten duela adieraztea, bere hizkera hori bere ekitearen *balioa* da. Ekitea da adigaiaren sinpletasunaren *bere baitan* den lehen banatzea eta banaketa horretatik itzultzea. Lehen higidura hori bigarren higidura bilakatzen da, berrezagutzearen osagaiak bere burua betebeharrari buruzko jakite *sinple* bezala ezartzen duen heinean, ekitean datzan eta modu honetan ekitearen aurka errealitate hertsia osatzen duen bikoizketaren aurrean eta bereizketaren aurrean. Baina ikusi dugu barkamenean gogortasun hori berez baretzen dela eta kanporatzen dela. Errealitateak, orduan, hemen autokontzientziarentzat, *bitartegabeko horizate* gisa, jakite hutsa izatea beste esanahirik ez dauka; era berean, *determinatutako hor-izate* edo harreman gisa, horren aurrean dagoena jakitea da, hein batean, banako norbera huts horri buruzkoa, beste hein batean, jakiteari buruzkoa, orokorra den aldetik. Hemen, aldi berean, hau finkatzen da, hots, *hirugarren* uneak, hau da, *orokortasunak* edo *zerizanak*, aurrean dituen beste bietako bakoitzarentzat jakite gisa soilik *balio* duela; eta horiek huts-hutsik oraindik geratzen den aurkakotza azkenean gaintitzen dute eta Ni = Ni-aren jakitea dira, banako *norbera* hori, bitartegabe jakite hutsa edo orokorra dena.

Kontzientziaren eta autokontzientziaren arteko adiskidetze hori, horrenbestez, modu bikoitz batean gauzatuta erakusten da: leherrik, gogo erlijiosoan, eta bigarren, kontzientzian bertan, halakoa den aldetik. Biak honela ezberdintzen dira: hura adiskidetze hori da *berbaitan* izatearen forman, eta hori *berbaitarako* izatearen forman. Aztertu izan diren moduan, bata bestetik at kokatzen da hasiera batean; kontzientziaren tankerak agertu zitzaizkigun segidan, kontzientzia, hein batean, segida honen banako uneetara, beste hein batean, horien batasunera ailegatu da, erlijioak bere objektuari autokontzientzia errealaren tankera eman baino askoz lehenago ailegatu ere. Oraindik ez da erakutsi bi alderdien batasuna; hori da tankeren ilara horri amaiera ematen diona; izan ere, batasun honetan gogo heldzen da bere burua jakitera, ez *bere baitan* edo bere eduki absolutuaren arabera soilik, ezta *bere baitarako* edukirik gabeko formaren arabera edo autokontzientziaren alderdiaren arabera soilik ere, baizik eta *bere baitan eta bere baitarako* den bezala.

217

Baina bateratze hori jadanik gertatu da *bere baitan*, baita gainera erlijioan ere, errepresentazioa autokontzientziara itzultzean, baina ez benetako formaren arabera, zeren erlijioaren alderdia *berbaitanaren* aldea baita, zeina autokontzientziaren higidurari aurkakotzen zaion. Bateratzea, honegatik, beste alderdi honi dagokio, zeinak, aitzitik, bere barnean reflexioaren alderdia biltzen duen, hau da, bere burua eta bere aurkakoa, eta ez *bere baitan* edo modu orokor batean, baizik eta *euren baitarako* edo garatuta eta bereizita. Edukia, bere buruaz jabetzen den gogoaren

beste alderdia bezala, *beste* aldea den heinean, hor aurrean dugu bere osotasunean, eta erakutsi da; oraindik falta den bateratzea adigaiaren batasun sinplea da. Adigaia ere hor aurrean dago jadanik autokontzientziaren beraren aldamenean; baina aurreko mailetan agertu zen modu berean, adigaiak, beste edozein unek bezala, *kontzientziaren tankera berezibat* izateko forma dauka. Orduan, bere buruaz ziur den gogoaren tankeraren atal bat da, bere adigaiaren geratzen den eta *arima eder* deitu diogun atala. Arima edena, hain zuzen, gogoak bere batasun garden hutsean bere buruari buruz daukan jakitea da; *bere barnean izate hutsari* buruzko jakite huts hori gogo delako dakien autokontzientzia da, ez soilik jainkotiar den honen begiespena, baizik eta jainkotiar den honek duen bere buruaren begiespena. Adigai hori bere gauzatzearen aurka irmo mantentzen den heinean, tankera aldebakarra da, eta ikusi genuen lurrin huts-hutsean desagertzen zela, baita bere kanporatze eta aurrerapen positiboa ere. Gauzatze horren bidez objekturik gabeko autokontzientzia honek bere buruari eustea gairatzen du, adigaiaren *determinatutasunaren* beteketaren aurka; bere autokontzientziak oro kortasunaren forma lortzen du; eta autokontzientziari geratzen zaiona bere egiazko adigaia da, edo bere gauzatzea erdietsi duen adigaia; adigaia bere egian da, hau da, bere kanporatzearekin batasunean, jakite hutsaren jakitea, ez bakanik betebeharra den *zerizan* abstraktuaren jakitea, baizik eta aldi berean egiazko *objektua* den (objektua berbaitarako den norbera baita) autokontzientzia huts *hori* den zerizanaren jakitea.

218

Adigai horrek bere burua bete zuen, alde batetik, bere buruaz ziur den gogo *ekilean*, eta beste aldetik, *erlijioan*; azken horretan, *eduki* absolutua *eduki gisa* erdietsi zuen, edo *errepresentazioaren* forman, kontzientziarentzat beste izatearen forman; gogoaren tankera honetan, aldiz, forma norbera bera da, zeren honek bere buruaz ziur den gogo *ekilea* barnebiltzen baitu; norberak egikaritzen du gogo absolutuaren bizitza. Tankera hori, ikusten dugunez, adigai sinple hori da, zeinak, hala ere, bere betiko *zerizanari* uko egiten dion, *hor dagoen* edo ekiten duen zerizanari. *Bikoiztea* edo sortzea adigaiaren *araztasunean* dauka, zeren hori abstrakzio absolutua edo negatibotasuna baita. Era berean, adigaiak bere errealitatearen edo bere barnean dagoen izatearen osagaia jakite hutsean bertan dauka, zeren jakite huts hori *bitartegabekotasun* sinplea baita, zeina bai *izate* eta *hor-izate* baita *zerizana ere* baden, lehena pentsamendu negatiboa, bigarrena, pentsamendu positiboa bera izaki. Azkenean, hor-izate hori era berean jakite hutsetik abiatuta (horizatetik nahiz betebeharetik bezala) bere baitara islatuta izatea edo *gaitza* izatea da. Bere barnera joate horrek *adigaiaren aurkakotza* osatzen du, eta, horrela, zerizanaren jakite huts *ez-ekilearen* eta *ez-errealaren* sortzea da. Baina aurkakotza horretan sortzea hor parte hartzea da; zerizanaren jakite hutsak *bere baitan* bere sinpletasuna kanporatu du, zeren hori adigaia den *bikoiztea* edo negatibotasuna baita; bikoizte hori *ber baitarako bilakatzea* den heinean, *gaitza* da; *berbaitana* den heinean, ona izaten irauten duena da. — Orain, lehenik *bere baitan* gertatzen den hori aldi berean *kontzientziarentzat* eta, era berean, berez bikoiztuta dago; *kontzientziarentzat* da, eta era berean bere *berbaitarako izatea* edo bere egite propioa. *Bere baitan* jadanik ezarrita dagoena orainerrepikatu egiten da kontzientziak honi buruz duen jakite eta bere buruaz jabetzen den egite gisa. Une bakoitzak bere burua askatzen du bestearentzat determinazioaren beregaintasunaz, beste unearen aurka duen determinazioarenaz. Askatze hori adigaiaren aldebakartasunari uko egite berbera da,

zeinak *bere baitan* hasiera osatu zuen; baina orain *bere* uko egitea da, uko egiten dion adigaia berea den modu berdinean.

219

— Hasieraren *berbaitan* hura, negatibotasun gisa, egiatan era berean *berbaitan bitartekotua* da; egiatan den forman ezartzen du bere burua orain; eta *negatibodena*, bakoitzaren *determinazio* gisa, bestearentzat da; eta *bere baitan* bere burua gainditzen duena. Aurkakotzaren bi zatietako bata bere *banakotasunean* bere barnean izatearen ezberdintasuna da orokortasunaren aurrean; bestea bere orokortasun abstraktuaren ezberdintasuna da norberaren aurrean; hari bere *berbaitarako* izatea hiltzen zaio, eta kanporatzen da, aitortzen du; honek uko egiten dio bere orokortasun abstraktuaren gogortasunari, eta bizitzarik gabeko norbera eta higidurarik gabeko orokortasuna hiltzen zaizkio; halako moldez non, hark zerizana den orokortasunaren unearen bitartez, eta horrek norbera den orokortasunaren bitartez euren buruak osatu bairituzte. Ekitearen higidura horren bidez sortu da gogo (zeina gogo den *hor dagoelako*, bere hor-izatea *pentsamendura* eta, horrela, *aurkakotza* absolutura goratzen duelako eta *aurkakotza* horretatik *aurkakotza* beraren bidez eta *aurkakotza* horretan bere baitara itzultzen delako) autokontzientzia den jakitearen orokortasun hutsa bezala, jakitearen batasun sinplea den autokontzientzia bezala.

Erlijioan beste *baten* errepresentatzearen *edukia* edo forma zena hemen norberaren *egite* propioa da; adigaiak *norberaren egite* propioaren *edukia* den hori lotzen du; izan ere, ikusi dugunez, adigaia norberak bere barnean duen egitearen jakitea da, zerizantzen guztiari eta hor-izatea guztiari buruzkoa bezala; *subjektu horri* buruzko jakitea, *substantzian* buruzkoa bezala, eta substantziari buruzkoa, subjektuaren egitearen jakite horri buruzkoa bezala. Hemen gehitzen dugun bakarra, hein batean, banako unek *biltzea* da, euren printzipioan gogo osoaren bizitza aurkezten dutenak, eta beste hein batean, adigaia adigaiaren forman finkatzea, zeinaren edukia une horietan erakutsi zen, eta zeinak *kontzientziaren tankera* baten forman jadanik bere burua erakutsi zuen.

Gogoaren azken tankera hori jakite absolutua da, bere egiazko eduki osoari aldi berean norberaren forma ematen dion eta, horrela, bere adigaia gauzatzen duen gogo, gauzatzerakoan bere adigaiaren irauten duela; bere burua gogo-tankeran dakien gogo edo *jakite aditzailea* da. *Egia* ez da *bere baitan ziurtasunaren* guztiz berdina soilik, baizik eta gainera bere buruaz duen ziurtasunaren *tankera* dauka, edo bere hor-izatean, hau da, dakien gogoarentzat norberari buruzko jakitearen *forman* da. Erlijioan oraindik bere ziurtasunetik ezberdina den *edukia* da egia. Baina berdintasun hori edukiak norberaren tankera lortzean datza. Horren bidez, zerizana bera den hori, hau da, *adigaia* hor-izatearen osagai edo *objektutasunaren forma* bihurtu da kontzientziarentzat. Osagai horretan kontzientziari *agertzen zaion* edo, hemen gauza bera dena, halako osagaian kontzientziak ekoizten duen gogo *jakintza* da.

220

Jakite horren izaera, unek eta higidura, orduan, horrelakoak dira, non jakite hori autokontzientziaren *berbaitarako izate* hutsa baita; *Ni hori* den eta inolako beste *Ni* ez den *Nia* da, eta era berean bitartegabe *Nia bitartekotu* edo gainditutako *Nia orokorra* da. Niak bere baitatik *berreizten* duen *edukia* dauka; izan ere, negatibotasun hutsa edo bere burua bikoiztea da; *kontzientzia* da. Eduki hori bere bereizketan bertan *Nia* da, zeren bere burua gainditzearen higidura baita, edo *Nia* den negatibotasun huts hori bera. Hor, bereizia den aldetik, *Nia* bere baitara islatzen da;

edukia honen bidez baino ez da *aditzen*, hots, Nia beste izatean bere barnean mantentzen delako. Eduki hori, zehazkiago adierazita, oraintxe bertan aipatutako higidura bera besterik ez da; izan ere, higidura hori bere burua eta, hain zuzen, *berez gogo gisa* zeharkatzen duen gogo da, alegia, adigaiaren tankera bere objektutasunean daukalako.

Baina adigai horren *hor-izateari* dagokionez, *jakintza ez* da agertzen denboran eta errealitatean gogo bere buruari buruzko kontzientzia horretara ailegatu ez den bitartean. Ez da existitzen lehenago zer den dakien gogo bezala, eta inon ez da existitzen harik eta bere lana bukatu arte, hots, bere tankeratze osatugabea azpiratzea, bere kontzientziari bere zerizanaren tankera ematea eta, horrela, bere *autokontzientzia* bere *kontzientziarekin* berdintzea. Bere baitan eta bere baitarako den gogo, bere uneetan bereiztuta, *berbaitarako* den jakitea da, *aditza* oro har, aditza den aldetik *substantzia* oraindik lortu ez duen aditza, edo bere baitan jakite absolutua ez den aditza.

Errealitatean substantzia jakilea hor dago bere forma edo bere adigai-tankera baino lehenago. Izan ere, substantzia *berbaitan* garatugabea da, edo oinarria eta adigaia da oraindik higitu ez den sinpletasunean, eta beraz, oraindik *hor ez dagoen barnekotasuna* edo gogoaren norbera. *Hor dagoena* oraindik garatugabeko simpledena eta bitartegabe-dena bezala da, edo kontzientzia *errepresentatzailearen* objektua bezala oro har. Ezagutzeak, gogo-kontzientzia izanik (zeinarentzat *bere baitan* den hori *norberarentzako izate* eta *norberaren izate* edo adigaia den heinean soilik den), arrazoi horregatik hasieran objektu urri bat besterik ez dauka, zeinaren aurrean substantzia eta horren kontzientzia aberatsagoak diren.

221

Substantzia horrek kontzientzia horretan daukan ageritasuna egiatan ezkututasuna da, zeren substantzia oraindik *norberarik ez duen izatea* baita, eta nabari dena bere buruaren ziurtasuna besterik ez da. Horregatik, substantziarik leherrik *une abstraktuak* soilik dagozkio *autokontzientziari*; baina une horiek, higidura hutsak diren aldetik, aurrera egiten duten heinean, autokontzientzia aberastu egiten da, harik eta horrek kontzientziari substantzia osoa kentzen dion arte, harik eta substantziaren zerizantasanen eraikin osoa bere barnera xurgatu egin duen arte, eta (objektutasunarekin duen jokaera negatibo hori era berean positiboki ezartze-ekintza den heinean) harik eta une horiek bere baitatik sortu dituen eta, horrela, kontzientziarentzat aldi berean berriro ekoiztu dituen arte. Bere burua adigaia dela dakien *adigaiaren* uneak *betetako osokian* baino lehenago agertzen dira, zeinaren bilakaera une horien higidura den. *Kontzientzian*, aldiz, osokia, oraindik aditua izan ez dena, uneak baino lehenago agertzen da. *Denbora hor dagoen* eta begiespen hutsa bezala kontzientziari aurkezten zaion *adi gaia* bera da; horregatik, gogo nahitaez denboran agertzen da, eta denboran agertzen da, harik eta bere adigai hutsa *atzematen* duen arte, hau da, denbora ezabatzen duen arte. Denbora *kanpoko* norbera begietsia da, norberak *atzeman ez* duen norbera hutsa, begietsia baino ez den adigaia da; adigaiak bere burua atzematen duenean, bere denbora-forma gainditzen du, begiestea aditzen du, eta aditua den eta aditzen duen begiestea da. Denbora, beraz, bere barnean osatu ez den gogoaren patua eta beharrezkotasuna da; hots, autokontzientziak kontzientzian daukan zatia aberasteko beharrezkotasuna, *berbaitanaren bitartegabekotasuna* (substantziak kontzientzian egoteko duen forma) higiarazteko beharrezkotasuna, edo, alderantziz, berbaitana, *barneko-dena* bezala

hartuta, *barnekoa* baino ez den hori gauzatzeko eta agerarazteko beharrezkotasuna, hau da, bere buruaz duen ziurtasuna aldanikatzekoa.

222

Arrazoi horregatik esan behar da *esperientzian* ez dagoen ezer ezin dela *jakin*; edo, gauza bera dena, adierazten den moduan esanda, *sentitutako egia* bezala, *barnean agertutako* betiko-dena bezala, *sinetsitako* santu-dena bezala, edo erabili nahi den beste edozein adierazpen erabiltzen dela ere, eskura ez dagoen hori ezin da jakin. Izan ere, esperientzia, hain zuzen, hau da: edukia *bere baitan* (eta edukia gogo da) substantzia dela, eta, beraz, *kontzientziaren objektua* dela. Baina gogo den substantzia gogoaren *bilakatzea* da, *bere baitan* den hori izatera iristeko; eta bere baitara islatzen den bilakaera bezala baino ez da hori bere baitan egiatan *gogoa*. Gogo bere baitan ezagutzea den higiduran datza: *berbaitan* haren eraldaketa *berbaitarakoan*, *substantzia subjektuan*, *kontzientziaren objektua autokontzientziaren objektuan*, hau da, era berean gainditutako objektu denean, edo *adigaian*. Higidura hori bere baitara itzultzen den zirkulua da, bere hasiera auresuposatzen duena eta hasiera hori amaieran baino lortzen ez duena. Beraz, gogo nahitaez bere barnean ezberdintze hori den heinean, bere osoki begietsiak bere autokontzientzia sinpleari aurre egiten dio; eta osoki hori ezberdindutakoa denez, orduan ezberdina da bere adigai huts begietsian, *denboran*, eta edukian edo *berbaitanean*; *substantziak*, subjektu gisa, bere baitan *leherrik barneko beharrezkotasuna* dauka bere baitan aurkezteko *bere baitan* den bezala, *gogoa* bezala. Aurkezpen objektibo osatua aldi berean substantziaren erreflexioa da, edo substantzia norbera bihurtzea. *Bere baitan* osatua ez den bitartean, mundu-gogoa bezala osatua ez den bitartean, gogoak ezin du bere osotasuna lortu *bere buruaz jabetzen den gogo* bezala. Erljioaren edukiak, beraz, jakintzak baino lehenago adierazten du denboran *gogoa* zer den; baina jakintza soilik da gogoak bere buruaz duen egiatzko jakitea.

Bere buruaz duen jakitearen forma lantzeko higidura da gogoak *historia erreala* bezala osatzen duen lana. Erljio-elkartea, leherrik gogo absolutuaren substantzia den heinean, kontzientzia gordina da, zeinak are hor-izate basatiagoa eta gogorragoa daukan, bere barneko gogo sakonagoa den neurrian, eta bere norbera isilak are lan gogorragoa daukan bere zerizanarekin, bere kontzientziaren arrotza zaion edukiarekin. Kanpoko, hau da, arrotza den modu batean anotz-izatea gainditzeko itxaropena galdu duenean soilik itzultzen da bere baitara, bere mundu eta orainaldi propiora, zeren gainditutako modu arrotza autokontzientziaranzko itzulera baita; hori bere ondasuna dela topatzen du, eta horrela lehenengo urratsa egin du bere *adimenduzko mundutik* beheitzeko edo, hobeto, horren osagai abstraktua norbera errearen bidez gogo-bizitzeko. Behatzearen bidez, alde batetik, kontzientziak hor-izatea pentsamendu gisa aurkitzen du, eta hori aditzen du, eta, alderantziz, bere pentsamenduan hor-izatea aurkitzen du¹³.

223

Kontzientziak, pentsamenduaren *eta izatearen*, zerizan abstraktuaren eta norberaren arteko bitartegabeko *batasuna* leherrik modu abstraktu batean adierazi duen heinean, eta lehen argizko zerizana *modu hutsa go batean* berriro iratzani duen heinean, hau da, hedaduraren eta izatearen arteko batasuna¹⁴ bezala (izan ere,

¹³ Descartes (Itzultzaileen oharra: I.o.)

¹⁴ Spinoza (I.o.)

hedadura da pentsamendu hutsari berdinagoa zaion sinpletasuna, argia baino berdinagoa), eta, honela, pentsamenduan berriro *egunsentiaren* substantzia berriro iratzani duen heinean, gogoaldi berean *norberarik gabeko* substantziatasun horretatik aldentzen da, ikaratuta, eta indibidualtasuna baieztatzen du honen aurka¹⁵. Baina garapenean banakotasuna kanporatu, honela banakotasuna hor-izate bihurtu eta hor-izate guztietan banakotasuna ezarri duen arte, erabilgarritasunaren pentsamendura¹⁶ iritsi ez den arte eta askatasun absolutuan hor-izatea bere nahimen¹⁷ bezala ulertu ez duen arte, gogoak ez du erakusten bere sakonera barnekoenaren pentsamendua, eta zerizana Ni = Ni dela adierazten du¹⁸. Hala ere, Ni = Ni hori bere baitara islatzen den higidura da; izan ere, berdintasun hori, negatibotasun absolutu gisa, bereizketa absolutua den heinean, orduan Niak bere buruarekin duen berdintasuna bereizketa huts honi aurkakotzen zaio, zeina bereizketa huts eta aldi berean bere burua dakien norberarentzat objektiboa den bereizketatzat jo behar den, *denboratzat* jo behar den; halako moldez non, lehenago zerizana pentsamenduaren eta hedaduraren arteko batasuna dela adierazi zen modu berean orain pentsamenduaren eta denboraren arteko batasuna dela ulertu beharko bailitzateke; baina bere buruaren eskutan geratu den bereizketa, lasaitasunik eta geldiunerik ez duen denbora bere baitan hondoratzen da; *hedaduraren* lasaitasun objektiboa da, eta hori bere buruarekiko berdintasun hutsa da, Nia. Edo Ni ez da norbera bakanik, baizik eta *norberak bere buruarekin duen berdintasuna*. Hala ere, berdintasun hori bere buruarekin duen batasun osatua eta bitartegabekoa da, edo *subjektu hori* era berean *substantzia* da¹⁹. Substantzia bere baitarako soilik edukirik gabeko begiestea da, edo eduki baten begiestea izango zena, zeinak, determinatu gisa, akzidente-izaera baino ez lukeen edukiko eta beharrezkotasunik ez lukeen izango; substantziak *batasun absolututzat* pentsatu edo begietsiko litzatekeen neurrian baino ez luke balioko absolututzat, eta eduki oro bere ezberdintasunaren arabera batasunetik at kokatu beharko litzateke erreflexioan, zeina substantziari ez dagokion, substantzia subjektua izango ez litzatekeelako, bere buruari buruz eta bere burua bere baitan erreflexionatzen duena izango ez litzatekeelako, edo gogo gisa aditu izango ez litzatekeelako. Inoiz eduki bati buruz hitz egitekotan, hein batean, hori absolutuaren amildegi huts-hutsera jaurtitzeko izango litzateke, eta, hala ere, beste hein batean, sentipenezko hautemapenetik aterako litzateke kanpotik; itxuraz jakitea gauzetara, bere buruarekiko bereizketara, eta gauza anitzen bereizketara iritsi da, nola eta nondik iritsi den aditu gabe.

224

Baina gogoak erakutsi digu ez dela autokontzientziak bere barnekotasun hutsera egiten duen itzulera soila²⁰, ezta autokontzientzia substantzian eta bere bereizketaren ez-izatean hondoratze soila ere²¹; baizik eta gogoari norberaren *higidura hau* da, bere burua bere baitatik kanporatzen duen eta bere burua bere substantzian hondoratzen duen norberarena, eta, era berean, subjektu gisa, substantziarik bere baitara joan den eta substantzia objektu eta eduki bihurtzen duen norberarena,

¹⁵ Leibniz (I.o.)

¹⁶ Ilustrazioa (I.o.)

¹⁷ Rousseau eta Kant (I.o.)

¹⁸ Fichte (I.o.)

¹⁹ Schelling (I.o.)

²⁰ Fichte (I.o.)

²¹ Schelling (I.o.)

objektutasunaren eta edukiaren arteko bereizketa hori gainditzen duen heinean. Bitartegabekotasunetik kanpora egiten den lehenerreflexio hura subjektuak bere burua bere substantziatik ezberdintzeko ekintza da, edo bere burua bikoizten duen adigaia, Ni hutsaren barnera joatea eta hori bilakatzea. Bereizketa hori Ni = Ni-aren egite hutsa den heinean, adigaia substantzia bere zerizantzat daukan eta berez irauten duen *hor-izatearen* beharrezkotasuna eta goratzea da. Baina hor-izateak berez irautea bere determinazioan ezarritako adigaia da eta, horrenbestez, *bere baitan* duen higidura, hau da, substantzia sinplera behehitzekoa, zeina negatibotasun eta higidura hori bezala baino ez den subjektu. Niak ezin du iraun *autokontzientziaren forman* substantziatasunaren eta objektutasunaren formaren aurka, bere kanporatzearen aurrean beldurra edukiko balu bezala (gogoaren indarra bere kanporatzean bere buruarekiko berdin mantentzea da eta, berbaitan eta berbaitarako den hori den aldetik *berbaitarako izatea* une bezala bakarrik ezartzea, berbaitan izatea ezarria den modu berean); Nia ez da *hirugarren* bat ere, bereizketak absolutu-denaren amildegira jaurtitzen dituen eta hor haien berdintasuna adierazten duena; baizik eta jakitea batez ere itxurazko ekimengabezia honetan datza, alegia, berezia den hori bere baitan nola higitzen den eta bere batasunera itzultzen den aztertu besterik egiten ez duena.

225

Jakitean, bada, gogoak bere tankeratzearen higidura amaitu du, hori kontzientziaren gaintitu gabeko bereizketei lotuta dagoen heinean. Bere hor-izatearen osagai hutsa erdietsi du, adigaia. Edukia bere *izatearen askatasunaren* arabera bere burua kanporatzen duen norbera da, edo bere burua jakitearen batasun *bitartegabekoa*. Kanporatze horren higidura hutsak osatzen du, edukiari dagokionez, edukiaren beraren *beharrezkotasuna*. Eduki ezberdina, *determinatu* gisa, harremanean dago, ez da bere baitan, eta bere urduritasuna bere burua gaintitzean datza, edo *negatibotasunean*; hau da, beharrezkotasuna edo ezberdintasuna da, izate askea eta era berean norbera; eta norberaren *forma* honetan, non hor-izatea bitartegabe pentsamendu den, edukia *adigai* da. Orduan, gogoak adigaia lortu duen heinean, hor-izatea eta higidura bere bizitzaren eter horretan zabaltzen ditu, *etajakintza* da. Bere higiduraren uneak ez dira agertzen aurrerantzean horretan *kontzientziaren tankera* jakin batzuk bezala; baizik eta kontzientziaren bereizketa norberarengana itzuli denez, *adigai determinatuak* bezala agertzen dira, eta bere barnean oinarrituta dagoen horien higidura organikoa bezala. Gogoaren fenomenologian une bakoitza jakitearen eta egiaren arteko bereizketa eta hori gaintitzen duen higidura bada, orduan jakintzak, aitzitik, ez du bereizketa hori eta horren gaintitzea barnebiltzen, baizik eta uneak, adigaiaren forma duen heinean, egiaren eta norbera jakilearen forma objektiboa batzen ditu bitartegabeko batasunean. Unea ez da agertzen hona eta hara joateko higidura hori bezala, kontzientziarik edo errepresentaziotik autokontzientziara eta alderantziz; baizik eta bere tankera hutsa, kontzientzian bere agerpenetik askatuta, adigai hutsa eta honen aurrerapena bere *determinatutasun* hutsaren esku baino ez dago. Alderantziz, jakintzaren une abstraktu bakoitzari agertzen ari den gogoaren tankera bat dagokio. Baden gogo hori baino aberatsagoa ez den modu berean ez da txiroagoa ere edukian. Jakintzaren adigai hutsak kontzientziaren tankeren forma honetan berrezagutzeak osatzen du bere errealitatearen alderdia, zeinaren arabera bere zerizanak, horretan bere bitartekotasun *sinplean pentsatze* gisa ezarrita dagoen

adigaiak, bitartekotasun honen uneak apartatzen dituen eta barneko aurkakotzaren arabera aurkezten dizkion bere buruari.

Jakintzak bere barnean du bere burua adigai hutsaren formari kanporatzeko beharrezkotasun hori, eta adigaitik kontzientziara igarotzekoa. Izan ere, bere burua dakien gogo, hain zuzen, bere adigaia atzeman duelako, bere buruarekiko bitartegabeko berdintasuna da, zeina bere bereizketan *bitartegabe-denaren ziurtasuna* den, edo *sentipenezko kontzientzia*, gure abiapuntua izan zena; bere norberaren forma uzteko ekintza hori da bere buruaz duen jakitearen askatasun eta segurtasun gorena.

226

Baina kanporatze hori oraindik osatugabea da; bere buruaren ziurtasunak objektuarekin duen *harremana* adierazten du, zeinak, hain zuzen, harremanean dagoelako, ez duen lortu bere askatasun osoa. Jakiteak bere burua ez ezik, gainera, bere buruaren negatibo-dena ezagutzen du, edo bere muga. Bere muga ezagutzeak esan nahi du bere burua eskaintzen jakitea. Eskaintza hori kanporaketa da, non gogoak gogo bilakatzea *ausazko gertaera askearen* forman aurkezten duen, bere *norbera* hutsa horretatik at dagoen *denbora* gisa eta, era berean, bere *izatea* espazio gisa begietsiz. Bere azken bilakatze hori, *natura*, bere bitartegabeko bilakatze bizia da; natura, kanporatutako gogo, bere hor-izatean bere *iraupenaren* eta *subjektua* osatzen duen higiduraren betiko kanporatze hori besterik ez da.

Baina bere bilakaeran beste alderdia, *historia*, bere burua *bitartekotzen* duen bilakatze *jakilea* da, denboran kanporatutako gogo; baina kanporatze hori, era berean, bere burua kanporatzea da; negatibodena bere buruaren negatibo-dena da. Bilakatze honek gogoen higidura eta ilara geldo bat aurkezten du, irudien erakusketa bat, bakoitza gogoaren aberastasun osoaz hornituta, hain zuzen, hain gutxi higitzen dena, norberak bere substantziaren aberastasun oso hori zeharkatu eta digeritu behar duelako. Bere osaketa *bera den* hori, bere substantzia, erabat*jakitean* datzanez, orduan jakite hori *bere barnera joatea* da, non berak bere hor-izatea uzten duen eta bere tankera oroitzapenaren esku uzten duen. Bere barnera joatean gogo bere autokontzientziaren gauean hondoratzen da, baina desagertu zen bere hor-izatea hor mantentzen da; eta gainditu den hor-izate hori (aurrekoa, baina jakitetik berriz jaio dena) hor-izate berria da, mundu eta gogo-tankera berri bat. Hor gogoak hasiera-hasieratik, bere bitartegabekotasunean, hasi behar du arduratu gabe eta horrik aurrera berriz hazi behar du, aurreko guztia galdu izan balitz bezala eta aurreko gogoen esperientziatik ezer ikasi ez balu bezala. Baina *oroitzapenak*²² gorde ditu aurreko gogoak; eta oroitzapena da barneko-dena eta egitatean substantziaren forma garaiena. Gogo horrek, orduan, bere garapena berriz hasiera-hasieratik hasten baldin badu, itxuraz bere baitatik baino abiatzen ez denez, aldi berean maila garaiago batetik hasten da. Hor-izatean eratzen den gogo-erresumak ilara bat halako moduan osatzen zuen, non batak bestea ordezkutzen baitzuen eta bakoitzak munduaren erresuma jasotzen baitzuen aurrekoaren eskutik. Bere helburua sakonera agerraraztea da, eta hori *adigai absolutua* da; agerkunde hori bere sakoneraren gainditzea da, edo bere *hedapena*, bere barnean den Ni horren negatibotasuna, zeina bere kanporaketa edo substantzia den; eta agerkunde hori bere *denbora* da, non kanporatze horrek bere burua kanporatzen duen, eta, horrela, bere hedapenean nahiz bere sakoneran den, norberean. *Helburua*, jakite absolutua, edo bere burua gogo gisa dakien gogoaren

²² *Er-Innerung* (ikusi lehen egindako oharra, l.o.).

bidea gogoen oroitzapena da, horiek nola diren euren baitan eta nola osatzen duten euren erresumaren antolamendua. Horiek ausazkotasunaren forman agertzen den hor-izate askearen arabera gordetzea historia da; aditzen den horien antolamenduaren arabera, aldiz, *agertzen den jakitearen jakintza* da; biek elkarrekin, aditutako historiak, osatzen du gogo absolutuaren oroitzapena eta hiltokia, bere tronuaren errealitatea, egia eta ziurtasuna; hori gabe bizitzarik ez duen bakartia izango litzateke; baina

Gogoen erresuma horren kalizatik

Apartsu dario bere amaigabetasuna²³.

²³ Schiller, «Die Freundschaft», 59-60 lerroak (l.o.).

ITZULTZAILEEN OHARRA

Itzulpen hau publikoari aurkeztea izugarrizko ausardia eta, agian, lotsagabekeria ere bada. Zergatik? Hegel alemana ez den beste hizkuntza batean ulertzea ia ezinezkoa delako. Eta alemanez ere, eta alemanentzat ere, Hegelen gogoeta-prozesua jarraitzea oso lan neketsua delako. Horregatik, Hegelen pentsamendua, eta lan hau, hainbat erataria interpretatu dira. Adornok zioen, adibidez, testua ezin dela ulertu aurretik Hegelen pentsamenduaren ideia orokorra ulertu gabe. Eta, bestetik, Hegel letreiatu egin behar dela esan zuen Gadamerrek. Beraz, osotasunari eta atomo bakoitzari begiratu behar aldi berean, hor dago koska.

Hegelek testua argitaratu zuenean hizkera filosofiko alemana oraindik ere garatzen ari zen (Hegeli Kanten hizkera «barbaroa» iruditzen zitzaion). Gainera, liburu hau ez dago aleman arruntean idatzita, baizik eta Hegelen hizkuntza propio edo idiolekto batean. Eta, gainera, askotan alemanaren gramatika-mugak gainditzen ditu. Hori batzuek negatiboki ulertu dute: Schopenhauerren ustez idazkera berezi honek hutsaltasuna baino ez du ezkututzen; eta beste batzuek positiboki: Bloch-en ustez Hegelek gramatikaren arauak apurtu behar ditu ordura arteko gramatikek adierazi ezin zutena adierazi nahi duelako, pentsamenduaren garapenak hizkuntzaren mugak zabaltzen dituelako. Eta hori da gure lanean ere izan dugun sentipen nagusia, oraindik osatua ez dagoen hizkuntza baten mugak, gure kasuan euskararenak, gainditu behar izan ditugula, onerako edo txarrerako.

230

Puntu konkretu batzuk aipatzekotan: elipsiak bana-barra egiten ditu Hegelek, askotan aditz laguntzailerik ez da agertzen; izenordeak erabiltzen ditu sarri, eta horiei lotutako izenak zein diren asmatzea ez da erraza gertatzen beti; nominalizazioak pilatzen dira eta asko erabat bitxiak dira (Horia, Haura, Gainera, eta abar). Hitz konkretuei dagokienez: asko pentsatu ondoren, *Geist* itzultzeko «gogo» erabili dugu, «espiritu» baztertuz; *aufheben* eta *Aufhebung* adigai nagusi eta errepikakorra itzultzea oso zaila da, Hegelen dialektikari oso lotua dagoelako (ezeztatu, mantendu eta goratu esan nahi du aldi berean), eta azkenean «gainditu» eta «gaindipen» erabili ditugu; *Ding* eta *Sache* arteko bereizketa «gauza» eta «gaia» erabiliz egin dugu, baina *Wirklichkeit* eta *Realität* azkenean ez ditugu bereizi; hainbat hitz-jokok arazoak sortzen dituzte: *Meinung* eta *mein* (iritzia, iritzi) eta *Mein* (Nire); *stellen* (kokatu), *vorstellen* (hor aurrean kokatu, hau da, errepresentatu) eta *verstellen* (tokiz aldatu, ezkutatu, desitxuratu); askotan ez da batere enaza izan lotuta dauden hitz-multzoen arteko harremana mantentzea: *Wesen*, *Wesenheit*, *wesentlich*, *Wesentlichkeit*, *Wesenlose*, eta abar; edo *Ansich*, *an sich*, *Ansichsein*, *Fürsich*, *für sich*, *Fürsichsein*, *Anundfürsichsein*, eta abar.

Hizkeraren berezitasun horrek, neurri batean, pentsamendu dialektikoarekin du zer ikusia. Hegelen pentsamoldeak kiribil forma du, negazioaren indarrak higitzen duen prozesu bat da: bitartegabe hor dena ezeztatzen da (*Dasein*), beste zerbait bihurtzen da, lehen zuen tankera hori barnean mantentzen duen izatea (*Sein*), eta, azkenik, zerbait berria sortzen da, izaera (*Wesen*). Edo, bere baitan dena bere baitatik

irteten da beste batentzat izateko eta, azkenik, bere baitara itzultzen da bere baitarako izatearen tankera hartuz. Eta prozesua berriz abiatzen da emaitza hori oinarri gisa hartuz.

Laburbilduz, ulermen eta interpretazio lan handia eskatu du itzulpenak leherrik (jatorrizko testua elkarrekin irakurri dugu itzultzaileok eta hainbat punturi buruzko eztabaidak izan ditugu, interpretazio «zuzena» zehaztearren), eta gero fideltasunaren eta egokitasunaren arteko oreka bilatzerakoan ere neke handiak izan ditugu. Gauzak horrela, gu Hegelen hizkera eta pentsamendua islatzen ahalegindu gara, eta gure asmoa ez da izan hizkera bitxi hori normalizatzea. Eta uste dugu sortu den euskarazko testua jatorrizkoa bezain bitxia izan daitekeela, baina ez bitxiagoa; hor ezarri genuen muga.

231

Hegelen hitz eta adigai berezienak azaltzeko eta gure itzulpenean hartu ditugun erabakiak justifikatzeko, liburuxka bat idatzi beharko genuke. Eta hori erabaki dugu. Hemen Hegelen testua eskaintzen dugu besterik gabe. Eta egunen batean, arazo horiek guztiak zehazki aztertzen dituen liburutxo bat argitaratuko dugu. Eta hori agian euskal hizkera filosofikoaren azterketa orokorrago baten testuinguruan egin beharko da.

Gure aurretik Hegelen testu hau itzuli duten guztiek izan dituzte antzeko arazoak. Begira Wenceslao Roces-ek, 1966an gaztelaniara lehenengoz itzuli zuenak (1935ean Xabier Zubirik zatitxo batzuk itzuli zituen), esaten duena: «Estoy absolutamente seguro de que una labor de esta naturaleza, por mucho que se aquilate, no puede alcanzar resultados satisfactorios en un primer y personal empeño. De que solo la crítica de muchos brindara los elementos necesarios para ir superando sobre la marcha, en un proceso de corrección y perfeccionamiento, el texto español que aquí se establece como punto de partida». Hala ere, hor adierazten dituen asmo horiek ez dira inoiz bete, eta gaurdaino itzulpen berbera berrargitaratu da zuzenketarik egin gabe. Itxuraz, orain ari dira prestatzen, 40 urte geroago, itzulpen berri bat. Bada, gureak ere abiapuntu izan nahi du, lehen ahalegina (itzela izan bada ere), baina ondoren etorriko diren beste batzuei hutsetik ez hasteko aukera emango diena.

Gure itzulpenerako «Suhrkamp» eta «Meiner» edizioak erabili ditugu. Hegel bera edizio berri bat prestatzeko lanetan hasi zen, baina orri gutxi batzuk besterik ez zituen berridatzi, heriotzak hanapatu baitzuen. Egin zituen zuzenketak kontuan hartu ditugu, baina ez ditugu bi aldakiak, berria eta zaharra, jaso; asmoa ez da izan edizio kritikoa prestatzea. Tarteka Hyppolite-k frantsesera egindako itzulpena eta A. V. Millerrek ingelesera egindakoa erabili ditugu (noizean behin Joan Leitak katalanera egindakoa ere bai; Rocesek gaztelaniara egindakoa ez zaigu oso lagungania iruditu) gure interpretazioa eta gure erabakiak beste proposamen batzuekin alderatu ahal izateko.

Xabier Insausti

Ibon Uribarri

Oharrak

1 Ediporen aipamena (itzultzaileen oharra).

2 Sofokles, *Antigona*, 926 lerroa.

3 Diderot, *Rameuas Neffe*, Goethek itzulita, 1805. [*Neveu de Rameau*, *Rameau-aren iloba*].

- 4 «Art» eta «in seiner Art gut» (itzultzaileen oharra).
- 5 Diderot, *Rameau-ren hiloba*. Ondoren datorren aipamena ere bai (itzultzaileen oharra).
- 6 Diderot, *Rameau-ren hiloba*.
- 7 Berlingo Zientzien Akademiak antolatutako norgehiagoka, d'Alambert-ek bultzatutakoa, Federiko II.ak antolatutakoa(1779).
- 8 Ikusi Kant, *Arrazoimen hutsaren kritika*, B 637; argudiaketa kosmologikoan «ustekeria dialektikoen kabi osoa» ezkututzen da (Euskaraz, Klasikoak, 472 or.).
- 9 Hitz-jokoa egiten du *Vorstellung* (errepresentazio) eta *Verstellung* (lerradura) hitzak erabiliz (itzultzaileen oharra).
- 10 Hitz-jokoa egiten du *Stellung* (kokapen) eta *Verstellung* (lerradura) hitzak erabiliz (itzultzaileen oharra).
- 11 Mekan dagoen harria (itzultzaileen oharra).
- 12 *Er-Innerung* idazten du, eta, beraz, oroitzapena esan nahi duen arren, barnera sartze bat dela azpimarratzen du hitzaren etimologia nabarmenduz (itzultzaileen oharra).
- 13 Descartes (Itzultzaileen oharra: I.o.)
- 14 Spinoza (I.o.)
- 15 Leibniz (I.o.)
- 16 Ilustrazioa (I.o.)
- 17 Rousseau eta Kant (I.o.)
- 18 Fichte (I.o.)
- 19 Schelling (I.o.)
- 20 Fichte (I.o.)
- 21 Schelling (I.o.)
- 22 *Er-Innerung* (ikusi lehen egindako oharra, I.o.).
- 23 Schiller, «Die Freundschaft», 59-60 lerroak (I.o.).

233

Aurkibidea

VI. GOGOA	7
VII. ERLIJIOA	147
VIH. JAKITE ABSOLUTUA	213
ITZULTZAILEEN OHARRAK	229
OHARRAK	233